

## Aarhuseko Hitzarmena

### Agiriak

Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea, herritarrek ingurumenari dagozkion erabakietan parte hartzeko duten eskubidea eta ingurumenari dagozkion auzietan justiziara jotzeko eskubidea bermatzen dituen nazioarteko hitzarmena, 1998ko ekainaren 25ean Aarhusen (Danimarka) sinatua.

en *Aarhus Convention*  
es *Convenio de Aarhus*  
fr *Convention d'Aarhus*

## abelazkuntza

→ **abeltzaintza**

## abeltzaintza

SIN: abelazkuntza

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Abereak zaintzeko lanbidea edo jardunbidea.

en *cattle raising; livestock breeding*  
es *ganadería*  
fr *élevage*

☞ **abeltzaintza ekologiko; gehiegizko larratze**

## abeltzaintza ekologiko

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Abereak ekoizteko sistema, sintesi-sistematik erabiltzen ez duena eta abereen ongizateari lehentasuna ematen diona. Arreta berezia eskaintzen zaie lurra-ekin loturiko ekoizpenari, elikadura ekologikoa eta bertakoa izateari eta abereen osasuna profilaxian, maneian eta arrazen selekzioan oinarritzeari, tratamendu halopatikokoak (ez-homeopatikokoak, hau da, albaitaritza ofizialekoak) saihesturik. Nekazaritza ekologikoaren osagarri funtsezkoa da, materiaren eta energiaren zikloak itxeko ezinbestekoa baita. Nekazaritza ekologikoak bezala, abeltzaintza ekologikoak ere kalitate handiko produktuak merkaturatzen ditu, eta bat egiten du garapen iraunkorraren filosofiarekin.

en *organic livestock farming*  
es *ganadería ecológica*  
fr *élevage biologique*

☞ **abeltzaintza; gehiegizko larratze; nekazaritza ekologiko**

## abiadura handiko tren (AHT)

*Zirkulazioa, garraioa*

Batez beste orduko 160 km-tik gorako abiaduraz dabilen trena, eta gehieneko abiadura orduko 250 km-tik gorakoa duena.

en *high-speed train*  
es *tren de alta velocidad (TAV)*  
fr *train à grande vitesse (TGV)*

☞ **trenbide**

## abifauna

SIN: hegazti-fauna

*Biosfera*

Leku edo garai bateko hegaztien multzoa.

en *avifauna; bird fauna*

es *avifauna*  
fr *avifaune*

## abiotiko

*Biosfera*

Bizirik gabea. Ekosistema batean, esaterako, bizidunak ez diren osagaiak edo horiei dagozkien faktoreak adierazteko erabiltzen da.

en *abiotic*  
es *abiótico*  
fr *abiotique*

☞ **biotiko; faktore abiotiko; faktore biotiko**

## abizida

*Produktuak, materialak*

Hegaztien kontrako pestizida.

en *avicide*  
es *avicida*  
fr *avicide*

☞ **pestizida**

## abrasio

*Litosfera*

Arroka, izotz eta abarren marruskaduraz lurra-aren gainazala eraztea.

en *abrasion*  
es *abrasión*  
fr *abrasion*

## absortzio

1 → **xurgapen**

2 → **xurgapen**

3 → **xurgapen**

## adbekzio

*Atmosfera*

Airearen higidura horizontala, beroa, ur-lurruna eta aire-masaren bestelako ezaugarriak ere garraiatzen dituena.

en *advection*  
es *advección*  
fr *advection*

☞ **konbekzio**

## adierazle

*Ikerkuntza, zientziak*

Aztertu nahi den fenomeno baten egoeraren gaineko informazioa ematen digun balioa, fenomeno hori nolabait adierazteko balio duen balioa alegia, behaketa bidez eskuratzen dena. Adierazleek informazioa kuantifikatu egiten dute era askotako datuak elkartuz, eta, ondorioz, informazioa laburbiltzeko balio dute. Laburbiltzeko gaitasun horrek aukera ematen du fenomeno konplexuak agerian jartzeko eta ulertzeko.

en *indicator*

es *indicador*  
fr *indicateur*  
👉 **ingurumen-adierazle**

## adierazle biologiko

➔ **adierazle ekologiko**

## adierazle ekologiko

SIN: adierazle biologiko

*Ikerkuntza, zientziak / Informazioa, bezkuntza, kultura, ingurumen-sensibilizazioa*

Esualde edo habitat bateko klima, lurzoru, poluzio eta abarren adierazgarri den organismoa. Gehienak kondizio ekologiko zorrotzetan bizitzera behartuta dauden bizidunak dira, eta, ondorioz, haien populazioa murrizteak edo desagertzeak ingurune-baldintzak aldatu egin direla adierazten du. Esate baterako, erreketan intsektu plekopteroek adierazten dute ur garbi eta oxigenatuak daudela.

en *biological indicator; ecological indicator*  
es *indicador biológico; indicador ecológico*  
fr *indicateur biologique; indicateur écologique*

👉 **kontrol biologiko**

## aditibo

SIN: gehigarri

*Produktuak, materialak*

Substantzia bati ezaugarriak hobetzeko edo ez dituenak hartzeko eranstean zaion substantzia. Elikagaietan, plastikoetan, erregaietan eta abarretan erabiltzen dira.

en *additive*  
es *aditivo*  
fr *additif*

## adsortzio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Solido baten gainazalean gas edo likido baten molekulak atxikirik gelditzea. Ikatz aktibatua adsortzio-propietate onak erabiltzen dira urari hondakin organikoak kentzeko.

en *adsorption*  
es *adsorción*  
fr *adsorption*

👉 **xurgapen**

## aerobiko

➔ **aerobio**

## aerobio

**1** Bizi ahal izateko, oxigenoa behar duen organismoa; oxigenoa dagoen ingurunean bizi daitekeen organismoa.

en *aerobe; aerobium*  
es *aerobio*  
fr *aérobie*

👉 **anaerobio**

**2** SIN: aerobiko

*Biosfera*

Bertan oxigenoa dagoela gertatzen den prozesu edo erreakzioa (adibidez, arnasketa aerobioa); bizitzeko, oxigenoa behar duena (adibidez, mikroorganismo aerobioa).

en *aerobe; aerobic; aerobium*  
es *aerobio; aerobio, -a*  
fr *aérobie*

## aerosol

**1**

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Gas edo gas-nahaste batean (airean, esaterako) esekita dauden partikula solido edota likidoek osatutako sistema egonkorra.

en *aerosol*  
es *aerosol*  
fr *aérosol*

**2** SIN: spray

*Produktuak, materialak*

Presiopean ontziraturako produktua, propulsaizaile batez eta bertan disolbatutako edo esekitako substantzia batez osatua. Ontziaren balbula sakatzean, propulsaizailea kanporatu egiten da, berekin delako substantzia arrastatuz; ondorioz, substantzia likido atomizatu, apar edo hauts moduan zabaltzen da. Duela urte gutxi arte, propulsaizaile erabilienak CFC produktuak izan dira.

en *aerosol; spray*  
es *aerosol; spray*  
fr *aérosol; spray*

👉 **klorofluorokarburu**

## aerosorgailu

➔ **haize-sorgailu**

## Agenda 21

*Legeak, arauak, hitzarmenak*

Rioko Konferentzian, 1992an, onartutako dokumentuetako bat. Ingurumenak, ekonomiak eta gizarteak batera jasateko moduko garapena lortzearen nola jokatu behar litzatekeen azaldu eta lehentasuna duten ekintza-programen zerrenda biltzen du. Rioko Konferentziazik 10 urtera, 2002an, Johannesburgen egin zen Garapen Jasangarriari buruzko Gailurrean, berretsi egin ziren Agenda 21en printzipioak.

en *Agenda 21*  
es *Agenda 21*  
fr *Agenda 21*

👉 **Eskolako Agenda 21; Tokiko Agenda 21**

## agente laranja

*Produktuak, materialak*

Estatu Batuetako armadak Vietnamgo gerran defoliantetzat eta uztak suntsitzeko erabilitako herbizida-nahastea. Dioxina-kantitate txikiak ere bazituen. Ondorioek gaur egun arte dira: agente laranja hondatutako basoek ez dute hosto berririk, eta pertsona askok eta geroztik jaiotako ume askok dioxinak eragindako malformazioak nozitu dituzte.

en *agent orange*  
es *agente naranja*  
fr *agent orange*

## agente tentsioaktibo

SIN: surfaktante

Uraren gainazal-tentsioa edo bi likido nahastezinen fasearteko tentsioa jaitzarazten duen substantzia. Garbigarri (xaboiak, detergenteak) eta emulsionatzaile gisa erabiltzen dira, batez ere.

en *surface-active agent; surfactant*  
es *agente tensioactivo; agente tensoactivo; surfactante*  
fr *agent de surface; agent tensoactif; surfactant*

## agresibitate

Kimika, substantziak, prozesuak

Urari buruz, kaltzio karbonatoa disolbatzeko duen ahalmena.

en *aggressivity*  
es *agresividad*  
fr *agressivité*

☞ **ur agresibo**

## agroekosistema

Biosfera / Ikerkuntza, zientziak

Nekazaritza-eremuetako ekosistema, baserri, alor, larre, lur landugabe, basabizitza eta abarrek osatua.

en *agroecosystem; agro-ecosystem*  
es *agroecosistema*  
fr *agroécosystème*

☞ **ekosistema**

## agroturismo

SIN: landa-turismo

Aisialdia, turismoa

Ingurune landatarrean egiten den turismoa.

Oharrak: 1) Ez da ekoturismoaren sinonimoa; turismoa non egiten den, ez nola egiten den, adierazten du. 2) Baserri-turismoa eta landa-turismoa ez dira sinonimoak, maiz halakotzat erabiltzen badira ere; baserri-turismoa landa-turismoa egiteko moduetako bat da.

en *agrotourism; rural tourism*  
es *agroturismo; turismo rural*  
fr *agrotourisme; tourisme rural*

☞ **baserri-turismo; ekoturismo; turismo**

## AHT

☞ **abiadura handiko tren**

## aintzira

SIN: laku

Hidrosfera

Ur geldia duen eremu iraunkor eta sakona, hondoan landare garaturik ez duena. Sakonera handia dela eta, azaleko ura udan berotzen den arren, sakoneko ura urte osoan hotz dago. Ibai baten ibilguaren zabalgunean erazten denari edo presa bidezko ur geldi artifizialari ere esaten zaio.

en *lake*  
es *lago*  
fr *lac*

☞ **ekosistema; estratifikazio; hezegune; urmael**

## aire

Atmosfera

Atmosfera osatzen duen gas-nahastea.

en *air*  
es *aire*  
fr *air*

☞ **airearen poluzio; atmosfera; berotegi-efektu; biosfera; euri azido; ozono-geruzaren urritze; poluzio; smog**

## aire girotu

Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua / Merkataritza, zerbitzuak

Barne batean giro egokia lortzeko, instalazio baten bidez halako tenperatura eta hezetasuna ematen zaion airea.

en *conditioned air*  
es *aire acondicionado*  
fr *air conditionné*

☞ **aire-girotze**

## airea girotzeko gailu

☞ **aire-girotzailu**

## airearen kalitate

Ingurumen-politika

Airearen garbitasunaren adierazgarri den parametroa, aireak dituen poluitzaileek pertsonen osasunean duten eragina eta sortzen dituzten bestelako sentazio, sintoma edo erreakzioak aire puruak sortzen dituenekin alderatuz zehazten dena.

en *air quality*  
es *calidad del aire*  
fr *qualité de l'air*

☞ **airearen poluitzaile; lurzorua kalitate; uraren kalitate**

## airearen kalitate-arauak

☞ **immisio-muga**

## airearen kalitate-irizpideak

Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza / Ingurumen-politika

Airearen kalitate-mailak bereizteko irizpideen multzoa, aireko poluitzaile bakoitzak kontzentrazio eta esposizio-denboraren arabera pertsonen osasunean sortzen dituen efektu kaltegarriak zehazten dituena. Airearen kalitate-arauak ezartzeko abiapuntua dira.

en *air quality criteria*  
es *criterios de calidad del aire*  
fr *critères de qualité de l'air*

## airearen kutsadura

☞ **airearen poluzio**

## airearen kutsatzaile

☞ **airearen poluitzaile**

## airearen poluitzaile

SIN: airearen kutsatzaile

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Giza jarduera edo prozesu natural baten ondorioz aineratu den substantzia poluitzailea, edo, aineratu ondoren, erreazio kimiko baten ondorioz substantzia poluitzailea eratzen duen substantzia. Airean disolbatutako gasak edo esekiduran dauden partikula solido zein likidoak izan daitezke. Kaltagarriak dira, aldaketa globalarekin zerikusi zuzena dutelako (karbono dioxidoak berotegi-efektuan; sulfuro-oxidoak smog azidoan eta euri azidoan; nitrogeno-oxidoak eta konposatu organiko lurrunkorrek smog fotokimikoa; CFCek ozono-geruzaren urritzean) edota toxikoak direlako.

en *air pollutant; atmospheric pollutant*  
es *contaminante atmosférico*  
fr *polluant atmosphérique; polluant de l'air*

☞ **airearen kalitate**

## airearen poluzio

SIN: airearen kutsadura; kutsadura atmosferiko; poluzio atmosferiko

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Airearen ohiko konposizioan ez dagoen substantziaren bat egoteak edo aireak berezko dituen osagai baten edo batzuen kontzentrazioa ohikoa baino handiagoa izateak sortzen duen poluzio-mota.

en *air pollution; atmospheric pollution*  
es *contaminación atmosférica; contaminación del aire; polución del aire*

fr *pollution atmosphérique; pollution de l'air*

☞ **berotegi-efektua; euri azido; industria; Kyotoko Protokoloa; ozono-geruzaren urritze; poluzio; smog**

## aire-girogailu

SIN: airea girotzeko gailu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua / Merkataritza, zerbitzuak*

Barne ez oso handi bateko airea girotzeko erabiltzen den gailua, instalazio osagarri behar ez duena.

en *air conditioner; air conditioning unit*  
es  *acondicionador de aire; aparato de aire acondicionado*  
fr *appareil de conditionnement d'air; conditionneur; conditionneur d'air*

☞ **aire-girotze**

## aire-girotze

*Merkataritza, zerbitzuak*

Barne bateko airearen tenperatura eta hezetasuna kontrolatu eta balio-tarte jakin baten barruan mantentzea, barne-giro egokia lortzearen.

en *air conditioning*  
es  *acondicionamiento de aire; climatización*  
fr *climatisation; conditionnement d'air; conditionnement de l'air*

☞ **eraikin gaixoaren sindrome; ozono-geruzaren urritze**

## aire-iragazki

SIN: gas-iragazki

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Gas batean, nagusiki airean, esekita dauden partikula solido edo likidoak bereizteko iragazkia.

en *air cleaner; air filter*  
es  *filtro de aire; filtro de gases*  
fr  *filtre à air*

☞ **iragazki elektrostatis**

## aireztapen

☞ **aireztatze**

## aireztatze

SIN: aireztapen

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Ingurune batean, uretan edo lurzoruan adibidez, airea sartzea. Uraren aireztapena zenbat eta handiagoa, hainbat azkarragoa da hondakin organikoaren degradazioa. Hori dela eta, hondakin-uren tratamenduan aireztapen aktiboa erabiltzen da.

en *aeration*  
es *aeración; aireación*  
fr *aération*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## aireztatze-tanga

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Ura airearen oxigenoarekin nahasteko sistema bat (irabiagailua edo aire-injekzioa) duen tanga, hondakin-uren tratamenduan materia organikoaren deskonposizio aerobioa egiteko erabiltzen dena.

en *aeration basin; aeration device; aeration tank; aerator*  
es *tanque de aireación*  
fr *aérateur*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## akarizida

*Produktuak, materialak*

Akaroen kontrako pestizida.

en *acaricide*  
es *acaricida*  
fr *acaricide*

☞ **pestizida**

## aktibitate handiko hondakin erradioaktibo

SIN: erradioaktibitate handiko hondakin

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak / Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Oso erradioaktibitate handia igortzen duen hondakina. Zenbaki atomikoa 1-65 eta 81-96 tartean duten elementu kimikoak dira, eta, batez ere, erreaktore nuklearraren gunean sortzen dira.

en *high-level radioactive waste*  
es *residuo de alta radiactividad; residuo radiactivo de alta actividad*  
fr *résidu hautement radioactifs*

☞ **hondakin erradioaktibo**

## akuifero

*Hidrosfera*

Geruza iragazkor edo porotsu urez ase, bere drainatzaile diren putzu eta iturriak hornitzeko behar adina ur-emari sortzen duena.

en *aquifer; water-bearing*  
es *acuifero*  
fr *aquifère*

👉 **lurpeko ur**

## akuikultura

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Birpopulatzeko, elikagaiak lortzeko edo ikertzeko, uretako animaliak edo landareak hazteko tekniken multzoa.

en *aquaculture; aquiculture*  
es *acuicultura*  
fr *aquaculture; aquiculture*

## aldaketa global

*Efektuak, eraginak*

Lur osora hedatzen diren prozesu naturalen aldaketen multzoa, jatorri naturalekoa (adibidez, sumendi-erupzioek eragindakoa) nahiz giza jarduerak eragindakoa (adibidez, erregai fosilak erretzeagatik sortua). Fenomeno bat global edo orokortzat hartzen da haren eragina mundu osora zabaltzen denean, adibidez berotegi-efektuko gasen isurpenak eragiten duen Lurraren berotzea.

Materiaren eta energiaren zikloen aldaketen ondorio da aldaketa globala, hau da, ziklo biogeokimikoen (karbono, oxigeno, nitrogeno, fosforo, sulfuro eta uraren zikloak) aldaketen ondorioa. Ziklo horien dinamikaren aldaketaren isla dira atmosferaren konposizio kimikoaren aldaketa, atmosferaren eta hidrosferaren poluzioa, euri azidoa, eutrofizazioa, ozono-geruzaren urritzea, berotze globala, itsasoaren maila igoetzea eta lurrazalaren landare-estalduraren aldaketak.

en *global change; global environment change*  
es *cambio global*  
fr *changement global*

👉 **berotegi-efektua; berotze globala; biodibertsitatea; euri azidoa; klima-aldaketa; ozono-geruzaren urritzea**

## alderantzizko osmosi

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Uren arazketan, mintz erdiragazkor batez bereizitako bi disoluzio izaki, disoluzio kontzentratuari presio osmotikoa baino presio handiagoa ezarri disolbatzailea kontzentrazio handiko disoluziotik txikiagokora igarotzea, disolbatzailea (ura) poluitzaileetatik bereiztearren.

en *reverse osmosis; reversed osmosis*  
es *ósmosis inversa*  
fr *osmose inverse*

👉 **hondakin-uren arazketa**

## aldizkako efektu

*Efektuak, eraginak*

Halako maiztasunaz gertatzen den ingurumen-efektua.

en *periodical effect*  
es *efecto periódico*  
fr *effet périodique*

👉 **ingurumen-efektua**

## aldizkako laginketa

SIN: aldizkako lagintze

*Ikerkuntza, zientziak*

Gai baten banako laginak aldian behin hartzen diren laginketa-mota.

Lagin-hartzeak ez du zertan maiztasun jakinik izan.

en *discrete sampling*  
es *muestreo intermitente*  
fr *échantillonnage intermittent*  
👉 **laginketa; laginketa jarraitu**

## aldizkako lagintze

👉 **aldizkako laginketa**

## alfa erradiazio

SIN: alfa izpi; alfa izpiak

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Alfa partikulaz osatutako erradiazioa, zenbait desintegrazio erradioaktibotatik igortzen dena. Materia zeharkatzeko duen ahalmena txikia da; lurrazalean, adibidez, oso gutxi barneratzen da, eta paper-orria nahikoa da erradiazioa geldiarazteko. Aldiz, alfa erradiazioa igortzen duen isotopoa organismoan sartzen bada (arnasaren bidez, irentsita edo odolak xurgatuta), ehunetan kalteak eragin eta minbizia sorraraz dezake. Alde horretatik, radona da ezagunena; arnasaren bidez barneratzen da, eta minbizia eragiten du biriketean.

en *alpha radiation; alpha rays*  
es *radiación alfa; rayos alfa*  
fr *radiation alpha; rayonnement alpha; rayons alpha*

👉 **desintegrazio erradioaktibo; erradioaktibitate; fisio nuklear**

## alfa izpi

👉 **alfa erradiazio**

## alfa izpiak

👉 **alfa erradiazio**

## alfa partikula

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Bi protoiz eta bi neutroiz osatutako karga positiboko partikula (helioaren konposizio bera du). Zenbait nukleo erradioaktiboren desintegrazioan eta fisio-erreakzioetan askatzen da.

en *alpha particle*  
es *partícula alfa*  
fr *particule alpha*

👉 **desintegrazio erradioaktibo; erradioaktibitate; fisio nuklear**

## alga

SIN: gorbel

*Biosfera*

Uretako landare talofitoa (sustrai, zurtoin eta hosto desberdindurik ez duena), ur gazi edo gezan murgilduta edo azal hezetan bizi dena eta klorofila duena. Ongarri, elikagai eta sendagaiak ekoizteko erabiltzen da. Mantenugai asko (ongarrien nitratoak, adibidez) dauden uretan, algak neurri zuzen gain hazten dira eta eutrofizazioa sortzen da.

Algetan, makroalgak eta alga zelulabakarrak bereizi behar dira. Makroalgak ez dute sustririk, baina substratuari atxikita agertu ohi dira.

en *alga*  
es *alga*  
fr *algue*  
👉 **eutrofizazio**

## algizida

## Produktuak, materialak

Algak hiltzeko erabiltzen den substantzia.

en *algicide*  
es *alguicida*  
fr *algicide*  
☞ **pestizida**

## alkalinotasun

### Hidrosfera

Urak edo ur-disoluzio batek azidoak neutralizatzeko duen ahalmena.

en *alkalinity*  
es *alcalinidad*  
fr *alcalinité*

## alkaterna

☞ **mundrun**

## aluminio

### Kimika, substantziak, prozesuak

Zenbaki atomikoa 13 duen elementu kimikoa (Al). Metal zurixka, arin, harikor eta xaflakorra da. Airean ez da herdoiltzen, azalean aluminazko geruza bat sortzen baita. Produktu asko egiteko erabiltzen da.

en *aluminium*  
es *aluminio*  
fr *aluminium*

☞ **birziklatze; curi azido; industria**

## amianto

SIN: asbesto

### Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Litosfera

Magnesio eta kaltzio silikato hidratatuz osatutako zenbait zuntz-mineral eta horietatik lortzen den zuntza. Erregaitza da, eta azidoek ez diote erasaten. Inhalazioz minbizia sortzen du, eta, hori dela eta, gaur egun legez debekatuta dago amiantoa ekoiztea, merkuratzea eta erabiltzea, bai erai-kuntzan (*uralita* ezaguna), bai panel isolatzaileetan, bai hodian fabrikazioan, bai aerosol moduan.

Hondakin gisa, toxikoa eta arriskutsua da amiantoa. Ezin da nahastu obrahondakinekin batera, eta aparte jaso behar da eraikinak botatzen direnean.

en *asbestos*  
es *amianto; asbesto*  
fr *amiante; asbeste*

## amoniako

### Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Kimika, substantziak, prozesuak

NH<sub>3</sub> formulako konposatua. Gas koloregabe da, usain bortitzekoa eta begiak narritatzen dituena. Nitrogenoaren zikloko konposatu garrantzitsua da. Petroliotik, gas naturaletik edo sintesiz lortzen da. Industria kimikoan erabiltzen da, bereziki azido nitrikoa eta ongarriak ekoizteko.

Amoniakoa toxikoa da arraintzat, baina kontzentrazio arriskutsuaren muga aldatu egiten da espezieetik espeziera. Gainera, uraren tenperatura eta pH-ak ere eragiten dute amoniakoaren toxizitatean. Adibidez, amoniakoa (NH<sub>3</sub>) etengabe aldatzen da amonio ioira (NH<sub>4</sub><sup>+</sup>), eta alderantziz, eta haietako bakoitzaren kontzentrazioa aldatu egiten da uraren tenperaturaren eta pH-aren arabera. Amoniakoa oso toxikoa da; amonioa, berriz, ez da ia bate-re kaltegarria. Uraren tenperatura eta pH-a zenbat eta handiagoak izan, orduan eta nitrogeno gehiago egongo da amoniako gisa.

en *ammonia*  
es *amoníaco; amoniaco*  
fr *ammoniac*  
☞ **amonifikazio; nitrifikazio; nitrogenoaren finkapen; nitroge-  
noaren ziklo**

## amoniako total

SIN: amoniakoaren guztizko

### Kimika, substantziak, prozesuak

Amoniako askearen, konbinatuaren eta amonio-ioien edukien batura, unitate bateragarritan adierazia.

en *total ammonia*  
es *amoníaco total*  
fr *ammoniac total*

## amoniakoaren guztizko

☞ **amoniako total**

## amonifikazio

SIN: amonizazio

### Kimika, substantziak, prozesuak

Lurzoruko mikroorganismo batzuek izaki bizidunen hondakin organikoetan (gorotza, gernua, izaki hilen hondakinak) dauden nitrogenodun konposatu organikoak amoniako bihurtzen dituzten prozesua. Hildako organismoen kasuan, lehenik, proteina eta azido nukleikoek hidrolisia gertatzen da. Emaitza aminoazidoak eta base nitrogenatuak dira, eta konposatu horiek bakterio-hartziduraz deskonposatzen dira, tartean aminak sortuz, eta, azkenean, amoniakoa emanez.

en *ammonification; ammonization*  
es *amonificación; amonización*  
fr *ammonification; ammonisation*

☞ **nitrogenoaren ziklo**

## amonizazio

☞ **amonifikazio**

## anaerobiko

☞ **anaerobio**

## anaerobio

### 1

#### Biosfera

Oxigeno askerik gabe bizi den organismoa.

en *anaerobe; anaerobic; anaerobium*  
es *anaerobio*  
fr *anaérobie*

☞ **aerobio**

### 2 SIN: anaerobiko

### Kimika, substantziak, prozesuak

Oxigenorik gabe gertatzen den prozesu edo erreakzioa (adibidez, hartzidura anaerobioa); oxigenorik gabe bizi dena (adibidez, bakterio anaerobioa).

en *anaerobic*  
es *anaerobio, -a*  
fr *anaérobie*

 **aerobio**

## antagonismo

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Organismo edo konposatu kimiko baten eragina beste organismo edo konposatu baten eraginez txikiagotzea edo ezereztatzea.

en *antagonism*  
es *antagonismo*  
fr *antagonisme*

## antimonio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 51 duen elementu kimikoa (Sb). Solido zuri zilarkarra eta hauskorra da. Estibinatik lortzen da. Antimonio hutsa ez da industrian ia erabiltzen, baina bai metal batzuekin (berun eta eztainuarekin bereziki) aleazioak osatuz, haien gogortasuna handitzeko. Toxikoa da.

en *antimony*  
es *antimonio*  
fr *antimoine*

## antizikloi

SIN: goi-presio

*Atmosfera*


Presioa altitude bereko inguruko eskualdeek baino handiagoa den atmosferako eskualdea.

en *anticyclone; high*  
es *alta; anticiclón*  
fr *anticyclone; hautes pressions*

## antrazita

*Produktuak, materialak*

% 90-98 karbono-edukia duen harrikatz-mota, gai lurrunkor gutxi duena (% 6-8). Solido beltz, distiratsu eta trinkoa da. Sugar urdin laburrez eta ia kerik gabe erretzen da. Berotze-ahalmenik handieneko harrikatza da (29-33,5 MJ/kg).

en *anthracite*  
es *antracita*  
fr *anthracite*  
 **harrikatz**

## antropiko

*Efektuak, eraginak*

Gizakiari zein gizakiaren ekintzei dagokiena.

en *anthropic*  
es *antropico, -a*  
fr *antropique*

## antropogeno

*Efektuak, eraginak*

Gizakiaren eraginez sortua edo eratu.


en *anthropogenic*  
es *antropogénico, -a; antropógeno, -a*  
fr *antropogénique*

## arazketa

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin solido, likido edo gaseoso batek dituen poluitzaileak kentzea edo degradatzea. Bereziki, urari eta hondakin-urei dagokie.

en *purification*  
es *depuración*  
fr *épuration*

 **hondakin-uren arazketa; uraren arazketa**

## arazketa aerobio

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ura tratatzeko -arazteko- sistema biologikoa, oxigenoa behar duten bakterioen -bakterio aerobioen- bidez guzutzen dena (eragindako airezta-penarekin batera erabili ohi da).

en *aerobic treatment*  
es *depuración aerobia*  
fr *traitement aérobie*


 **arazketa anaerobio; arazketa biologiko**

## arazketa anaerobio

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ura tratatzeko -arazteko- sistema biologikoa, oxigenoa behar ez duten bakterioen -bakterio anaerobioen- bidez guzutzen dena.

en *anaerobic treatment*  
es *depuración anaerobia; tratamiento anaerobio*  
fr *traitement anaérobie*

 **arazketa aerobio; arazketa biologiko**


## arazketa biologiko

SIN: hondakin-uren tratamendu biologiko; tratamendu biologiko

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uretako gai organikoak deskonposatzeko mikroorganismoek baliatzen den arazketa-mota. Mikroorganismoek gai organikoak degradatu eta asimilatu egiten dituzte (bakterio-hazkuntza gertatzen da).

en *biological purification; biological treatment; biological wastewater treatment*  
es *depuración biológica; tratamiento biológico; tratamiento biológico de aguas residuales*  
fr *épuration biologique; traitement biologique*

 **arazketa aerobio; arazketa anaerobio; iragazki biologiko; lohi aktibatu; urmael; urmaeleratze**

## arazketa fisiko-kimiko

SIN: tratamendu fisiko-kimiko

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Prozedura fisikoak (iragazpena, aireztapena..) eta kimikoak (koagulazioa, klorazioa..) konbinatzen dituen metodoa, ura arazteko erabilia.

en *physico-chemical purification; physico-chemical treatment*  
es *depuración físico-química; tratamiento físico-químico*  
fr *traitement physico-chimique*

 **hondakin-uren arazketa; uraren arazketa**

## arazketako lohi

SIN: hondakin-uren lohi; hondar-lohi

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin-uren arazketako eragiketen, bereziki dekantazio-prozesuen, emaitza den lohia. Lehen dekantaziotik lortzen direnei lohi primario deritze, eta bigarren dekantaziotik lortzen direnei lohi sekundario. Dekantazio-tangetatik ateratzen direnak (primarioak nahiz sekundarioak) lohi gordinak dira, eta, ondoren, tratatu egin behar izaten dira.

en *liquid sludge; purification sludge; residual sludge; sewage sludge*

es *lodo de aguas residuales; lodo de depuración; lodo residual*

fr *boue d'égout; boue d'épuration; boue résiduaire*

☞ **hondakin-uren arazketa; lohi; lohi aktibatu; lohien tratamendu**

## araztegi

1 ➔ **hondakin-uren araztegi**

2 ➔ **ur-araztegi**

## arkitektura bioklimatiko

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Ingurunearekiko energia-trukeak diseinu egokiaz eta bitarteko bakanak erabiliz optimizatzen dituzten eraikinak egitea helburu duen arkitektura.

en *bioclimatic architecture*

es *arquitectura bioclimática*

fr *architecture bioclimatique; architecture climatique*

## arma atomiko

➔ **arma nuklear**

## arma nuklear

SIN: arma atomiko

*Produktuak, materialak*

Nukleo atomikoaren fusio edo fisiotik askatzen den energia erabiltzen duten arma guztiz suntsitzailea.

en *atomic weapon; nuclear weapon*

es *arma atómica; arma nuclear*

fr *arme atomique; arme nucléaire*

☞ **energia nuklear**

## arrantza

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Itsasoko edota ur gezako arrainak eta beste animalia batzuk harrapatzeko jarduera edo lanbidea.

en *fishery; fishing*

es *pesca*

fr *pêche*

☞ **gehiegizko arrantza**

## arrantza-barruti

SIN: arrantza-esparru

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Ur-eremu mugatua, non arrantzaleek, baimena izanez gero, arrantza egin dezaketan urte-sasoi jakinetan (arrantza egiteko aldia mugatuta egoten

da, arrainen ugalketa eta kontserbazioa ziurtatzearen).

en *fishing preserve*

es *coto de pesca; vedado de pesca*

fr *réserve de pêche*

## arrantza-esparru

➔ **arrantza-barruti**

## arrezife

SIN: uharri

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Ur azpiko harri-multzoa. Uraren azaletik gertu egoten dira, eta, batzuetan, uraren azalaren gainetik ateratzen dira, nahiz eta sakonera handian ere aurkitu diren arrezifeak. Gehienetan, itsasertzetik gertu egoten dira. Ezagunenak eskualde tropikaletako koral-arrezifeak dira, kaltzio karbonatoz osatuak. Oso ekosistema aberatsak dira.

Itsasoko biodibertsitateari eusteko estrategiarik eraginkorrenetakoa da, gaur egun, arrezife artifizialak sortzea. Hainbat materialez (hormigoizko zilindroak, itsasontzi zaharrak, pneumatikoak..) eraiki daitezke arrezife artifizialak, eta ekosistema berriak sortzen dituzte urte gutxiren buruan. Itsasoko landarediarentzat eta faunarentzat mesedegarriak izateaz gainera, arrantzarako ere baliagarriak dira.

en *reef*

es *arrecife*

fr *récif*

☞ **ekosistema**

## arrisku

1

*Arriskuak, segurtasuna*

Ezbeharra edo kaltea dakarren zerbait gertatzeko probabilitatea.

en *bazard; risk*

es *riesgo*

fr *risque*

2

*Arriskuak, segurtasuna*

Pertsonen osasun nahiz biziari, ondasunei edo eraikin, lurzoru zein ingurumenari eraso edo kaltea gerta dakiekeen egoera.

en *danger*

es *peligro*

fr *danger*

☞ **arrisku onargarri; arriskuen azterketa; ingurumen-arriskuen ebaluazio**

## arrisku onargarri

*Arriskuak, segurtasuna*

Instalazio batean istripua gertatuz gero, sortutako kalteak legez edo hitzarmenez ezin gaindi dezakeen maila.

en *acceptable risk*

es *riesgo tolerable*

fr *risque acceptable*

## arriskuen azterketa

*Arriskuak, segurtasuna*

Substantzia, gertakari edo jarduera batek izaki bizidunen osasun



edota biziari nahiz ingurumenaren egoerari egin diezaiekeen kaltearen azterketa kuantitatibo edo kualitatiboa.

en *risk assessment*  
es *evaluación de riesgos*  
fr *évaluation du risque*

☞ **arrisku onargarri**

## arro hidrografiko

SIN: arro hidrologiko

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Jasotako ura ibai batera edo bestelako drainatze-sistema batera, akuifero batera adibidez, bideratzen duen lur-eremua.

en *catchment area; catchment basin; drainage area; drainage basin; hydrographic basin; river basin; watershed*  
es *cuenca de alimentación; cuenca fluvial; cuenca hidrográfica*  
fr *bassin d'alimentation; bassin hydrographique; bassin hydrologique; bassin-versant*

## arro hidrologiko

☞ **arro hidrografiko**

## arroka antzu

SIN: harri antzu

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak) / Litosfera*

Meatzaritzan, mea-zaina inguratzen duen arroka mineralizatu gabea, mearik gabea. Mea erazteko, arroka antzua kendu egin behar da, eta meazulotik atera behar izaten da. Gangarekin batera, meategiko-hondakindegian pilatzen da edo jadanik erabiltzen ez diren meazuloak betetzeko erabiltzen da.

en *dead rock; waste rock*  
es *estéril; roca estéril*  
fr *stérile*

☞ **ganga; mea; meategiko hondakindegia**

## artseniko

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 33 duen elementu kimikoa (As). Forma alotropikorik ohikoena solido gris hauskorra da. Arsenikoaren konposatuak (batik bat, As<sub>2</sub>O<sub>3</sub> eta arseniatoak) oso erabiliak dira industrian, bereziki pestizida, herbizida eta intsektizidak egiteko. Oso toxikoak dira. Arsenikoak minbizia eragin dezake azalean eta biriketean. Metal lurrunkorra da, eta errausketaren ondorioz sortzen diren hondakin-gasetan ager daiteke.

en *arsenic*  
es *arsénico*  
fr *arsenic*

## asbesto

☞ **amianto**

## asimilazio

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Bizidunek elikagaietatik lortzen dituzten substantziak beren zelularen osagai bihurtzeko prozesua. Landare berdeetan, fotosintesiaren eta sustraie-tatiko xurgapenaren bidez gertatzen da; animalietan, digestioaren eta xurgapenaren ondorengoa da.

en *assimilation*  
es *asimilación*

fr *assimilation*

## asimilazio-ahalmen

SIN: autoarazketa-ahalmen

*Hidrosfera*

Ibaiak edo itsasoak hondakin-urekin batera jasotzen dituen poluitzaileak ezabatze duen ahalmena.

en *assimilative capacity; self-purification capacity*  
es *capacidad de asimilación; capacidad de autodepuración*  
fr *capacité d'assimilation; capacité d'autoépuration*

☞ **autoarazketa; uraren poluzio**

## askotariko hondakinak botatze

☞ **isurpen misto**

## askotariko isurpen

☞ **isurpen misto**

## atari

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Substantzia kimiko baten efektu neurgarri jakin bat nabaritzen hasteko behar den dosi edo esposizio-mailarik txikiena.

en *threshold*  
es *umbral*  
fr *seuil*

## atari zabaleko meatzaritzza

SIN: lur gaineko meatzaritzza

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Lurraren azaletik hurbil dagoen mea ateratzeko metodoa. Mea ateratzeko, mearen gainean dagoen arroka, balio ez duena, erauzi eta atera egin behar da. Ingurumenaren gaineko eragin handia duen jarduera da: higadura, paisaiaren narriadura, hondakinak, uraren poluzioa, etab.

en *open pit mining; opencast mining; strip mining; surface mining*  
es *explotación de minas al aire libre; minería a cielo abierto*  
fr *exploitation minière à ciel ouvert*

☞ **lurpeko meatzaritzza; meatzaritzza**

## atmosfera

*Atmosfera*

Lurra inguratzen duen gasezko estalkia. Hari esker sortu eta garatu da bizia Lurraren gainazalean.

en *atmosphere*  
es *atmósfera*  
fr *atmosphère*

☞ **aire; berotegi-efektua; eguzki-erradiazio; estratosfera; exosfera; ionosfera; ozonosfera; troposfera**

## atomo-energia

☞ **energia nuklear**

## aurreklorazio

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua / Kimika, substantziak, prozesuak*

Hondakin-uren arazketan, tratatu gabeko urari egiten zaion klorazioa, bakterioak, landareak edo animaliak haztea eragozteko, usain txarra kentzeko, gai organikoak ez oxidatzeko eta flokulazioa nahiz dekantazioa errazteko.

en *prechlorination*  
es *precloración*  
fr *préchloration*

☞ **hondakin-uren arazketa; klorazio**

## aurretratamendu

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren arazketan, lehen tratamenduaren aurretik tamaina handiko gaiak, harea, koipea edo harriak kentzeko egiten diren eragiketen multzoa.

en *pretreatment*  
es *pretratamiento; tratamiento previo*  
fr *prétraitement*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## autoarazketa

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurune bateko poluzioa desagerrarazten duten prozesu naturalen multzoa.

en *natural purification; self-purification*  
es *autodepuración*  
fr *autoépuration*

## autoarazketa-ahalmen

➔ **asimilazio-ahalmen**

## autoekologia

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Ingurunearekin dituzten harremanak aztertzean, organismoak banaka hartzen dituen ekologiaren adarra. Organismo baten eta haren habitataren arteko erlazioak aztertzen ditu autoekologiak: organismoa inguruneari aurre egiteko nola moldatzen den eta ingurunearen aldaketak zenbateraino jasan ditzakeen, organismo horren jasamenaren mugak alegia.

en *autecology; autoecology*  
es *autecología; autoecología*  
fr *autécologie; auto-écologie; écologie de l'individu*

☞ **ekologia; sinekologia**

## autoklabe

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Produktuak, materialak*

Batez ere ospitaletako hondakinak esterilizatzeko erabiltzen den horma lodiko ontzi hermetikoki itxia. Barruan ur-lurrina presio handian dago, eta ontzia presio horren eraginez hermetikoki ixteko diseinututa dago. Ur-lurrina bera da esterilizazioaren eragilea.

en *autoclave*  
es *autoclave*  
fr *autoclave*

☞ **esterilizazio**

## automobil

*Zirkulazioa, garraioa*

Motor batek eraginik dabilen ibilgailua, eskuarki lau gurpilekoa eta lauzpabost bidaiari garraia ditzakeena.

en *car*  
es *automóvil; coche*  
fr *automobile; voiture*  
☞ **garraio**

## autosufizientzia-printzipio

*Legeak, arauak, hitzarmenak*

Leku batek bertan sortzen diren hondakinak kudeatzeko behar diren instalazio eta sistemak eduki behar dituela dioen printzipioa.

en *principle of self-sufficiency*  
es *principio de autosuficiencia*  
fr *principe d'autosuffisance*

## azal freatiko

➔ **maila freatiko**

## azaleko ur

SIN: lur gaineko ur

*Hidrosfera*

Lurraren azalean dabilen edo dagoen ura, hau da, aintzira, urmael, hezegune, urtegi, ibai edo ubide natural zein artifizialeakoa. Batzuetan, lur gaineko urak akuiferoen deskarga-urak dira, hau da, lurpeko uretan dute jatorria.

en *surface water*  
es *agua superficial*  
fr *eau de surface; eau superficielle*

## azido hipokloroso

*Kimika, substantziak, prozesuak*

HClO formulako konposatua. Azido ahul ezegonkorra da, oso oxidatzailea. Kloroa uretan disolbatzen denean eratzen da; kaltzio hipokloritoa, dikloroa, trikloroa eta kloro gasa, urarekin erreazionatzen dutenean, disoziatu egiten dira, eta disoziazio horren ondorioz eratzen da azido hipokloroso. Bakterioak eta bestelako mikroorganismoak hiltzeko gaitasuna du, eta ezpurutasun organiko eta ez-organikoak ezabatzen ditu. Batez ere, igerilekuetako ura desinfektatzeko erabiltzen da.

en *hypochlorous acid*  
es *ácido hipocloroso*  
fr *acide hypochloreux*

☞ **desinfektatzaile**

## azido klorhidriko

*Kimika, substantziak, prozesuak*

HCl formulako konposatua, hidrogeno kloruroaren ur-disoluzioa. Guztiz disoziatu dago eta azido sendoa da, oso korrosiboa. Industrian, metalak eta altzairuak desugertzeko, polibinil kloruroa fabrikatzeko eta abarretarako erabiltzen da. Medikuntzan, garatxoak, polipoak eta abar erretzeko erabiltzen da.

en *chlorhydric acid*  
es *ácido clorhídrico*  
fr *acide chlorhydrique*

## azido nitriko

Kimika, substantziak, prozesuak

HNO<sub>3</sub> formulako konposatua. Likido garden eta horixka da. Azido sendoa da, oxidatzaile bortitza, oso korrosibo eta toxikoa. Industrian oso erabilia; esaterako, altzairu herdoilgaitzaren desugerketan erabiltzen da. Ongarriak, koloratzaileak, lehergaiak eta abar egiteko ere erabiltzen da. Atmosferako bigarren mailako poluitzailea da: nitrogeno-oxidoak airean oxidatzen direnean eratzten da, eta euri azido izenekoa sortzen du.

en *nitric acid*  
es *ácido nítrico*  
fr *acide nitrique*  
☞ **euri azido**

## azido nitroso

Kimika, substantziak, prozesuak

HNO<sub>2</sub> formulako konposatua. Azido ahul eta ezegonkorra da, disoluzioan eta gas-forman soilik dagoena. Oxidatzailea eta erreduktorea da. Haren gatzak (nitritoak) askoz ere egonkorragoak dira, eta garrantzi handia dute.

en *nitrous acid*  
es *ácido nitroso*  
fr *acide nitreux*  
☞ **nitrito**

## azido sulfuriko

Kimika, substantziak, prozesuak

H<sub>2</sub>SO<sub>4</sub> formulako konposatua.

en *sulphuric acid*  
es *ácido sulfúrico*  
fr *acide sulfurique*  
☞ **euri azido; smog azido**

## azidotze

Kimika, substantziak, prozesuak

Ingurune bateko pH-a txikiagotzea. Ingurunera substantzia azidoak sartzen direlako edo bertan eratzten direlako gerta daiteke, esaterako uretara zuzenean azidoak isurtzen direnean edo edo euri azidoa gertatzen denean.

en *acidification*  
es *acidificación*  
fr *acidification*  
☞ **euri azido; smog azido**

## azpiproduktu

Produktuak, materialak

Fabrikazio-prozesu batean, ekoizti nahi den produktuaz landa, eratzten den gaia.

en *by-product*  
es *subproducto*  
fr *sous-produit*

## aztarna ekologiko

Baliabideak / Biosfera

Biztanle-multzo jakin batek (herri, estatu, banako, etab.) kontsumitzen dituen baliabide guztiak ekoizteko eta sortzen dituen hondakinak asimila-

tzeko behar den lur-zati eta ur-ekosistema emankorren azalera. Azalera hori adierazteko, *hektarea global/biztanle* unitatea erabili ohi da. Eskuarki, aztarna ekologikoa baliabide naturalen kontsumoaren eta Lurrak baliabide horiek leheneratzeko duen gaitasunaren arteko erlazioa zehazteko erabiltzen da.

en *ecological footprint*  
es *huella ecológica*  
fr *empreinte écologique*  
☞ **hektarea global**

## aztarna-elementu

1

Kimika, substantziak, prozesuak

Naturan, ingurune batean edo gai batean oso kantitate txikian dagoen elementu kimikoa, halako moldez non kontzentrazioa zehaztea ezinezkoa izan baitaiteke. Lurrazalari buruz, aztarna-elementutzat 1.000 ppm baino kontzentrazio txikiagoan daudenak hartu ohi dira (eskuarki, honako multzo honetakoak ez diren elementu guztiak: oxigenoa, silizioa, aluminioa, karbonoa, burdina, kaltzioa, magnesioa, sodioa, potasioa, titanioa, hidrogenoa, manganesoa eta fosforoa).

en *trace element*  
es *elemento traza*  
fr *élément en trace; élément trace*  
☞ **aztarna-gas**

## 2 ➔ oligoelementu

## aztarna-gas

Atmosfera

Airearen konposizioan oso proportzio txikian dagoen gasa.

en *trace gas*  
es *gas traza*  
fr *gaz trace*  
☞ **aztarna-elementu**

## babes bereziko eremu

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Europako Batasunaren Hegaztien Kontserbazioari buruzko 79/409 Zuzentarauaren arabera estatu kide bakoitzak bere eskumeneko lurraldean izendatutako natur gune babestuetako bakoitza ([www.euskadi.net/biodiversidad/natura\\_zepas\\_e.htm](http://www.euskadi.net/biodiversidad/natura_zepas_e.htm)). Babes bereziko eremuek Europako Natura 2000 sarearen parte dira.

! Zuzentzarautik kanpo erabiltzen denean eta zehaztu nahi denean, *hegaztientzako babes bereziko eremu* terminoa ere erabili ohi da.

en *special protection area (SPA)*  
es *zona de especial protección (ZEPA); zona de especial protección para las aves (ZEPA)*  
fr *zone de protection spéciale*  
☞ **natur gune babestu; Natura 2000**

## babes-labore

SIN: estaltze-labore

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Landare-estalki bat sortuz lurzorua higaduratik babesten duen laborrea.

! Adiera hertsia goan, labore nagusi batekin batera belar txarrak haz ez daitezten egi-  
ten den laborea, garaiera txikiko landarez osatua.

en *cover crop*

es *cultivo de cobertura; cultivo de protección*

fr *culture de couverture; culture de protection*

## Bacharach-en eskala

➔ **Bacharach-en ke-eskala**

## Bacharach-en ke-eskala

SIN: Bacharach-en eskala

*Ikerkuntza, zientziak*

Zuritik beltzera mailaz maila iluntzen diren bi plakaz osatua dagoen eskala. Haren bitartez, iragazki batek atxikitzen duen kearen opakotasuna neurtzen da.

en *Bacharach scale; Bacharach smoke scale*

es *escala de Bacharach*

fr *échelle de Bacharach*

☞ **iragazki**

## bahe

SIN: galbahe

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Zatiki solidoak tamainaren arabera bereizteko tresna, zatikiak diame-  
tro jakineko zuloak dituen pieza edo sare batetik igaroaraziz erabiltzen  
dena. Delako diametroa baino handiagoko zatikiak bahean gelditzen dira.

en *screen; sieve*

es *criba*

fr *crible; tamis*

☞ **bahe birakari**

## bahe birakari

SIN: trommel

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Metalezko xafla zulodun ez osatutako bahe zilindriko edo konikoa.  
Bere ardatzaren inguruan biratzen da, eta, indar zentrifugoaz baliaturik, zati-  
ki solidoak bereizi egiten ditu.

en *rotary screen; trommel*

es *criba rotativa; tambor rotativo; trómel*

fr *crible à tambour; crible rotatif; trommel*

☞ **bahe**

## bahetze

SIN: galbahetze

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak / Industria, lanbideak,  
teknologia, ekipamendua*

Gai edo hondakin-multzo baten aleak edo zatikiak tamainaren arabe-  
ra bahez edo bahe-sistema batez bereiztea.

en *screening; sieving; sifting*

es *cribado*

fr *criblage*

☞ **bahe**

## bakterio

*Biosfera*

Bizidun zelulabakarra, ageriko nukleo-mintzik gabea eta, eskuarki,  
zatiketa zelularrez ugaltzen dena.

en *bacterium*

es *bacteria*

fr *bactérie*

☞ **karbonoaren ziklo; nitrogenoaren ziklo; oxigenoaren ziklo**

## bakterio-ohantze

➔ **iragazki biologiko**

## bakterioplankton

*Biosfera*

Planktonaren parte diren bakterioen multzoa.

en *bacterioplankton*

es *bacterioplancton*

fr *bacterioplancton*

☞ **plankton**

## balantze hirukoitz

*Ekonomia, finantzak / Ingurumen-politika*

Enpresa edo erakunde baten jarduera ekonomiaren, ingurumenaren  
eta gizartearen ikuspuntutik neurtzen duen balantzea. Garapen jasagarria  
du helburu nagusia, eta hauek dira kontuan hartzen dituen alde nagusiak:  
enpresa edo erakundearen bideragarritasun ekonomikoa; enpresaren eran-  
tzukizun soziala, batez ere langileenganako eta kontsumitzaileenganako  
begirunean oinarritua; eta ingurumenari dion begirunea.

en *triple bottom line*

es *triple balance*

fr *triple bilan*

## baliabide berriztaezin

*Baliabideak*

Erabili ahal naturan berritzen ez den gai edo energia, petrolio ad-  
bidez.

en *non-renewable resource*

es *recurso no renovable*

fr *ressource non renouvelable*

☞ **baliabide berriztagarri; energia-baliabideak; energia-iturri**

## baliabide berriztagarri

*Baliabideak*

Toki eta une jakin batean erabili ondoren aldi bat, gutxi-asko laburra,  
igaro ondoren berriro erabil daitekeen baliabide naturala, zura adibidez.

en *renewable resource*

es *recurso renovable*

fr *ressource renouvelable*

☞ **baliabide berriztaezin; energia-baliabideak; energia-iturri**

## baliabide naturalak

SIN: natur baliabideak

*Baliabideak*

Naturan diren eta organismoek, populazioek eta ekosistemek beren

premiak asetzeko baliabideak ditzaketen gai edo energiak. Gizakien ikuspegitik, gizabanakoaren zein gizartearen beharrezko fisiologiko, sozioekonomiko eta kulturalak asetzeko nahitaezkoa den eta naturan dagoen edozein gai- edo energia-mota.

en *natural resources*  
es *recursos naturales*  
fr *ressource naturelles*

☞ **baliabide naturalen balioztapen; energia; energia-baliabideak; energia-iturri; gainpopulazio**

## baliabide naturalen balioztapen

SIN: natur baliabideen balioztapen

*Ingurumen-politika*

Baliabide naturalek giza ongizatean duten parte-hartzea neurtzea, haiei balioa esleitzea.

en *natural resource appraisal; natural resources appraisal*  
es *valoración de los recursos naturales*  
fr *estimation des ressources naturelles*

☞ **baliabide naturalak**

## baliarazte

SIN: balorizazio

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakinak zerbitutarako berriz erabiltzea. Bere baitan birziklatzea, berreskuratzea, berreraileak eta birsortzea biltzen dituen kontzeptu zabala da.

en *valorisation; valorization*  
es *valorización*  
fr *valorisation*

☞ **erresketa; hondakinaren energiaren berreskuratze**

## balorizazio

➔ **baliarazte**

## banadio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 23 duen elementu kimikoa (V). Fosforoaren antzeko metal zuria da, harikorra. Uretan ez da disolbatzen eta korrosioarekiko erresistentea da. Altzairu bereziak egiteko, zeramika-industrian koloratzaileak egiteko eta oxidazio-katalizatzaileak egiteko erabiltzen da. Metal gisa ez da bereziki toxikoa, baina itsasoko organismoetan metatu egin daiteke eta aminoazidoen eta beste konposatu batzuen sintesia inhibititu.

en *vanadium*  
es *vanadio*  
fr *vanadium*

## banaketa-faktore

*Ikerkuntza, zientziak / Kimika, substantziak, prozesuak*

Dosi baliokidearen kalkuluan, organismoan sartutako erradionuklidoen banaketa ez uniformea kontuan hartzeko erabiltzen den faktorea.

en *distribution factor*  
es *factor de distribución*  
fr *facteur de distribution*

☞ **dosi baliokide**

## bandera urdin

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Hondartzak edo portuak ingurumen-kalitate ona duela eta baliabide naturalek erabiltzeko orduan ingurumena zaintzen dela adierazten duen kolore urdineko bandera. Ekoetiketa bat da. Urtero ematen da, irizpideak urtez urte betetzen direla ziurtatzeko. FEE (Ingurumen Hezkuntzarako Fundazioa) gobernuz kanpoko erakunde nazioartekoak antolatuta eta kudeatzen du.

en *blue flag*  
es *bandera azul*  
fr *pavillon bleu*

☞ **ekoetiketa**

## bario

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 56 duen elementu kimikoa (Ba). Naturan konbinaturik dago beti, sulfato- eta karbonato-egoeran. Barioa eta haren deribatutako industria-prozesu eta -produktu askotan erabiltzen dira. Irensten direnean, bario-gatzak oso toxikoak dira (bario sulfatoa, ordea, disolbaezina da, eta, hori dela bide, ez du eragin larririk; digestio-hodiaren erradiografiak egiteko erabiltzen da, kontrastea handitzen duelako).

en *barium*  
es *bario*  
fr *baryum*

## barne-aire

➔ **barneko aire**

## barne-airearen kutsadura

➔ **barne-airearen poluzio**

## barne-airearen poluzio

SIN: barne-airearen kutsadura; barneko airearen kutsadura; barneko airearen poluzio

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Barne-airearen konposizioan airearen berezko osagai ez den substantziaren bat egoteak edo aireak berezko dituen osagai baten edo batzuen kontzentrazioa ohikoa baino handiagoa izateak sortzen duen poluzio-mota. Eragileak aireztapen desegokia, airea girotzeko instalazioak, desinfektatze-ko eta garbitzeko erabiltutako produktuak, eraikuntza- eta estaldura-materialak eta abar izan daitezke.

en *indoor air pollution*  
es *contaminación en lugares cerrados*  
fr *pollution atmosphérique intérieure*

☞ **barne-aire; eraikin gaixoaren sindrome**

## barne-errekuntzako motor

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Erregaiaren erretzen den gunea eta ondoriozko energia termikoa energia mekaniko bihurtzen den gunea bat bera diren errekuntza-motor mota. Adibidez, ibilgailuen eztanda-motorrak (gasolina-motora, Diesel motora) barne-errekuntzakoak dira.

en *internal combustion engine*  
es *motor de combustión interna*  
fr *moteur à combustion interne*

## barne-giro

➔ **barne-klima**

## barne-klima

SIN: barne-giro

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Barne bateko giroaren ezaugarrien multzoa (tenperatura, hezetasuna, aireztapena, argitasuna, zarata), bertan bizi edo lan egiten dutenengan eragina duena.

en *indoor climate*  
es *clima de interiores*  
fr *climat intérieur*

## barneko aire

SIN: barne-aire

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Barne itxi bateko (gela, areto, bulego, lantegi eta abarretako airea, kanpokoak ez bezalako tenperatura, hezetasun, aireztapen edota bestelako ezaugarri bereziak izaten dituena.

en *indoor air*  
es *aire interior*  
fr *air à l'intérieur des locaux*

## barneko airearen kutsadura

➔ **barne-airearen poluzio**

## barneko airearen poluzio

SIN: barne-airearen kutsadura; barne-airearen poluzio; barneko airearen kutsadura

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Barne-airearen konposizioan airearen berezko osagai ez den substantziaren bat egoteak edo aireak berezko dituen osagai baten edo batzuen kontzentrazioa ohikoa baino handiagoa izateak sortzen duen poluzio-mota. Eragileak aireztapen desegokia, airea girotzeko instalazioak, desinfektatze-ko eta garbitzeko erabilitako produktuak, eraikuntza- eta estaldura-materialak eta abar izan daitezke.

en *indoor air pollution*  
es *contaminación en lugares cerrados*  
fr *pollution atmosphérique intérieure*  
☞ **barne-aire; eraikin gaixoaren sindrome**

## barreiadura

1 SIN: difusio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Argi-izpiak leuna ez den azal batean islatzean edo ingurune zehar-argitsua zeharkatzean norabide askotan desbideratzea, osagai kolorebarkarretan banandu gabe.

en *diffusion*  
es *difusión*  
fr *diffusion*

2 ➔ **difusio**

## barreiapen

➔ **difusio**

## barrera biogeografiko

SIN: barrera ekologiko

*Biosfera*

Espezie baten banaketa-eremua zabaltzen uzten ez duen oztopoa. Geografikoa izan daiteke (mendiak, ibaiak, itsasoa...), klimatikoa (espezia-arentzat jasanezina den tenperatura, euri-kantitatea, lehortasuna...), edafikoa (lurzoruaren ezaugarri desegokiak) edo biotikoa (espezie zuhaitzarrentzat zuhaitzik gabeko eremua, adibidez).

en *biogeographical barrier; ecological barrier*  
es *barrera biogeográfica; barrera ecológica*  
fr *barrière biogéographique*

## barrera ekologiko

➔ **barrera biogeografiko**

## basa

➔ **lohi**

## basabizitza

*Biosfera*

Gizakiaren menpe bizi ez diren landare eta animalien multzoa (basa-fauna eta basafloa).

en *wildlife*  
es *vida silvestre*  
fr *vie sylvestre*  
☞ **CITES**

## Basafauna eta Basafloraren Galzoriko Espezieen Nazioarteko Merkataritzari buruzko Hitzarmena (CITES)

SIN: Washingtoneko Hitzarmena

*Agiriak*

Galzorian dauden espezieen, animalien zein landareen, merkataritza arautzeko eta kontrolatzeko nazioarteko hitzarmena, Washingtonen sinatua 1973ko martxoaren 3an.

en *Washington Convention (CITES); Convention on International Trade in Endangered Species of Wild Fauna and Flora (CITES)*  
es *Convenio de Washington (CITES); Convenio sobre el Comercio Internacional de Especies Amenazadas de Fauna y Flora (CITES)*  
fr *Convention de Washington (CITES); Convention sur le Commerce International des Espèces de Faune et de Flore Sauvages Menacées d'extinction (CITES)*

## basamortu

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Euri urriaren ondorioz, landare- eta animalia-populazio txikia duen lurralde lehorra. Urteko prezipitazio-kantitatea 200 mm-tik beherakoa izaten da, eta landareek lurzorua % 5 baino gutxiago estaltzen dute. Egunko eta gaueko tenperaturen artean alde handia izaten da. Lurrunketa eta higadura mekanikoa handiak dira.

en *desert*  
es *desierto*  
fr *désert*  
☞ **basamortutze**

## basamortutze

➔ **desertifikazio**

## baserri

SIN: basetxe

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak) / Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Landa-bakarturik dagoen etxea, nekazaritzarako eta abeltzaintzarako lurrak dituen. Euskal Herriko isurialde atlantikoan nekazaritzako ustiapen-unitate oinarrizkoa da.

en *farm*  
es *caserío*  
fr *ferme*

☞ **abeltzaintza; nekazaritza**

## baserri-turismo

*Aisialdia, turismoa*

Landa-inguruneetako baserri edo landetxeetan ostatu hartuz egiten den turismo-mota. Nekazaritza- edota abelazkuntza-jarduerak dituzten baserriak dira, ostalaritza jarduera osagarria baino ez dela. Turismo-mota honen helburua bikoitza da: batetik, nekazariari baserriko errenta eskasa osatzeko aukera ematea, landa-inguruneen garapenari lagunduz; bestetik, turistari tokiko ohiturak eta bizimodua ezagutzeko aukera ematea.

⚠ *Baserri-turismo* eta *landa-turismo* edo *agroturismo* ez dira guztiz sinonimoak, maiz hala erabiltzen badira ere; baserri-turismoa landa-turismoa egiteko moduetako bat da.

en *farmhouse holiday; tourism on the farm*  
es *turismo en casa de labranza*  
fr *tourisme à la ferme*

☞ **landa-turismo; turismo**

## basetxe

➔ **baserri**

## baso

SIN: oihan; saroi

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Zuhaitzak edota zuhaixkak nagusi diren landare-elkartea, ezaugarri mikroklimatiko, biologiko eta edafologiko bereziak dituena.

⚠ Berez, euskaraz *baso* eta *oihan* sinonimoak dira. Zenbaitetan komenigarria izaten da bere kasa hazten den baso naturalaren eta gizakiak guztiz gidatu eta kontrolatutako basoaren artean bereizketa egitea, erdaretan askotan egiten den bezala: *woodland (wood)/forest, bosque/selva, bois/forêt*. Horrelakoetan *baso/oihan* bereizketa erabili ohi da.

en *forest*  
es *bosque*  
fr *forêt*

☞ **baso epel; baso mediterraneo; baso-berritze; basogintza; baso-sartze; baso-sute; deforestazio; oihan tropikal idor**

## baso epel

SIN: oihan epel

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Zuhaitz hostoiraunkor edota, gehienetan, hostogalkorrez osatutako landaredia, klima epel eta euritsuko tokietan garatzen dena.

en *temperate forest; temperate woodland*  
es *bosque templado*  
fr *forêt tempérée*

☞ **baso; baso mediterraneo; ekosistema**

## baso mediterraneo

SIN: oihan mediterraneo

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Ezaugarri nagusizat hosto iraunkorreko zuhaitz txikiak dituen landaredi-mota, uda bero eta lehorreratu eta negu epeleko klima subtropikaletan hazten dena (Mediterraneoaren inguruko eskualdeetan, Kaliforniako itsasbazterrean eta Afrikako hegoaldeko zenbait tokitan, Txilen eta Australian). Baso mediterraneo hazten den eskualdeetan, prezipitazioa, urtean, 500 mm ingurukoa izaten da, oso modu irregularrean banatua urtean zehar eta, gehienetan, zaparradaka.

en *Mediterranean forest*  
es *bosque mediterráneo*  
fr *forêt méditerranéenne*

☞ **baso; baso epel; ekosistema**

## baso-berritze

SIN: berroihantze

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Lehen basoa izan den baina berez zein artifizialki soildu den lekuan zuhaitzak landatzea, edo hazia zuzenean ereitea basoa berriro sor dadin.

en *reafforestation; reforestation*  
es *reforestación; repoblación forestal*  
fr *reboisement; reforestation*

☞ **baso; basogintza; baso-sartze; deforestazio**

## basogintza

SIN: silbikultura

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Basoa ustiatzeko edota babesteko lanen multzoa.

en *forestry; silviculture*  
es *silvicultura*  
fr *sylviculture*

## baso-sartze

SIN: oihaneztatze; oihantze

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Lursail batean zuhaitzak edo zuhaixkak aldatzea edo hazia ereitea baso bihurtzeko.

en *afforestation*  
es *forestación; plantación forestal*  
fr *boisement*

☞ **baso; baso-berritze; basogintza; deforestazio**

## baso-soiltze

➔ **deforestazio**

## baso-sute

*Arriskuak, segurtasuna*

Basoa, sastrakadia, belardia edo, oro har, mendia hartzen duen hedadura handiko eta kontrolatu gabeko sua, askotan kalte ekologiko handia egiten duena.

en *forest fire*  
es *incendio forestal*  
fr *incendie de forêt*

## Batasunaren intereseko espezie

### Ingurumen-politika

Europako Batasunean, Habitat Naturalen eta Basafauna eta Basafloraren Kontserbazioari buruzko 92/43 Zuzentarauaren arabera (europa.eu.int/smartapi/cgi/sga\_doc?smartapi!celexapi!prod!CELEXnumdoc&lg=EN&numdoc=31992L0043&model=guichett), halakotzat hartzen dena.

en *species of Community interest*  
es *especie de interés comunitario*  
fr *espèce d'intérêt communautaire*

☞ **Batasunaren intereseko habitat natural mota; Batasunaren intereseko leku; espezie babestu; lehentasunezko espezie**

## Batasunaren intereseko habitat natural mota

### Ingurumen-politika

Europako Batasunaren Habitat Naturalen eta Basafauna eta Basafloraren Kontserbazioari buruzko 92/43 Zuzentarauaren arabera (europa.eu.int/smartapi/cgi/sga\_doc?smartapi!celexapi!prod!CELEXnumdoc&lg=EN&numdoc=31992L0043&model=guichett), bere banaketa naturaleko eremuan galzorian dagoena; edo berez eremu murriztekoa delako edo erregresioan dagoelako, banaketa naturaleko eremu txikia duena; edo eskualde biogeografiko alpetar, atlantiko, kontinental, makaronesiar edo mediterraneoaren berezko ezaugarrien adierazgarri nabarmena dena.

! Argitu beharra dago Batasunaren intereseko habitat naturalak ez direla habitat natural babestuak, baizik eta katalogatuak. Eta Habitaten Zuzentarauak zehazten du bermatu behar dela horrelako habitaten lagin batzuen kontserbazioa Europako Batasunaren eremuan, eta, horretarako, Natura 2000 sarean sartu behar direla. Hortaz, ulertu behar da lurralde jakin batean Batasunaren intereseko habitat bat edo batzuk egoteak ez dakarrela ezinbestek leku horretan haien kontserbazioa bermatu beharra.

en *natural habitat type of Community interest*  
es *tipo de hábitat natural de interés comunitario*  
fr *type d'habitat naturel d'intérêt communautaire*

☞ **Batasunaren intereseko espezie; Batasunaren intereseko leku**

## Batasunaren intereseko leku

### Ingurumen-politika

Europako Batasunaren Habitat Naturalen eta Basafauna eta Basafloraren Kontserbazioari buruzko 92/43 Zuzentarauaren arabera (europa.eu.int/smartapi/cgi/sga\_doc?smartapi!celexapi!prod!CELEXnumdoc&lg=EN&numdoc=31992L0043&model=guichett), dago(z)kion eskualde biogeografiko(et)an *Batasunaren intereseko habitat natural* bat mantendu edo berrezartzeko edo *Batasunaren intereseko espezie* bat kontserbazio-egoera onean mantentzeko biziki lagungarria den lekua, edota dago(z)kion eskualde biogeografiko(et)an biodibertsitatea mantentzeko biziki lagungarria dena.

en *site of Community importance*  
es *lugar de importancia comunitaria*  
fr *site d'importance communautaire*

☞ **Batasunaren intereseko espezie; Batasunaren intereseko habitat natural mota**

## baterako sorkuntza

SIN: bero eta elektrizitatearen baterako sorkuntza; kogenerazio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Energia-baliabide primario batetik bi energia erabilgarri mota (elektrikoa eta termikoa) ekoiztea, prozesu batean erabilgarria ez den hondar-energia beste prozesu batean erabiliz. Lehenengo, tenperatura eta presio handiko ur-lurrina turbinatik igaroarazten da, elektrizitatea lortzeko. Gero, ur-lurrina bero-trukagailura eramaten da, berokuntzako instalazioaren ura berotzeko.

en *CHP; cogeneration; combined heat and power system*  
es *cogeneración; producción combinada de electricidad y calor*  
fr *cogénération; production combinée électricité-chaleur*

☞ **zentral termiko**

## bateria

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Energia elektrikoa metatzeko aparatua, elkarri seriean nahiz paraleloan konektatutako zenbait metagailu, pila, kondensadore eta abarrez osatua. Bereziki, ibilgailuak energia elektriko hornitzeko erabiltzen den gailua, seriean konektatutako zenbait metagailuz osatua.

en *battery; electric battery; storage battery*  
es *batería*  
fr *batterie*

☞ **metagailu; pila elektrokimiko**

## batez besteko bizitza

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Substantzia erradioaktibo baten atomoak desintegratzeko batez beste behar den denbora. Erdibizitza baino 1,4142 aldiz handiagoa da.

en *average life; mean life*  
es *vida media*  
fr *vie moyenne*

☞ **erdibizitza**

## bazterkin

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Harrapatu ondoren itsasora botatzen diren arrainak. Besteak beste, txikiegiak direlako edo helburu-espeziekoak ez direlako botatzen dira.

en *discarded catch*  
es *descarte*  
fr *poissons rejetés*

## becquerel

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Aktibitate erradioaktiboaren Nazioarteko Unitate Sistemako unitatea (Bq). Nukleo erradioaktibo batek segundo batean zatiki bat igortzean duen aktibitatearen baliokidea da.

en *becquerel*  
es *becquerel*  
fr *becquerel*  
☞ **curie**

## behatutako efektu kaltegarririk gabeko maila

*Ikerkuntza, zientziak*

Esperimentu batean aztertutako substantzia bati dagokionez, saikuntzan antzematen den eragin kaltegarririk ez duen gehieneko kontzentrazioa. Maila horretan, litekeena da bestelako efektuak antzematea, baina



kaltegarritzat jotzen den efekturik ez.

en *NOAEL; no-observed-adverse-effect level*

es *nivel sin efecto adverso observado*

fr *niveau sans effet nocif observé; NSENO*

## behatzeko putzu

→ **piezometro**

## behin erabiltzeko ontzi

→ **ez itzultzeko ontzi**

## behin-behineko efektu

*Efektuak, eraginak*

Ingurumenean iraupen mugatuko aldaketa dakarren ingurumen-efektua, delako iraupena zehatz-edo kalkula daitekeela.

en *temporary effect*

es *efecto temporal*

fr *effet temporaire*

☞ **efektu iraunkor; ingurumen-efektu**

## bebingo lagin

SIN: lagin puntual

*Ikerkuntza, zientziak*

Une eta toki jakin batean behin egiten den lagina, ingurunearen konposizioa une eta toki horretan baino adierazten ez duena.

en *grab sample; snap sample; spot sample*

es *muestra fortuita; muestra instantánea; muestra puntual*

fr *échantillon localisé; échantillon ponctuel*

☞ **laginketa**

## beira

SIN: berina

*Produktuak, materialak*

Substantzia solido, garden eta hauskorra, osagai beiratzaileria (silizea), egonkortzaileak (sodio edo potasio karbonatoa eta karea) eta abar dituen ore konplexu bat urtuz eta poliki hoztuz lortzen dena. Beirak aplikazio asko ditu, hala nola eraikuntzan (leihoak, ateak, ispiluak..), optikan, era askotako produktuak egiteko (edalontziak, platerak, bonbillak, zuntz optikoa..) eta kontsumo-produktuak ontziratzeko (botilak eta poteak).

Beira hiri-hondakin arrunta da, eta bereiz bildu behar da birziklatu ahal izateko. Beira % 100 birziklatzen da: beira birziklatuaren kilogramo bakoitzeko 1,2 kilogramo lehengai aurrezten dira, eta beira birziklatuaren tona bakoitzeko 130 kilogramo erregai aurrezten dira. Gaur egun, Europako Batasunean ontziak egiteko erabiltzen den beiraren % 60 inguru birziklatu egiten da, nahiz eta estatutik estatura alde handiak dauden.

en *glass*

es *vidrio*

fr *verre*

☞ **birziklatze**

## belardi

→ **estepa**

## belar-hiltzaile

→ **herbizida**

## belar-pozoi

→ **herbizida**

## bentos

*Biosfera*

Ur-ekosistema batean, dela itsasoan, dela ibaian, dela aintziran, hondoari atxikiak, eta hondoarekin harremanetan, bizi diren organismoen multzoa.

en *benthos*

es *bentos*

fr *benthos*

☞ **itsaso**

## bentzeno

*Kimika, substantziak, prozesuak*

$C_6H_6$  formulako hidrokarburo aromatikoa.

en *benzene*

es *benceno*

fr *benzène*

## berdeak

*Informazioa, bezkuntza, kultura, ingurumen-sentsibilizazioa*

Europako mendebaldeko zenbait estatutako (eta, geroago, munduko beste zenbait estatutako) alderdi politiko ekologistek emandako izena. Alderdi berdeen programaren ardatz nagusiak ingurumenaren defentsa eta babes, energia nuklearraren arbuioa eta bakezaletasuna dira.

en *greens*

es *verdes*

fr *verts*

☞ **mugimendu ekologista**

## berdegune

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Herrian edo hirian, belardi, lorategi edota zuhaitzez hornitutako esparrua, aisiarako zein kirolerako bereziki atondua.

en *green space; green zone*

es *zona verde*

fr *espace vert*

## bereizgailu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Gas-korronte batean esekita dauden zatiki solido edo likidoak bereizteko gailua (gas-iragazkia, iragazki elektrostatikoa, zikloia..).

en *separator*

es *separador*

fr *séparateur*

## bereizgailu magnetiko

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-nahaste bateko burdinazko gaiak bereizteko gailua, elektroiman batez hornitua.

en *magnetic separator*

es *separador magnético*

fr *séparateur magnétique*

## bereizgailu zentrifugo

↳ zikloi

## bereizketa magnetiko

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-nahaste bateko burdinazko gaiak eremu magnetikoen bidez bereiztea. Elektroimana erabiltzen da eremu magnetikoa ezartzeko.

en *electromagnetic sorting; magnetic separation*

es *separación magnética*

fr *séparation magnétique; tri électromagnétique; tri magnétique*

## berilio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 4 duen elementu kimikoa (Be). Naturan konbinaturik soilik aurki daiteke (berilo mineralean, bereziki). Erreaktore nuklearreran, aleazioetan eta espaziontzen materialetan erabiltzen da, eta erregai fosilen errektuzaren ondorioz aireatzen da batik bat. Arnasten denean, biriketan metatzen da, eta beriliosia eragiten du. Hezurrei ere erasaten die.

en *beryllium*

es *berilio*

fr *béryllium*

↳ **beriliosi**

## beriliosi

*Osasuna, nutrizioa*

Berilioak eragindako intoxikazioa, pneumonia akutua edo nagusiki birikei erasaten dien granulomatosa dakartzana. Berilio-konposatu edo -aleazioen hautsak arnasteagatik gertatzen da, batez ere.

en *berylliose*

es *beriliosis*

fr *berylliose*

↳ **berilio**

## berina

↳ beira

## bermikonpostaje

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Hondakin organikoen transformazio kontrolatua egiteko, lur-zizareak erabiltzen dituen konpostaje-teknika.

en *composting with earth-worms; vermicomposting*

es *vermicompostaje*

fr *lombricompostage*

↳ **konpost; konpostaje**

## Bernako Hitzarmena

*Agiriak*

Europako basabiziaren, flora nahiz faunaren, kontserbazioa ziurtatzea, ingurune naturala -habitat naturalak- kontserbatzea eta arlo horretan estatuen arteko lankidetzat sustatzea helburu dituen nazioarteko hitzarmena, 1979ko irailaren 19an Bernan sinatua.

en *Berna Convention*

es *Convenio de Berna*

fr *Convention de Berne*

↳ **CITES**

## bero eta elektrizitatearen baterako sorkuntza

↳ baterako sorkuntza

## bero-irla

↳ bero-uharte

## bero-isolamendu

↳ isolamendu termiko

## bero-kutsadura

↳ bero-poluzio

## bero-poluzio

SIN: bero-kutsadura; kutsadura termiko; poluzio termiko

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurune batean berezkoa edota bertakoa ez den bero-energia askatzeak sortzen duen poluzio-mota.

en *heat pollution; thermal pollution*

es *contaminación térmica*

fr *pollution thermique*

↳ **airearen poluzio**

## berotegi-efektu

*Efektuak, eraginak*

Lurrakal kanpoalderantz itzultzen duen eguzki-erradiazioaren parte bat atmosferako gasek xurgatzea, eta, horren ondorioz, Lurra berotzea. Fenomeno naturala da, baina giza jarduerak areagotu egin dute.

en *greenhouse effect*

es *efecto invernadero*

fr *effet de serre*

↳ **berotegi-efektuko gas; karbono dioxido; karbonoaren ziklo; Kyotoko Protokoloa**

## berotegi-efektuko gas

SIN: berotegi-gas

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Eguzki-erradiazioari lurrazalera heltzen uzten dion baina lurrazalak itzultzen duen erradiazio infragorria xurgatzen duen gasa, atmosfera berotzea dakarren berotegi-efektuaren eragilea. Berotegi-gas nagusiak ur-lurruna, karbono dioxidoa, metanoa, oxido nitrosoa, ozonoa, klorofluorokarburuak, hidrofluorokarburuak, perfluorokarburuak eta sulfuro hexafluoruroak dira.

en *greenhouse gas; heat-trapping gas; infrared-trapping gas; warming gas*

es *gas de efecto invernadero; gas invernadero*

fr *gaz à effet de serre; gaz de serre*

↳ **berotegi-efektu**

## berotegi-gas

↳ berotegi-efektuko gas

## berotze global

SIN: Lurraren berotze

*Efektuak, eraginak*

Lurraren batez besteko tenperatura klima-aldaketaren ondorioz, eta, bereziki, berotegi-efektua areagotzearen ondorioz, igotzea.

en *global warming*  
es *calentamiento de la Tierra; calentamiento global*  
fr *réchauffement de l'atmosphère; réchauffement global*  
👉 **berotegi-efektu; klima-aldaketa**

## berotze globaleko ahalmen

*Efektuak, eraginak / Ikerkuntza, zientziak*

Substantzia batek berotze globalean duen eragina adierazten duen indizea, masa bereko karbono dioxido kantitateak eragindako berotzea erreferentziatzat harturik kalkulatu (CO<sub>2</sub>-ari 1 balioa esleitzen zaio). Berotegi-efektuko gasek denbora-epe jakin batean karbono dioxidoarekiko duten garrantzi erlatiboa adierazten du. Eta denbora-epe jakin batean behar du izan nahitaez, gas guztiak ez baitute berdin irauten atmosferan. Gasak erradiazio infragorria xurgatzeko duen ahalmenaren eta gasak atmosferan irauten duen denboraren araberakoa da berotze-ahalmena. Adibidez, 20 urteko epean, kilogramo bat metanok eragin dezakeen berotzea 56 kilogramo karbono dioxidoren baliokidea da; 100 urteko epean, berriz, 21 kilogramo karbono dioxidoren baliokidea da.

en *global warming potential; GWP*  
es *GWP; PCG; potencial de calentamiento global*  
fr *GWP; potentiel de réchauffement de la planète; potentiel de réchauffement du climat mondial; potentiel de réchauffement global*  
👉 **berotegi-efektuko gas; berotze global**

## berotze-ahalmen

*Energia*

Erregai edo erregaitzat erabilitako hondakina erretzean masa- edo (gasetan) bolumen-unitateko askatzen den energia-kantitatea.

en *calorific power; calorific value; heating value*  
es *poder calorífico; valor calorífico*  
fr *pouvoir calorifique; valeur calorifique*  
👉 **erregai**

## bero-uharte

SIN: bero-irla

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak) / Atmosfera*

Hiri eta herrien gainean eratzen den ingurukoa baino tenperatura altuagoko aire-masa, eraikinek, zoladurak edo giza jarduerak aireatzen duten beroaren eta poluitzaileen eraginaren ondorio dena.

en *heat island; heat island effect; thermal island*  
es *isla de calor; isla térmica*  
fr *effet d'îlot thermique urbain*  
👉 **airearen poluzio**

## berrerabiltze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin solido bat, duen forma aldatu gabe, jatorrizko erabilerarako edo beste baterako erabiltzea (beirazko botila hutsak jaso eta garbitu ondoren lehengo likidoaz berriz betetzeko, esaterako).

en *reuse*  
es *reutilización*  
fr *réemploi; réutilisation*  
👉 **balorizazio; birziklatze; murrizketa**

## berreskuratze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakinean diren baliozko gaiak bereiztea edo hondakina energia-iturri gisa erabiltzea.

en *reclamation; recovery*  
es *recuperación*  
fr *récupération*  
👉 **balorizazio; energiaren berreskuratze**

## berritze

SIN: biziberritze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Poluzioak, suak eta abarrek eragindako kalteak izan dituen toki bateko landaredia berez edo artifizialki berritzea.

en *regeneration*  
es *regeneración*  
fr *régénération*  
👉 **baso-berritze**

## berroihantze

➔ **baso-berritze**

## bertakotze

SIN: naturalizazio

*Biosfera*

Landare- edo animalia-espezia bat jatorriz berea ez den ingurune batera hedatzea eta han modu iraunkorrean bizitzea.

en *naturalization*  
es *naturalización*  
fr *naturalisation*

## berun

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 82 duen elementu kimikoa (Pb). Metal astuna da, kolorez grisa, bigun, harikor eta xaflakorra. Toxikoa da (arnastuz zein irentsiz gero) eta elikatze-sarean metatu egiten da. Besteak beste, hesteei eta nerbio-sistema zentralari erasaten die, eta anemia eragiten du. Hondakinen errekontzaren ondorioz eta automobilen errekontza-gasekin batera aireratzten da. Izan ere, gasolinan detonazioaren kontrako gehigarritzat erabiltzen den tetraetil beruna da biosferako berunaren poluzio-iturri nagusia. Beruna erabiltzen den produkzio-prozesuen isuri eta hondakinetan ere badago.

en *lead*  
es *plomo*  
fr *plomb*  
👉 **berunik gabeko gasolina; detonazioaren kontrako gehigarri**

## berunik gabeko ezantza

➔ **berunik gabeko gasolina**

## berunik gabeko gasolina

SIN: berunik gabeko ezantza

*Produktuak, materialak*

Detonazioaren kontrako gehigarrian berunik ez duen gasolina

(eskuarki, metil-t-butil eterra izaten da detonazioaren kontrako gehigarri erabiliena). Bihurgailu katalitikoak duten ibilgailuek erabiltzen dute.

Berunik gabeko gasolina erabiltzen duten ibilgailuek besteek baino gutxiago kutsatzen dute, ez baitute berunik aireatzen, eta sufrea ere gutxiago aireatzen dute. Europako 98/79 Zuzentarauak beruna duten gasolinak 2.000.ko urtarilaren 1etik aurrera merkaturatzea debekatu zuen, nahiz eta onartu zuen, baldintza batzuen barnean, 2005. urtera arte merkaturatzea. Espainian, adibidez, 1.728/1999 Dekretuak 2002ko urtarilaren 1etik aurrera beruna duten gasolinak merkaturatzea debekatu zuen (nahiz eta ibilgailu zaharretan erabiltzen jarraitu ahal izatea onartu zen).

en *unleaded petrol*  
es *gasolina sin plomo*  
fr *essence sans plomb*

☞ **berun; detonazioaren kontrako gehigarri**

## beta erradiazio

SIN: beta izpi; beta izpiak

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Beta partikulaz osatutako erradiazioa, zenbait desintegrazio erradioaktibotan igortzen dena.

en *beta radiation; beta rays*  
es *radiación beta; rayos beta*  
fr *radiation bêta; rayonnement bêta; rayons bêta*

☞ **desintegrazio erradioaktibo; erradioaktibitate; fisio nuklear**

## beta izpi

↳ **beta erradiazio**

## beta izpiak

↳ **beta erradiazio**

## beta partikula

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Desintegrazio erradioaktiboan igortzen den elektroio edo positroio azkarra.

en *beta particle*  
es *partícula beta*  
fr *particule bêta*

☞ **desintegrazio erradioaktibo; erradioaktibitate; fisio nuklear**

## bidegorri

SIN: bizikleta-bide

*Zirkulazioa, garraioa*

Bizikleta eta ziklomotorrak bakarrik ibiltzeko bidea, gainerako ibilgai-letarako galtzadatik aparte eraikia.

⚠ Euskaraz, *bidegorri* izena eman zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoan bizikletak ibiltzeko prestatu ziren lehenengo bideei, bide horien zoruaren kolorea gorria baitzen. Gaur egun, izen hori edozein bizikleta-bide izendatzeko erabiltzen da, kolorea dena dela ere. Hego Euskal Herrian, gaztelaniaz, *bidegorri* hitza ere maiz erabiltzen da.

en *cycle track*  
es *camino para bicicletas; carril bici; pista para ciclistas*  
fr *piste cyclable*

☞ **bizikleta-banda**

## bifenilo polikloratu

↳ **poliklorobifenilo**

## bigarren dekantazio

SIN: bigarren jalkitze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren arazketako bigarren tratamenduan, arazketa biologikoaren ondoren esekiduran dauden gaiak bereizteko egiten den dekantazio-prozesua.

en *secondary settling*  
es *decantación secundaria*  
fr *décantation secondaire*

☞ **gardentze; hondakin-uren arazketa**

## bigarren jalkitze

↳ **bigarren dekantazio**

## bigarren mailako bilgarri

SIN: multzo-bilgarri

*Produktuak, materialak*

Zenbait salmenta-unitate batera hartzen dituen bilgarri-mota. Azken erosle edo erabiltzaileak denak batera eskura ditzake edo, bilgarria irekita, banan-banan. Adibidez, kartoizko kaxa edo saskitxo bat, sei garagardobotila biltzeko balio duena, edo 10 zigarreta-pakete biltzen dituen tabakokartoa.

en *grouped packaging; secondary packaging*  
es *envase colectivo; envase secundario*  
fr *emballage groupé; emballage secondaire*

☞ **bilgarri; hirugarren mailako bilgarri; lehen mailako bilgarri**

## bigarren mailako efektu

↳ **zeharkako efektu**

## bigarren mailako kutsatzaile

↳ **bigarren mailako poluitzaile**

## bigarren mailako lehengai

*Produktuak, materialak*

Produkzio-prozesu baten abiapuntua den gai birziklatua.

en *secondary raw material*  
es *materia prima reciclada; materia prima secundaria*  
fr *matière première de récupération; matière première secondaire*

☞ **lehengai**

## bigarren mailako poluitzaile

SIN: bigarren mailako kutsatzaile

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Lehen mailako poluitzaile batek edo batzuek ingurune osoaiekin egindako erreakzioaren ondorioz eraturiko poluitzailea. Adibidez, ozonoa bigarren mailako poluitzailea da, atmosferan sortzen baita automobilen ihes-hoditik ateratzen diren lurrun organikoetatik eta nitrogeno-oxidoetatik, eguzki-argiak eragindako erreakzio kimikoen ondorioz.

en *secondary pollutant*  
es *contaminante secundario*  
fr *polluant secondaire*

☞ **lehen mailako poluitzaile**

## bigarren tratamendu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren arazketaren bigarren urratsa, uretako gai organikoak kentzea edo deskonposatzea helburu duena. Arazketa biologikoa iragazki biologikoen eta lohi aktibatuen bidez egiten da. Azkenean, bigarren dekantazioa egiten da.

en *secondary treatment*  
es *tratamiento secundario*  
fr *traitement secondaire*

☞ **hirugarren tratamendu; hondakin-uren arazketa; lehen tratamendu**

## biguntze

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Kaltzio- eta magnesio-ioiak kenduz edo haien edukia txikiagotuz, ur gogorra ur bigun bihurtzea.

en *softening*  
es *ablandamiento*  
fr *adoucissement*

☞ **ur bigun; ur gogor**

## bihurgailu katalitiko

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Katalizatzaile bat edo batzuk dituen gailua, automobilaren ihes-gasen iteeran ezartzen dena eta errektuntzaren emaitza diren erre gabeko substantzia poluitzaileak substantzia ez-kaltegarri bihurtzen dituena. Karbono monoxidoa eta hidrokarburoak karbono dioxidoa eta ura eratuz oxidatzen dira. Horretarako katalizatzaileak platino- eta paladio-oxidoak izaten dira. Nitrogeno-oxidoak erreduzitu egiten dira bihurgailuaren beste ganbera batean. Bihurgailu katalitiko ezin da erabili beruna duten erregaiekin (berunak katalizatzaileen lana eragozten duelako).

en *catalytic converter*  
es *convertidor catalítico*  
fr *pot catalytique*

☞ **detonazioaren kontrako gehigarri**

## bilgarri

*Produktuak, materialak*

Salgaiak, lehengaietatik hasi eta bukatutako produktuetaraino, edukitze, babesteko, erabiltzeko, banatzeko edo aurkezteko edozein produktu, edozein gaiz egina dagoela ere.

! Botilak, lata, kaxak, ontziak, poltsak, paketeak, enbalajeak eta bestelako estalki asko adierazteko termino generikoa da *bilgarri*. Dena den, askotan, *bilgarri* generikoa baino egokiagoa izan daiteke zehatzago bat: adibidez, gaztelaniazko *en vase no retournable* delakoa botila izaten da, eta, hala denean, hobe da *ez itzultzeko botila* edo *ez itzultzeko ontzi* erabiltzea.

en *package; packaging*  
es *envase*  
fr *emballage*

☞ **bigarren mailako bilgarri; hirugarren mailako bilgarri; lehen mailako bilgarri**

## bilketa- eta transferentzia-gune

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Hondakinak sailkatu eta aldi baterako biltegitratzeko instalazioa. Gune horretatik, gero, hondakindegira zein tratatzeko edo baliarazteko instalaziora eramaten dira hondakinak.

en *collection and transfer centre*  
es *centro de recogida y transferencia*  
fr *centre de collecte et de transfert*

☞ **garbigune**

## bilketa-gune

➔ **garbigune**

## bioakumulazio

➔ **biometatze**

## biodegradagarri

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Mikroorganismoek edo naturako bestelako agente biologikoen deskonposa dezaketen substantzia edo produktua.

en *biodegradable*  
es *biodegradable*  
fr *biodégradable*

☞ **substantzia iraunkor**

## biodegradagarritasun

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Substantzia edo produktu bat mikroorganismoek erasana eta degradatua izateko propietatea.

en *biodegradability*  
es *biodegradabilidad*  
fr *biodégradabilité*

## biodegradazio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Mikroorganismoek substantzia edo produktu bat substantzia edo produktu kimikoki sinpleagotan deskonposatzeko prozesua, aerobio zein anaerobioa izan daitekeena.

en *biodegradation*  
es *biodegradación*  
fr *biodégradation*

## biodibertsitate

*Ikerkuntza, zientziak*

Biziaren barietatearen neurria. Zehazkiago, biodibertsitate genetiko, biodibertsitate espezifikoa eta ekosistema-biodibertsitatea bereiz daitezke, bizidunen hiru alde nagusiak aintzat hartuz: geneak, espezieak eta ekosistemak.

en *biodiversity; biological diversity*  
es *biodiversidad; diversidad biológica*  
fr *biodiversité; diversité biologique*

## biodisko

SIN: disko biologiko

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren tangan erdi murgildurik dauden eta astiro biratzen duten zenbait disko paraleloz osatutako iragazte-sistema. Diskoen iragazte-

materialaren gainean bakterio aerobioen geruza edo zooglea osatzen da, eta horrek degradatzen du hondakin-uretako materia organikoa.

en *biolisc; biological disc; rotating biological disc; rotating disk filter*  
es *biodisco; filtro rotativo de disco*  
fr *biodisque; disque biologique*

## bioenergia

*Energia*

Biomasa kimikoki eraldatuz lortutako energia berriztagarria.

en *bioenergy*  
es *bioenergía*  
fr *bioénergie*

☞ **bioerregai; biogas; biomasa; biomasa-energia; energia berriztagarri**

## bioerregai

*Produktuak, materialak*

Bimasaren bihurtetaren bidez, hau da, materia organikoa eraldatuz, lortzen den erregaia. Bioerregai nagusiak metanoa, etanola, metanola eta biodiesela dira.

en *biofuel; biomass fuel*  
es *biocarburante; biocombustible*  
fr *biocarburant; biocombustible*

☞ **biomasa-energia; ordezeko erregai**

## biogas

*Produktuak, materialak*

Materia organikoaren hartzidura anaerobioaren emaitza den gasa, metano eta karbono dioxidoz osatua.

en *biogas*  
es *biogas*  
fr *biogaz*

☞ **hondakindegai**

## biogeografia

SIN: geonomia

*Ikerkuntza, zientziak*

Organismoen, haien komunitateen eta ekosistemen banaketa geografikoa eta banaketa horretan eragiten duten faktore eta prozesuak aztertzen dituen zientzia. Landareez arduratzen den adarra *fitogeografia* da, eta animaliez arduratzen dena *zoogeografia*.

en *biogeography*  
es *biogeografía*  
fr *biogéographie*

☞ **korologia**

## biohanditze

SIN: biomagnifikazio

*Osasuna, nutrizioa*

Substantzia kimiko toxikoak bizidunetan gero eta kontzentrazio handiagoan metatzea elikatze-sarean gora egin ahala. Organismoen gorputzak ez dira gai hainbat substantzia toxiko kanporatzeko, eta, horregatik, substantzia horiek metatu egiten dira. Adibidez, arrainek bizitza osoan jandako bazkan dagoen DDTa metatu egiten dute. Arrain handiek bizitza osoan jandako arrain txikiek metatutako DDTa metatu egiten dute. Guk jaten ditu-

gun arrain handiek metatutako DDTa metatu egiten dugu. Hala, maila bakoitzean gero eta handiagoa da DDTaren kontzentrazioa.

! Askotan, *biometatze* terminoa erabiltzen da *biobanditze* adierazteko, nahiz eta *biometatze terminoak, adiera hertsian, beste esanabi espezifiko-ago bat duen.*

en *biological magnification; biomagnification*  
es *biomagnificación; magnificación biológica*  
fr *amplification biologique; bioamplification*

☞ **biometatze**

## bioiragazki

➔ **iragazki biologiko**

## bioklimatologia

*Ikerkuntza, zientziak*

Klimaren eta bizidunen arteko elkarrekintzak eta, batez ere, klimak animalia eta landareetan eragiten dituen efektuak aztertzen dituen zientzia.

en *bioclimatology*  
es *bioclimatología*  
fr *bioclimatologie*

## biokontzentrazio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Substantzia bat organismo batean metatzea eta, ondorioz, organismo horretan duen kontzentrazioa bizileku duen ingurunean duena baino handiagoa izatea.

! *Biometatze* terminoa, adiera hertsian, *biokontzentrazio* terminoaren sinonimoa da.

en *bioconcentration*  
es *bioconcentración*  
fr *bioconcentration*

☞ **biometatze**

## bioma

*Biosfera*

Landare eta animalien komunitate biotiko homogeneoa, klima-ezaugarri bereko eremuetan eratzen dena. Toki batean zer izaki biziko diren (animaliak eta landareak) faktore geografikoek (Afrikako lehoiak ez dira Amazoniara iritsi tartean itsasoa dagoelako), abiotikoek (lurzorua, euria, tenperatura, ura...; krokodiloak ezin dira bizi eskualde artikoetan, ezta basamortuan ere) eta biotikoek (animaliak, landareak, gizakia; adibidez, artoa eta tomatea Amerikatik ekarri zituen gizakiak Europara) erabakitzen dute.

Klimaren arabera banatzen dira biomak Lurrean. Lehorreko bioma nagusiak basamortua, tundra, taiga, baso epela, baso mediterraneo, euri-oihan tropikala, sabana eta estepa dira. Ur-biomak, berriz, ur gazikoak, itsasokoak alegia (ur-sakonerearen eta itsasertzerainoko distantziaren arabera, bitan sailkatu ohi dira: itsasertzekoa edo neritikoak, eta ozeanikoa edo pelagikoa) eta ur gezakoak (aintzirakoa, ibaikoak eta elur-izotzetakoa) dira.

en *biome*  
es *bioma*  
fr *biome*

☞ **basamortu; baso; baso epel; baso mediterraneo; estepa; euri-oihan tropikal; sabana; taiga; tundra**

## biomagnifikazio

➔ **biohanditze**

## biomasa

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Oro har, bizidunen materia organikoa. Adiera horren arabera, orbela eta humusa ez dira biomasa. Beste adiera batean, ordea, habitat batean azalera- edo bolumen-unitateko dagoen eta biziarekin (animalia eta landareekin) edo gizakiaren eta animalien jarduerekin zerikusia duen materia organiko guztiaren edo zati jakin baten (animaliena edo landareena bakarrik, adibidez) pisuari deritzo biomasa. Energia-baliabideen ikuspegitik, biomasa energia berriztagarriaren iturritzat erabil daitekeen edozein materia organiko ez-fosil da, hala nola landare biziak, zura, nekazaritza eta abeltzaintzako hondakinak, hondakin-urak, hiri-hondakin solido organikoak, eta abar; beraz, erregai fosilak ez dira multzo horretan sartzen, jatorri biologikoa izan arren). Ingurumenaren ikuspuntutik, biomasa (landare biziak, kasu hone-tan) atmosferako karbono dioxidoaren hustulekua da, fotosintesia egiteko erabiltzen dutelako.

en *biomass*

es *biomasa*

fr *biomasse*

☞ **biomasa-energia**

## biomasa-energia

*Energia*

Landareek fotosintesi-prozesuan karbono dioxidoa eta eguzki-energia erabiliz sintetizatzen duten materia organikoan metaturiko energia. Energia berriztagarria da, beraz.

en *biomass energy*

es *energía de biomasa; energía de la biomasa*

fr *énergie de la biomasse*

☞ **bioenergia**

## biometatzaile

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Bizidunen organismoetan metatzen diren substantziak, organismora, besteak beste, kutsatutako aire, ur edo elikagaien bidez heltzen direnak.

en *bioaccumulant*

es *bioacumulante*

fr *bioaccumulant*

☞ **biometatze**

## biometatze

SIN: bioakumulazio

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Poluitzaileen kontzentrazioa handitzea ingurunetik elikatze-sareko lehen mailan dagoen organismora pasatzean, hau da, poluitzaileen kontzentrazioa handiagoa izatea organismoetan ingurunean baino.

📌 *Biometatze* terminoa, adiera hertsian, poluitzaileak elikatze-sarean sartzen direnean gertatzen den fenomeno adierazteko erabiltzen da. Poluitzaileak elikatze-sarean gora mugitzen direnean -maila batetik goragoko hurrengo mailara-, gertatzen den poluitzailea kontzentratzeko joera adierazteko, *biomagnifikazio* terminoa erabiltzen da. Nolanahi ere, askotan, *biometatze* terminoa erabiltzen da bi esanahiak batera adierazteko.

en *bioaccumulation*

es *bioacumulación*

fr *bioaccumulation*

☞ **biomagnifikazio**

## biorremediatze

*Ingurumen-politika*

Uretako edo lurzoruetako poluitzaileak deuseztatzeko edo degradatzeko izaki bizidunak (bakterioak, onddoak..) erabiltzen dituzten tekniken multzoa. Esaterako, petrolioaren itsasora isurtzeak eragiten duen marea beltzaren kontra hidrokarburoak degradatzeko gai diren bakterioak erabiltzea.

en *bioremediation*

es *bioremediación*

fr *biodécontamination; biodépollution; biorémediation*

## biosfera

*Biosfera*

Bizidunak bizi diren Lur planetaren geruza, atmosferaren behealdea, litosferaren goialdea eta hidrosfera bere baitan hartzen dituen. Bizidunen iraganeko eta gaur eguneko jarduerak baldintzatutako konposizioa, egitura eta energia-sistema dituen Lurraren geruza da; biziaren sistema osoa da, Lurraren zati bizigabea -geosfera- euskarri duena.

en *biosphere; ecosphere*

es *biosfera; ecosfera*

fr *biosphère*

☞ **geosfera**

## biosfera-erreserba

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

UNESCOk ikerketa eta heziketa ekologikoa sustatzeaz arduratzen den MAB programaren bidez izendatutako gune babestua. Lehorreko edo kostaldeko ekosistemetak eremu babestuak dira, eta, haietan, babes-neurri eta kudeaketa-sistema egoki bidez ekosistemen eta haien biodibertsitatearen kontserbazioa tokiko baliabideen erabilera jasangarriarekin batera sustatzen da, beti ere tokiko populazioaren onura bilatuz. 2004ko maiatza arte, munduan 440 erreserba izendatuta zeuden 97 estatutan, horietako bi Euskal Herrian: Urdaibai, Bizkaian, 1984. urtean izendatua, eta Errege Bardea, Nafarroan, 2000. urtean izendatua.

en *biosphere reserve*

es *reserva de la biosfera*

fr *réserve de biosphère*

☞ **MAB programa; natur gune babestu; UNESCO**

## biota

*Biosfera*

Toki bateko landare eta animalien multzoa.

en *biota*

es *biota*

fr *biote; flore et faune*

☞ **ekosistema**

## bioteknologia

*Ikerkuntza, zientziak / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Izaki bizidunetan gertatzen diren zenbait prozesu edo erreakzio biokimikoz baliatzen diren tekniken multzoa, substantzia edo produktu batzuk ekoizteko, landare- edo animalia-espezieen ezaugarri jakin batzuk hobetzeko, zerbaitetarako ahalmen berezia duten mikroorganismoak garatzeko eta abarretarako.

en *biotechnology*

es *biotecnología*

fr *biotechnologie*  
👉 **ingeniaritza genetiko**

## biotiko

*Biosfera*

Bizidunei dagokiena. Ekosistema batean, esaterako, bizidunak edo bizidunei dagozkien faktoreak adierazteko erabiltzen da.

en *biotic*  
es *biótico*  
fr *biotique*  
👉 **abiotiko; faktore abiotiko; faktore biotiko**

## biotopo

*Biosfera*

Ezaugarri fisiko-kimiko uniformeak dituen eta biozenosi baten kokaleku den habitata.

en *biotop; biotope*  
es *biotopo*  
fr *biotope*  
👉 **biotopo babestu; ekosistema; komunitate biotiko**

## biotopo babestu

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 30eko 16/1994 Legean natur gune babestuetarako ezartzen den lege-izendapenetako bat, Espainiako martxoaren 27ko 4/1989 Legean agertzen diren Natur Erreserba, Natur Monumentu eta Paisaia Babestu izendapenak biltzen dituena.

Bost biotopo babestu daude Euskal Autonomia Erkidegoan:

- Biasteriko aintzirak (Araba; Biasteri); 52 hektarea
- Gaztelugatxe (Bizkaia; Bermeo, Bakio); 487,25 hektarea
- Itxina (Bizkaia; Orozko); 571 hektarea
- Leizaran ibaia (Gipuzkoa; Andoain, Billabona, Elduaian, Berastegi); 74 hektarea
- Inurritza (Gipuzkoa; Zarautz); 51, 7 hektarea.

es *biotopo protegido*  
👉 **natur gune babestu**

## biozaintza

➔ **kontrol biologiko**

## biozenosi

SIN: komunitate biotiko

*Biosfera*

Biotopo berean elkarrekin bizi diren landare eta animalien elkarte.

en *biocenosis; biocoenosis; biotic community; community*  
es *biocenosis; comunidad; comunidad biótica*  
fr *biocénose; biocoenose; communauté biotique*  
👉 **biotopo; ekosistema**

## biozida

*Produktuak, materialak*

Itzaki bizidunak, eskuarki mikroorganismoak, hiltzeko gai toxikoa.

en *biocide*  
es *biocida*  
fr *biocide*  
👉 **pestizida**

## birgaitze

*Ingurumen-politika*

Andeatutako ekosistema bat narriadurarik ez duen egoerara ekartzeko ekintzen multzoa. Birgaitu ondoren, ekosistemak andeatu aurretik zituen ezaugarriak (*leheneratze*) edo beste ezaugarri batzuk izango ditu.

en *rehabilitation*  
es *rehabilitación*  
fr *réhabilitation*  
👉 **leheneratze**

## biroplankton

*Biosfera*

Planktonaren parte diren birusen multzoa.

en *viroplankton*  
es *viroplancton*  
fr *viroplancton*  
👉 **plankton**

## birpopulaketa

➔ **birpopulatze**

## birpopulatze

SIN: birpopulaketa

*Ingurumen-politika*

Leku batean, hala nola ibaian edo basoan, zeuden eta galdu diren edo arras urriturik dauden landare- edo animalia-espezietako espeziemenak sartzea.

en *restocking*  
es *re población*  
fr *repeuplement*  
👉 **baso-sartze**

## birsorkuntza

1 ➔ **birsortze**

2 ➔ **birsortze**

3 ➔ **birsortze**

## birsortze

1 SIN: birsorkuntza

*Biosfera*

Biologian, ehun, organo edo organismo bat berritzea edo berriro eratztea zelula batetik edo zelula-multzo batetik abiatuta. Organismoa zenbat eta sinpleagoa, hainbat handiagoa birsortzeko gaitasuna. Anelidoak, adibidez, zati txiki-txiki batetik abiatuta, organismo osoa birsortzeko gai dira. Landareetan ere ohikoa da birsorkuntza; hegazti eta ugaztunetan, berriz, oso txikia da birsortzeko gaitasuna.



en *regeneration*  
es *regeneración*  
fr *régénération*

2 SIN: birsorkuntza

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Ioiak trukatzeko material bati erabileraren ondorioz galdu dituen ezaugarriak itzultzea. Esate baterako, hondakin-uretatik substantzia organikoak erauzteko erabiltzen den ikatz aktibatua birsortu egin daiteke, adsortzio-gaitasuna itzuli alegia, ikatz bera behin baino gehiagotan erabiltzeko.

en *regeneration*  
es *regeneración*  
fr *régénération*

☞ **ikatz aktibatu; ioiak trukatzeko material**

3 SIN: birsorkuntza

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakinak lehengai edo produktu gisa erabiltzeko behar diren ezaugarriak berriz izan ditzan egiten diren prozesu fisiko edota kimikoen multzoa (adibidez, olio erabilien birsortzea).

en *regeneration*  
es *regeneración*  
fr *régénération*

☞ **balorizazio**

## birus

*Biosfera*

Azido nukleiko mota bakarraz (DNAz edo RNAz) eta haren inguruko estalki proteiko batez osatuta dagoen mikroorganismoa, zelulen nahitaezko parasitua dena eta zelulatik kanpo erabat geldo dena. Mikroskopio elektronikoz soilik ikus daitezke. Bizidunen gaixotasun askoren sortzaile dira.

en *virus*  
es *virus*  
fr *virus*

## birziklapen

1 ➔ **birziklatze**

2 ➔ **birziklatze**

## birziklatze

1 SIN: birziklapen

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakina edo hondakinaren zenbait gai produkzioarako lehengaitzat erabiltzea, dela produktu bera egiteko dela beste zerbaitetarako.

en *recycling*  
es *reciclado; reciclaje*  
fr *recyclage*

☞ **balorizazio; berrerabiltze; hiri-hondakin solido; murrizketa**

2 SIN: birziklapen

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren arazketan, tratamendu osoa edo partziala hartu duten hondakin-uren parte bat aurreko arazte-urrats batera itzularaztea.

en *recirculation; recycling*  
es *recirculación*  
fr *recyclage*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## biziberritze

➔ **berritze**

## bizi-kalitate

*Gizartea*

Gizarte bateko biztanleen bizimoduaren ontasunaren maila, hainbat alderdi eta ezaugarri (ekonomia, kultura, gizartea, osasuna..) kontuan harturik zehazten dena. Alderdi horietako bat ingurumena da.

en *quality of life*  
es *calidad de vida*  
fr *qualité de la vie*

## bizikleta

*Zirkulazioa, garraioa*

Diametro bereko bi gurpilez osatutako ibilgailua, haren gainean eserita doanak pedal-sistema bati eraginez higiarazten duena. Gurpilak plano berean daude, bata bestearen atzetik, metalezko hodiz osatutako egitura bati ardatzetatik atxikiak, eta kate baten bidez transmititzen da pedalen higidura atzeko gurpilera.

en *bicycle*  
es *bicicleta*  
fr *bicyclette*

## bizikleta-banda

*Zirkulazioa, garraioa*

Bide bat baino gehiagoko galtzadan, bizikletak eta ziklomotorrak bakarrik erabiltzeko bidea.

en *bicycle lane; cycle lane*  
es *carril bici*  
fr *bande cyclable*

☞ **bidegorri**

## bizikleta-bide

➔ **bidegorri**

## bizi-ziklo

*Biosfera*

Organismo bat bizi den edo zerbait (objektu, produktu, prozesu, etab.) erabilgarri den denboran bereiz daitezkeen egoera edo aldien segida.

en *life cycle*  
es *ciclo de vida*  
fr *cycle de vie*

☞ **produktuaren bizi-ziklo; produktuaren bizi-zikloaren azterketa**

## bizkar-zorro ekologiko

SIN: motxila ekologiko

Produktu baten bizi-zikloan, produktu- edo zerbitzu-unitateko kontsumitutako material-kantitatea, produktu hori ekoizteko mugitu behar izan den material-kilogramotan neurtua (hau da, gizakiak alde batetik bestera aldatu behar izan duen material naturalaren masa).

en *ecological backpack; ecological rucksack*  
es *mochila ecológica*  
fr *sac à dos écologique*

## biztanle-baliokide

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ikerkuntza, zientziak*

Hondakin-uren poluzio organikoaren karga zenbatzeko parametroa. Europako Batasunaren 1991ko maiatzaren 21eko 91/271 Zuzentzarauak ezartzen duenez, biztanle-baliokidea hau da: eguneko 60 g oxigenoko OEB<sub>5</sub>a (5 eguneko oxigeno-eskari biokimikoa) duen karga organiko biodegradagarria.

en *inhabitant-equivalent*  
es *equivalente habitante*  
fr *équivalent-habitant*

☞ **bost eguneko oxigeno-eskari biokimiko**

## biztanleria

➔ **populazio**

## Bonneko Hitzarmena

*Agiriak*

Basafauna migratzailea kontserbatzea helburu duen nazioarteko hitzarmena, 1982ko ekainaren 24an Bonnen (Alemania) sinatua.

en *Bonn Convention*  
es *Convenio de Bonn*  
fr *Convention de Bonn*

## bordeles salda

*Produktuak, materialak*

Kobre sulfatoz eta kaltzio hidroxidoz (kare hilez) osatutako nahaste likidoa, ihintzatuta landare-fungizida gisa erabiltzen dena.

en *bordeaux mixture*  
es *caldo bordelés*  
fr *bouillie bordelaise*

## bost eguneko oxigeno-eskari biokimiko (OEB5)

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Ur-masa bateko mikrobioek bost egunetan behar duten oxigeno-kantitatea. Hondakin-uren materia organikoaren kontzentrazioa neurtzeko erabiltzen da.

en *biochemical oxygen demand after 5 days; biochemical oxygen demand after five days; BOD5*  
es *DBO5; demanda bioquímica de oxígeno a los 5 días; demanda bioquímica de oxígeno a los cinco días*  
fr *DBO5; demande biochimique en oxygène en 5 jours; demande biochimique en oxygène en cinq jours*

☞ **biztanle-baliokide; oxigeno-eskari biokimiko**

## botatze

➔ **isurpen**

## botoi-pila

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Pila elektrokimiko txiki, biribil eta laua. Erloju, kalkulagailu, argazki-kamera eta abarretan erabiltzen da. Duten merkurio-eduki handiagatik hondakin bereziak dira, aparte bildu beharrekoak.

en *button cell; button single cell*  
es *pila botón*  
fr *pile bouton*  
☞ **merkurio**

## Btu

*Ikerkuntza, zientziak*

(ingelesezko British Thermal Unit-en laburdura) Libra bat (453,592 gramo) uren tenperatura Fahrenheit gradu bat igotzeko behar den bero-energiaren kantitatea. 1.055,06 joule-ren baliokidea da.

en *British thermal unit; Btu*  
es *Btu*  
fr *Btu*

## bulkada-zarata

*Ikerkuntza, zientziak*

Energia akustikoaren bulkada batez edo gehiagoz osatutako zarata, bulkada bakoitzak segundo bat baino gutxiago irauten duela eta bi bulkaden artean 0,2 segundotik gorako tarte dagoela. Adibidez, ate-danbateko bat edo mailukada-hotsa.

en *impulsive noise*  
es *ruido impulsivo*  
fr *bruit impulsionnel*  
☞ **zarata**

## burbuila-garbigailu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Gas batean, batez ere airean, dagoen hautsaren edota bestelako zati-ki esekien laginak hartzeko gailua. Likido bat, ura adibidez, daukan ontzi batean indarrez sarrarazten da gasa, eta, talkaren eraginez, likidoak xurgatu egiten ditu gasean esekita dauden zatikiak.

en *bubble washer; bubbler; gas-washing bottle; impinger*  
es *barboteador; frasco lavador de gases*  
fr *barboteur*  
☞ **inpaktore**

## burdin hondakin

➔ **txatar**

## burdina

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 26 duen elementu kimikoa (Fe). Metal gris, gogorra, harikor eta xaflakorra da. Aluminioaren ondoren, naturako metalik ugariena da: mineral askoren osagaia da, eta meteoritoetan ere badago (nikelarekin batera). Metaletan garrantzitsuen da eta industrian erabiliena, burdinurto, altzairu zein aleazioetan. Bizirako funtsezko elementua da, batik batik hemoglobinarekin osagaia delako, eta burdin gutxiegiak anemia sortzen du. Burdin gehiegiak, berriz, entzima batzuen inhibizioa eta gibel- eta giltzurrunetako gaitzak sor ditzake (hemokromatosia). Burdin hautsak arnas-

teak birika-asaldurak sortzen ditu, eta uretako burdin kontzentrazio handiek arriskugarriak izan daitezke bizidunentzat.

en *iron*  
es *hierro*  
fr *fer*

## burdinbide

→ **trenbide**

## BZA

→ **produktuaren bizi-zikloaren azterketa**

## CFC

→ **klorofluorokarburu**

## CITES

→ **Basafauna eta Basafloraren Galzoriko Espezieen Nazioarteko Merkataritzari buruzko Hitzarmena**

## cracking

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Petrolioaren osagai diren hidrokarburu astunen kateak beroaren bidez hausteko eta deribatu arinagoak, bereziki gasolinak, lortzeko prozedura. Batzuetan, katalizatzailez lagundurik egiten da (cracking katalitikoa), tenperatura baxuagoan lan egiteko.

en *cracking*  
es *cracking; craqueo*  
fr *cracking; craquage*

## curie

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak / Ikerkuntza, zientziak*

Aktibitate erradioaktiboaren unitatea (Ci).  $3,7 \times 10^{10}$  becquerelen baliokidea da.

en *curie*  
es *curie*  
fr *curie*  
☞ **becquerel**

## dB

→ **dezibel**

## DDT

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Intsektizida gisa erabilitako konposatu organokloratua (diklorodifenil-trikloroetanoa). Erruz erabili da landareei erasotzen dieten eta gaixotasun kutsakorak transmititzen dituzten intsektuen kontra. Toxikoa da, ingurunean luze irausten du (15 urte inguruko batez besteko bizitza) eta elikatze-katean zehar metatzen da. Gaur egun, estatu batzuetan debekatuta dago.

en *DDT*  
es *DDT*  
fr *DDT*

## defoliazio

→ **hosto-galtze**

## deforestazio

SIN: baso-soiltze

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Toki bateko basoa soiltzea. Soiltzea gizakiak zuzenean eraginda (zuhaitzak bota direlako, adibidez), gizakiak zeharka eraginda (poluzioaren ondorioz) edo berezkoa (lehortea, sumendi-erupzioak, uholdeak, gaitxotasunak..) izan daiteke.

en *deforestation*  
es *deforestación*  
fr *déboisement; déforestation*  
☞ **baso-berritze; baso-sartze**

## degradazio

1

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Molekula bateko lotura bat edo gehiago hautsi eta molekula txikiagoak eratzea. Gai organikoei buruz erabiltzen da bereziki.

en *degradation*  
es *degradación*  
fr *dégradation*  
☞ **biodegradazio**

2 SIN: narriadura

*Efektuak, eraginak*

Egitura bat murriztea edo atal txikiagotan puskatzea. Oro har, ingurumenaren, lurraldearen edo baliabide jakin baten kalitatea edo erabilgarritasuna murriztea dakarren prozesua (lurzoruaren degradazioa, ekosistema baten degradazioa, basoaren degradazioa..).

en *degradation*  
es *degradación*  
fr *dégradation*  
☞ **ingurumenaren narriadura; lurzoruaren degradazio**

## dekantazio

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Nahaste heterogeneo bateko substantziak, haietako bat gutxienez likidua dela, grabitatearen eraginez banantzea, eta, ondoren, zenbait prozeduraz bata bestetik bereiztea. Hondakin-uren arazketan, dekantazioa uretako solido esekiak kentzeko eta ur garbiagoa lortzeko eragiketa da. Solido esekiak dekantazio-tangaren hondoan jalkitzen dira, eta handik mekanikoki kentzen dira. Goindeko ura hainbat prozeduraz bereiz daiteke fase solidotik (gehienetan, gainezkatuz).

en *decantation*  
es *decantación*  
fr *décantation*  
☞ **hondakin-uren arazketa; jalkitze**

## dekantazio-tanga

SIN: jalkitze-tanga

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Uretan esekita dauden gaiak jalkitzeko eta likidua solidotik bereizteko tanga, hondoan sortzen den lohia kentzeko mekanismoak dituena.

en *clarifier; decanter; decanting basin; sedimentation basin; sedimentation tank; settler; settling basin; settling tank*  
es *clarificador; decantador; estanque de sedimentación; tanque de decantación; tanque de sedimentación*  
fr *bassin de sédimentation; clarificateur; réservoir de sédimentation*  
☞ **dekantazio; hondakin-uren arazketa**

## delitu ekologiko

*Legeak, arauak, bitzarmenak*

ingurumen-legeriaren haustea, Kode Penalean tipifikatuta dagoena.

en *crime against the environment; ecological crime*  
es *delito ambiental; delito ecológico*  
fr *délit écologique*

## demertsal

*Biosfera / Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Itsas hondoa bizi dena. Adibidez, zapoa arrain demertsala da

🚫 Itsas hondoa erabiltzen diren arrantza-aparatuak izendatzeko ere erabiltzen da.

en *demersal*  
es *demersal*  
fr *démersal*  
👉 **pelagiko**

## denudazio

*Litosfera*

Lurraren gainazaleko materialak desagitea eta ondoriozko erliebe-aldaketa eragiten duten kanpo-prozesuen multzoa. Hiru fase ditu: meteorizazioa, higadura eta garraioa.

en *denudation*  
es *denudación*  
fr *denudation*  
👉 **garraio; higadura; meteorizazio**

## depresio

SIN: zikloi

*Atmosfera*

Presioa altitude bereko inguruko eskualdeek baino txikiagoa den atmosferako eskualdea.

en *cyclone; depression; low*  
es *baja; borrasca; ciclón; depresión*  
fr *cyclone; depression*  
👉 **atmosfera; zikloi tropikal**

## desegite

SIN: zatikatze

*Hondakinak, kutsatzailak, kutsadura / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Ibilgailuak, aparatuak eta abar desmuntatzea, piezak berriz erabiltzeko.

en *break-up; scrapping*  
es *desguace*  
fr *casse*  
👉 **Tratamendu Instalazio Baimendu**

## desertifikazio

SIN: basamortutze

*Efektuak, eraginak*

Toki batean landaredia eta lurzorua basamortu-ezaugarriak izateraino gutxitzeko prozesua, eragilea naturala (klima-aldaketa) zein gizakiaren jardura dela.

en *desertification; desertization*  
es *desertificación; desertización*  
fr *désertification; désertisation*  
👉 **basamortu**

## deshidratazio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak / Kimika, substantziak, prozesuak*

Substantzia bati ura prozedura fisikoz edo kimikoz kentzea.

en *dehydration; dewatering*  
es *deshidratación*  
fr *désydratation*

## desinfektatzaile

*Produktuak, materialak*

Uretako agente patogenoak ezabatu edo desaktibatzen erabiltzen den agente fisiko edo kimikoa.

en *disinfectant*  
es *desinfectante*  
fr *désinfectant*  
👉 **azido hipokloroso; dioxina; hipoklorito**

## desinfekzio

*Osasuna, nutrizioa*

Uretako agente patogenoak ezabatzeko edo desaktibatzen tratamendua.

en *disinfection*  
es *desinfección*  
fr *désinfection*

## desintegrazio erradioaktibo

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Atomoaren nukleoa tamaina txikiagoko nukleo bihurtzeko prozesua, alfa partikulak, beta partikulak edota gamma izpiak igortzearekin batera gertatzen dena. Nukleo erradioaktiboak ezegonkorak dira, eta nukleo batetik besterako aldaketa berez gertatzen da. Erreakzio nuklearretan eragiten diren isotopo ezegonkorrek ere desintegrazio-erreakzioak izaten dituzte. Desintegrazioaren abiadura nukleoaren erdibizitzaren bidez adierazten da.

en *radioactive decay; radioactive disintegration*  
es *desintegración radiactiva*  
fr *désintégration radioactive*  
👉 **alfa partikula; beta partikula; desintegrazio-konstante; erdibizitza; erradioaktibitate; erradioaktibitate natural; gamma izpiak**

## desintegrazio-konstante

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak / Ikerkuntza, zientziak*

Substantzia erradioaktibo bati buruz, denbora-unitatean atomo batek desintegratzeko duen probabilitatea.

en *decay constant; disintegration constant*

es *constante de desintegración*  
fr *constante de désintégration; constante radioactive*  
☞ **desintegrazio erradioaktibo**

## desintegrazio-periodo

➔ **erdibizitza**

## deskarga misto

➔ **isurpen misto**

## deskonposizio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Naturako agenteek substantzia edo produktu bat substantzia edo produktu kimikoki sinpleagotan zatitzeko prozesua.

en *decomposition; rotting*  
es *descomposición*  
fr *décomposition*  
☞ **degradazio**

## deskontaminazio

*Ingurumen-politika*

Ingurune, toki edo gai batean dauden substantzia kontaminatzaileak, hala nola mikroorganismo patogenoak, substantzia toxikoak edo gai erradioaktiboak, kentzea edo deuseztatzea.

en *decontamination*  
es *descontaminación*  
fr *décontamination; dépollution*  
☞ **hondakin erradioaktibo**

## desmineralizazio

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Uren tratamenduan, uretan disolbatuak dauden substantzia mineralak gutxitzeko edo kentzeko prozesua.

en *demineralization*  
es *desmineralización*  
fr *déminéralisation*  
☞ **hondakin-uren arazketa**

## desnitifikazio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Lurzoru edo uretako mikroorganismo anaerobioek nitratoak edo nitratoak nitrogeno gasa, amoniako, edo nitrogeno-oxido bihurtzen dituzten erredukzio-prozesua.

en *denitrification*  
es *desnitificación*  
fr *dénitrification*  
☞ **nitrikazio; nitrogenoaren ziklo**

## destoxikazio

*Osasuna, nutrizioa*

Ingurune edo hondakin batean dauden gai toxikoak deuseztatzea (gai ez toxiko bihurtzea) edo kentzea.

en *detoxication; detoxification*  
es *destoxicación*

fr *détoxication*  
☞ **toxiko**

## desulfurazio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Erregai fosilek (gasolinak, gasolioak, gas naturalak, harrikatzak et abarrek) sulfuro gisa duten sufre-edukia txikiagotzeko prozesua. Eragiketa garrantzitsua da, erregaiek sufre dioxido gutxiago aireara dezaten erretzen direnean.

en *desulfurization*  
es *desulfuración*  
fr *désulfuration*  
☞ **desulfurazio-indize; sufre**

## desulfurazio-indize

*Ikerkuntza, zientziak*

Errekuntza-instalazioetan, erregai fosiletik desulfurazioaren bidez denbora-bitarte jakin batean erauzten den sufre-kantitatearen eta denbora-bitarte berean errekuntzarako erabiltzen den erregai fosilean gelditu den sufre-kantitatearen arteko zatidura.

en *desulfurising index*  
es *índice de desulfuración*  
fr *indice de désulfuration*  
☞ **desulfurazio; sufre**

## detergente

*Produktuak, materialak*

Osagai nagusizat uraren gainazal-tentsioa txikiagotzen eta olio eta koipeak disolbatzen laguntzen duen substantzia duen produktua. Substantzia horren molekulak kate hidrokarbonatu batez eta buru ioniko batez osatuak dira. Beste osagai garrantzitsu batzuk lagungarriak dira (*builders* direlakoak). Polifosfatoak izaten dira, eta agente tentsioaktiboena lana errazten dute. Detergenteak garbitzeko erabiltzen dira nagusiki, eta bai hezetze-agente eta emulsionatzaile gisa ere. Biodegradagarritasun-arazoak sortu izan dituzte (gaur egun, biodegradagarriak erabiltzen dira) eta eutrofizazioaren eragile ere izan daitezke.

en *detergent*  
es *detergente*  
fr *détergent; détersif*  
☞ **eutrofizazio**

## detonazioaren kontrako gehigarri

*Produktuak, materialak*

Gasolinari oktano-indizea igotzeko eta horren ondorioz eztanda-motorretan detonazioa eragozteko gehitzen zaion substantzia. Gehien erabiltzen den gehigarria tetraetil beruna da, berunaren poluzio-iturri nagusia dena. Berunik gabeko gasolinan metil-t-butil eterra (MTBE) erabiltzen da.

en *antiknock; antiknock additive*  
es *aditivo antidetonante; antidetonante*  
fr *additif antidétonant; antidétonant*  
☞ **bihurgailu katalitiko**

## detritu

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin-uren arazketaren alorrean, ura baino dentsuagoa den baina ur-lasterrak berekin garraia dezakeen zatikia.

en *detritus*  
es *detrito; detritus*  
fr *détritus*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## dezibel (dB)

*Ikerkuntza, zientziak*

Soinu-intentsitate, potentzia akustiko edo presio akustikoaren mailaren unitatea (dB). Bi magnituderen arteko erlazioaren unitate logaritmikoa da, eta, beraz, ez du dimentsiorik.

en *dB; decibel*  
es *dB; decibel; decibelio*  
fr *dB; décibel*

☞ **presio akustiko**

## dialisi

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Disoluzio bateko solutu-molekulak mintz erdiragazkor batetik barreiatzean gertatzen den molekula-tamainaren araberako bereizketa. Molekula handiek ez dute mintza zeharkatzen, eta banandu egiten dira likidotik. Hondakin-uren tratamendu fisikoan erabiltzen da.

en *dialysis*  
es *diálisis*  
fr *dialyse*

☞ **elektrodialisi; hondakin-uren arazketa**

## diatomeo-lur

➔ **diatomita**

## diatomita

SIN: diatomeo-lur; kieselguhr; tripoli

*Biosfera*

Diatomeo izeneko alga zelulabakarren eskeleto-hondarrez osatutako harri silizeo sedimentarioa. Ale xehe-xehekoa da, eta iragazteko (hondakin-uren arazketan), xurgatzeko (dinamitan) eta urratzeko erabiltzen da.

en *diatomaceous earth; diatomite; kieselguhr; tripoli*  
es *diatomita; kieselguhr; tierra de diatomeas; tierra de infusorios; tripoli*  
fr *diatomées fossiles; diatomite; kieselguhr; tripoli*

## dibenzofurano polikloratu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Furano-eraztunaren alde banatan atxikitako bi bentzeno-eraztun dituzten eta hidrogeno-atomo bat edo batzuk kloro-atomoz ordezkaturik dituzten konposatuetakako bakoitza. Oso iraunkorrak dira ingurunean, eta elikatze-sarean metatzen dira. Oso toxikoak dira, eta hainbat bizidunen heriotza eragin dezakete; bestalde, gizakietan ere azaleko asaldurak eragiten dituzte, eta, hainbat adituren ustez, kancerigenoak izan daitezke. PCBen errekontza burutugabearen ondorioz era daitezke. Dibentzo-p-dioxina polikloratuaren antzeko propietateak dituzte, eta, haiekin batera, oso toxikoak diren 210 konposatu kloraturen taldea osatzen dute.

en *polychlorinated dibenzofuran*  
es *dibenzofurano policlorado*  
fr *dibenzofuranne polychloré*

☞ **dibentzo-p-dioxina polikloratu; furano**

## dibentzo-p-dioxina polikloratu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Hidrogeno-atomo bat edo batzuk kloro-atomoz ordezkaturik dituzten dioxinak. Oso iraunkorrak dira ingurunean, eta elikatze-sarean metatzen dira. PCBen errekontza burutugabearen ondorioz era daitezke. Zerrategietan ere era daitezke, papera edo paper-orea zuritzeko prozesuan, baita hondakinak tratatzeko instalazioetako eta ur-araztegietakoko uren klorazioan, industria kimikoan eta hondakinen errausketan ere. Dibenzofurano polikloratuaren antzeko propietateak dituzte, eta, haiekin batera, oso toxikoak diren 210 konposatu kloraturen taldea osatzen dute. 2,3,7,8-tetraklorodibentzo-p-dioxina da ezagunena, eta gizakiak sintetizatu-tako konposaturik toxikoenetakoa dela uste da.

en *polychlorinated dibenzo-p-dioxin*  
es *dibentzo-p-dioxina polikloratu*  
fr *dibenzoparadioxine polychlorée*

☞ **dibenzofurano polikloratu; dioxina**

## dibergentzia

*Atmosfera*

Goranzko edo beheranzko aire-korronte bat elkarrengandik urruntzen diren bi aire-korronte horizontaletan zatitzea.

en *divergence*  
es *divergencia*  
fr *divergence*

☞ **konbergentzia; subsidentzia**

## dibertsitate genetiko

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Espezie bateko banakoen edo espezie desberdinen artean dauden aldaera genetiko guztien multzoa.

en *genetic diversity*  
es *diversidad genética*  
fr *diversité génétique*

## difusio

1 ➔ **barreiadura**

2 SIN: barreiadura; barreiapen

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Fluido batean molekulak, ioiak edo zatiki esekiak, kontzentrazio-gradienteak eraginda, kontzentrazio handiko aldetik kontzentrazio txikikora higitzea.

en *diffusion*  
es *difusión*  
fr *diffusion*

## digestio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Mikroorganismoen eraginez gertatzen den materia organikoaren deskomposizio aerobio zein anaerobioa. Digestioaren emaitza materia ez-organiko geldoa da (erreakzionatzen ez duena).

en *digestion*  
es *digestión*

fr *digestion*

☞ **digestore; hartzidura; hondakin-uren arazketa**

## digestore

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Materia organikoaren digestioa egiteko erabiltzen den tanga edo errektorea, digestio aerobioa edo anaerobioa den, irekia edo itxia dena. Besteak beste, hondakin-uren arazketan sortutako lohiak ezabatzeko erabiltzen da.

en *digester; digestion tank*

es *digestor*

fr *digesteur*

☞ **digestio; hondakin-uren arazketa**

## diluzio

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Kimika, substantziak, prozesuak*

Likido edo gas batean disolbatu dauden polutzaileen kontzentrazioa disolbatzaile-bolumen handiagoan barreiatuz txikiagotzea.

en *dilution*

es *dilución*

fr *dilution*

## dioxina

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Dibentzo-p-dioxina familiako konposatuak bakoitza. Oinarriko egitura bi oxigeno-atomoz lotutako bi eraztun aromatiko osatzen dute, eta hidrogeno-atomoak kloro, bromo eta beste zenbait taldez ordezkaturik egon daitezke. Dioxina izenaz 2,3,7,8-tetraklorodibentzo-p-dioxina da bereziki ezaguna. Ingurunean luze iraite eta organismoan metatzen dira. Oso konposatu toxikoak dira, gaixotasun eta asaldura larriak sorrazten dituzte eta, dirudenez, mutageno eta teratogenoak dira. Dioxina-iturri nagusiak hauek dira: industria kimikoa (triklorofenolen sintesia eta pestizida eta desinfektatzaileen produkzioa, nagusiki), hidrokarburo kloratuaren errekuntza burutugabea eta hondakinen errausketa. 1976an, Seveson (Italia), dioxina-ihes baten ondorioz, istripu larri bat gertatu zen.

en *dioxin*

es *dioxina*

fr *dioxine*

☞ **Seveso zuzentaraua**

## disolbatzaile

➔ **biodisko**

## disolbatzaile

*Produktuak, materialak*

Substantzia bat (solutua) disolbatzeko ahalmena duen likido edo gasa. Industrian eta etxeetan (metalezko piezak koipegabetzeko, arropak garbitzeko...) erabiltzen diren disolbatzaile gehienak petroliotik ateratako substantziak dira. Gehienak lurrunkorrek dira, sukoiak eta toxikoak.

Disolbatzaile organikoak hondakin arriskutsuak dira. Europako Batasunaren 1999/13 Zuzentarauak mugatu egiten ditu zenbait industria-jarduera eta -instalaziotan erabiltzen diren disolbatzaile organikoek eragindako konposatu organiko lurrunkorren emisioak.

en *dissolvent; solvent*

es *disolvente*

fr *solvant*

☞ **ozono-geruzaren urritze; uraren poluzio**

## disoluzio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Bi substantzia edo gehiagoren nahaste homogenea (besterik adierazi ezean, likidoa den ingurune baten eta solido, likido edo gas baten edo batzuen artean eratu dela ulertu ohi da).

en *solution*

es *disolución; solución*

fr *dissolution; solution*

## dispertsio

SIN: sakabanatze

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Substantzia bat ingurune batean hedatzea. Poluzioari dagokionez, kutsatzaileak, fenomeno mekanikoek eraginda, fluido batean zehar garraiatzea. Adibidez, itsasoan, toki batean isuritako petrolioaren itsaslasterren, olatuaren eta haizearen eraginez hedatzea eta beste toki batzuetara iristea.

en *dispersion*

es *dispersión*

fr *dispersion*

## distilazio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Likido bat berotu eta osagaiak lurrunketat bereizteko prozedura. Likidoak arazteko eta nahasteetako osagaiak bereizteko erabiltzen da; adibidez, purutasun handiko ura (ur distilatua) lortzeko. Bestalde, petrolioaren fintzeko prozedura nagusietako bat da. Nahastea ontzi berezi batean berotzen da; lehenengo, osagaiak lurrunkorrena lurruntzen da, eta lortutako lurruna hoztu eta beriz likidotzen da. Horrela lortzen da delako osagai hori besteetatik bereiztea.

en *distillation*

es *destilación*

fr *distillation*

## Dobson unitate

*Atmosfera*

Atmosferako ozono-maila neurtzeko erabiltzen den unitatea. Magnitude horren balioa neurtzeko, atmosfera-zutabe batean dagoen ozonoak eguzki-erradiazioa xurgatzeko duen ahalmena neurtzen da. Ozono-maila ez dago geografikoki modu uniformean banatuta atmosferan, baita ozono-geruzaren urritzerik gertatu ez bada ere.

en *Dobson unit; ozone unit; total ozone unit*

es *unidad Dobson*

fr *unité d'ozone; unité Dobson*

☞ **ozono; ozono-geruza; ozono-geruzaren urritze**

## dosi

**1** Organismo batek behingoen xurgatutako substantzia-kantitatea.

en *dose*

es *dosis*

fr *dose*

☞ **dosi baliokide; eguneko dosi onargarri; gehieneko dosi onargarri**

**2** ➔ **xurgaturiko dosi**

## dosi baliokide

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiozioak / Ikerkuntza, zientziak*

Erradioaktibitatearen efektu biologikoak neurtzeko erabiltzen den unitatea, xurgaturiko dosiaren eta irradiazioa gertatzen den zertzeladak kontuan hartzeko faktoreen arteko biderkadura dena. Dirlako faktoreak kalitate-faktorea, banaketa-faktorea eta bestelako faktore aldatzaileak dira. Unitateak *sievert* (SI) eta *rem* dira.

en *dose equivalent*  
es *dosis equivalente*  
fr *équivalent de dose*

☞ **banaketa-faktore; kalitate-faktore; xurgaturiko dosi**

## dragatze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Itsaso, ibai edo aintziren hondoan metaturiko gaiak (lohia, hondarra, etab.) kentzea, erauztea. Lohi poluituak dragatzeak metal astun eta bestelako poluitzaileak urarekin nahastea ekar dezake.

en *dredging*  
es *dragado*  
fr *dragage*

## drainatze

### 1

*Hidrosfera*

Ibaiek eta lurrazaleko isurtze-urek arro batean erortzen diren prezipitazio-urak jasotze eta arroaren amaiera-tokian hustea.

en *drainage*  
es *avenamiento; drenaje*  
fr *drainage*

### 2

*Hidrosfera*

Eremu batek jasotzen duen ura bertan metatu gabe bideratzeko edo urak hartuta dagoen lur-hedadura bateko ur-soberakinak zangen edo lurpeko hodian bidez husteko prozesua.

en *drainage*  
es *avenamiento; drenaje*  
fr *drainage*

## EANA

➔ **Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentzia**

## ebaketa-likido

*Produktuak, materialak*

Mekanizazio-lanetan ebaketa-erremintaren eta piezaren hozkarri eta labaingarrizat erabiltzen den likidoa, urez, olio mineralez eta emulsio-gehi-garriz osatua izan ohi dena.

en *cutting fluid*  
es *fluido de corte; líquido de corte; taladrina*  
fr *fluide de coupe; liquide de coupe*

## ebaketa-olio

*Produktuak, materialak*

Mekanizazio-lanetan hozkarri eta labaingarri den emulsioa prestatzeko erabiltzen den olio minerala. Emulsio-gehi-garriarekin (% 10-15) eta urarekin nahasirik erabiltzen da.

en *cutting oil*  
es *aceite de corte*  
fr *huile de coupe*

## ebaluatzeko maila akustiko

*Ikerkuntza, zientziak*

Lokal bateko instalazioek eta jarduera zaratsuek lokal horretan sortzen dituzten arazo edo eragozpenak neurtzeko erabiltzen den parametroa, tokian tokiko arauetan zehaztua. Zarata-maila baliokideari P parametroa gehituta lortzen da (P: ebaluatu nahi den jardueraren ondorioz denboraren % 90ean erdietsitako edo gainditutako zarata-mailaren arabera neurtzen den parametroa).

en *evaluated noise level; rating sound level*  
es *nivel acústico de evaluación*  
fr *niveau acoustique d'évaluation*

☞ **zarata-maila baliokide**

## ebapotranspirazio

*Biosfera*

Lurzoruko uraren lurrunketaz eta landareen transpirazioaz ura lurrin-forman iragaitea atmosferara.

en *evapotranspiration*  
es *evapotranspiración*  
fr *evapotranspiration*

☞ **atmosfera; uraren ziklo**

## eboluzio

*Biosfera*

Bizidunek denboran zehar izan dituzten aldaketa genetikoaren multzoa, neurri handi batean hautespen naturalak bideratu duena. Eboluzioaren ondorioz, subespezie, espezie, familia eta goragoko mailako taxon berri ugari sortu dira eta Lurraren historian zehar dibertsifikazio handia gertatu da, bizidunak beren inguruneetara ahalik eta hobekien moldatzeko presio handia baitago.

en *evolution*  
es *evolución*  
fr *évolution*

## edafologia

SIN: lurzorua zientzia; pedologia

*Ikerkuntza, zientziak*

Lurzoruak aztertzen dituen zientzia.

en *edaphology; pedology; soil science*  
es *ciencia del suelo; edafología; pedología*  
fr *édaphologie; pédologie; science du sol*

## edateko ur

*Produktuak, materialak*

Pertsonen kontsumitzeko eta janaria prestatzeko behar adinako purutasun kimiko eta mikrobiologikoa duen ura. Edateko uraren kalitatea neurtzeko, uraren konposizio kimiko eta biologikoa hartzen da kontuan.

Europako Batasunaren 1998/83 Zuzentarauak ezartzen ditu Europako



Batasunaren edateko urek izan beharreko kalitatea. Horretarako, hainbat parametro erabiltzen dira, eta, haietan, gainditu ezineko balioak zehazten dira. Bi sailetan banatuta daude parametro horiek: mikrobiologikoak (*Esterichia coli*, enterokokoak, *Clostridium perfringens*) eta kimikoak (elementu kimikoak —antimonioa, artsenikoa, merkurioa, beruna.. —, eta konposatu kimikoak —bentzenoa, fluoruroa, nitratoa, nitritoa.—).

en *drinking water; potable water*

es *agua potable*

fr *eau de boisson; eau de consommation; eau potable*

☞ **ur industrial; ur mineral; uraren arazketa**

## edateko uraren arazketa

➔ **uraren arazketa**

## edateko uren araztegi

➔ **ur-araztegi**

## edukiontzi

*Produktuak, materialak*

Hondakinak biltzeko edota garraiatzeko erabiltzen den ontzia. Hondakin-motaren arabera (etxeko zaborra, papera, beira, pilak, etab.) forma edota kolore berezia izaten du.

en *container*

es *contenedor*

fr *conteneur*

☞ **gaikako bilketako edukiontzi**

## edukitze-denbora

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren arazketa-prozesuko unitate edo sistema batek ura bere baitan edukitzen duen denbora teorikoa, emariaren arabera dena.

en *detention time; retention period; retention time*

es *tiempo de permanencia; tiempo de retención*

fr *durée de rétention; temps de rétention*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## EEE

➔ **Energiaren Euskal Erakundea**

## efektu bakun

*Efektuak, eraginak*

ingurumen-atal bakarrari eragiten dion edo eragin bakarrekoa den ingurumen-efektua, bestelako efekturik, metaketarik edo sinergiarik sortzen ez duena.

en *simple effect*

es *efecto simple*

fr *effet simple*

☞ **efektu sinergiko; ingurumen-efektu**

## efektu eten

*Efektuak, eraginak*

Aldaketa irregular edo aldizkakoan gisa nabari den ingurumen-efektua.

en *discontinuous effect*

es *efecto discontinuo*

fr *effet discontinu*

☞ **efektu jarraitu; ingurumen-efektu**

## efektu iraunkor

*Efektuak, eraginak*

ingurumen-harreman eta harreman ekologikoen sistemen egitura eta funtzioei eragiten dieten faktoreetan aldaketa iraunkorra dakarren ingurumen-efektua.

en *permanent effect*

es *efecto permanente*

fr *effet permanent*

☞ **behin-behineko efektu; ingurumen-efektu**

## efektu itzulezin

*Efektuak, eraginak*

Eragiten duen aldaketaren aurreko egoerara iltzultzea ezinezkoa edo biziki zaila den ingurumen-efektua.

en *irreversible effect*

es *efecto irreversible*

fr *effet irreversible*

☞ **efektu itzulezin; ingurumen-efektu**

## efektu itzulgarri

*Efektuak, eraginak*

Eragiten duen aldaketa ingurunean modu neurgarrian eta epe ertainean asimila daitekeen ingurumen-efektua, dela segida ekologikoaren prozesu naturalen bidez dela ingurunearen autoarazketa-prozesuen bidez.

en *reversible effect*

es *efecto reversible*

fr *effet reversible*

☞ **efektu itzulezin; ingurumen-efektu**

## efektu jarraitu

*Efektuak, eraginak*

Denboran jarraitua den aldaketa gisa, metatua zein metatugabea, nabari den ingurumen-efektua.

en *continuous effect*

es *efecto continuo*

fr *effet continu*

☞ **efektu eten; ingurumen-efektu**

## efektu konponezin

*Efektuak, eraginak*

Eragiten duen aldaketa edo galera ez prozesu naturalez ez giza esku-hartzeaz konpon edo lehenera daitekeen ingurumen-efektua.

en *irretrievable effect*

es *efecto irrecuperable*

fr *effet irrecuperable*

☞ **efektu konpongarri; ingurumen-efektu**

## efektu konpongarri

*Efektuak, eraginak*

Eragiten duen aldaketa giza ekintzaz edo naturaren ekintzaz konpon edo ezaba daitekeen ingurumen-efektua.

en *recoverable effect*

es *efecto recuperable*

fr *effet recuperable*

☞ **efektu konponezin; ingurumen-efektu**

## efektu minimo

*Efektuak, eraginak*

Efektu nabarmena ez dela froga daitekeen ingurumen-efektua.

en *minimum effect*

es *efecto mínimo*

fr *effet minime*

☞ **efektu nabarmen; ingurumen-efektu**

## efektu nabarmen

*Efektuak, eraginak*

Ingurumenaren, natur baliabideen edo haien oinarritzko funtzionamendu-prozesuen aldaketa nabarmen gisa hautematen den ingurumen-efektua.

en *significant effect*

es *efecto notable*

fr *effet remarquable*

☞ **efektu minimo; ingurumen-efektu**

## efektu negatibo

*Efektuak, eraginak*

Natura, estetika, kultura, paisaia edo produktibitate ekologikoaren balio-galera dakarren ingurumen-efektua, edo leku jakin bateko egitura ekologiko-geografikoari, ezaugarriari eta nortasunari kalte egin diezaieketen poluzioa, higadura, lohiz betetzea edo bestelako ingurumen-arriskuak areagotzea dakarrena.

en *negative effect*

es *efecto negativo*

fr *effet négatif*

☞ **efektu positibo; ingurumen-efektu**

## efektu positibo

*Efektuak, eraginak*

Zientzialari-teknikariek eta oro har biztanleek halakotzat aitortzen duten ingurumen-efektua, dagokion jardueraren kostu eta irabazi generikoen eta kanpo-efektuen azterketa osoaren testuinguruan.

en *positive effect*

es *efecto positivo*

fr *effet positif*

☞ **efektu negatibo; ingurumen-efektu**

## efektu sinergiko

*Efektuak, eraginak*

Eragile batzuk aldi berean gertatzeak dakarren ingurumen-efektua, eragileen bakarkako jarduerari zor litzaizkiekeen efektuen batura baino handiagoa dena.

en *synergetic effect; synergic effect*

es *efecto sinérgico*

fr *effet synergique*

☞ **efektu bakun; ingurumen-efektu**

## efektu zuzen

*Efektuak, eraginak*

Giza ekintza edo jardueraren ondorioz berehala gertatzen den ingurumen-efektua.

en *direct effect; straight effect*

es *efecto directo*

fr *effet direct*

☞ **ingurumen-efektu; zeharkako efektu**

## efluente

1

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Emisio-iturri batetik isuritako likido edo gasa.

en *effluent; outflow*

es *efluente*

fr *effluent*

2 ➔ **ur-efluente**

## EGEO

➔ **NIMBY**

## egonaldi

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Airearen poluitzaile baten molekula jakin batek atmosferan irauten duen denbora.

en *residence time*

es *tiempo de permanencia; tiempo de residencia*

fr *temps de résidence; temps de séjour*

## egonkortasun

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin-ur edo lohi baten gai organikoek deskonposatu gabe irauteko duten gaitasuna.

en *stability*

es *estabilidad*

fr *stabilité*

## egonkortze

1 ➔ **geldotze**

2 ➔ **lohien digestio**

## egonkortze-urrael

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren arazketan, lohietan den materia organikoaren oxidazio biologikoa airetik berez edo artifizialki lagundurik xurgatzen den oxigenoaren bidez gauzatzen den urmaela.

en *stabilization pond*

es *estanque de estabilización*

fr *étang de stabilisation*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## eguneko dosi onargarri

*Ikerkuntza, zientziak*

Organismoak, osasun-kalte hautemangaririk jasan gabe, bizitza osoan egunero har dezakeen substantzia baten kantitatea. Substantziaren miligramotan adierazten da, gorputz-pisua ren kilogramoko (mg/kg).

en *acceptable daily intake; ADI; admissible daily intake; tolerable daily intake*

es *dosis diaria aceptable; dosis diaria admisible*

fr *consommation journalière acceptable; DJA; dose journalière acceptable; dose journalière admissible*

☞ **gehienezko dosi onargarri**

## egur-ikatz

*Produktuak, materialak*

Eguraren errekuntza burutugabearen emaitza den ikatza. Solido beltz eta porotsua da, karbono-eduki handikoa eta kerik gabe erretzen dena.

en *charcoal*

es *carbón vegetal*

fr *charbon de bois*

## egur-mundrun

*Produktuak, materialak*

Zura distilatuz ateratzen den gai ilun eta likatsua. Osagaiak distilatzen den zur-motaren arabera dira. Mundrun gordina erregai gisa, zuraren babesgarri gisa edo istinkatzeko erabiltzen da nagusiki.

en *wood tar*

es *alquitrán de madera*

fr *goudron de bois; goudron végétal*

☞ **egur-ikatz; harrikatz-mundrun; mundrun**

## eguzki-energia

*Energia*

Eguzkiak igorritako uhin elektromagnetikoen erradiazio-energia.

en *solar energy; solar power*

es *energía solar*

fr *énergie solaire*

☞ **eguzki-instalazio termiko**

## eguzki-energia termiko

*Energia*

Eguzki-erradiazioa bihurtuz lortzen den bero-energia erabilgarria.

en *solar thermal energy; thermal solar energy*

es *energía solar térmica*

fr *énergie solaire thermique*

☞ **arkitektura bioklimatiko; eguzki-instalazio termiko**

## eguzki-erradiazio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak / Atmosfera*

Eguzkiak igortzen duen erradiazio elektromagnetikoa. Lurraren gainazalera iristen den eguzki-erradiazio gehiena 4 mikrometrotik beherako uhin-

luzerakoa da.

en *solar radiation*

es *radiación solar*

fr *rayonnement solaire*

☞ **berotegi-efektu**

## eguzki-instalazio termiko

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Etxeko ur beroa lortzeko, berokuntzarako, ur beroa eta prozesurako lurruna lortzeko, girotzeko edo elektrizitatea ekoizteko, eguzki erradiazioaren beroaz baliatzen den instalazioa.

en *solar thermal system*

es *instalación solar térmica*

fr *installation solaire thermique*

☞ **eguzki-energia termiko**

## eguzki-kolektore

SIN: kolektore

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Eguzkiaren erradiazioa jaso eta bero-energia bihurtzen duen gailua. Beroa fluido bati transmititzen zaio. Ahaltsuenak eguzki-izpiak puntu batean biltzen dituen ispilu-sistemaz osatuak dira, hots, kolektore kontzentratzaileak. Horiez gain, huts-kolektoreak eta eguzki-kolektore zapalak ere badira.

en *collector; solar collector*

es *captador solar; colector solar*

fr *accumulateur solaire; capteur solaire; collecteur solaire*

☞ **eguzki-instalazio termiko**

## eguzki-panel

☞ **panel fotovoltaiko**

## eguzkitu

☞ **intsolazio**

## eguzki-zelula

☞ **zelula fotovoltaiko**

## eguzki-zentral

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Energia elektrikoa lortzeko, eguzki-energia darabilen zentral elektrikoa.

en *solar power station*

es *central solar*

fr *centrale solaire*

☞ **eguzki-energia**

## eguzki-zentral termoelektriko

SIN: zentral heliotermiko

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Energia elektrikoa lortzeko, eguzki-erradiazioaren bero-energia darabilen zentral elektrikoa. Bero horren bidez lurrundutako likidoak birarazten ditu turbinak eta turbinak sorgailu elektrikoa.

en *solar thermal power plant; solar thermal power station; thermomechanical solar power station*

es *central heliotérmica; central solar termoeléctrica*

fr *centrale héliothermique; centrale héliothermoélectrique*

☞ **eguzki-instalazio termiko**

## ehiza

*Aisialdia, turismoa*

Animaliak atzematea edo hiltzea helburu duen jarduera.

en *bunting*

es *caza*

fr *chasse*

## ehiza-barruti

*Ingurumen-politika*

Animalien ugalketa eta kontserbazioa ziurtatzearen, ehizatzea debekatuta edo urte-sasoi jakinetan soilik baimenduta dagoen lurralde mugatua; halaber, eskubidedunek soilik ehiza dezaketen lursail pribatua.

en *game preserve*

es *coto de caza; vedado de caza*

fr *réserve de chasse*

☞ **ehiza**

## EHK

☛ **Europako Hondakin Katalogoa**

## EIA

☛ **Europako Ingurumen Agentzia**

## EIONET (EIONET)

SIN: Ingurumen Informazio eta Behaketako Europako Sarea

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Europako Ingurumen Agentziak eta Agentziaren kide diren estatuek ingurumena babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko behar duten informazioa ematen laguntzen duten erakundearen sarea, honako hauez osatua: Europako Gaikako Zentroak, Puntu Fokal Nazionalak eta informazio-sare nazionalen Elementu Osagai Nagusiak (Erreferentziako Zentro Nazionalak, Erkidegoko Puntu Fokalak eta beste hainbat erakunde, hala nola unibertsitateak, ikerketa-zentroak, laborategiak, enpresak, etab.). EIONET, aldi berean, Interneteko lotura publikoak erabiltzen dituen sare telematikoa (e-EIONET) da.

en *EIONET; European Environment Information and Observation Network*

es *EIONET; Red Europea de Información y Observación del Medio Ambiente*

fr *EIONET; Réseau Européen d'Information et d'Observation pour l'Environnement*

## ekobalantze

*Ingurumen-politika*

Produktu baten bizi-zikloaren azterketa osoa, diseinatzen denetik ezabatzen den arte. Produktu batek ingurumenean duen benetako inpaktua neurtzeko balio du, alderdi guztiak hartzen baititu, hala nola energia-kontsumoa eta lehengaien erabilera. Enpresan erabakiak hartzeko tresna lagungarria da.

en *eco-balance; ecological balance*

es *balance ecológico; ecobalance*

fr *écobilan*

☞ **produktuaren bizi-zikloaren azterketa**

## ekodiseinu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua / Ingurumen-politika*

Produktu baten kostuak, kalitatea, ergonomia eta abarrez gain ingurumena ere kontuan hartzen duen diseinu-mota.

en *eco-design*

es *ecodiseño*

fr *écodesign*

## ekoefizientzia

*Efektuak, eraginak / Ekonomia, finantzak*

Jarduera ekonomiko jakin baten ondorioz ingurumenean eragindako kalteen (baliabide ekologikoen erabilera eta poluzioa) eta ekoiztako produktu eta zerbitzuen kalitatearen arteko erlazioa. Kontzeptu hau Garapen Jasangarrirako Munduko Enpresen Kontseiluak asmatu zuen, 1992ko Lurraren Gailurraren kariatara. Gutxiagorekin gehiago egitean oinarrituta dago, eta bi helburu nagusi ditu: alde batetik, baliabideen kontsumoa eta substantzia toxikoen emisioak gutxitzea; bestetik, ekoiztako produktuen eta zerbitzuen birziklagarritasuna eta kalitatea hobetzea.

en *eco-efficiency*

es *ecoeficiencia*

fr *ecoefficacité*

## ekoetiketa

SIN: etiketa ekologiko

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Erakunde ofizial batek homologatutako etiketa, hura daraman produktua ingurumenari ahal den kalterik txikiena egiteko diseinatu eta ekoiztu dela egiaztatzen duena.

en *eco-label; ecolabel; environmental label*

es *ecoetiqueta; etiqueta ecológica*

fr *écolabel; label écologique*

☞ **bandera urdin; puntu berde**

## ekoikuskaritza

☛ **ingurumen-ikuskaritza**

## ekoizpen garbi

SIN: produkzio garbi

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua / Ingurumen-politika*

Industrietan baliabideak arretaz kudeatuz, hondakinak murriztu eta kudeatuz, produktuaren diseinu egokia zaindaz edota teknologia garbia erabiliz, ingurumenaren gaineko eragina minimizatzen duen ekoizpen-mota.

en *clean production*

es *producción limpia*

fr *production propre*

## ekologia

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Bizidunen eta ingurunearen arteko harremanak aztertzen dituen biologia-zientzia.

en *ecology*

es *ecología*

fr *écologie*

☞ **autoekologia; sinekologia**

## ekologia industrial

### Ingurumen-politika

Energia-kontsumoa, lehengaiak eta hondakinak murriztea helburu duen garapen industrialeko eredu. Merkatu-legeak kontuan izanik, ekologiaren oinarriak sistema industrialetan sarrarazten ahalegintzen da, baliabi-deak ahalik eta gehien aprobetxatuz ingurumen-inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin.

en *industrial ecology*  
es *ecología industrial*  
fr *écologie industrielle*

## ekologismo

→ **mugimendu ekologista**

## ekonomia ekologiko

### Ekonomia, finantzak / Ikerkuntza, zientziak

Ekosistemen eta ekonomia-sistemen arteko harremana adierarik zabalenean aztertzen duen ekonomiaren adarra. Diziplinartekoa da, diziplinei buruzko kontzeptzio normalak gainditu eta diziplina askoren ikuspegiak bateratu egiten baititu.

en *ecological economics*  
es *economía ecológica*  
fr *économie écologique*

## ekonomizagailu

### Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua

Zentral termikoetan-eta, errekuntza-ganberatik irteten diren hondar-gasen bero-energia galdara berotzen duen urari transferitzeko erabiltzen den bero-trukagailua. Horren bidez, bero-energia gutxiago xahutzen da errekuntzan, hondar-beroaren parte bat berriz erabiltzen baita, eta ingurunera bero gutxiago egozten da.

en *economiser; economizer*  
es *economizador*  
fr *économiseur*

☞ **errekuntza-gas; zentral termiko**

## ekosistema

### Biosfera / Ikerkuntza, zientziak

Ingurune fisikoak eta bizidunen komunitateak elkarrekintzan dauden biosferaren zatia. Bizitza mantentzeko beharrezkoak diren ezaugarriak dituen zatirik txikiena da, hau da, biotopo bateko organismoek, horien inguruneak eta bien arteko materia- eta energia-truke guztiek eratutako unitate funtzionala.

en *ecosystem*  
es *ecosistema*  
fr *écosystème*

## ekotipo

### Biosfera / Ikerkuntza, zientziak

Leku jakin bateko baldintzetara moldaturiko populazioa, espezieko beste populazioekiko berezitasun genetikoak dituena.

en *ecotype*  
es *ecotipo*  
fr *écotype*

## ekotono

### Biosfera

Bi landare-komunitateren eta, oro har, bi ekosistemaren arteko trantsizio-aldea (adib., basoaren eta belardiaren arteko muga, itsasertza,..). Organismo-dentsitate eta -dibertsitate handiagorako joera dute ekotonoek. Ekosistemak iraunarazteko funtsezkoak dira, eta energia eta materia trukatzen dute ekosistemen artean.

en *ecotone*  
es *ecotonía; ecotono*  
fr *écotone*

☞ **ekosistema**

## ekotoxiko

### Osasuna, nutrizioa

Ingurunean askatzen denean berehalako edo geroko efektu toxikoak sor ditzakeen substantzia edo prestakina. Europako Batasuneko 91/689 Zuzentarauaren arabera, substantziak eta hondakinak legez arriskutsutzat jotzeko ezaugarrietako bat da.

en *ecotoxic*  
es *ecotóxico, -a*  
fr *écotoxique*

☞ **erregarri; infektzioso; kaltegarri; kantzerigeno; korrosibo; leherkor; mutageno; narritagarri; sukoi; teratogeno; toxiko**

## ekotoxikologia

→ **ingurumen-toxikologia**

## ekotoxikotasun

### Osasuna, nutrizioa

Substantzia edo hondakin batek, ingurunean askatzen denean, efektu toxikoak sortzeko duen ahalmena.

en *ecotoxicity*  
es *ecotoxicidad*  
fr *écotoxicité*

☞ **ekotoxikologia**

## ekoturismo

SIN: turismo berde; turismo ekologiko

### Aisialdia, turismoa

Bidaiatzen den ingurunearekiko arreta eta ardura duen turismoa, ingurumen-inpaktu txikikoa, tokiko naturaz eta kulturaz gozatu baina andeatzen ez dituen, haien kontserbazioa sustatu eta tokiko populazioaren parte-hartzea eta onura sozioekonomikoa bilatzen duena eta nazioarteko giza eskubideak eta hitzarmen kolektiboak sustatzen dituena.

en *ecotourism; environmentally-friendly tourism; green tourism; soft tourism*

es *ecoturismo; turismo blando; turismo ecológico; turismo verde*  
fr *écotourisme; tourisme doux; tourisme écologique; tourisme vert*

☞ **turismo**

## ekozerga

→ **ingurumen-zerga**

## El Niño

→ **El Niño Hegoaldeko Oszilazioa**

## El Niño Hegoaldeko Oszilazioa

SIN: El Niño

### Atmosfera

Ozeano Bareko erdialdeko eta ekialdeko uraren azalaren berotze eta hozte ziklikoa.

en *El Niño; El Niño- South Oscillation; ENSO*

es *El Niño; El Niño Oscilación del Sur; ENOS*

fr *El Niño; El Niño Oscillation Australe*

👉 **itsaso**

## elektrizitatearen eroapen

SIN: eroapen

### Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak

Erresistibitatearen alderantzizkoa den magnitudea (S/m-tan adierazten da). Ur-disoluzio baten eroankortasuna neurtuz, ioi-kontzentrazioa kalkulatu ahal da.

en *conductivity; electric conductivity; specific conductance*

es *conductancia específica; conductividad; conductividad eléctrica*

fr *conductance spécifique; conductivité; conductivité électrique*

## elektrodialisi

### Kimika, substantziak, prozesuak

Tentsio elektrikoa aplikatuz eragindako dialisia. Ioiak mintz erdiragazkor batean barrena iragaiten dira. Ura desmineralizatzeko edo gatzgabetzeko erabiltzen da.

en *electrodialysis*

es *electrodialísis*

fr *électrodialyse*

👉 **dialisi; hondakin-uren arazketa**

## elektroiragazki

➔ **iragazki elektrostático**

## elementu sekundario

➔ **metagailu**

## Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundea

➔ **FAO**

## elikakate

➔ **elikatze-sare**

## elikasare

➔ **elikatze-sare**

## elikatze-kate

➔ **elikatze-sare**

## elikatze-sare

SIN: elikakate; elikasare; elikatze-kate; kate trofiko; sare trofiko

### Biosfera

Ekosisteman, elikatze-erlazioen arabera antolatutako organismo-segida, hau da, izaki bizidunen arteko energia-fluxua (energia elikagai ez-organiko zein janari organiko -bizidun- gisa garraia daiteke). Katearen maila bateko organismoek aurreko mailakoetatik lortzen dute janaria eta hurren-

goaren elikagai dira.

🗲 Adiera hertsian *kate trofiko*a eta *sare trofiko*a bereizi egiten dira: sare trofikoak elkarri lotutako kate trofikoaren multzoa da.

en *food chain; food web*

es *cadena alimentaria; cadena trófica; red trófica*

fr *chaîne alimentaire; chaîne trophique; réseau alimentaire*

## elutu

### Kimika, substantziak, prozesuak

Laborategian egindako lixibiazio-saiakuntzan lortutako disoluzioa.

en *eluate*

es *eluito*

fr *eluat*

## elutriazio

### Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak

Zatikari solidoak tamainaren arabera bereizteko metodoa, fluido baten korrante bat erabiliz gauzatzen dena. Fluido batean —ur- edo aire-korrante batean, adibidez— esekita dauden zatikiek, grabitate-indarraren eraginez, hondoratu edo jalkitzeko joera dute. Baina, bestalde, fluidoak eragindako arraste-indarra ere jasaten dute. Fluidoaren abiadura aldaraziz, arraste-indarra handiagotu edo txikiagotu egin daiteke eta jalkitze-abiadura eragin. Horrela lortzen da zatikari solidoak tamainaren arabera bereiztea.

en *elutriation*

es *elutriación*

fr *élutriation*

## emari

### Hidrosfera

Ibilgu, hodi, ubide, iturri eta abarretatik denbora-unitateko iragaiten den likido- edo gas-bolumena.

en *discharge; flow; flow rate*

es *caudal*

fr *débit*

## emari ekologiko

### Hidrosfera

Ibaiak bere habitat naturalen iraupena bermatzeko izan behar duen gutxienezko emaria.

en *ecological flow*

es *caudal ecológico*

fr *débit écologique*

## EMAS (EMAS)

SIN: Erkidegoko Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistema

### Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza

Erakunde batek ingurumenean sortutako eragina ebaluatu eta kudeatzeko bidea eskaintzen duen sistema (EMAS, Eco-Management and Audit Scheme; euskaraz, Ekokudeaketa eta Ikuskaritza Sistema), Europako Legebiltzarrak 1993ko ekainaren 26an onartua (1836/93 EEE Erregelamendua) eta 2001.ean berria (EMAS 761/2001 Erregelamendua). EMAS arautegia ez da nahitaez betetzekoa, borondatezkoa baizik. EMAS ziurtagiria eskuratzeko, erakundeek sei baldintza bete behar dituzte: ingurumen-inpaktuaren azterketa egitea, ingurumen-kudeaketa ezartzea, ingurumen-ikuskaritza egitea, ingurumen-inpaktuaren adierazpena prestatzea,

EMAS egiaztatzaile baten bidez egiaztatze independentea lortzea eta Europako Batasuneko estatu bateko erakunde eskudunean erregistratzea. Hori guztia egin eta gero, erakundeak erregistro-zenbakia jasoko du, eta, hortik aurrera, EMAS logotipoa erabili ahalko du.

en *Community eco-management and audit scheme; EMAS*  
es *EMAS; Sistema Comunitario de Gestión y Auditoría Medioambientales*  
fr *EMAS; système communautaire de management environnemental et d'audit*

☞ **ingurumen-inpaktuaren ebaluazio; ingurumena kudeatzeko sistema**

## emisio

1 SIN: isuri

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurunera isurtzen den gaia, gai-multzoa edo energia.

⚠ *Emisio* terminoak horrelako adiera zabala badu ere, eskuarki, aireatzen diren gasetarako erabiltzen da.

en *emission*  
es *emisión*  
fr *émission*

2 SIN: isurpen; isurtze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurunera substantziak botatzea edo energia (beroa, zarata, dardarak, erradiazioak, erradioaktibitatea, etab.) askatzea.

⚠ *Emisio* terminoak berez horrelako adiera zabala badu ere, eskuarki, aireatzen diren gasetarako erabiltzen da; horrelakoetan, gainera, *aireeratze* terminoa ere erabili ohi da.

en *emission*  
es *emisión*  
fr *émission*

☞ **isurpen kontrolatu; kontrolik gabeko isurpen**

## Emisio Poluitzaileen Europako Erregistroa

➔ **EPER**

### emisio-faktore

SIN: isurtze-faktore

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Emisio-iturri bati buruz, produzitu edo kontsumitutako unitateen eta sortutako poluzio-kantitatearen arteko erlazioa.

en *emission factor*  
es *factor de emisión*  
fr *facteur d'émission*

### emisio-inbentario

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ikerkuntza, zientziak*

Toki batean egiten diren emisioen mapa gutxi-asko zehatza egiteko biltzen den datu-multzoa. Mapan poluzio-iturri nagusien kokapena eta emisio-kantitatea agertzen da, baita poluzio-iturri txikiagoak dauden tokiak ere, eta azalera-unitateko dagokien emisio-kantitatea adierazten da.

en *emission inventory; source inventory*  
es *inventario de emisiones*  
fr *inventaire des émissions*

## emisio-iturri

➔ **poluzio-iturri**

### emisio-maila

SIN: isurtze-maila

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ikerkuntza, zientziak*

Emisio-iturri batek bolumen-unitateko aireatzen duen poluitzaile-kantitatea.

en *emission level*  
es *nivel de emisión*  
fr *niveau d'émission*

### emisio-muga

SIN: isurtze-muga

*Legeak, arauak, bitzarmenak*

Legeak iturri baten emisio-mailarako onartzen duen gehieneko balioa, gainditu behar ez dena.

en *emission standard*  
es *límite de emisión; norma de emisión*  
fr *limite d'émission; norme d'émission; norme de rejet*

☞ **emisio-maila**

## emisio-truke

*Ingurumen-politika*

Enpresen arteko emisio-eskubideen salerosketa, legeak ezarritako edo Kyotoko Protokoloan araututako gehieneko emisio-mailak ez gainditzeko hartu beharreko neurrien kostuak ahalik eta txikiak izatea helburu duena. Araututako gehieneko hori baino emisio-maila txikiagoa duten enpresek emisio-eskubideen 'soberakin' horren jabegoa, hau da, gehieneko mailara heltzeko falta zaien zatiaren jabegoa, saldu egin diezaiekete araututako gehienekoa baino gehiago isurtzen duten enpresei. Substantzia batzuen emisio-trukea arautua dago (adibidez, sufre dioxidoaren emisioa). Berotegi-efektuko gasen emisio-trukeari dagokionez, Kyotoko Protokoloaren garapenak truke hori ofizialdu, zehaztu eta arautu egin du.

en *emission trading*  
es *intercambio de emisiones*  
fr *échange des droits d'émission; négociation des droits d'émission*

☞ **Kyotoko Protokoloa**

## emulsio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Likido bat berarekin berez nahastezina den beste batean zatiki txikitik sakabanatuz sortzen den nahaste itxuraz homoginoa, berez egonkorra edo emulsionatzaile baten bidez egonkortzen dena.

en *emulsion*  
es *emulsión*  
fr *émulsion*

### emulsionatzaile

*Produktuak, materialak*

Bi likido nahastezinen arteko emulsioa sorrarazteko edota egonkortzeko erabiltzen den agente tentsioaktiboa.

en *emulsifier; emulsifying agent*  
es *agente emulsionante; emulsionante*

fr *agent émulsionnant; émulsifiant*

☞ **agente tentsioaktibo**

## endemiko

☞ **espezie endemiko**

## energia

*Energia*

Sistema batek lana sortzeko duen ahalmenaren neurria.

en *energy*

es *energía*

fr *énergie*

## energia atomiko

☞ **energia nuklear**

## Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentzia (EANA)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Energia atomikoaren bakezko erabilera bultzatzeko eta instalazio nuklearren segurtasuna zaintzeko nazioarteko erakundea, gobernuartekoa, 1956an sortua. Nazio Batuen Erakundeari atxikia dago. Laguntza teknikoa eskaintzen die gutxien garatutako estatuei eta erradiazio ionizatzaileetatik babesteko neurriak ezartzen ditu. Egoitza nagusia Vienan dago.

en *International Atomic Energy Agency (IAEA)*

es *Agencia Internacional para la Energía Atómica; AIEA; OIEA; Organismo Internacional de la Energía Atómica*

fr *Agence Internationale de l'Énergie Atomique; AIEA*

## energia berriztaezin

*Energia*

Naturan etengabe berritzen ez den eta agor daitekeen iturri batetik lortzen den energia, edo ustiatzen den baino askoz ere abiaduran motelagoan berritzen den eta, beraz, agortzeko arriskua dagoen iturri batetik lortzen dena.

⚠ Askotan, *energia berriztaezin*, *energia-iturri berriztaezin* eta *energia-baliabide berriztaezin* sinonimotzat erabiltzen dira.

en *non-renewable energy*

es *energía no renovable*

fr *énergie non renouvelable*

☞ **energia-baliabide berriztaezinak; energia-iturri; energia-iturri berriztaezin**

## energia berriztagarri

*Energia*

Naturan etengabe berritzen den eta agortzen ez den iturri batetik lortzen den energia.

en *renewable energy*

es *energía renovable*

fr *énergie renouvelable*

☞ **biomasa-energia; eguzki-energia; energia geotermiko; energia hidrauliko; haize-energia; itsasoko bero-energia; marea-energia; olatuen energia**

## energia bigun

*Energia*

Lortu edo erabiltzeko uanean hondakinik sortzen ez duen energia, ingurumenean eragin txikia duena, poluzio kimiko zein akustikorik ez dakarrena eta modu deszentralizatuan, banaketa-sareen menpe egon gabe eta instalazio txikietan, erabil daitekeena. Adibidez, eguzki-energia eta haize-energia.

⚠ *Energia bigun* eta *ordezko energia* terminoak ia sinonimoak dira.

en *soft energy*

es *energía blanda; energía limpia*

fr *énergie douce*

☞ **ordezko energia**

## energia eoliko

☞ **haize-energia**

## energia geotermiko

*Energia*

Lurraren barneko beroaz baliatuz lortzen den energia.

en *geothermal energy; geothermal power*

es *energía geotérmica*

fr *énergie géothermique*

☞ **zentral geotermiko**

## energia hidrauliko

*Energia*

Uraren energia zinetiko (ur-lasterraren abiadura) edo potentzialaz (ur-lasterraren altuera-desberdintasuna) baliatuz lortzen den energia.

en *hydraulic power; hydropower; water power*

es *energía hidráulica*

fr *énergie hydraulique*

☞ **urtegi; zentral hidroelektriko**

## energia hidroelektriko

*Energia*

Energia hidraulikoa erabiliz lortutako energia elektrikoa.

en *hydroelectric energy; hydroelectric power*

es *energía hidroeléctrica*

fr *énergie hydroélectrique*

☞ **energia hidrauliko**

## energia nuklear

SIN: atomo-energia; energia atomiko

*Energia*

Atomo-nukleoen fisio edo fusioan askatzen den energia.

⚠ Gaur egun, *energia nuklear* da termino hobetsia eta gehien erabiltzen dena.

en *atomic energy; atomic power; nuclear energy; nuclear power*

es *energía atómica; energía nuclear*

fr *énergie atomique; énergie nucléaire*

☞ **erreaktore nuklear; fisio nuklear; fusio nuklear; zentral nuklear**

## energia termiko



## Energia

Ikatz, petrolio, gas natural eta beste zenbait erregai erabiltzen dituzten makinak errekuntzan sortzen duten bero-energia.

en *thermal energy*  
es *energía térmica*  
fr *énergie thermique*  
☞ **zentral termiko**

## energia-baliabide berriztaezinak

Naturan etengabe berritzen ez diren eta ahi daitezkeen energia-baliabideak edo, giza erabileraren ikuspegitik, ustiatzen diren baino askoz ere abiadura motelagoan berritzen diren eta, beraz, gizakiaren denbora-eskala kontuan izanez gero ahitzeko arriskua dutenak.

en *non-renewable energy resources*  
es *recursos energéticos no renovables*  
fr *ressources énergétiques non renouvelables*  
☞ **energia berriztaezin; energia-baliabideak; energia-iturri; energia-iturri berriztaezin**

## energia-baliabide berriztagarriak

### Energia

Naturan etengabe berritzen diren eta ahitzen ez diren energia-baliabideak, edo, giza erabileraren ikuspegitik, ezin ahituzkotzat jo daitezkeenak. Esate baterako, jakina da eguzki-energia egunen batean ahitu egingo dela (erregai nuklearra agortzen dutenean, izarrak 'itzali' egiten dira), baina hori gertatzerako iragango den denbora oso handia da, eta, beraz, gaur egun Eguzkitik datorkigun energia ezin ahituzkotzat jo dezakegu. Berriztagarritzat jo litezkeen beste energia-baliabide batzuen kasuan, ostera, kontuan izan behar da gizakiaren ustiatze-abiadura baliabideen berriztatze-abiadura baino handiagoa izanez gero izakinak urrituz doazela eta, azkenean, ahitu ere egin litezkeela.

en *renewable energy resources*  
es *recursos energéticos renovables*  
fr *ressources d'énergies renouvelables*  
☞ **energia berriztagarri; energia-baliabideak; energia-iturri; energia-iturri berriztagarri**

## energia-baliabideak

### Baliabideak / Energia

Herri baten edo, oro har, gizarte baten energia-beharrak asetzeko ustia daitezkeen baliabide naturalak

! *Energia-baliabideak* eta *energia-iturriak* terminoek oso antzeko esanahia dute oro har, eta, sarritan, sinonimotzat erabiltzen dira. Dena den, ñabardura txiki bat dago bien artean: *energia-iturriak* naturan diren gai edo energia-mota jakin batzuk dira (erregai fosilak, eguzki-energia, etab.); *energia-baliabideak* terminoarekin, ostera, herri batek behar duen energia erabilgarria lortzeko ustiatzen diren edo ustia daitezkeen baliabide naturalen multzoa adierazi ohi da. Horrenbestez, toki batean energia-baliabide asko badaude, energia asko lortu ahal izango da, kontuan hartu barik toki horretan energia-iturri mota asko edo gutxi dagoen.

en *energy resources*  
es *recursos energéticos*  
fr *ressources énergétiques*  
☞ **baliabide naturalak; energia; energia-iturri**

## energia-iturri

### Energia

Energia erabilgarri bihur daitezkeen edozein gai, fenomeno, energia eta abar (adibidez, erregai fosilak, eguzki-argia, haizea, urtegiko uren energia potentziala, material fisioagarriak, etab.).

en *energy source*  
es *fuelle de energía*  
fr *source d'énergie*  
☞ **energia; energia-baliabideak**

## energia-iturri berriztaezin

### Energia

Naturan etengabe berritzen ez den eta ahitu egin daitezkeen energia-iturria edo, giza erabileraren ikuspegitik, ustiatzen den abiaduran berritzen ez delako ahitzeko arriskua duena. Energia-iturri berriztaezinen artean daude, besteak beste, erregai fosilak (harrikatza, petrolio, gas naturala) eta fisiozko erreaktore nuklearretan erabiltzen diren erregai nuklearrak.

en *non-renewable energy source*  
es *fuelle de energía no renovable; fuente energética no renovable; fuente no renovable de energía*  
fr *source d'énergie non renouvelable*  
☞ **energia berriztaezin; energia-baliabide berriztaezinak; energia-iturri**

## energia-iturri berriztagarri

Naturan etengabe berritzen den eta ahitzen ez den energia-iturria edo, giza erabileraren ikuspegitik, ezin ahituzkotzat jo daitezkeena. Energia-iturri berriztagarrien artean daude, besteak beste, biomasa, energia geotermikoa, energia hidraulikoa, eguzki-energia, haize-energia eta itsas energia.

en *renewable energy source*  
es *fuelle renovable de energía*  
fr *source d'énergie renouvelable*  
☞ **energia berriztagarri; energia-baliabide berriztagarriak; energia-iturri**

## energia-kontsumo

### Energia

Prozesu batean erabiltzen den energia-kantitatea.

en *consumption of energy; energy consumption*  
es *consumo de energía*  
fr *consommation d'énergie*  
☞ **energiaren kontserbazio**

## energiaren berreskuratze

### Energia

Prozesu bat egitean erabili gabe gelditzen den hondar-energia, inguruna askatu beharrean, energia erabilgarria lortzeko berreskuratzea, prozesu berean edo beste batean erabiltzeko. Energiaren kontserbaziorako bideetako bat da, energia gutxiago kontsumitzeko aukera ematen duelako.

en *energy recovery*  
es *recuperación de energía; recuperación energética*  
fr *recupération d'énergie; récupération énergétique*  
☞ **baterako sorkuntza; ekonomizagailu; energiaren kontserbazio; ziklo konbinatuko zentral elektriko**

## Energiaren Euskal Erakundea (EEE)

### Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza

Eusko Jaurlaritzak 1982an sortutako erakundea. EAeko energia-sistemaren hobekuntza etengabea lortzea du helburu, eta, horren bidez, herrial-

dearen lehiakortasuna garatu eta sustatzea, herritarren bizi-kalitatea hobetzea, ingurumena zaindu eta hobetzea eta kontrolpean ez dauden gertaera eta krisien eraginari aurre egiteko ahalmena handitzea. EVeren jarduerardatz nagusiak hiru dira: aurreztearen eta energia-eraginkortasunaren aldeko neurriak sustatzea, energia-baliabide berriztagarrien ustiapena bultzatzea eta gas naturalaren garapena.

es *Ente Vasco de la Energía; EVE*

## energiaren kontserbazio

Energia gutxiago kontsumitzea eta, batez ere, energia-iturri ez berriztagarriak ez xahutzearen, energia modu arrazoizko eta eraginkorragoan erabiltzea helburu duten neurri eta prozeduren multzoa bere baitan hartzen duen terminoa. Neurri eta prozedura horien artean, honako hauek daude: kontsumitzeko ohiturak aldatu eta energiaren kontsumoa jaistea, energia berriztagarriak erabiltzea, energia-bihurketaren errendimendua hobetzen duten teknologiak erabiltzea, energia-iturriak dibertsifikatzea, etab.

en *energy conservation*  
es *conservación de la energía*  
fr *conservation de l'énergie*

## entzumen-atari

*Biosfera*

Halako maiztasuneko soinurako, entzumenak hauteman ahal izateko behar den soinu-presiorik txikiena.

en *audibility threshold; hearing threshold; threshold of hearing*  
es *umbral auditivo; umbral de audibilidad; umbral de audición*  
fr *seuil d'audibilité; seuil d'audition*

## EPA

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Ingurumena eta pertsonen osasuna zaintzeaz arduratzen den Estatu Batuetako erakunde federala.

en *EPA (Environmental Protection Agency)*  
es *EPA*  
fr *EPA*

## epe ertaineko efektu

*Efektuak, eraginak*

Urte batetik bost urtera bitartean nabaritzen has daitekeen ingurumen-efektua.

en *medium term effect*  
es *efecto a medio plazo*  
fr *effet à moyen terme*

☞ **epe luzeko efektu; epe motzeko efektu; ingurumen-efektu**

## epe laburreko efektu

☞ **epe motzeko efektu**

## epe luzeko efektu

*Efektuak, eraginak*

Bost urte iragan ondoren nabaritzen has daitekeen ingurumen-efektua.

en *long term effect*  
es *efecto a largo plazo*  
fr *effet à long terme*

☞ **epe ertaineko efektu; epe motzeko efektu; ingurumen-efektu**

## epe motzeko efektu

SIN: epe laburreko efektu

*Efektuak, eraginak*

Urtebeteko epean nabari daitekeen ingurumen-efektua.

en *short term effect*  
es *efecto a corto plazo*  
fr *effet à court terme*

☞ **epe laburreko efektu; epe luzeko efektu; ingurumen-efektu**

## EPER (EPER)

SIN: Emisio Poluitzaileen Europako Erregistroa

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Europako Batasuneko poluzio-isurketen erregistro publikoa, industrietan eragiten duten poluzioa murriztea eta instalazio handi eta ertainetan atmosferara eta uretara egiten diren isurketak kontrolatzea helburu duena.

en *EPER; European Pollutant Emission Register*  
es *EPER; REEC; Registro Europeo de las Emisiones Contaminantes*  
fr *EPER; REEP; Registre Européen des Émissions de Polluants*

☞ **kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratu**

## epilimnion

*Hidrosfera*

Tenperatura desberdineko geruzak dauden ur-masa batean, termoklinaren gaineko ur-geruza.

en *epilimnion*  
es *epilimnion*  
fr *épilimnion*

☞ **geruzapen; hipolimnion; itsaso; termoklina**

## erabilera anitzeko sistema

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Funtzio sozio-ekonomiko anitz (ekosistemen kontserbazio eta babes, bertako produktuen ustiapena, aisialdia edo erabilera kulturala) modu jasangarrian betetzen dituen eskualde edo ingurune mugatuak duen ekoizpen-sistema.

en *multiple use system*  
es *sistema de uso múltiple*

## eragindako erradioaktibitate

☞ **erradioaktibitate artifizial**

## eraikin gaixoaren sindrome

*Osasuna, nutrizioa*

Eraikin baten barruko giroan dagoen poluzioaren ondorioz pertsonak nozitzen dituzten gaitz eta asalduren multzoa. Sintoma nagusiak ezarri, sudurzulo eta begien narritadura, buruko mina eta nekea dira. Arrazoi nagusia aire-kalitate txarra da, eta eragileak hauek dira: aireztapen nahikorik eza (gela itxiak eta airea girotzeko instalazioak), airean gelditzen diren garbitzeko produktuen eta desinfektatzaileen hondarrak, hormak, zoruak eta sabaia estaltzeko materialetatik eta altzarietatik aieratzen diren substantziak, tabako-kea, hautsa eta abar. Horiez gain, argiztapen desegokiak eta erradiazioek ere badute zerikusia.

en *sick building syndrome*  
es *síndrome del edificio enfermo*  
fr *syndrome de l'immuable insalubre; syndrome des bâtiments malades*

## eraikuntzako eta eraispeneko hondakin

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak) / Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Eraikinak, zubiak, zoladurak edo antzeko egiturak eraiki, birmoldatu, konpondu edo eraistean sortzen den gaia. Arriskutsuak izan daitezke, besteak beste, beruna, amiantoa edota beste substantzia arriskutsu batzuk izan ditzaketelako. Amiantoa, esaterako, eraikina bota aurretik jaso behar da, legearen arabera.

en *construction and demolition waste*  
es *residuo de construcción y demolición*  
fr *déchet de construction et de démolition*

## eraikuntzako hondakin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Eraikinak egiteko, konpontzeko edo berritzeko lanen ondorioz sortzen den hondakina, eraikuntzarako gaiez eta horien bilgarriez osatuak.

en *building waste; construction waste*  
es *residuo de la construcción*  
fr *déchet de construction*

☞ **hondakinak**

## eraiste-hondakin

☞ **hondakinak**

## erdibizitza

1

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ikerkuntza, zientziak*

Ingurunean poluitzaile baten kantitatea erdira jaisteko behar den denbora.

en *half-life; half-life period*  
es *semivida*  
fr *demi-vie; période de demi-vie*

☞ **poluzio**

2 SIN: desintegrazio-periodo; semidesintegrazio-periodo

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak / Ikerkuntza, zientziak*

Substantzia erradioaktibo baten atomoen erdiak desintegratzeko behar den denbora.

en *decay periodity; half-life; half-life period; radioactive half-life*  
es *periodo de desintegración; período de semidesintegración; período radiactivo; semivida radiactiva*  
fr *demi-vie; désintégration période; période de demi-vie; période radioactive*

☞ **batez besteko bizitza; erradioaktibitate**

## eremu babestu

☞ **natur gune babestu**

## Erkidegoaren Ingurumenaren arloko Ekintza Programa

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

2001eko urtarrilean Europako Batasuneko estatuetakoen gobernuen ordezkarien Kontseiluak onartutako programa politikoa, Europako Batasunak 2010 urtera arte izan behar duen ingurumen-politikaren esparru nagusia zedarritzen eta gidatzen duena. Arlo horretan aurretik izan diren

programetarik bereizteko, 'seigarren programa' esaten zaio, eta horixe da, hain zuzen, terminorik erabiliena: *seigarren programa (VI. programa)* edo *VI. Ekintza Programa*.

en *Community Environment Action Programme*  
es *Programa Comunitario de Acción en materia de Medio Ambiente*  
fr *Programme d'Action Communautaire pour l'Environnement*

☞ **ingurumen-politika**

## Erkidegoko Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistema

☞ **EMAS**

## eroapen

☞ **elektzitatearen eroapen**

## erradiazio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Energia espazioan zehar uhin zein korpuskulu eran hedatzea.

en *radiation*  
es *radiación*  
fr *radiation; rayonnement*

☞ **eguzki-erradiazio**

## erradiazio infragorri

SIN: izpi infragorriak

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

$8 \times 10^{-7}$ - $10^{-3}$  m bitarteko uhin-luzera duen erradiazio elektromagnetikoa, argiaren espektroan argi gorriaren eta mikrouhinen artekoa dena.

en *infrared radiation; infrared rays*  
es *radiación infrarroja; rayos infrarrojos*  
fr *rayonnement infrarouge; rayons infrarouges*

☞ **berotegi-efektua; eguzki-erradiazio; erradiazio**

## erradiazio ionizatzaile

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Zeharkatzen duen materialaren atomo edo molekulak ioi bihurtzeko adinako energia duen erradiazioa. Energia handiko partikulak izan daitezke (alfa eta beta partikulak) edo uhin-luzera txikiko erradiazio elektromagnetikoa (gamma izpiak, X izpiak eta erradiazio ultramoreak).

en *ionizing radiation*  
es *radiación ionizante*  
fr *rayonnement ionisant*

☞ **dosi baliokide; erradiazio; erradioaktibitate; xurgaturiko dosi**

## erradiazio ultramore

SIN: izpi ultramoreak

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

$4 \times 10^{-7}$  eta  $10^{-8}$  m bitarteko uhin-luzera duen erradiazio elektromagnetikoa, argiaren espektroan argi ikusgaiaren eta X izpien artekoa dena. Ikusezina eta ionizatzailea da. Izaki bizidunentzat arriskutsua da, biomolekulak suntsitu edo mutazioak sorrarazten dituelako. Eguzkiak igortzen duen erradiazio ultramorearen parte bat (290 nm baino uhin-luzera txikiagokoa eta, beraz, ionizatzaileena) estratosferako ozonoak xurgatzen du. Lurraren azalera heltzen den erradiazio ultramoreak D bitamina eratzea sustatzen du eta azaleko melanina pigmentua iluntzea dakar. Bestalde, ozonogerruzatzearen ondorioz erradiazio ultramore gehiago hel daiteke guga-

naino. Ondorioz, eguzki-erradiazioak larruzaleko minbizia sortzeko probabilitatea handitu egiten da.

en *ultraviolet radiation; ultraviolet rays*  
es *radiación ultravioleta; rayos ultravioletas*  
fr *rayonnement ultraviolet; rayons ultraviolets*  
☞ **erradiazio; ozono-geruzaren urritze**

## erradioaktibitate

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Zenbait elementuren nukleoak masaren parte bat energia handiko erradiazioa igorri galtzeko duten propietatea, berezkoa edo eragindakoa.

en *radioactivity*  
es *radiactividad; radioactividad*  
fr *radioactivité*  
☞ **desintegrazio erradioaktibo; fisio nuklear**

## erradioaktibitate artifizial

SIN: eragindako erradioaktibitate

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Nukleoa energia handiko neutroiz edo beste zenbait partikulaz bonbardatuz gertatzen den erradioaktibitatea. Lehergailu eta errektore atomikoen funtsezko gertakaria da.

en *artificial radioactivity; Induced radioactivity*  
es *radiactividad artificial; radiactividad inducida*  
fr *radioactivité artificielle*  
☞ **erradiazio ionizatzaile; hondakin erradioaktibo**

## erradioaktibitate handiko hondakin

☛ **aktibitate handiko hondakin erradioaktibo**

## erradioaktibitate natural

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Berez gertatzen den erradioaktibitatea, naturan dauden zenbait elementuren nukleo ezegonkorrek dutena.

en *natural radioactivity*  
es *radiactividad natural*  
fr *radioactivité naturelle*  
☞ **desintegrazio erradioaktibo; erradioaktibitate artifizial**

## erradioisotopo

☛ **isotopo erradioaktibo**

## errauskailu

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Hondakin solido, likido edota gaseosoak kontrolpeko tenperaturan errez erraus geldo, gas eta bero bihurtzeko labea.

en *incinerator*  
es *incinerador*  
fr *incinérateur*  
☞ **errausketa**

## errauskailu ibiltari

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Leku batetik bestera mugitu daitekeen euskarri batean, kamioi batean

esaterako, ezarritako errauskailua.

en *mobile incinerator*  
es *hornó móvil de incineración; incineradora móvil*  
fr *incinérateur mobile*  
☞ **errauskailu; errausketa**

## errausketa

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin solidoak tenperatura altuko errektuntza kontrolatuaren bidez materia geldo eta gas bihurtzeko tratamendu termikoa, hondakin solido (zepa eta errausak), likido (hondakin-urak) eta gaseosoak (errektuntza-gasak) sortzen dituena.

en *incineration*  
es *incineración*  
fr *incinération*  
☞ **errektuntza; hiri-hondakin solido**

## errausketa-instalazio

☛ **hondakinak errausketa instalazio**

## errausketa

☛ **hondakinak errausketa instalazio**

## erraus

*Produktuak, materialak*

Gai baten errektuntzak utzitako hondakin solidoa. Errausaren osagai nagusiak gaiaren ezpurutasun mineralak eta elementu ez-organikoak dira; hala ere, errektuntza osoa gertatzen ez denean, errausak materia organikoa ere izan dezake.

en *ash*  
es *ceniza*  
fr *endre*  
☞ **errausketa; zentral termiko**

## erraus hegalaria

*Produktuak, materialak*

Erregai edo hondakin baten errektuntzaren emaitza den tamaina txiki-zatikia, errektuntza-gasekin batera aireatzen dena. Aireatzea eragotzeko, iragazki elektrostatisak eta mahukadun iragazkiak erabili ohi dira.

en *fly ash; flying ash*  
es *ceniza volante*  
fr *endre volante; envol*  
☞ **iragazki elektrostatisak; zentral termiko**

## errektore nuklear

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Atomo-nukleoaren fisioa sortu eta kontrolatzeko aparatua. Fisioa eragiteko, nukleoa neutroiz bonbardatzen da, eta, ondoriozko kate-erreakzioa kontrolatzeko, neutroi-moderatzailea erabili ohi da. Askatzen den bero-energia energia elektrikoa sortzeko erabiltzen da (ura lurrunduz eta lurruna turbina bat birarazteko erabiliz).

en *nuclear reactor*  
es *reactor nuclear*  
fr *réacteur nucléaire*  
☞ **energia nuklear; fisio nuklear; zentral nuklear**

## erreakzio nuklear

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Atomoaren nukleoa transformatzen den erreakzioa. Emaizta beste nukleo batzuk, neutroiak eta erradiazioa dira, eta energia handia askatzen da. Erreakzio nuklear nagusiak fisioa, fusioa eta desintegrazio erradioaktiboa dira.

en *nuclear reaction*  
es *reacción nuclear*  
fr *réaction nucléaire*

☞ **desintegrazio erradioaktibo; fisio nuklear; fusio nuklear**

## erreduktoare

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Beste substantzia baten erredukzioa eragin dezakeen substantzia; elektroiak galtzeko joera duen substantzia.

en *reducing agent; reductant*  
es *agente reductor; reductor*  
fr *réducteur; -trice*

☞ **oxidatzaile; oxidazio-erredukzio**

## erredukzio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Substantzia batek oxigenoa galtzea edo hidrogenoa hartzea; adiera zabalean, atomo edo ioi batek elektroiak hartzea. Oxidazioaren alderantzizko erreakzioa da, eta harekin batera gertatzen da beti.

en *reduction*  
es *reducción*  
fr *réduction*

☞ **oxidazio; oxidazio-erredukzio**

## erregai

### 1

*Produktuak, materialak*

Erre daitekeena; errekuntza-erreakzioan parte hartu eta bero-energia sortzen duena.

en *combustible*  
es *combustible*  
fr *combustible*

☞ **bioerregai; erregai fosil; erregai garbi; erregai nuklear; ordezeko erregai**

### 2

*Produktuak, materialak*

Oxigenoarekin (eskuarki aireko oxigenoarekin) erreakzionaraziz bero-energia lortzeko erabiltzen den substantzia.

en *fuel*  
es *combustible*  
fr *combustible*

☞ **erregai fosil; erregai garbi; errekuntza; ordezeko erregai**

### 3 ➔ motor-erregai

## erregai fosil

*Produktuak, materialak*

Presioak eta tenperaturak lur azpian metatutako materia organikoan eragindako aldaketa fisiko eta kimikoen emaitza den gai organikoa edo gai horien nahastea (adibidez, ikatza, gasa, petrolio, etab.).

en *fossil fuel*  
es *combustible fósil*  
fr *combustible fossile*

☞ **erregai; gas natural; harrikatz; petrolio**

## erregai garbi

*Produktuak, materialak*

Ahalmen poluitzaile txikiko edo ohiko erregaiek (gasolina, gasolioa, fuel-olioa..) baino ahalmen poluitzaile txikiagoko erregaiak, bereziki erretzean horiek baino sufre-oxido, errauts eta konposatu organiko lurrunok gutxiago aireratzen dituenak, hala nola gas naturala, petrolioaren gas likido-tuak, gas fabrikatuak, etab.

en *clean fuel*  
es *combustible limpio*  
fr *combustible propre*

☞ **ordezko erregai**

## erregai nuklear

*Produktuak, materialak*

Erreaktoare nuklearrean nukleoaren fisio kontrolatuaren bidez bero-energia aska dezakeen substantzia. Erregai nuklearraren konposizioa erreaktoare-motaren arabera aldatzen da. Potentzia-erreaktoaretan, erregai erabilienak uranio naturala, uranio oxido naturala eta aberastua (UO<sub>2</sub>) eta uranio karburo aberastua (UC<sub>2</sub>) dira; erreaktoare birsortzaileetan, osterak, plutonio oxidoa (PuO<sub>2</sub>) da erabiliena. Erregai nuklearra pastilla- edo barra-formako pusketan fabrikatzen da. Horrelako puskek zorro batean sartu eta erregai-atalak osatzen dituzte. Horiek erregai-multzo izeneko egituretan antolatzen dira.

en *nuclear fuel*  
es *combustible nuclear*  
fr *combustible nucléaire*

☞ **energia nuklear; erreaktoare nuklear**

## erregaiaren errendimendu

*Energia*

Erregai baten errekuntzan askatutako beroaren eta askatutako bero erabilgarriaren arteko erlazioa. Berorik askatzen ez duten erregai-osagaien eta lana egiteko balio ez duen askatutako beroaren arabera izaten da. Kontzeptu hau garrantzitsua da, batez ere energiaren kontsumoaren ikuspegitik; ibilgailu batean, esaterako, erregai batek zenbat eta errendimendu handiagoa izan, kilometro gehiago egin daitezke erregai-litroko.

en *fuel efficiency*  
es *eficiencia del combustible*  
fr *rendement d'utilisation du carburant; rendement du combustible*

## erregai-pila

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Erregaiaren energia kimikoa zuzenean energia elektriko eta bero-energia bihurtzen duen gailu elektrokimikoa.

en *fuel cell*  
es *pila de combustible*  
fr *pile à combustible*

## erregarri

### 1

*Produktuak, materialak*

Substantzia erregai edo sukoiekin oso erreakzio exotermikoak dituen substantzia edo prestakina. Europako Batasunaren 92/32 Zuzentarauaren arabera, substantziak eta hondakinak legez arriskutsuztat jotzeko ezaugarrietako bat da. Gai erregarrien etiketatzen O ikurra erabiltzen da.

en *comburent*  
es *comburente*  
fr *comburant*

☞ **ekotoxiko; infektzioso; kaltegarri; kantzerrigeno; korrosibo; leherkor; mutageno; narritagarri; sukoi; teratogeno; toxiko**

### 2

*Produktuak, materialak*

Errekuntza-erreakzioko oxidatzailea (oxigenoa edo gai oxigenoduna).

en *comburent*  
es *comburente*  
fr *comburant; comburent*

## erreka

➔ **ibai**

## errekuntza

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Substantzia baten eta oxigenoaren arteko erreakzio exotermikoa.

en *combustion*  
es *combustión*  
fr *combustion*

☞ **erreaktorea; errekuntza-ganbera; errekuntza-gas**

## errekuntza-ganbera

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Erreaktorea, erregaiaren edo erregaitzat erabilitako hondakinaren errekuntza-erreakzioa gertatzen den espazio itxia.

en *combustion chamber*  
es *cámara de combustión*  
fr *chambre de combustion*

☞ **errekuntza**

## errekuntza-gas

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Errekuntza-erreakzio batean sortzen den gas-nahastea. Karbono-oxidoak, nitrogeno-oxidoak, sulfuro-oxidoak, ur-lurrina eta bestelako konposatu kimikoak izan ditzake.

en *combustion gas; flue gas*  
es *gas de combustión*  
fr *gaz de combustion*

☞ **errekuntza; ke**

## erremediatze

*Ingurumen-politika*

Hondakindegietako poluitzaile arriskutsuak deuseztatzeko edo polui-

tzaile horiek ingurumenean eta osasunean eragiten duten kaltea arintzeko erabiltzen diren tekniken multzoa, hau da, poluitzaileak kontrolatu, ezabatu eta deuseztatzea edo poluitzaile-mailari eustea helburu duten tekniken multzoa.

en *remediation*  
es *remediación*

## errepikatze-denbora

SIN: itzulera-denbora

*Ikerkuntza, zientziak*

Gertakari natural baten eta haren mailako edo hura baino handiago-ko hurrengoaren artean kalkulatu den batez besteko denbora-bitartea. Gertakari arriskutsuetarako kalkulatu ohi da (uholdeak, lurrikarak, tsunamiak, urakanak, lehorteak, sumendi-erupzioak, etab.).

en *recurrence interval; return period*  
es *intervalo de recurrencia; período de retorno*  
fr *période de récurrence; période de retour*

## erreserba integral

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Hedadura txikia eta berebiziko interes ekologikoa duen eremu babes-tua, dauzkan ekosistemak kontserbatzea helburu duena. Hori dela eta, ekosistema horiek suntsitu, narriatu, aldatu, asaldatu edo itxuraldatuko lituzketen ekintza eta jarduera oro debekatuta daude bertan. Nafarroako Foru Erkidegoaren Nafarroako Naturaguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legean ezartzen den gune babestu motetako bat da.

Hiru erreserba integral daude Nafarroan, hirurak Pirinioetan:

- Ukerdi (322,5 hektarea)
- Aztaparreta (100 hektarea)
- Lizaridoia (64 hektarea).

es *reserva integral*  
☞ **natur gune babestu**

## errodentizida

*Produktuak, materialak*

Karraskarien kontrako pestizida.

en *rodenticide*  
es *rodenticida*  
fr *rodenticide*

☞ **pestizida**

## erupzio

*Litosfera*

Lurraren barnealdeko materialak (laba, gasa, hautsa, etab.) lurrazale-tik kanporatzea, askotan bortizki.

en *eruption*  
es *erupción*  
fr *éruption*  
☞ **sumendi**

## Eskolako Agenda 21

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Tokiko Agenda 21 programaren barnean lan egiteko, hezkuntza-komunitateak hartzen duen konpromisoa eta bideratzen duen ekintza-

plana. Eskolan bertan zein eskolaren ingurunean garapen iraunkorraren alde lan egitea da helbururik behinena.

en *School Agenda 21*  
es *Agenda 21 Escolar*  
fr *Agenda 21 scolaire*

👉 **Agenda 21; ingurumen-hezkuntza; Tokiko Agenda 21**

## espezie babestu

*Ingurumen-politika*

Legezko babesa ematen zaion espeziea, arriskuan dagoelako edo garrantzi zientifiko, ekologiko edo sozial berezia duelako.

en *protected species*  
es *especie protegida*  
fr *espèce protégée*

👉 **Batasunaren intereseko espezie; espezie mehatxatu; kontserbazio bereziko eremu**

## espezie bakan

*Ingurumen-politika*

Euskal Autonomia Erkidegoaren 16/1994ko Legean (ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Natura Kontserbatzekoa) zehazten den espezie edo azpiespezie mehatxatu mota (landarea nahiz animalia), eremu geografiko txikietan bizi diren edo eremu zabal batean sakabanatuta dauden populazio txikiak izatea ezaugarri duena, eta galtzeko arriskuan ez dagoena edo kaltebera ez dena. Adibidez, lepahoria (*Martes martes*).

en *rare species*  
es *especie rara*  
fr *espèce rare*

👉 **espezie babestu**

## espezie endemiko

SIN: endemiko

*Biosfera*

Lurralde jakin batean bakarrik bizi den landare- edo animalia-espezia. Adibidez, *Armeria euskadiensis* landarea Euskal Herriko kostaldeko espezie endemikoa da.

en *endemic; endemic species*  
es *endémico; especie endémica*  
fr *endémique; espèce endémique*

## espezie exotiko

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Tokikoa ez den, jatorriz toki horretakoa ez den animalia- zein landare-espezia.

en *exotic species*  
es *especie exótica*  
fr *espèce exotique*

## espezie habitataren eraldaketarekiko sentibera

➔ **habitataren eraldaketaren mendeko espezie**

## espezie inbaditzaile

*Biosfera*

Jatorriz eskualde batekoa izanik, beste eskualde batean zabaltzen den espeziea, eskualde horretako ekosistema, habitat eta espezieei kalte egin

diezaiekeena. Azken urteotan, espezie inbaditzaileak asko zabaldu dira munduan, bai jendearen mugikortasunaren ondorioz bai espezie arrotzen eskuragarritasunagatik ere.

en *invasive species*  
es *especie invasiva*  
fr *espèce envahissante*

## espezie kaltebera

*Ingurumen-politika*

Bizi den egoeraren eragileei aurre egiten ez bazaie, *galzoriko espezie* edo *habitataren eraldaketarekiko espezie sentibera* motakotzat hartua izateko arriskuan den landare- edo animalia-espezia.

en *vulnerable species*  
es *especie vulnerable*  
fr *espèce vulnérable*

👉 **espezie babestu**

## espezie mehatxatu

*Ingurumen-politika*

Natur prozesuen zein giza jardueren ondoriozko ingurumen-aldaketek arriskuan jarri duten landare- edo animalia-espezia. Arriskua hainbat faktorek eragin dezakete: populazioa urria izatea, oso eremu txikian bizitzea, mehatxatuta dauden habitatatetaz biziitzea, habitat horiek urriak izatea, gehiegizko ustiatzea, etab.

en *threatened species*  
es *especie amenazada*  
fr *espèce en danger; espèce menacée*

👉 **espezie babestu**

## esposizio

1

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

X erradiazio edo gamma erradiazio batek aire-bolumen batean sortutako zeinu bereko ioi guztien karga elektrikoaren baturaren eta aire-bolumen horren masaren arteko zatidura. Unitaterik erabiliena *roentgen*-a da (SI sistemako unitatea *coulomb/kilogramo* da).

en *exposure*  
es *exposición*  
fr *exposition*

2

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Organismo edo material bat poluitzaile baten eraginpean gertatzea.

en *exposure*  
es *exposición*  
fr *exposition*  
👉 **esposizio akutu**

## esposizio akutu

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Organismo bat (gizakia barne) kalte biologiko larria edo heriotza eragin dezakeen poluitzaile baten edo batzuen (substantzia edo erradiazioa) eraginpean aldi bakar batean eta denbora laburrean gertatzea. Eskuarki, egun bat edo gutxiago irauten duten esposizioei buruz esaten da.

en *acute exposure*  
es *exposición aguda*

fr *exposition aigüe*

## estalgarri

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakindegia kontrolatuetan, usain txarra ez sortzeko, intsektu eta karraskariak ingura ez daitezen, haizeak paper eta plastikoa barrea ez ditzan eta, oro har, hondakin solido trinkotuak estaltzeko erabiltzen den materiala, eskuarki lurra edo hareia.

en *cover; cover material*  
es *material de cobertura*  
fr *matériau de couverture*

👉 **hondakindegia kontrolatu**

## estaltze-labore

➔ **babes-labore**

## estepa

SIN: belardi

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Landare belarkarez osatutako landaredia. Ipar Amerikako eta Eurasiako erdialdean eta Hego Amerikako hegoaldean daude nagusiki. Klima kontinentalaren muturreko ezaugarriak ditu (negu hotz-hotzak eta uda bero eta oso lehorrak).

🗣️ *Belardi* hitzak ere ondo deskribatzen du landaredi-mota hori. Nolanahi ere, nazioartean forma nagusia *estepa* da, eta euskaraz ere huraxe hobestea komeni da, kontuan izanik *belardi* hitzak esanahi gehiago ere badituela. Adibidez, gizakiak sortutakoak ere badira *belardiak*, baina ez dira *estepak*.

en *grassland; steppe*  
es *estepa; pradera*  
fr *prairie; steppe*  
👉 **ekosistema**

## esterilizazio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak / Kimika, substantziak, prozesuak*

Mikroorganismoak prozedura fisikoz (beroa, izpi ultramoreak, erradiazio ionizatzaileak) edo kimikoz (antiseptikoak) hiltzea.

en *sterilization*  
es *esterilización*  
fr *stérilisation*

👉 **autoklabe**

## estintzio

➔ **suntsipen**

## estolda

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Herri, gune urbanizatu edo industrialde bateko euri-urak eta ur zikinak bideratu eta hustutzeko lurpeko ubidea.

en *sewer*  
es *alcantarilla*  
fr *égout*

## estolda-sare

➔ **estolderia**

## estolda-zulo

SIN: kainozulo

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Euri-urak eta hondakin-urak estoldara hustutzen diren zuloa.

en *drain*  
es *boca de alcantarilla; imbornal; sumidero*  
fr *bouche d'égout*

## estolderia

SIN: estolda-sare

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Euri-urak eta ur zikinak isurtze-tokira edo araztegira bideratzen dituzten estolda, kolektore eta gainerako egituren multzoa.

en *drainage; drains; sewer system*  
es *alcantarillado; red de alcantarillado*  
fr *égouts*

## estolderia bereizi

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Euri-urak eta hondakin-urak bereiz jaso eta hustutzen dituen estolda-sistema.

en *separate sewerage system*  
es *red de alcantarillado separativa*  
fr *réseau d'assainissement séparatif*  
👉 **estolda**

## estratifikazio

1 ➔ **geruzapen**

2 ➔ **geruzapen**

3 ➔ **geruzapen**

## estratosfera

*Atmosfera*

Troposferaren gaineko atmosfera-geruza, 50 km inguruko altituderainokoa. Behealdean tenperaturak konstante dirau, eta 20 km-tik gora altitudarekin igotzen da.

en *stratosphere*  
es *estratosfera*  
fr *stratosphère*  
👉 **atmosfera; exosfera; ionosfera; ozonosfera; troposfera**

## estrontzio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 38 duen elementua (Sr).

en *strontium*  
es *estroncio*  
fr *strontium*

## estuaria



## Hidrosfera

Ibaiaren bokalean marearen eraginez itsasoaren ur gazia ibaiaren ur gezarekin nahasten den eremua.

en *estuary*  
es *estuario*  
fr *estuaire*

👉 **ekosistema; itsasadar; kostalde**

## etiketa ekologiko

➔ **ekoetiketa**

## etxeko hondakin-urak

SIN: etxeko ur zikinak

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Etxebizitzetatik eta zerbitzu-guneetatik datozen hondakin-urak, sukalde eta bainugelako garbitasun-urak eta komuneko urak barne hartzen dituztenak.

en *domestic sewage; house sewage; household waste waters*  
es *aguas residuales domésticas*  
fr *eaux domestiques*

👉 **hondakin-uren arazketa**

## etxeko ur zikinak

➔ **etxeko hondakin-urak**

## etxeko zabor

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Etxeko kontsumoaren ondorio diren hondakin solidoen multzoa. Askotariko hondakinak izaten dira nahasian, eta horrek arazoak sortzen ditu hondakin-mota bakoitzari behar duen tratamendu egokia emateko. Gaikako zabor-bilketa bultzatzea da arazo hori konpontzeko bide bat.

en *domestic waste; household waste*  
es *basura doméstica; residuo doméstico*  
fr *déchet de ménage; déchet ménager; ordure ménagère*

👉 **hiri-hondakin solido; hondakindegia**

## euri azido

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Jalkin azido mota, lurrera euri, elur, laino eta abarrekin batera erortzen dena.

en *acid rain*  
es *lluvia ácida*  
fr *pluie acide*

## euri-oihan tropikal

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Urtaro lehorrik gabeko eskualde tropikal eta ekuatorial euritsuetan garatzen den oihana, urte osoan berde egoten dena. Munduko ekosistemarik emankorrenetakoa eta dibertsitate handienekoa da.

en *rain forest; tropical rain forest*  
es *selva tropical*  
fr *forêt tropicale*

👉 **ekosistema**

## euri-ur

## Hidrosfera

Euri, elur edo txingor moduan lurrera erortzen den ura. Euri-uraren ezaugarri fisiko eta kimikoak azaleko eta lurpeko uren osakeraren adierazle-etako batzuk dira, baita atmosferako poluzioarenak ere

⚠ Estolderietan jaso eta bideratu egiten denari *euri-urak* esaten zaio, eta horrela erabiltzen da, pluralean, lurzorurekin nahastu gabe dagoenetik bereizteko. Askotan, hala ere, bi termino horiek nahasita erabiltzen dira. Bestalde, kontzeptuak ere nahastu egiten dira maiz, eta biak kontzeptu bakar moduan ulertzen dira.

en *rain water; storm water*  
es *agua de lluvia*  
fr *eau de pluie*

👉 **euri-urak**

## euri-urak

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak) / Hidrosfera*

Prezipitazio atmosferikoen ondorioz lurrera heltzen diren eta bertatik isurtzen diren urak, estolderian jasotzen eta bideratzen direnak. Lehorteen osteko euri-urek poluzio-maila altua izan dezakete, lehorre-garaian pilatutako hauts kutsatzaileak garbitzen dituztelako; horregatik, batzuetan, lehorteen ondoren jasotzen diren euri-urak araztegiara bideratzen dira lehenengo, ibaira isuri aurretik

⚠ Lurzoruko substantziekin nahasi gabe dagoenari *euri-ur* esaten zaio, eta horrela erabiltzen da, singularrean, estolderietan jasotako uretatik bereizteko. Askotan, hala ere, bi termino horiek nahasita erabiltzen dira. Bestalde, kontzeptuak ere nahastu egiten dira maiz, eta biak kontzeptu bakar moduan ulertzen dira.

en *rainwaters*  
es *aguas pluviales*  
fr *eaux pluviales*

👉 **euri-ur; isurketa**

## Europako Hondakin Katalogoa (EHK)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza / Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Estatu kideen hondakinen arloko legeria bateratzeko, Europako Batasunak 1994an onartu eta argitaratutako hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen zerrenda (2002ko urtarillaren lehenean sartu zen indarrean bertsiio berrieta). Guztira ia 800 hondakin biltzen ditu, 20 kategoria nagusitan sailkatuta hondakina sortzen duen iturriaren arabera. Hondakina definitzeko, hiru maila bereizten dira: kategoria nagusia, azpikategoria eta hondakin-mota. Hondakin erradioaktiboak, hondakin gaseosoak eta baztertutako lehergaiak ez dira katalogoan sartu.

en *European Waste Catalogue; EWC*  
es *Catálogo europeo de residuos; CER*  
fr *Catalogue européen des déchets; CED*

👉 **hondakin arriskutsu**

## Europako Ingurumen Agentzia (EIA)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Ingurumena babesteko erakundea, Europako Erkidegoen Kontseiluak 1990ean sortua.

en *European Environment Agency (EEA)*  
es *Agencia Europea de Medio Ambiente (AEMA)*  
fr *Agence européenne de l'Environnement (AEE)*

☞ EIONET

## eutrofizazio

*Efektuak, eraginak*

Landareen elikagaiak eta ekoizpena emendatzearen ondorioz, ekosistema gertatzen diren aldaketa fisiko, kimiko eta biologikoen multzoa.

en *eutrophication*  
es *eutrofización*  
fr *eutrophisation*

## exosfera

*Atmosfera*

500 km-tik gora dagoen atmosfera-geruza. Handik gas arinenek ihes egiten dutela uste da.

en *exosphere*  
es *exosfera*  
fr *exosphère*

☞ **atmosfera; estratosfera; ionosfera; ozonosfera; troposfera**

## ez gure etxe ondoan

☞ **NIMBY**

## ez itzultzeko ontzi

SIN: behin erabiltzeko ontzi

*Produktuak, materialak*

Erabili ondoren botatzen den ontzia, saltzaileari itzultzen ez zaiona. Erabat birziklatu ezean, itzultzeko ontziek baino ingurumen-inpaktu handiagoa dute, hondakin solidoen bolumena handitzen dutelako eta lehengai gehiago xahutzen dutelako.

en *disposable package; disposable packaging; non-returnable package; one-trip packaging; one-way package; throw-away package*  
es *envase desechable; envase no reutilizable; envase sin retorno*  
fr *emballage à jeter; emballage non repris; emballage perdu*

☞ **itzultzeko ontzi**

## ezantza

☞ **gasolina**

## eztainu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 50 duen elementu kimikoa (Sn). Metal zuri-grisa da, oso xaflakorra eta batzuetan harikorra. Soldatzeko, latorria egiteko (burdina estaliz) eta, kobrarekin, brontze aleazioa egiteko erabiltzen da. Eztainu-konposatu organikoak oso toxikoak dira (batzuk bakterizida eta fungizida gisa erabiltzen dira).

en *tin*  
es *estaño*  
fr *étain*

## faktore abiotiko

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Bizidunetan eragina duen ingurune-faktore fisiko-kimikoa (tenperatura, presioa, hezetasuna, argitasuna, lurzorua, ura, etab.).

en *abiotic factor*

es *factor abiótico*  
fr *facteur abiotique*

☞ **faktore biotiko; faktore ekologiko**

## faktore biotiko

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Bizidunetan eragina duen eta gainerako bizidunekiko elkarrekintzari zor zaion ingurune-faktorea (lehia, elikadura, etab.).

en *biotic factor*  
es *factor biótico*  
fr *facteur biotique*

☞ **faktore abiotiko; faktore ekologiko**

## faktore ekologiko

☞ **ingurune-faktore**

## faktore mugatzaile

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Organismo batek behar dituen ingurune-osagaietatik falta dena edo gutxien dagoena, eta, beraz, hazteko edo bizirik irauteko mugatzaile edo erabakigarri dena.

en *limiting factor*  
es *factor limitante*  
fr *facteur limitant*

## FAO (Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundea)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Nazio Batuen Erakundearen menpeko erakunde espezializatua, 1945ean sortua. Gosea mundutik desagerrarazi eta elikadura hobetzea ditu helburu. Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza eta arrantzaren errendimendua hobetzeko programak eta proiektuak koordinatu eta bultzatzen ditu, Hirugarren Munduan nagusiki, eta laguntza teknikoa eskaintzen die herrialdeetako gobernuei. Herrialde behartsuetan elikagaiak banatzeaz ere arduratzen da. Erroman du egoitza nagusia.

en *FAO; Food and Agriculture Organization*  
es *FAO; Organización para la agricultura y la alimentación*  
fr *FAO; Organisation pour l'Alimentation et l'Agriculture*

## fauna

*Biosfera*

Leku edo garai bateko animalien multzoa.

en *fauna*  
es *fauna*  
fr *faune*

## fenol

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Solido kristalino zuria (C<sub>6</sub>H<sub>5</sub>OH), bentzenoaren deribatua. Uretan disolbatzen da, eta usain berezia du, korrosiboa da eta oso toxikoa. Harrikatzaren mundruna distilatuz edo bentzenotik sintetizatuz lortzen da. Produktu askoren sintesi-abiapuntua da industria kimikoan.

en *phenol*  
es *fenol*  
fr *phénol*  
☞ **fenolak**

## fenolak

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Bentzeno-eratzunari hidroxilo talde bat edo batzuk loturik dituzten konposatu organikoen izen generikoa (zenbat hidroxilo talde dauden, monofenolak, bifenolak, trifenolak, etab. bereizten dira). Industria kimikoan oso erabiliak dira (plastikoak, disolbatzaileak, pestizidak eta abar sintetizatzeke lehengaitzat). Uraren poluitzaile dira. Ura kloroz kloratzen denean, urari zapora txarra ematen dioten eta toxiko ere izan daitezkeen klorofenolak erazten dira. Horretarako arriskua denean, klorazioa kloraminez egin ohi da.

en *phenols*  
es *fenoles*  
fr *phénols*  
☞ **fenol**

## findegi

➔ **petrolio-findegia**

## fisio

➔ **fisio nuklear**

## fisio nuklear

SIN: fisio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Atomo-nukleoa partikula (adibidez, neutroi) batekiko talkaren eraginez tamaina txikiagoko bi nukleo edo gehiagotan zatitzea. Jatorrizko nukleoaren masa erreakzioaren emaitza diren nukleoaren masen batura baino handiagoa da, eta kendura energia bihurtzen da. Energia hori erabiltzen da erreaktore eta lehergailu nuklearretan.

en *fission; nuclear fission*  
es *fisión; fisión nuclear*  
fr *fission; fission nucléaire*  
☞ **energia nuklear; erreaktore nuklear; zentral nuklear**

## fitoplankton

*Biosfera*

Planktonaren parte diren landare mikroskopikoen multzoa.

en *phytoplankton*  
es *fitoplancton*  
fr *phytoplancton*  
☞ **plankton**

## flora

*Biosfera*

Eskualde edo habitat batean hazten diren landare-espezieen multzoa.

! *Landaredi* terminoa landareek eratzen dituzten komunitateei dagokie; *flora*, berriz, populazio hori osatzen duen espezie-multzoari.

en *flora*  
es *flora*  
fr *flore*  
☞ **landaredi**

## flotazio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Hondakin-uren tratamenduan, ur-azalean igerian dauden solidoak arrastelatuz bereizteko prozedura. Flotazioa behartua ere izan daiteke: uretan airea presiopean injektatuz, solido-zatikiak aireari atxikitzen zaizkio eta ur gainera ateratzen dira apar gisa.

en *floatation; flotation*  
es *flotación*  
fr *flottaison; flottation*  
☞ **hondakin-uren arazketa**

## fluor

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 9 duen elementu kimikoa (F). Gas larua da, oso toxikoa eta narritagarria. Elementu erreaktiboena da eta oxidatzaile bortitzenetakoa (ia substantzia guztiei erasotzen die). Oso arriskutsua da. Naturan konbinaturik baizik ez dago (mineraletan, hezur eta hortzetan, zenbait ur mineraletan eta abarretan).

en *fluorine*  
es *flúor*  
fr *fluor*  
☞ **fluorazio**

## fluorazio

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Edateko urari fluor-ioiak ematen dituen konposatu bat gehitzea, kontsumitzaileen hortzetako txantxarra prebenitzearren. Fluorazioaren inguruan eztabaida piztu da; izan ere, osasunerako kaltegarria izan daitekeela uste dute aditu batzuek. Horien arabera, uretan disolbatu hartzten den fluorak hezur-arazoak (osteoporosia) eragin ditzake, besteak beste.

en *fluoridation*  
es *fluoración*  
fr *fluoration*  
☞ **fluor; klorazio**

## formaldehido

SIN: metanal

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Gas kolore, narritagarria, usain txarrekoa eta toxikoa (HCHO). Industria kimikoan erabiltzen da hainbat konposatu eta polimero lortzeko. Antiseptiko eta kontserbatzaile bortitza da. Kantzerigenoa izan daitekeela uste da.

en *formaldehyde; methanal*  
es *formaldehido; metanal*  
fr *formaldéhyde; méthanal*

## fosfato

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Azido fosforikoaren gatza. Organismoentzat, fosfatoa da fosforoaren forma erabilgarria. Dena den, neurritz gain ugaritzen badira, kalteak eragiten dituzte ingurumenean.

en *phosphate*  
es *fosfato*  
fr *phosphate*  
☞ **eutrofizazio; nekazaritza; ongarrri**

## fosforo

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 15 duen elementu kimikoa (P). Solido ez-metalikoa da.

en *phosphorus*  
es *fósforo*  
fr *phosphore*

☞ **eutrofizazio; fosfato**

## fotosintesi

*Biosfera*

Algek eta klorofiladun landareek (landare berdeek) eguzki-argia erabiliz egiten dituzten erreakzio kimikoen multzoa, ur eta karbono dioxidotik abiatuz oxigenoa eta konposatu organikoak (karbohidratoak) sortzen dituen.

en *photosynthesis*  
es *fotosíntesis*  
fr *photosynthèse*

## freoi

➔ **freon**

## freon

SIN: freoi

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Klorofluorokarburoei eman ohi zitzaien izena (Dupont enpresaren *freon* izen erregistratua da, berez).

en *freon*  
es *freón*  
fr *fréon*

☞ **klorofluorokarburo**

## fuel-olio

*Produktuak, materialak*

Petroliotik lortzen den erregai likido iluna. Petrolio gordinaren destilazio zatikatuan 370 °C ingurutik gora lortzen den frakzioa edo horren eta beste frakzio arinago batzuen arteko nahastea izan daiteke. Oro har, ikatzaren orde ez erabili ohi da (berokuntza, industria-labeak, etab.). Sufre-oxido gehien aineratzen duen erregaia da.

en *fuel oil*  
es *fuel; fuel-oil; fuelóleo*  
fr *fioul; fuel oil; mazout*

☞ **petrolio**

## fumigazio

1

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Landareen gainean pestizidak gas edo laino gisa botatzea, izurriteak eta gaixotasunak saihesteko edo haien aurka borrokatzeko.

en *fumigation*  
es *fumigación*  
fr *fumigation*

☞ **pestizida**

2

*Atmosfera / Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Atmosferako temperatura-inbertsioaren eraginez metatutako poluitzaileak lurrerantz erortzea, inbertsioa amaitzen denean sortzen diren aire-korronteen eraginez.

en *fumigation*  
es *fumigación*  
fr *fumigation*

## fungizida

*Produktuak, materialak*

Onddoen kontrako pestizida.

en *fungicide*  
es *fungicida*  
fr *fongicide*

☞ **pestizida**

## furano

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Lau karbono-atomoz eta oxigeno-atomo batez osatutako eraztun aromatikoa duten konposatuetako bakoitza. Ingurumenaren ikuspegitik, garrantzitsuenak dibentzofurano polikloratuak dira, toxikoak direlako eta hainbat bizidunen heriotza eragin dezaketelako; gainera, gizakietan ere asaldurak eragiten dituzte (dermatitisa, gibel-arazoak), eta kantzerigenoak direla uste da.

en *furan*  
es *furano*  
fr *furanne*

☞ **dibentzofurano polikloratu; dióxina**

## fusio

➔ **fusio nuklear**

## fusio nuklear

SIN: fusio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Zenbaki atomiko txikiko nukleoak batu eta nukleo astunagoa osatzea. Nukleo berriaren masa jatorrizko nukleoaren masen batura baino txikiagoa da, eta kendura energia bihurtzen da. Oso energia-kantitate handia askatzen da fusio-erreakzioetan. Izarren erdigunean gertatzen dira eta hidrogeno-bonbaren funtsa dira. Oraindik ez da lortu erreaktore batean modu kontrolatuan gertatzea.

en *fusion; nuclear fusion*  
es  *fusión; fusión nuclear*  
fr *fusion; fusion nucléaire*

☞ **fisio nuklear**

## gai arriskutsu

➔ **substantzia arriskutsu**

## gai birziklatu

SIN: material birziklatu

*Produktuak, materialak*

Hondakina birziklatu ondoren lortzen den gaia.

en *recycled material*

es *material reciclado; reciclado*

fr *matière recyclée*

 **birziklatze**

## gai organikoak

➔ **materia organiko**

## gai toxiko

SIN: substantzia toxiko

*Osasuna, nutrizioa*

Arnastu, irentsi edo larruazaletik xurgatuz gero, kantitate txikian ere, organismoan asaldura larriak edo kronikoak, edo are heriotza ere eragin dezakeen substantzia.

en *toxic substance; toxicant*

es *sustancia tóxica; tóxico*

fr *substance toxique; toxique*

## Gaia hipotesi

*Atmosfera*

James Lovelock kimikariak eta Lynn Margulis biologoak 1972an proposatutako hipotesia. Hipotesi horren arabera, biotak Lurreko klima modulatu (eta kontrolatu, apika) egin du denbora geologikoan. Atmosferako karbono dioxidoaren eta jatorri organikoko beste substantzia batzuen kontzentrazioa erregulatuz, Lurraren tenperatura eta prezipitazio-kantitatea neurri egokian irauarazi ditu biotak. Lovelock-en arabera Lurra izaki biziduna da, autorregulazio-prozesu baten bidez biziari euts diezaiokeen klima global egokia atxikitzen duena.

Gaia hipotesia oso eztabaidagarria da, haren oinarrian baitago espezie bakun batek (antzinako bakterio anaerobioak, adibidez) bere buruaz beste egin lezakeela gainerako bizidunen onurarengatik. Gainera, hipotesia ez da kuantitatiboki ezta zientifikoki saiaturia izateko moduan formulatu. Dena dela, biotak bere ingurumena kontrolatzen duela proposamen zuzena izanik ala ez, Lurreko osagai fisikoek, kimikoek eta biologikoek elkarren artean eragiten eta beren patu komuna elkarrekin, istripuz edo diseinuz, aldatzen dutelako ideia oso herritzailea eta ikuspegi sakonekoa da.

en *Gaia hypothesis*

es *hipótesis Gaia*

fr *hypothèse Gaïa*

## gaikako bilketa

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin solidoak gaiaren arabera bereiziz aparte biltzea. Helburua da hondakinak baliarazteko (birziklatu, berrerabili, berreskuratu, birsortu) egin behar diren lanak erraztea

! *Gaikako bilketa* terminoa egokia da modu generikoan adierazteko, hau da, hainbat gaiz osatutako hondakina gaika biltzen dela adierazteko, hala nola *hondakinen gaikako bilketa*, *etxeko zaborren gaikako bilketa* edo *botilak, papera eta aluminiozko latak gaika biltzea*. Gai horietako bat gainerakoetatik bereizita biltzen dela adierazteko, ordea, *gaiaren bilketa bereizi*, *gaia bereiz biltze*, *gaiaren aparteko bilketa* edo *gaia aparte biltze* erabiltzea litzateke zehatzena. Adibidez, *separate collection of paper / recogida selectiva de papel / collecte sélective du papier* erdal terminoak, euskaraz, *paperaren bilketa bereizi*, *paperaren aparteko bilketa*, *papera bereiz biltze* edo *papera aparte biltze* terminoen bidez adieraz daitezke.

en *selective collection; separate collection; separated collection*

es *recogida selectiva*

fr *collecte sélective; collecte séparative*

 **gaikako bilketako edukiontzi**

## gaikako bilketako edukiontzi

*Produktuak, materialak*

Hiri-hondakin solidoen gaikako bilketa egiteko edukiontzia (hala nola beira, papera, plastikoa, gai organikoak, pilak, ontziak edo arropa bereiz jasotzekoa).

en *selective collection container*

es *contenedor de recogida selectiva*

fr *conteneur pour la collecte sélective*

 **gaikako bilketa**

## gainpopulazio

1 SIN: superpopulazio

*Gizartea*

Herri, eskualde edo estatu batean pertsona gehiegi bizitzea, hango baliabideek (etxebizitza, elikadura, azpiegitura, etab.) eskaintzen dutena gainditzen delako edota ingurumenaren gaineko eragina oso handia delako.

en *overcrowding; overpopulation*

es *superpoblación*

fr *surpeuplement; surpopulation*

 **baliabide naturalak**

2 SIN: superpopulazio

*Biosfera*

Ekosistema batean bizi diren espezie jakin bateko banakoak ingurune baliabideen arabera bizirik iraun lezaketanak baino gehiago izatea.

en *overcrowding; overpopulation*

es *superpoblación*

fr *surpeuplement; surpopulation*

## galbahe

➔ **bahe**

## galbahetze

➔ **bahetze**

## galeria-baso

SIN: ibaiertzeko baso

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Ibaiaren ibilguaren ertz banatan hazten diren zuhaitz eta zuhaixken multzo estua; ibilguaren alboetatik haraindi ez da basorik. Galeria-basoak ekosistema estrategikoak dira, igarobide biologikoak baitira. Ibai-ekosistemek biodibertsitatearen gordeleku dira, eta haietan barrena barreiatzen dira edo migrazioak egiten dituzte hegazti-espezie askok eta bestelako animalia batzuek ere. Gainera, balio estetikoak ere badute, paisaiaren monotonia hausten baitute

! Adiera hertsian, *galeria-baso* da termino zehatza; *ibaiertzeko baso* terminoa ibaiaren ertzean dagoen basoa da, ur-bazterreko edozein baso, basoaren atzean edozer dagoela ere. Nolanahi ere, biak nahasian erabili ohi dira.

en *bank forest; fringing forest; gallery forest; riparian wood*

es *bosque de galería; bosque de ribera; bosque ripícola*

fr *forêt-galerie; galerie forestière*

 **hezegune**

## galzoriko espezie

### Ingurumen-politika

Eragiten dioten faktoreei garaiz aurre egiten ez bazaie, irauteko aukera gutxi eta betiko desagertzeko arriskuan den landare- edo animalia-espeziea.

Hego Euskal Herrian, Euskal Autonomia Erkidegoaren 16/1994ko Legean (ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Natura Kontserbatzekoa) eta Nafarroako Foru Erkidegoaren 2/1993 Legean (martxoaren 5ekoa, Basafauna eta Haren Habitata Babestu eta Kudeatzeko) zehazten da galzoriko espeziea zer den: oraingo egoeraren eragileak jarraituz gero iraupen nekeza duen espezie, azpiespezie edo populazioa. Adibidez, igaraba arrunta (*Lutra lutra*) edo ugatza (*Gypaetus barbatus*) galzoriko espezieak dira.

en *endangered species; species in danger of extinction; species of near-extinction*

es *especie en peligro de extinción*

fr *espèce menacée d'extinction; espèce menacée de disparition*

☞ **espezie babestu**

## gamma erradiazio

☞ **gamma izpiak**

## gamma izpi

☞ **gamma izpiak**

## gamma izpiak

SIN: gamma erradiazio; gamma izpi

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

$10^{-11}$  eta  $10^{-14}$  m bitarteko uhin-luzera duen erradiazio elektromagnetikoa, X izpiak baino sarkorragoa eta energia handiagokoa. Nagusiki desintegrazio erradioaktiboan igortzen da, alfa edota beta izpiekin batera. Oso erradiazio ionizatzailea da, eta, beraz, arriskutsua. Geldiarazteko, beruna, altzairua edo hormigoia erabili ohi da.

en *gamma radiation; gamma rays*

es *radiación gamma; rayos gamma*

fr *rayonnement gamma; rayons gamma*

☞ **erradiazio; erradioaktibitate**

## gandor

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Tximiniatik irteten den gas-isuri ikusgaia.

en *plume*

es *penacho*

fr *panache*

## ganga

*Produktuak, materialak*

Meategiko zainean mearekin batera agertzen den mineral edo arroka gehienetan ez-metalikoa, harekin batera erauzten dena eta gero meatik zenbait prozeduraren bidez bereizten dena. Batzuetan, gangak ez du baliorik eta meatzaritzako hondakina da, eta beste batzuetan zenbait gai ateratzeko erabiltzen da.

! *Ganga* terminoa, batzuetan, meatzaritzako lanetan sortutako hondakinak izendatzeko erabiltzen da.

en *gangue*

es *ganga*

fr *gangue*

☞ **arroka antzu; mea**

## garapen ekologiko

*Ingurumen-politika*

Baliabide naturalak kudeatzeko sistema, oreka ekologikoa kontuan hartzen duena. Naturaren iraunkortasuna kontuan hartzen duten teknologia eta ekoizpen-sistemetan oinarritzen da.

en *ecodevelopment*

es *desarrollo ecológico; ecodesarrollo*

fr *écodéveloppement*

☞ **baliabide naturalak**

## garapen iraunkor

☞ **garapen jasangarri**

## garapen jasangarri

SIN: garapen iraunkor

*Ingurumen-politika*

Hurrengo belaunaldien beharrak asetzeko aukerak arriskuan jarri gabe, oraingo belaunaldien beharrak asetzen dituen garapen ekonomiko eta soziala.

en *sustainable development*

es *desarrollo sostenible*

fr *développement durable*

## garaztatze

☞ **ureztatze**

## garbigune

SIN: bilketa-gune

*Antroposfera (ingurune birtarra, giza kokalekuak)*

Etxeko zaborren bilketa-zerbitzuak jaso ohi ez dituen zenbait hondakin (txatarra, pinturak, pilak, automobil-gurpilak, eraiste-hondakinak, lora-tegietako garbiketa-hondarrak, etxetresna elektrikoak, botikak, erradiografiak eta abar) gaika sailkatu, aldi baterako gorde eta, ondoren, dagokien tokira bideratzeko instalazio-multzoa. Hondakin-mota bakoitzak bere edukiontzia izaten du, eta herritarrek haietan doan bota ditzakete hondakinak. Beraz, gaikako bilketa-sistema bat da, hiri-hondakin solidoak jasotzeko erabiltzen diren beira, paper, plastiko eta abarretarako edukiontzioen osagarria.

! Euskal Autonomia Erkidegoan, *garbigune* da hondakinak biltzeko guneen izendapen ofiziala.

en *collecting and storing center; tip; tip-service*

es *centro de recogida; desechería; punto limpio*

fr *déchetterie; déchetterie*

☞ **bilketa- eta transferentzia-gune**

## gardentze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uretan dauden gai esekiak jalkitzen utzi eta goialdean ur gardenagoa lortzeko dekantazio-prozesua (eskuarki, hondakin-uren arazketako bigarren dekantazioari deritzo).

en *clarification*

es *clarificación*

fr *clarification*

☞ **bigarren dekantazio; hondakin-uren arazketa**

## garo

➔ **iratzte**

## garraio

### 1

*Litosfera*

Meteorizatutako arroka-zatiak tokiz aldatzea. Garraiatzaileak ibaiak, itsasoa, izotza eta haizea dira. Denudazioaren hirugarren eta azken fasea da.

en *transport*

es *transporte*

fr *portaje; transportation*

☞ **denudazio**

### 2

*Zirkulazioa, garraioa*

Toki batetik bestera gauzak edota pertsonak eramateko bide edo moduen multzoa.

en *transport*

es *transporte*

fr *transport*

☞ **automobil; bizikleta; trenbide**

## garraiorako bilgarri

➔ **hirugarren mailako bilgarri**

## gas

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Molekulen arteko indar ahulak direla bide, berez hedatzera jotzen duen eta presiopean konprima daitekeen substantzia. Materiaren egoereta-ko bat da.

en *gas*

es *gas*

fr *gaz*

☞ **likido; solido**

## gas natural

*Produktuak, materialak*

Pisu molekular txikiko hidrokarburo ase gaseosoen nahastea, petrolio bezala lurpean metatutako organismoen transformazio geldoaren emaitza dena eta hobietan petrolioarekin batera edo bakarrik dagoena. Osagai nagusia metanoa da (% 80-99 bolumenean), eta, horrez gain, etano, propano eta butanoa ere badaude. Nitrogenoa, karbono dioxidoa eta hidrogeno sulfuroa ere izaten ditu. Erregaitzat erabiltzen da batez ere, eta industria kimikoan lehengaitzat ere bai. Erretzen denean petrolioak eta ikatzak baino berotze-ahalmen txikiagoa du (47-57 MJ/kg), eta horiek baino karbono dioxido gutxiago aieratzen du.

en *natural gas*

es *gas natural*

fr *gaz naturel*

## gas natural likidotu (GNL)

*Produktuak, materialak*

Ontzi isolatzaile berezietan -160 °C azpitik likidoturik gordetzen den

gas naturala, jatorrizko bolumenaren % 6 betetzen duena. Gas naturala itsasontziratzeko tokian likidotzen da, itsasontzi berezietan (metano-itsasontzietan) garraiatzen da eta lehorreratzen den tokian gas bihurtzen da berriro (birgasifikazio-instalazioan). Berotze-ahalmena 20,5 MJ/kg ingurukoa da.

en *liquefied natural gas; LNG*

es *gas natural licuado; GNL*

fr *gaz naturel liquéfié; GNL*

☞ **gas natural**

## gasbide

*Antroposfera (ingurune birtarra, giza kokalekuak)*

Gas naturala hobitik edo gas fabrikatua produkzio-gunetik banaketa-eta kontsumo-guneetara garraiatzeko hodia, diametro handikoa.

en *gas pipeline*

es *gasoducto*

fr *gazoduc*

☞ **gas natural**

## gas-garbigailu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Gasak zenbait substantzia likido edota solidorekin nahasiz garbitzeko erabiltzen den aparatua. Prozedura lehorra, erdilehorra eta hezea erabil daiteke. Batez ere, ihes-gasetako sulfre-oxidoak eta zatikiak kentzeko erabiltzen da. Sulfre-oxidoak konbinatu egiten dira, eta gasetatik bereiz daitekeen gai geldoa eratzen dute.

en *air washer; scrubber*

es *lavador de gases*

fr *barboteur; laveur à gaz*

☞ **burbuila-garbigailu**

## gas-garbigeta

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Gas-emisioen zenbait osagai substantzia likido edota solido batzuekin nahasiz kentzeko prozedura.

en *gas washing; scrubbing*

es *lavado de gases*

fr *barbotage; lavage du gaz*

## gas-iragazki

➔ **aire-iragazki**

## gasohol

➔ **karburo**

## gasolina

SIN: ezantza

*Produktuak, materialak*

Petroliotik lortzen den hidrokarburo-nahaste likidoa. Sukoia da, eta erragai gisa erabiltzen da. Petrolio gordinaren distilazio zatikatua bidez (25-150 °C bitartean, gutxi gorabehera), distilazio horren frakzio astunen cracking-ez eta hidrokarburo arinetatik abiatutik sintetizatuz lor daiteke.

en *gasoline; petrol*

es *gasolina*

fr *essence*

☞ **petrolio**

## gasolio

*Produktuak, materialak*

Petrolioaren distilazio zatikatuan 170-370 °C bitartean lortzen den hidrokarburo-nahaste likidoa, horixka eta sukoia (ez da gasolina bezain sukoia). Diesel motorren erregaia da. Gasolio astunak berokuntzan erabiltzen dira. Erretzean, gasolinak baino zatiki eseki (ke beltza) eta sufre dioxido gehiago aireeratzen ditu. 43-46 MJ/kg inguruko berotze-ahalmena du.

en *diesel fuel; diesel oil; gas oil*

es *gasóleo*

fr *gasoil; gas-oil; gazole*

☞ **petrolio**

## gatzapen

SIN: koagulazio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak / Kimika, substantziak, prozesuak*

Sistema koloidal bateko partikulak elkarri atxikitzearen ondorioz, sistema ezegonkor bihurtzea eta bi fase eratzea. Eragilea fisikoa (tenperatura-aldaketa) edo kimikoa (pH-a aldatzea, elektrolitoa) izan daiteke. Horren bidez, partikulen karga elektroikoak neutralizatu egiten dira, eta partikulek elkarri atxiki eta fase disolbaezina era dezakete.

en *coagulation*

es *coagulación*

fr *coagulation*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## gatzatzaile

SIN: koagulatzaile

*Produktuak, materialak*

Gatzatze-prozesua azkartzen edo errazten duen substantzia. Hondakin-uren arazketan, metal polibalenteen gatzatzaile izaten da.

en *coagulant*

es *coagulante*

fr *coagulant*

## gatzgabetze

1

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Lurzoruko gehiegizko gatz-edia gutxitzea, eskuarki lixibiazioaren bidez.

en *desalination; desalination*

es *desalinización*

fr *dessalement*

☞ **gazitze**

2

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Itsas uraren edo ur gazikararen gatz-edia gutxitzeko prozesua, zenbait erabilertarako egoki bihurtzeko (edateko ura lortzeko, nekazaritzan eta industrian erabiltzeko eta abarretarako).

en *desalination; desalination*

es *desalinización*

fr *dessalage; dessalement*

☞ **elektrodialisi; polder**

## gazitasun

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Ur-masa batean disolbatuta dagoen gatz-kantitatearen neurria. Eskuarki, itsasoko uraren gatz-kontzentrazioa adierazten du, eta milakotan (‰/‰) adierazi ohi da. Beste unitate batzuk: g (gatz)/kg (ur), milako parte-kopurua.

en *salinity*

es *salinidad*

fr *salinité*

## gazitze

*Efektuak, eraginak*

Ingurune bateko (bereziki ur edo lurzoruko) gatz kontzentrazioa handitzea. Lurzoruko gatz-edia ureztatze-nekazaritzaren ondorioz gerta daiteke, ura ondo drainatzen ez bada ura lurrundu eta gatzak bertan metatuz doazelako. Lurrak emankortasuna galtzen du, eta ez da ona laboreak lantzeko.

en *salination; salinization*

es *salinización*

fr *salinisation*

☞ **gatzgabetze; nekazaritza**

## gehiagizko arrantza

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Arrain-populazio bat gehiegi ustiatzearen ondorioz, populazioaren emankortasuna murriztea eta, arrantzaren bideragarritasunari dagokionez, alde aurretik arrain-populazio horretarako definitu den maila onargarriaren azpitik gelditzea arrain-stocka. Arrantzaren kostua kontuan hartzen duen alderdi ekonomikotik begiraturik, esaten da gehiegizko arrantza gertatzen dela arrainen heriotza-tasaren igoerak arrainen biomasa-stockaren hazkunde negatiboa eragiten duenean; ondorioz, gehiegizko arrantzak baliabidearen errentaren hazkunde marjinal negatiboa eragiten du.

en *overfishing*

es *sobreexplotación pesquera; sobrepesca*

fr *surpêche*

☞ **arrantza**

## gehiagizko larratze

*Efektuak, eraginak*

Lur-eremu jakin baten ahalmena gaintzen duen abereen bazkatze jarraitu eta intentsiboa. Ondorioz, lurra estaltzen duen landare-geruza pobretu eta urritu egiten da, bazkatzeko balio ez duten espezieak nagusitu egiten dira eta lurzorua higatu egiten da. Azken ondorioa landaretza erabat galtzea izan daiteke.

en *overgrazing*

es *pastoreo excesivo; sobrepastoreo*

fr *surpâturage*

☞ **abelzaintza; abeltzaintza ekologiko**

## gehiagizko ustiapen

*Efektuak, eraginak*

Naturako baliabideak neurritz gain, etorkizuneko erabilera ezinezko bihurtzen duen mailan, ustiatzea.

en *overexploitation*

es *sobreexplotación*

fr *surexploitation*



## gehienezko dosi onargarri

*Osasuna, nutrizioa*

Organismo batek aldaketa edo kalterik nozitu gabe jaso dezakeen substantzia poluitzaile baten kantitate handiena.

en *maximum allowable dose; maximum permissible dose; maximum tolerated dose*

es *dosis máxima admisible; dosis máxima tolerable*

fr *dose maximale admissible*

☞ **eguneko dosi onargarri**

## gehienezko kontzentrazio onargarri

*Ikerkuntza, zientziak*

Ingurune batean denbora-bitarte jakin batez gehienez onartzen den substantzia poluitzaile baten kontzentrazioa.

en *maximum admissible concentration; maximum allowable concentration; maximum permissible concentration*

es *concentración límite; concentración máxima admisible; valor límite*

fr *concentration maximale admissible*

## gehienezko poluitzaile-maila

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ingurumen-politika*

Poluitzaile jakin batzuek edateko uretan izan dezaketen kontzentrazio maximoa, arauetan ezarria. Kontzentrazio hori gainditzen duten urak ez dira onargarritzat hartzen gizakiek edateko.

en *Maximum Contaminant Level; MCL*

es *nivel máximo de contaminación*

fr *niveau maximum de contamination*

☞ **edateko ur**

## gehirri

☞ **aditibo**

## geldotze

SIN: egonkortze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakina gai geldo batekin (buztin, zepa, kare eta abarrekin) nahastea, gai poluitzaileak ingurunera barreiatzea eragozteko.

en *inertization; stabilization*

es *estabilización; inertización*

fr *inertage; inertisation; stabilisation*

## geografia-informazioko sistema (GIS)

SIN: informazio geografikoko sistema

*Informazioa, bezkuntza, kultura, ingurumen-sentsibilizazioa*

Informazio geografikoa era antolatuan gorde, kudeatu eta analizatzeko sistema, software, hardware, datu eta teknikari espezializatuz osatua eta lurralde-arazoei konponbidea ematen laguntzeko erabiltzen dena.

en *geographic information system; GIS*

es *sistema de información geográfica (SIG)*

fr *système d'information géographique (SIG)*

## geonomia

☞ **biogeografia**

## geosfera

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Lurraren zati bizigabea, bizidunen euskarria, litosferaz, hidrosferaz eta atmosferaz osatua. Biosferari kontrajarria erabiltzen da.

en *geosphere*

es *geosfera*

fr *géosphère*

☞ **biosfera**

## gerriko berde

SIN: gerruntze berde

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Hiri baten inguruan dagoen eraikuntzarik gabeko berdegunea, zuhaitziak, belardiak, nekazaritzarako lursail txikiak edo baratzak eta aisiarako gunek izaten dituenak.

en *green belt*

es *cinturón verde*

fr *ceinture verte*

## gerruntze berde

☞ **gerriko berde**

## geruzapen

1 SIN: estratifikazio

*Biosfera*

Komunitatea osatzen duten populazioak elkarren gaineko geruzatan antolatua egotea. Adibidez, basoko landarediaren geruzapena.

Beste adibide ezagun bat itsasoan dago. Eskualde bentonikoan, itsasoaren hondoan alegia, espezieak geruzaka antolatuta bizi dira. Lehorretik gertu, marearteko zonan, olatuen erasoei eusteko eta tarteka (itsasbehera dagoenean) urik gabe bizitzeko gauza diren organismoak bizi dira, hala nola alga batzuk, lapak eta abar. Ondean, sakonera handiagoan, plataforma kontinentalean, 200 metroko sakoneraraino, bizi dira espezie gehienak (ornogabeak eta arrainak) eta itsas landareak. Ondoren, kontinente-etzonda dago, malda handikoa, 3.000 metroko sakoneraraino iristen dena. Han ez dago landararik eta itsas hondoetako espezieak bizi dira. Hortik behera hondo edo lautada abisala dago, malda txikikoa. Han biomasa gutxi dago, eta fauna oso berezia da.

en *stratification*

es *estratificación*

fr *stratification*

☞ **ekosistema**

2 SIN: estratifikazio

*Atmosfera*

Atmosferan ezaugarri desberdineko aire-geruza horizontal egonkorak eratzea.

Troposferaren behealdearen geruzapena faktore garrantzitsua da airearen poluzioan, zeren, geruzapena dagoenean, geruzak ez baitira mugitzen, eta, ondorioz, airearen goranzko mugimendua galarazi edo zaildu egiten da. Horren ondorioz, kutsatzaileak ezin dira barreiatu, eta poluzioa metatu egiten da airean. Egoera antiziklonikoetan, hau da, egoera egonkorretan, gertatu ohi da geruzapena.

en *stratification*

es *estratificación*

fr *stratification*

☞ **atmosfera**

3 SIN: estratifikazio

*Hidrosfera*

Ur-masa geldietan, tenperatura, gazitasuna, edo beste edozein arrazoi tarteko, dentsitate desberdineko geruzak osatzea.

en *stratification*

es *estratificación*

fr *stratification*

☞ **epilimnion; hipolimnion; termoklina**

## gida-balio

*Ikerkuntza, zientziak*

Onartzen den poluitzaile-kontzentrazioa, gehienezko kontzentrazio onargarriaren nahikoa azpitik dagoena eta natur gune babestuetan gehienezko mailatzat har daitekeena.

en *guide value*

es *valor guía*

fr *valeur guide*

## giro-tenperatura

*Atmosfera*

Zerbaiten edo norbaiten, inguruko airearen, edo beste ingurune baten, tenperatura.

en *ambient temperature*

es *temperatura ambiente*

fr *température ambiante*

## girotze

*Biosfera*

Izaki biziduna ingurumenaren aldaketa edo ezaugarri berrietara moldatzeko prozesua.

en *acclimation; acclimatization*

es *aclimatación*

fr *acclimatation; acclimatement; accoutumance*

## GIS

☞ **geografia-informazioko sistema**

## giza ekologia

*Ikerkuntza, zientziak*

Giza komunitateak ingurunerara moldatzeko erabiltzen duen antolamendu-mota eta horretarako eraikitzen duen harreman funtzionalen sistema aztertzen duen ekologiaren adarra.

en *human ecology*

es *ecología humana*

fr *écologie humaine*

## Gizakia eta Biosfera Programa

SIN: MAB programa

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Ikerketa eta heziketa ekologikoa sustatzeko programa, UNESCOk 1971n sortua. Naturaren zientziak eta gizarte-zientziak elkartzen dituen diziplinarteko programa da, eta biosferaren baliabideen arazoizko erabilera eta kontserbazioa sustatzea eta populazioaren eta ingurumenaren arteko harremanak hobetzea ditu helburu. Baliabide naturalei egoera onean eusteko dauden arazoei erantzuna emango dien oinarri zientifikoa eraikitzen saiatzen da. MAB programak estatuetan eratutako batzordeen bidez egiten du lan, eta *Biosfera-erreserba* izeneko gune babestuak izendatzen ditu mundu osoan.

en *MAB Programme; Man and the Biosphere Programme*

es *Programa MAB; Programa sobre el Hombre y la Biosfera*

fr *MAB programme; Programme sur l'homme et la biosphère*

☞ **biosferaren erreserba; UNESCO**

## GNL

☞ **gas natural likidotu**

## gogortasun

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Urari buruz, irakitean karbonato-zarakarra eratzeko duen gaitasunaren neurria, edo xaboiak aparra eratzeko eragozteko duen gaitasunaren neurria. Gogortasuna zehazteko, uretan disolbatutako kaltzio- eta magnesio-ioen kontzentrazioa neurtzen da.

en *hardness*

es *dureza*

fr *dureté*

☞ **ur bigun; ur gogor**

## goi-presio

☞ **antizikloi**

## gorbel

☞ **alga**

## goroldio

*Biosfera*

Briofitoen dibisioko landare kriptograma, hezetasun handiko tokietan, hala nola lurzoru, harri, enbor eta abarren gainean, geruzak eratuz hazten dena.

en *moss*

es *musgo*

fr *mousse*

## gorotz

☞ **simaur**

## gray

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Xurgatutako erradiazio ionizatzailearen dosia neurtzen duen SI sistemako unitatea (Gy). 100 rad-en baliokidea da.

en *gray*

es *gray*

fr *gray*

## Greenpeace

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Gobernuz kanpoko erakunde ekologista eta bakezalea, nazioartekoa,

1971n Vancouver-en sortua. Proba nuklearren aurka, itsasoak poluitzen dituzten isuriaren aurka (hondakin erradioaktiboen aurka nagusiki) eta galzorio espezieen ehiza debekatzearen alde (balea eta itsas txakurren harrapaketa-aren aurka, adibidez) kanpainak eta zuzeneko ekintzak, deigarriak eta ikusgarriak gehienetan, egiten ditu. Euskal Herrian, 6.000 kide inguru ditu, baina ez du ordezkariarik. Milioitik gora kide ditu munduan.

en *Greenpeace*  
es *Greenpeace*  
fr *Greenpeace*

## habitat

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Espezie edo espezie-multzo bat bizi den lekua, ingurumen-ezaugarri jakin batzuk (biotikoak zein abiotikoak) dituena.

en *habitat*  
es *hábitat*  
fr *habitat*

👉 **biodibertsitate**

## habitataren eraldaketaren mendeko espezie

SIN: espezie habitataren eraldaketarekiko sentibera

*Ingurumen-politika*

Arrisku berezian, atzerapen nabarmenean, zatituta edo oso mugatuta dagoen habitat batean soilik bizi den landare- edo animalia-espeziea. Espezie mehatxatuen katalogo batzuetan agertu ohi den kategoria da.

en *species vulnerable to specific changes in their habitat*  
es *especie de hábitat sensible; especie sensible a la alteración de su hábitat*

👉 **biodibertsitate**

## haize-energia

SIN: energia eoliko

*Energia*

Haizearen energia zinetikoaz baliatuz lortzen den energia.

en *eolic energy; wind energy; wind power*  
es *energía eólica*  
fr *énergie éolienne*

👉 **haize-sorgailu**

## haize-parke

SIN: parke eoliko

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Elkarrekin konektatutako hainbat haize-sorgailuz eta gailu osagarri osatutako instalazioa, sare elektrikoa elikatzen duena.

en *aerogenerator farm; wind farm; wind power plant; wind power station; wind-energy park*  
es *central eólica; parque eólico*  
fr *centrale éolienne; parc d'éoliennes*

👉 **haize-energia; haize-sorgailu**

## haize-sorgailu

SIN: aerosorgailu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Haizearen energia zinetikoa energia elektriko bihurtzen duen makina,

haize-turbina batez eta turbinak birarazten duen sorgailu elektriko batez osatua.

🗣️ Analogiaz, *haize-erota* terminoa ere erabili ohi da haize-sorgailua adierazteko, baina izendatze hori ez dagokio terminologia teknikoari.

en *aerogenerator; wind generator*  
es *aerogenerador; generador eólico*  
fr *aérogénérateur*

👉 **haize-energia**

## haize-turbina

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Haizearen energia zinetikoa biratze-energia mekaniko bihurtzen duen turbina. Haizeak ardatz horizontal edo bertikal baten inguruan higiarazten dituen zenbait besoz osatua da, eta, sorgailu elektrikoarekin batera, haize-sorgailua osatzen du.

en *wind turbine*  
es *aeroturbina; turbina eólica*  
fr *turbine éolienne*

👉 **haize-sorgailu**

## haloi

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Bromo, fluor eta karbonoz osatutako konposatua (berez, hidrokarburo halogenatu guztiak dira haloi, baina, ingurumenaren alorrean, bromoa dutenak aipatzeko erabiltzen da). CFCen antzeko propietateak dituzte, eta su-itzalguetutan erabiltzen dira batik bat. Ozono-geruzari kalte egiten diote, estratosferan askatzen dituzten bromo-atomoek ozonoarekin erreakzionatzen dutelako, eta, gainera, CFCek baino ahalmen handiagoa dute horretarako. 1987ko Montrealgo Protokoloan erabakitakoari jarraiki, 1994az gero debekatuta dago 1211, 1301 eta 2402 haloien produkzioa eta inportazioa debekatuta.

en *balon*  
es *balón*  
fr *balon*

👉 **Montrealgo Protokoloa; ozono-geruzaren urritze**

## HAP

➔ **hidrokarburo aromatiko polizikliko**

## harea kentzeko tanga

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uretako solido esekiak, batez ere harea, jalki daitezen prestatutako ubide-moduko egitura. Hondakin-urak hortik poliki igaroarazten dira, eta harea, grabitatearen eraginez, hondoratu egiten da. Hondakin-urak arazteko aurretratamenduan erabiltzen da.

en *detritus chamber; detritus tank; grit tank; sand settling basin; sand trap*  
es *desarenador; estanque de desarenado*  
fr *bassin de dessablement; dessableur*

👉 **hondakin-uren arazketa**

## harea-kentze

SIN: hondar-kentze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uretako solido esekiak, batez ere harea, kentzeko eragike-

ta. Aurretratamenduan egiten da, harea kentzeko tangan.

en *grit separation; sand clearing*

es *desarenado; desareno*

fr *dessablage*

☞ **Hondakin-uren arazketa**

## harri antzu

➔ **arroka antzu**

## harrikatz

1 SIN: ikatz

*Produktuak, materialak*

Naturan arroka-eran dagoen ikatz-mota, lurpean metatutako landare-hondarrek presio eta tenperaturaren eraginez milioika urtetan izandako aldaketa fisiko eta kimikoen emaitza dena.

en *coal; mineral coal*

es *carbón; carbón mineral*

fr *charbon; charbon mineral*

☞ **antrazita; harrikatz bituminoso; ikatz; lignito; zohikatz**

2 ➔ **harrikatz bituminoso**

## harrikatz bituminoso

SIN: harrikatz

*Produktuak, materialak*

Lignitoaren eta antrazitaren arteko karbono-edukia (% 70-90) duen harrikatz-mota. Harrikatz ugariena da, nagusiki erregaitzat eta kokea eta gasa fabrikatzeko erabilia. Berotze-ahalmena 25-31 MJ/kg ingurukoa da.

en *bituminous coal; soft coal*

es *carbón bituminoso; bulla*

fr *charbon bitumineux; bouille*

☞ **harrikatz**

## harrikatzaren gasifikazio

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Harrikatzetik gas erregaia lortzeko prozesuen multzoa.

en *coal gasification*

es *gasificación del carbón*

fr *gazéification du charbon*

☞ **harrikatzaren likidotze; lurpeko gasifikazio**

## harrikatzaren likidotze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Harrikatza hidrokarburu likidoen nahaste (petrolio sintetikoa) bihurtzeko prozesua.

en *coal liquefaction*

es *licuefacción del carbón*

fr *liquéfaction du charbon*

☞ **harrikatzaren gasifikazio**

## harrikatz-mundrun

*Produktuak, materialak*

Harrikatz bituminoso distilatuz ateratzen den gai ilun eta likatsua.

Industria kimikoan erabiltzen diren konposatu aromatiko ugari ditu (benzenoa, toluenoa, xilenoak, naftalenoa, fenolak...), harrikatz-mundrunaren distilazio zatikatuaren bidez lortzen direnak.

en *coal tar*

es *alquitrán de bulla*

fr *goudron de bouille*

☞ **egur-mundrun; HAP; harrikatz; koke; mundrun**

## harrobi

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Harria, bereziki eraikuntzarako eta herri-lanetarako harria, ateratzen den tokia eta instalazio-multzoa. Eskuarki, atari zabaleko ustategia izaten da, ez lurpekoa.

en *quarry*

es *cantera*

fr *carrière*

☞ **meatzaritza**

## hartzidura

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Mikroorganismo batzuen entzimen eraginez substantzia organikoak oxidatzen diren eta energia askatzen den prozesu anaerobioa. Mikroorganismoak onddoak (batez ere, legamiak) edo bakterioak dira. Gaur egun, bioteknologiaren alorrean, produktu batzuk lortzeko erabiltzen diren mikroorganismo bidezko prozesu kontrolatuei ere hartzidura esaten zaie, aerobio zein anaerobio izan.

en *fermentation*

es *fermentación*

fr *fermentation*

## hartzidura azkartuko konpostaje

➔ **konpostaje behartu**

## hauspeatze

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak / Kimika, substantziak, prozesuak*

Hondakin-uren arazketan, prozesu fisiko zein erreakzio kimiko baten ondorioz gai disolbatuak solido disolbaezin bihurtzea, ondoren jalkinez eta iragaziz uretatik bereizteko. Hirugarren tratamenduan erabiltzen da (fosfatoak kentzeko, bereziki).

en *precipitation*

es *precipitación*

fr *précipitation*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## hauste-punturainoko klorazio

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Urari kloro-eskariaren adina kloro gehitzea, hau da, gelditzen den kloro askea gehitzen den kloro-kantitatearekiko proportzionala izaten hasten den punturaino.

en *breakpoint chlorination*

es *cloración al punto de ruptura*

fr *chloration au point critique*

☞ **klorazio**

## hauts

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Airean denbora-tarte batez esekita egoteko behar den adinako tamaina txikia duten partikula solido lehorren multzoa. Jatorri naturala edo artifiziala izan dezake (errekuntza, birrintzea, etab.). Arnasbideetan sartu eta gaitoxotasunak eragin ditzake, hala nola asbestosia, aluminosia, beriliosia, silikosia, etab.

en *dust; grit*  
es *polvo*  
fr *poussière*

## haztatze-kurba

*Ikerkuntza, zientziak*

Soinu-intentsitate edo presio akustikoaren maila normalizatzeko, hau da, giza entzumenak hautemango duenaren antzeko balioa lortzeko, soinu-mailari ezartzen zaizkion zuzenketa normalizatuen adierazpen grafikoa.

en *weighting curve*  
es *curva de ponderación*  
fr *courbe de pondération*  
☞ **presio akustiko**

## HCFC

☞ **hidroklorofluorokarburo**

## hegazti-fauna

☞ **abifauna**

## hektarea global

*Ikerkuntza, zientziak*

Biztanle-multzo jakin baten aztarna ekologikoa neurtzeko erabiltzen den unitatea. Munduko produktibitate biologiko guztia kontuan harturik, hektarea bakoitzari dagokion batez besteko produktibitatea kalkulatzeko da.

en *global hectare*  
es *hectárea global*  
fr *hectare global*  
☞ **aztarna ekologiko**

## helizida

*Produktuak, materialak*

Bare eta barraskiloen kontrako pestizida.

en *belicide*  
es *belicida*  
fr *bélicide*  
☞ **pestizida**

## herbizida

SIN: belar-hiltzaile; belar-pozoi

*Produktuak, materialak*

Belar gaiztoak eta, oro har, nahi ez diren landareak galtzeko edo horiek haztea eragozteko erabiltzen den pestizida.

en *herbicide*  
es *herbicida*  
fr *herbicide*  
☞ **pestizida**

## hesi berde

*Antroposfera (ingurune birtarra, giza kokalekuak)*

Eraikuntza, instalazio, eremu, errepide eta abarren ikusizko inpaktua ezereztatzeko edo gutxitzeko jartzen den egitura, landarez (bereziki zuhaitzez) edo lurrez egina izaten dena.

en *green barrier*  
es *pantalla visual*  
fr *barrière visuelle*

## hesi-efektu

*Antroposfera (ingurune birtarra, giza kokalekuak) / Efectuak, eraginak*

Bizidunen (eskuarki, animalien) igarotzea zaildu edo oztopatzen duen eta lurraldea bitan zatitzen duen azpiegitura (errepide bat, adibidez) edo jardueraren batek sortzen duen ingurumen-efektua.

en *barrier effect*  
es *efecto barrera*  
fr *effect de barrière*  
☞ **ingurumen-efektu**

## hezegune

SIN: ingurune heze

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Urak hartutako inguru laua, lehorrekoa (aintzira, zingira, zohikaztegia), zein itsas bazterrekoa (padura, bokalea). Oso ekosistema garrantzitsua eta aberatsak izaten dira. Esan daiteke hezeguneak inguru urtar eta lehortarraren arteko elkarrekintzak taxaturiko sistema naturalak direla. Ingurune horietan, klima, erliebe, lurzoru eta ur-erregimenaren ezaugarrien ondorioz, hezetasuna biziki handitzen da, eta horrek zuzeneko eragina du inguruetako prozesu fisiko-kimiko eta biologikoetan.

en *wetland*  
es *humedal; zona húmeda*  
fr *zone humide*  
☞ **Ramsar-eko Hitzarmena**

## hezetasun

*Atmosfera / Litosfera*

Ingurune batean den ur-lurrunaren kontzentrazioa, bereziki airearena edo lurzoruarena.

en *humidity; moisture*  
es *humedad*  
fr *humidité*

## hezetasun absolutu

SIN: lurrun-kontzentrazio

*Atmosfera*

Aire-masa batean den ur-lurrunaren masaren eta aire horren bolumenaren arteko zatidura (g/cm<sup>3</sup>-tan edo g/m<sup>3</sup>-tan adierazia).

en *absolute humidity; vapour concentration*  
es *concentración de vapor; humedad absoluta*  
fr *concentration de la vapeur; humidité absolue*  
☞ **hezetasun erlatibo; hezetasun espezifiko**

## hezetasun erlatibo

## Atmosfera

Aireak une eta toki jakin bateko presio eta tenperaturan duen ur-lurruren kantitatea (lurrin-presioaren bidez adierazia) eta presio eta tenperatura berean ase egonez gero izango lukeenaren arteko zatidura, ehunekotan adierazia.

en *relative humidity*  
es *humedad relativa*  
fr *humidité relative*

☞ **hezetasun absolutu; hezetasun espezifikiko**

## hezetasun espezifikiko

SIN: lurrin-eduki

## Atmosfera

Aire-masa heze batean den ur-lurruren masaren eta aire hezearen masaren (ur-lurruna barne) arteko zatidura (g/kg-tan adierazia).

en *moisture content; specific humidity*  
es *contenido de humedad; humedad específica*  
fr *contenu en vapeur d'eau; humidité spécifique*

☞ **hezetasun absolutu; hezetasun erlatibo**

## Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea

➔ UNESCO

## HFC

➔ **hidrofluorokarburu**

## HHS

➔ **hiri-hondakin solido**

## hidroereite

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Haziak, landare-zuntzak, ongarria, egonkortzaileak, egokitzaileak eta abar uretan nahasirik ihintzatuz ereitea. Nahaste horrek haziak lurrari atxikitzen eta erretzen laguntzen du, baita higatzeko arriskua duten azaletan landare-estalkia eratzten ere.

en *hydraulic seeding; hydroseeding; hydrosowing*  
es *hidrosiembra*  
fr *ensemencement hydraulique; hydroensemencement*

☞ **nekazaritza**

## hidrofluorokarburu (HFC)

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Fluor-, hidrogeno- eta karbono-atomoz osatutako konposatuen izen generikoa. Kloro-atomorik ez dutenez, ozono-geruzari ez diote kalterik egiten. Hori dela eta, CFCen ordez erabiltzen dira. Hala ere, berotegi-efektu handikoak dira.

en *hydrofluorocarbon (HFC)*  
es *hidrofluorocarburo (HFC)*  
fr *hydrofluorocarbone (HFC)*

☞ **berotegi-efektu; ozono-geruzaren urritze**

## hidrogeno

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 1 eta pisu atomikoa 1,0079 duen elementu kimikoa

(H). Elementurik sinpleena da. Oso gas arina da, kolore eta usainik gabea. -253°C-tan likidotu eta -259°C-tan solidotzen da. Ez-metal eta metal gehienekin konbinatzen da, hidrazido eta hidruroak osatuz hurrenez hurren. Hidrogenoaren berotze-ahalmena 143 MJ/kg ingurukoa da.

en *hydrogen*  
es *hidrógeno*  
fr *hydrogène*  
☞ **erregai-pila**

## hidrokarburu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Karbonoz eta hidrogenoz osatutako konposatu organikoa. Petrolio eta gas naturala hidrokarburu-nahasteak dira funtsean, eta haiek dira hidrokarburu-iturri nagusiak. Erregai eta lubrifikatzaile gisa, eta industria kimikoan erabiltzen dira. Poluitzaile dira; isurtze-iturri garrantzitsuenak erregai-errekuntza, petrolio-findegia eta industria kimikoa dira.

en *hydrocarbon*  
es *hidrocarburo*  
fr *hydrocarbure*

☞ **gas natural; hidrokarburu alifatiko; hidrokarburu alizikliko; hidrokarburu aromatiko; hidrokarburu aromatiko polizikliko; hidrokarburu halogenatu; hidrokarburu kloratu; petrolio**

## hidrokarburu alifatiko

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Karbono-kate irekia duen hidrokarburua.

en *aliphatic hydrocarbon*  
es *hidrocarburo alifático*  
fr *hydrocarbure aliphatique*

☞ **hidrokarburu; hidrokarburu alizikliko**

## hidrokarburu alizikliko

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Eraztun aromatikoa ez den karbono-zikloa duen hidrokarburua. Aseak (zikloalkanoak) edo asegabeak (zikloalkenoak eta zikloalkinoak) izan daitezke. Hidrokarburu aliziklikoak dira, esaterako, ziklohexanoa eta metilziklopentanoa.

en *alicyclic hydrocarbon*  
es *hidrocarburo alicíclico*  
fr *hydrocarbure alicyclique*

☞ **hidrokarburu; hidrokarburu alifatiko**

## hidrokarburu aromatiko

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Bentzenoarena bezalako karbono-eraztun bat edo batzuk dituen hidrokarburua. Bentzenoaren eraztuna edo eraztun aromatikoa sei karbono-atomoz osatutako egitura zikliko asegabea da, hiru lotura bikoitz konjokatu dituen. Oro har, lotura bikoitz konjokatuak dituen edozein karbono-ziklori ere eraztun aromatiko esaten zaio.

en *aromatic; aromatic hydrocarbon*  
es *hidrocarburo aromático*  
fr *hydrocarbure aromatique*

☞ **bentzeno; hidrokarburu; hidrokarburu aromatiko polizikliko**

## hidrokarburu aromatiko polizikliko (HAP)

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Bi bentzeno-eratzun edo gehiago dituen konposatu organikoa (izen-dapen hau bi karbono-atomo komun dituzten zikloez osatutako konposatu organikoak adierazteko erabiltzen da eskuarki: naftalenoa, antrazenoa, fenantrenoa...). Harriatz-mundrunetik lortzen dira gehienbat. Emisio-iturri nagusia erregai fosilen errekuntza burutugabea da. Batzuk kartzinogeno bortitzak dira (bentzopirenoa eta dibentzoantrazenoa).

en *polycyclic aromatic hydrocarbon (PAH)*  
es *hidrokarburo aromático policíclico (HAP)*  
fr *hydrocarbure aromatique polycyclique (HAP)*  
☞ **hidrokarburo; hidrokarburo aromático**

## hidrokarburo halogenatu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Hidrogeno-atomo bat edo batzuk halogenoen taldeko elementuen (fluor, kloro edo bromoaren) atomoez ordezkaturik dituen konposatu organikoa. Sua amatatzeko erabiltzen da

⚠ *Halo* ere esaten zaie; baina, ingurumenaren alorrean, batez ere bromoa dutenak izendatzeko erabiltzen da termino hori.

en *halocarbon; halogenated hydrocarbon*  
es *halocarbono; halocarburo; hidrokarburo halogenado*  
fr *halocarbure; halocarbure; hydrocarbure halogéné*  
☞ **haloi; hidrokarburo; hidrokarburo kloratu; klorofluorokarburo**

## hidrokarburo kloratu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Hidrogeno-atomo bat edo batzuk kloro-atomoz ordezkaturik dituen hidrokarburoa.

en *chlorinated hydrocarbon*  
es *hidrokarburo clorado*  
fr *hydrocarbure chloré*  
☞ **DDT; hidrokarburo; konposatu organokloratu; PCB**

## hidroklorofluorokarburo (HCFC)

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Kloro-, fluor-, hidrogeno- eta karbono-atomoz osaturiko konposatuen izen generikoa.

en *hydrochlorofluorocarbon (HCFC)*  
es *hidroklorofluorokarburo (HCFC)*  
fr *hydro-chlorofluorocarbure (HCFC)*  
☞ **berotegi-efektua; klorofluorokarburo; Montrealgo Protokoloa; ozono-geruzaren urritze**

## hidrolisi

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Uraren eraginez, substantzia kimikoak deskonposatzea.

en *hydrolysis*  
es *hidrólisis*  
fr *hydrolyse*

## hidrologia

*Ikerkuntza, zientziak*

Uraren ezaugarriak eta, bereziki, lur gaineko eta lurpeko uren bana-

keta eta zirkulazioa aztertzen dituen zientzia.

en *hydrology*  
es *hidrología*  
fr *hydrologie*  
☞ **limnologia**

## hidrosfera

*Hidrosfera*

Lurrazalean eta atmosferan solido-, likido- zein gas-egoeran dagoen ura, hau da, ozeanoan, itsasoetan, aintziretan, ibaietan, lurpean, glaziarretan eta atmosferan (atmosfera, lurrun gisa) dagoena.

en *hydrosphere*  
es *hidrosfera*  
fr *hydrosphère*  
☞ **atmosfera; litosfera**

## hidrozikloi

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Likidoetan esekita dauden partikulak indar zentrifugoaren bidez bereizteko gailu mekanikoa. Zikloi-mota bat da.

en *hydrocyclone*  
es *hidrociclón*  
fr *hydrocyclone*  
☞ **zikloi**

## higadura

*Litosfera*

Adiera zabalean, uraren, haizearen edo izotzaren eraginez Lurraren azaleko materialak desagitea, garraiatzea eta ondoriozko erliebe-aldaketa eragiten duten kanpo-prozesuen multzoa. Adiera horretan, higadura denudazioaren sinonimotzat hartzen da. Adiera hertsian, denudazioaren bigarren fasea da, meteorizatutako arroka-zatikiek garraiatzen direnean eragiten duten erliebearen desagitea.

en *erosion*  
es *erosión*  
fr *érosion*  
☞ **deforestazio; denudazio; lurzoru; nekazaritza**

## higaduraren kontrako tratamendu

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak) / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Obra bat amaitutakoan, lurzorua ez higatzeko egiten diren lanen multzoa. Landareztapena, drainatze-lanak, eusteko hormak, sare-estaldurak eta abar erabil daitezke.

en *antierosive treatment*  
es *tratamiento antierosivo*  
fr *traitement contre l'érosion*

## hipoklorito

**1**  
*Kimika, substantziak, prozesuak*

Azido hipoklorosoaren ioia (OCl<sup>-</sup>). Urari kloroa (sortzen den azido hipoklorosoaren disoziazioaz) edo hipoklorito gatzak gehitzean eratzen da. Propietate desinfektatzaileak ditu, baina ez azido hipoklorosoaren bestekoak.

en *hypochlorite*

es *hipoclorito*  
fr *hypochlorite*  
👉 **azido hipokloroso**

2

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Azido hipoklorosoaren gatzak. Uraren desinfektatzaileak, lixibak eta zuritzaileak egiteko erabiltzen dira. Garrantzitsuenak kaltzio, potasio eta litio hipokloritoak dira.

en *hypochlorite*  
es *hipoclorito*  
fr *hypochlorite*

## hipolimnion

*Hidrosfera*

Temperatura desberdineko geruzak dauden ur-masa batean, termoklinaren eta hondoaren artean dagoen ura.

en *hypolimnion*  
es *hipolimnion*  
fr *hypolimnion*

👉 **epilimnion; termoklina**

## hiri

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Jende ugari bizitzeko etxe- eta eraikin-multzo egituratua, nagusiki industria eta zerbitzuen arloan lan egiten duten biztanleak dituena.

en *town*  
es *ciudad*  
fr *ville*

## hiri-aglomerazio

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Hiri batek eta haren inguruko herri edo aldiriek osaten duten multzoa. Maiz, direlako herri edo aldiriak, pixkanaka funtzionalki beregain izateari utzita, hiri nagusiaren menpeko bilakatzen dira.

en *urban agglomeration; urban settlement*  
es *aglomeración urbana*  
fr *agglomération urbaine*

👉 **hiri**

## hiri-gas

*Produktuak, materialak*

Gas-fabriketan sortu edo tratatutako gasa, etxeetan, industrian edo merkataritzan erabiltzeko berezia eta hodi-sare bidez banatzen dena. Harrikatz-gasaren eta ur-gas karburatuaren nahastea izaten da.

en *city gas; town gas*  
es *gas ciudad; gas de ciudad*  
fr *gaz de ville*

## hirigintza

*Ikerkuntza, zientziak*

Hiria eta hiriaren ingurua antolatzea eta ordenatzea helburu duen zientzia edo teknika-multzoa. Hiriaren esparrua gaiturik, hirigintzatik

lurralde-antolamenduaren diziplina garatu da. Ingurumen-zientzietako bat da.

en *urbanism*  
es *urbanismo*  
fr *urbanisme*  
👉 **hiri; lurralde-antolamendu**

## hiri-hondakin

👉 **hiri-hondakin solido**

## hiri-hondakin handi

SIN: hondakin handi; tamaina handiko hiri-hondakin; tamaina handiko hondakin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Tamaina handia duelako ohiko zabor-bilketan jasotzen ez den hondakina (altzariak, etxetresna elektrikoak, oheak, atekak, landareak, etab.).

en *bulk waste; bulky household waste; bulky waste; voluminous urban waste*  
es *residuo municipal voluminoso; residuo voluminoso*  
fr *déchet encombrant*

## hiri-hondakin solido

SIN: HHS; hiri-hondakin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Etxeko hondakinak eta izaera zein osaeragatik etxeko hondakinen parekotzat jo daitezkeen saltoki, zerbitzu, enpresa edo bestelako jatorria duen edozein hondakin.

en *municipal solid waste (MSW); municipal waste; urban waste*  
es *residuo municipal; residuo sólido urbano (RSU)*  
fr *déchet municipal; déchet solide urbain*

👉 **birziklatze; errausketa**

## hiriko hondakin-urak

SIN: hiriko ur zikinak

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Etxeko hondakin-urak, industriako hondakin-urekin edo euri-urekin nahasirik egon daitezkeenak.

en *municipal sewage; urban waste waters*  
es *aguas residuales urbanas*  
fr *eaux urbaines résiduaires*

👉 **hondakin-uren arazketa**

## hiriko ur zikinak

👉 **hiriko hondakin-urak**

## hirugarren mailako bilgarri

SIN: garraiorako bilgarri

*Produktuak, materialak*

Zenbait salmenta-unitate edo haien multzoak batera hartzen dituen bilgarri-mota, salgaiak garraioan errazago eta seguruago mugitu eta erabiltzeko.

en *tertiary packaging; transport packaging*  
es *embalaje de transporte; embalaje terciario*  
fr *emballage de transport; emballage tertiaire*

👉 **bigarren mailako bilgarri; bilgarri; lehen mailako bilgarri**



## hirugarren tratamendu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren arazketaren hirugarren eta azken urratsa, aurreko bi tratamenduen ondoren gelditzen diren zenbait substantzia (fosforoa, nitrogenoa, metal astunak, etab.) kentzea helburu duena. Tratamendu fisiko, kimiko eta biologiko osagarriak erabiltzen dira.

en *tertiary treatment*  
es *tratamiento terciario*  
fr *traitement tertiaire*

☞ **bigarren tratamendu; hondakin-uren arazketa; lehen tratamendu**

## hobi pedologiko

SIN: zanga pedologiko

*Ikerkuntza, zientziak / Litosfera*

Lurzoria nolakoa den eta nolako egitura eta osagaiak dituen jakitearren, profila agerian utziz lurtean egiten den hondeatze-lana.

en *soil pit*  
es *calicata; cata*  
fr *fossé pédologique*

## hobi septiko

SIN: putzu beltz; putzu septiko

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Estolderiarik ez dagoen tokietan (baserrietan, adibidez) hondakin-urak jasotzeko eta metatzeko lurpeko zulo itxia, hondakinen deskonposizio anaerobioa gertatzen dena eta hondotik likidoa lurpera iragazten dena. Aldian behin hustu egiten da.

en *cesspit; cesspool; septic tank; sump*  
es *fosa séptica; pozo ciego; pozo negro*  
fr *fosse d'aisances; fossé septique; puisard; puits perdu*

## hodei erradioaktibo

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Leherketa edo istripu nuklear baten ondorioz sortzen diren partikula erradioaktiboez osatutako hodeia.

en *radioactive cloud*  
es *nube radiactiva*  
fr *nuage radioactif*

☞ **laino toxiko**

## hodei toxiko

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Airean eratzten den poluitzaile-kontzentrazio handiko egitura hodeiantzekoa, gasez, lurrunez, zatiki esekiz edota aerosolez osatua.

en *toxic cloud*  
es *nube tóxica*  
fr *nuage toxique*

☞ **hodei erradioaktibo**

## hodi-bukaerako tratamendu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakinak, isuriak edo emisioak ingurunean askatu aurretik, pro-

dukzio-prozesuaren amaieran tratatzea, eskuarki prozesua gertatzen den instalazioan bertan.

en *end of pipe treatment*  
es *tratamiento a final de línea; tratamiento al final de canalización*  
fr *traitement en fin de canalisation*

## hondakin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Zerbait ekoitzi, transformatu edo erabiltzearen ondorioz sortzen den gaia, sortu duenak nahi ez duena eta ingurunean utzi duena edo uzteko asmoa duena.

en *refuse; residue; waste*  
es *residuo*  
fr *déchet*

☞ **poluzio**

## hondakin arriskutsu

SIN: hondakin berezi

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Erreaktiboa, toxikoa, leherkorra, korrosiboa edo erradioaktiboa delako pertsonen edo bizidunen osasunerako edo ingurumenerako arriskutsua den edo arriskutsua izan daitekeen hondakin edo hondakin-multzoa, tratamendu eta kontrol berezia behar duena.

en *hazardous waste; special waste*  
es *desecho especial; residuo peligroso; residuo tóxico y peligroso*  
fr *déchet dangereux; déchet spécial*

## hondakin berde

➔ **landare-hondakin**

## hondakin berezi

➔ **hondakin arriskutsu**

## hondakin erradioaktibo

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Legez onartutako muga-balioak baino erradioaktibitate handiagoa duen hondakina. Zentral nuklearrek sortzen dituzte bereziki, baina gai erradioaktiboak erabiltzen dituzten enpresa, arma-industria, ospitale eta abarrek ere bai. Hondakin solido, likido edo gaseosoak izan daitezke, eta, erradioaktibitate-mailaren arabera, hiru multzotan sailkatzen dira: aktibitate txikikoak, aktibitate ertainekoak eta aktibitate handikoak. Igortzen dituzten erradiazio ionizatzaileak oso arriskutsuak dira bizidunentzat (bereziki, mutazioak eta tumoreak eragiten dituztelako). Hondakin erradioaktiboen ezabapena arazo larria da gaur egun.

en *radioactive waste*  
es *residuo radiactivo*  
fr *déchet radioactif*

☞ **energia nuklear; erradiazio ionizatzaile; erradioaktibitate handiko hondakin**

## hondakin gaseoso

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Gas-egoeran dagoen hondakina.

en *gaseous waste*  
es *residuo gaseoso*  
fr *déchet gazeux*

## hondakin geldo

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurunean arriskutsutzat jotzeko adinako aldaketa fisiko, kimiko edo biologikorik ez duen eta lixibiatuen arazko irizpideak betetzen dituen hondakina. Eraikuntzan (obra-hondakinak, harriak, lurra..) eta industrian (zepa, erraustak, harea..) sortu ohi dira. Nagusiki hondakindegia kontrolatueta kudeatzen dira, baina batzuk berrerabiltzen hasi dira (zoldurak egiteko, adibidez).

en *inert waste*  
es *residuo inerte*  
fr *déchet inerte*

## **hondakin handi**

➔ **hiri-hondakin handi**

## **hondakin likido**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Egoera likidoan dagoen hondakina.

en *liquid waste*  
es *residuo líquido*  
fr *déchet liquide*

## **hondakin mineral**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Meatik mineral erabilgarriak erauztean sortzen den hondakina.

en *mineral waste*  
es *residuo mineral*  
fr *déchet minéral*

☞ **hondakin arriskutsu**

## **hondakin organiko**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Gai organiko asko dituen hondakina (adibidez, etxeetako hondakin-urak eta, bereziki, ur beltzak, elikagai-industriako hondakin-urak, hiltegi-eta hondakinak, etab.).

en *organic waste*  
es *residuo orgánico*  
fr *déchet organique*

## **hondakin sanitario**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Osasuna zaintzarekin edo medikuntzarekin lotutako jarduerak sortutako hondakina. Askotarikoak izaten dira, eta gehienek aparteko tratamenduak behar dituzte (botikak, konposatu kimikoak, erabilitako material suntsikorra, gai organikoak, hondakin erradioaktiboak, etab.).

en *sanitary waste*  
es *residuo sanitario*  
fr *déchet du secteur de la santé*

## **hondakin solido**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Egoera solidoan dagoen hondakina.

en *solid waste*  
es *residuo sólido*  
fr *déchet solide*

## **hondakin toxiko**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Arnastu, irentsi edo larruazaletik xurgatuz gero intoxikazioa sor dezaketan substantziak dituen hondakin arriskutsu mota.

en *toxic waste*  
es *residuo tóxico*  
fr *déchet toxique*

## **hondakinak**

SIN: eraiste-hondakin; obra-hondakin; zabor

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Eraikina edo horren atal bat (horma, sabaia..) eraitsitakoan gelditzen diren harri-, adreilu-, igeltsu-, zur- eta abarren puskez osatutako hondakinak. Hondakin geldoak dira.

! Hizkera arruntean *hondakinak* edo *zaborra* terminoak erabili ohi dira, baina hondakin-kudeaketaren testuinguruan hondakinak bata bestetik bereizi behar izaten dira, eta argiagoak dira orduan *eraiste-hondakin* edo *obra-hondakin* terminoak.

en *debris; demolition waste; rubble*  
es *escombros; residuo de demolición*  
fr *déchet de démolition; décombres; gravats; gravois*

☞ **eraikuntzako hondakin**

## **hondakinak bereizteko instalazio**

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Hondakin solidoak osagaien arabera edo bestelako ezaugarrien arabera bereizi eta sailkatzeko instalazioa. Bereizteko teknikak bereizi beharreko osagaien eta atalen ezaugarrietan oinarrituta daude, hala nola hondakinaren tamaina (bahetzea), magnetismoa (bereizketa magnetikoa), ezaugarri optikoak (bereizketa optikoa, koloreen arabera adibidez) edo dentsitatea (aire- edo likido-korronte bidezko bereizketa). Zenbait tokitan bereizketa guztiz automatikoa da, esaterako, Alemaniako instalazio batzuetan.

en *waste separation plant*  
es *instalación de clasificación de residuos; instalación de separación de residuos; planta de triaje*  
fr *installation de séparation des déchets; installation de tri des déchets*

## **hondakinak biltegitratze**

➔ **hondakin-biltegitratze**

## **hondakinak biltze**

➔ **hondakin-bilketa**

## **hondakinak errausteko instalazio**

SIN: errausteko-instalazio; erraustegi

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Hondakinak errausteko erabiltzen den instalazio-multzoa.

en *incineration plant; refuse incineration plant*  
es *incineradora; planta de incineración de residuos; planta incineradora*  
fr *installation d'incinération; installation d'incinération de déchets*  
☞ **errausketa**

## **hondakinak tratatzeko instalazio**

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Hondakinen tratamendua egiteko instalazio-multzoa. Helburua poluzio-arriskua deuseztatzea, edo maila onargarriraino gutxitzea, zein hondakinak baliaraztea izan daiteke.

en *waste treatment plant*

es *planta de tratamiento de residuos*

fr *installation de traitement des déchets*

## **hondakin-bilketa**

SIN: hondakinak biltze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakinak sortzen diren tokian jasotzea, hondakindegira edo tratamendu-instalaziora garraiatzea eta han uztea.

en *waste collection*

es *recogida de residuos*

fr *collecte des déchets*

☞ **transferentzia-gune**

## **hondakin-biltegiatze**

SIN: hondakinak biltegiatze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakinak, tratatu (baliarazi edo ezabatu) aurretik, behin-behineko biltegi batean metatzea.

en *waste storage*

es *almacenamiento de residuos*

fr *stockage des déchets*

## **hondakin-birrintze**

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Leku gutxiago har dezaten, hondakin solidoak tamaina txikiko zatitan birrintzea.

en *grinding of wastes*

es *trituration de residuos*

fr *broyage de déchets; trituration de déchets*

## **hondakin-burtsa**

*Ingurumen-politika*

Enpresek beren hondakinak beste bati saltzeko edo emateko antolatutako informazio- eta kudeaketa-sistema. Enpresen hondakinei buruzko informazioa jasotzen duten web guneak daude, *burtsa elektronikoko* edo *hondakin-burtsa elektronikoko* esaten zaienak.

en *surplus materials exchange; waste exchange; waste materials exchange*

es *bolsa de residuos*

fr *bourse de déchets*

## **hondakindegia**

SIN: zabortegi

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Hondakinak botatzen diren tokia.

en *dump; dump site; landfill; landfill site*

es *vertedero*

fr *décharge; dépotoir*

☞ **hondakindegia kontrolatu; hondakindegia kontrolatugabe; itxita-ko hondakindegia; meategiko hondakindegia; monohondakinde-**

**gi**

## **hondakindegia klandestino**

☞ **hondakindegia kontrolatugabe**

## **hondakindegia kontrolatu**

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Hondakin solidoak ezarritako irizpide batzuen arabera jasotzeko eta metatzeko hondakindegia, ingurumenari ahal den kalterik txikiena egiteko bereziki diseinatua eta kudeatua. Hondakinak aldi behin trinkotu eta lurrez estaltzen dira. Lixibiazio-urak bildu eta sortzen diren gasak kontrolatu egiten dira.

en *controlled landfill; sanitary landfill*

es *vertedero controlado*

fr *décharge contrôlée*

☞ **estalgarr; hondakindegia kontrolatugabe**

## **hondakindegia kontrolatugabe**

SIN: hondakindegia klandestino; zabortegi klandestino; zabortegi kontrolatugabe

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Hondakinak zuzenean jasotzen dituen hondakindegia, ingurunean sor ditzaketen ondorio kaltegarriak saihesteko neurririk hartu gabe sortua, eta dagokion araudia betetzen ez duena edota irizpide teknikoari jarraitzen ez diena.

en *open dump; uncontrolled dump*

es *vertedero clandestino; vertedero incontrolado*

fr *décharge brute; décharge non contrôlée; décharge sauvage*

☞ **hondakindegia kontrolatu**

## **hondakindegiko gas**

☞ **zabortegiko gas**

## **hondakindegiko lixibiatu**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakindegia batean, hondakinetan zehar igaro den eta prozesu horretan hondakinen substantzia disolbagarriak edota solido esekiak erauzi dituen likidoa.

en *landfill leachate*

es *lixiviado de vertedero*

fr *lixiviât de décharge*

☞ **lixibiatu**

## **hondakinen azterketa**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ikerkuntza, zientziak*

Hondakin-lagin baten osagaiak zein diren eta zein proportziotan dauden zehaztea.

en *waste analysis; waste assessment*

es *análisis de residuos*

fr *analyse de déchets*

☞ **hondakinen karakterizazio**

## **hondakinen balorizazio energetiko**

☞ **hondakinen energiaren berreskuratze**

## **hondakinen energia baliarazte**

## ↳ hondakinen energiaren berreskuratze

### **hondakinen energiaren berreskuratze**

SIN: hondakinen balorizazio energetiko; hondakinen energia baliarazte

*Energia / Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakinetatik bero-energia lortzea. Eskuarki, hondakinak erraustuz egiten da.

en *energy recovery from wastes; waste energy recovery*

es *recuperación energética de residuos; valorización energética de residuos*

fr *récupération énergétique des déchets; valorisation énergétique des déchets*

↳ **errausketa**

### **hondakinen ezabaketa**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakinak leku batean baldintza jakin batzuk betez uzteko (hondakindegia kontrolatueta, itsasoan, lurpean injektatuz) zein erabat edo partzialki deuseztatzeko (errausketa) edozein prozedura, energia berreskuratze prozedurak izan ezik.

en *waste disposal*

es *eliminación de residuos; evacuación de residuos*

fr *élimination des déchets; évacuation des déchets*

### **hondakinen karakterizazio**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakinen ezaugarriak, osagaiak eta osagaien proportzioak zehaztea, hondakin-mota sailkatzeko, kudeatzeko modurik egokiena hautatzeko, baliarazte-mota erabakitze eta abarretarako balio duena.

en *waste characterization*

es *caracterización de residuos*

fr *caractérisation des déchets*

### **hondakinen kudeaketa**

#### ↳ hondakin-kudeaketa

### **hondakinen tratamendu**

SIN: hondakin-tratamendu

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakinen poluzio-arriskua deuseztatzeko (edo ahal den txikiena izan dadin lortzeko), baldintza jakin batzuk beteta ingurunean uzteko, dituzten gai erabilgarriak birziklatzeko edota haien energia berreskuratze egiten diren prozesuen multzoa.

en *waste processing; waste treatment*

es *tratamiento de residuos*

fr *traitement des déchets*

↳ **tratamendu-instalazio; tratamendu kimiko; tratamendu termiko**

### **hondakin-kudeaketa**

SIN: hondakinen kudeaketa

*Ingurumen-politika*

Hondakinekin zer egingo den erabakitzea eta horren arabera prozedurak bideratu eta gauzatzea, ingurumenaren gaineko eragina beti gogoa edukita eta poluzio-arriskuak minimizatzearen. Hondakinak jasotzea,

garraiatzea, biltegitratzea, tratatzea, ezabatzea edota baliaraztea, baita horren emaitza diren produktuak merkaturatzea ere, barne hartzen ditu (ez, ordea, sorburuko birziklatzea).

en *waste management*

es *gestión de residuos*

fr *gestion des déchets*

### **hondakin-tratamendu**

#### ↳ hondakinen tratamendu

### **hondakin-ur**

#### ↳ hondakin-urak

### **hondakin-ur gordin**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Araztu edo tratatu gabeko hondakin-ura.

en *raw sewage*

es *agua usada bruta*

fr *eau usée brute*

### **hondakin-urak**

SIN: hondakin-ur; ur zikinak

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Nekazaritza-abeltzaintza, industria, zerbitzu edo etxeetatik datozen hondakinak dituzten urak.

en *sewage; sewage effluent; waste water; wastewater*

es *aguas residuales*

fr *eaux résiduaires; eaux usées; effluent d'eau usée*

↳ **etxeko hondakin-urak; hiriko hondakin-urak; industriako hondakin-urak**

### **hondakin-uren arazketa**

SIN: ur zikinen arazketa

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin-uretako poluitzaileak kontzentrazio onargarri bateraino kentzea edo degradatzea, ingurunera isurtzen direnean poluziorik sor ez dezaten edo urak berriro erabili ahal izan daitezen.

en *effluent treatment; sewage treatment; waste water purification; waste water treatment*

es *depuración de aguas residuales; tratamiento de aguas residuales*

fr *épuration des eaux résiduaires; épuration des eaux usées*

↳ **uraren arazketa**

### **hondakin-uren araztegi**

SIN: araztegi; ur zikinen araztegi

*Antroposfera (ingurune birtarra, giza kokalekuak)*

Ingurunera isuri aurretik, hondakin-uren —etxekoekin zein industria-  
len— poluitzaileak kontzentrazio onargarri bateraino kentzeko edo degradatze prozesuak egiten diren instalazio-multzoa.

en *sewage treatment plant; waste water purification plant; waste water treatment plant; wastewater plant; wastewater works*

es *depuradora; estación depuradora; estación depuradora de aguas residuales; planta de depuración; planta depuradora; planta depuradora de aguas residuales*

fr *station d'épuration; station d'épuration des eaux usées; station de traitement des eaux résiduaires*

↳ **hondakin-uren arazketa**

## **hondakin-uren lohi**

➔ **arazketako lohi**

## **hondakin-uren tratamendu biologiko**

➔ **arazketa biologiko**

## **hondamendi ekologiko**

*Arriskuak, segurtasuna*

Ekosistemak suntsitzen dituelako edo baliabide naturalak desagerrarazten dituelako, ingurumenean kalte handi eta atzeraezinak eragiten dituen gertakaria.

en *ecological disaster*  
es *catástrofe ecológica; desastre ecológico*  
fr *catastrophe écologique; écocatastrophe*

## **hondar-arrisku**

*Arriskuak, segurtasuna*

Lurzoria berreskuratu ondoren gelditu litekeen poluzioak dakarren arriskua.

en *residual risk*  
es *riesgo residual*  
fr *risque résiduel*

## **hondar-gas**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Prozesu baten ondorioz eratzen den hondakin gaseosoa, zatiki solido edota likido esekiak izan ditzakeena.

en *waste gas*  
es *gas residual*  
fr *gaz résiduaire*

## **hondar-kentze**

➔ **harea-kentze**

## **hondar-kloro**

SIN: hondar-kloro total; hondar-kloroaren guztizko

*Ikerkuntza, zientziak*

Klorazioaren ondoren uretan gelditzen den kloro aske eta konbinatuaren kantitatea.

en *available chlorine; residual chlorine; total available chlorine; total residual chlorine*  
es *cloro disponible; cloro disponible total; cloro residual; cloro residual total*  
fr *chlore disponible; chlore résiduel; chlore résiduel total; chlore total disponible*

## **hondar-kloro total**

➔ **hondar-kloro**

## **hondar-kloroaren guztizko**

➔ **hondar-kloro**

## **hondar-lohi**

➔ **arazketako lohi**

## **hondarrean zeharreko iragazpen geldo**

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Uraren tratamenduan, ale-tamaina jakineko hondarrezko iragazki batean zehar ura goitik behera eta emari jakin batez iragaztea, bidean gertatzen diren prozesu fisiko, kimiko eta biologikoen bidez ur garbia emateko.

en *slow sand filtration*  
es *filtración lenta sobre arena*  
fr *filtration lente sur sable*

☞ **hondakin-uren arazketa; hondarrean zeharreko iragazpen laster**

## **hondarrean zeharreko iragazpen laster**

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Gardentze-prozesuaren ondoren, ura hondar-iragazki batetik igaroraztea, uretan gelditu diren partikula esekiak kentzeko.

en *rapid sand filtration*  
es *filtración rápida sobre arena*  
fr *filtration rapide sur sable*

☞ **hondakin-uren arazketa; hondarrean zeharreko iragazpen geldo**

## **hondo-kontzentrazio**

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Substantzia poluitzaile baten hondo-poluzioaren kontzentrazioa, hau da, poluzio-iturri jakinen eragina gertatu aurretik iturri naturalen edo ez-puntualen eraginez delako substantzia poluitzaileak airean duen kontzentrazioa.

en *background concentration; background level*  
es *concentración de fondo; nivel de fondo*  
fr *concentration ambiante; concentration de fond; niveau de fond*

## **hondo-kutsadura**

➔ **hondo-poluzio**

## **hondo-poluzio**

SIN: hondo-kutsadura

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Airean iturri naturalen edo iturri ez-puntualen eraginez dagoen poluzioa, poluzio-iturri jakinek eragindakoa ez dena.

en *background pollution*  
es *contaminación de fondo*  
fr *pollution de fond*

## **hondo-zarata**

*Ikerkuntza, zientziak*

Desberdindu gabeko iturrietatik datorren zarata nahiko konstantea.

en *background noise*  
es *ruido de fondo*  
fr *bruit de fond*

☞ **zarata**

## **hornikuntza-ur**

*Merkataritza, zerbitzuak*

Iturburu, putzu, urtegi eta abarretatik datorren eta tratatu ondoren hornikuntza-sare edo zerbitzu-tanga batera doan ura, edateko edo bestela erabiltzeko balio duena.

en *supply water*

es *agua de abastecimiento; agua de suministro*

fr *eau de distribution*

☞ **edateko ur**

## hosgabetze

➔ **intsonorizazio**

## hosto-galarazle

➔ **hosto-galtzaile**

## hosto-galtzaile

SIN: hosto-galarazle

*Produktuak, materialak*

Landareek hostoa galtzea eragiten duen substantzia. Belar- eta izurri-hiltzailetzat erabiltzen dira, baita gerra kimikoan ere. Osasunerako eta ingurumenarako arriskutsuak dira.

en *defoliant*

es *defoliante*

fr *défoliant*

☞ **agente laranja**

## hosto-galtze

SIN: defoliazio

*Efektuak, eraginak*

Landareek hostoa prozesu natural baten zein gizakiak eragindako prozesu baten ondorioz galtzea.

en *defoliation*

es *defoliación*

fr *défoliation*

## hots-kutsadura

➔ **poluzio akustiko**

## hozteko ur

*Produktuak, materialak*

Prozesu batean sortzen den beroa xurgatu eta transferitzeko erabiltzen den ura. Besteak beste, helburu hauek lortzeko erabiltzen da: tenperatura maila jakin batetik behera mantentzeko, ur-zirkuitu itxi bateko lurrina kondentsatzeko, beroa berreskuratzeko eta abarretarako. Bere funtzioa betetzen duenean, hozteko ura berotu egiten da; ur bero hori, askotan, ingurunera isurtzen da, eta isuri horrek poluzioa eragin dezake, bero-poluzioa alegia.

en *cooling water*

es *agua de refrigeración*

fr *eau de refroidissement*

☞ **bero-poluzio**

## humifikazio

*Biosfera / Litosfera*

Lurzoruko gai organikoak humus bihurtzea.

en *humification*

es *humificación*

fr *humification*

☞ **humus**

## humus

*Litosfera*

Lurzoruko kanpo-geruza osatzen duen substantzia beltzezka, animalia- eta landare-hondakinetak materia organikoaren deskonposizio eta transformazio biologiko eta kimikoaren emaitza dena. Garrantzi handia du landareen hazkunderan. Humusaren sorreran eragin handia dute klimak eta lurzoruaeren ezaugarriek.

en *humus*

es *humus*

fr *humus*

☞ **humifikazio**

## hurbiltasun-printzipio

*Legeak, arauak, bitzarmenak*

Hondakinen arazoa hondakinak sortu diren lekutik ahalik eta hurbilen konpondu behar dela dioen printzipioa.

en *principle of proximity*

es *principio de proximidad*

fr *principe de proximité*

## hustubide

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Estolderiako hondakin-urak edo araztegitik irteten diren urak jaso eta hustutzeko lekuraino eramaten dituen hodia.

en *outfall; outfall sewer*

es *emisario*

fr *émissaire; émissaire d'évacuation*

## hustuleku

SIN: isurgune

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Poluitzailea (berotegi-efektuko gasak, energia..) ingurumenean isurtzen, husten edo ezabatzen den sistema (adibidez, itsasoa, airea, etab.). Esate baterako, errekontzaren emaitza den karbono dioxidoaren hustuleku atmosfera da, sistema bat hozteko uraren hustuleku ibaiak izan ohi dira, etab.

en *sink*

es *sumidero*

fr *puisard*

## husteko iragazketa

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Lohiak ehun iragazle batean zehar hutsaren laguntzaz igaroarazten diren deshidratazio-prozedura.

en *vacuum filtration*

es *filtración al vacío*

fr *filtration sous vide*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## ibai

SIN: erreka

## Hidrosfera

Ur-laster naturala, aski handia eta itsaso, aintzira edo beste ibai batera doana.

en *river*  
es *río*  
fr *fleuve; rivière*  
👉 **ekosistema**

## ibaiertzeko baso

→ **galeria-baso**

## IBEB

→ **itsasoko bero-energiaren bihurketa**

## ibilbide ekologiko

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Inguru natural batean zeharreko bidea, haren ezaugarri ekologikoak behatu, neurketak egin, laginak hartu edota azalpenak entzuteko geldiuneak tartekatuz egiten dena.

en *nature trail*  
es *itinerario de la naturaleza; senda ecológica*  
fr *sentier d'information de la nature; sentier didactique*

## IENB

→ **Itsasoa Esploratzeko Nazioarteko Batzordea**

## igarobide ekologiko

→ **korridore ekologiko**

## iglu

SIN: iglu-formako edukiontzi

*Produktuak, materialak*

Gaikako bilketarako edukiontzia, oinarri biribila, kono moztuaren formako gorputza eta esferaerdi-formako goialdea duena.

en *igloo shaped container*  
es *iglú*  
fr *igloo*  
👉 **gaikako bilketa**

## iglu-formako edukiontzi

→ **iglu**

## ihes

*Arriskuak, segurtasuna*

Gai bat biltegi edo garraiobidetik ateratzea, dela zulo, pitzadura, juntura eta abarretatik, dela biltegiak eztanda egin duelako edo beste arrazoiren bategatik.

en *escape; leak; leakage*  
es *fuga*  
fr *fuite*

## ihes-gas

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Makina termikoen (eztanda-motor, gas-turbina eta abarren) errekontza-ganberan gertatzen den errekontza-erreakzioaren emaitza den gas-

nahastea, ihes-hodi izenekotik aineratzen edo kanporatzen dena.

en *exhaust; exhaust gas*  
es *gas de escape*  
fr *gaz d'échappement*  
👉 **errekontza-gas; ihes-hodi**

## ihes-hodi

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Makina termikoen (eztanda-motor, gas-turbina eta abarren) errekontza-ganberan gertatzen den errekontza-erreakzioan sortzen diren errekontza-gasak aineratzen diren hodia.

en *exhaust; exhaust pipe*  
es *escape; tubo de escape*  
fr *échappement; tuyau d'échappement*  
👉 **barne-errekontzako motor; bihurgailu katalitiko; errekontza-gas**

## ihintz-puntu

*Atmosfera*

Presioa aldatzen ez dela hozten ari den aire hezea ur-lurrunez asetzen den tenperatura, presioaren eta hezetasunaren araberakoa dena. Hortik behera, ur-lurruna kondentsatu egiten da, eta ihintza osatzen duten tanta txikiak eratzen dira.

en *dew point; dewpoint*  
es *punto de rocío*  
fr *point de rosée*

## IHOBE

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Garapen jasangarriaren irizpideak oinarri hartuta eta Eusko Jaurlaritzaren plan eta jarraibideekin bat eginda, EAEko eragile guztiak mugiarazi eta ingurumen-jarduera egokia lortzea helburu duen sozietate publikoa

🚩 **IHOBE** siglaren jatorrizko esanahia *Industria Hondakinentzako Bateango Emularaztegia* da; hala ere, egun ez da izen hori erabiltzen, eta laburtzapen gisa **IHOBE** eta izendapen gisa *Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa* erabiltzen dira.

en *IHOBE*  
es *IHOBE*  
fr *IHOBE*

## IIE

→ **ingurumen-inpaktuaren ebaluazio**

## IIII

→ **Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak**

## ikatz

1

*Produktuak, materialak*

Nagusiki karbonoz osatua den gai beltz edo kolore ilunekoa, landareen materia organikoaren zenbait eraldaketaren emaitza dena. Erregai gisa erabiltzen da, baita zenbait produktu lortzeko ere (kokea, gas erregai batzuk, sintesi-gasa, gas natural sintetiko...). Jatorriaren arabera, harrikatza (denbora geologikoan zeharreko lurpeko deskonposizio partziala), zohikatza (zenbaitzuek harrikatzen multzokotzat jotzen dutena), egur-ikatz (landareen errekontza burutugabea) eta kokea (harrikatzaren distilazioa)

bereizten dira.

en *coal*  
es *carbón*  
fr *charbon*

☞ **antrazita; egur-ikatz; harrikatz; harrikatz bituminoso; koke; lignito; zohikatz**

## 2 ➔ **harrikatz**

### **ikatz aktibatu**

*Produktuak, materialak*

Gai karbonodunen kaltzinazioz lortzen den ikatz-mota berezia, oso adsorbatzaile ona dena. Isuri likido edo gaseosoetatik substantzia toxikoak edo hondakin-uretatik substantzia organikoak adsortzioz erazteko erabiltzen da.

en *activated carbon; activated charcoal*  
es *carbón activo*  
fr *charbon actif; charbon activé*

☞ **birsortze**

### **iktioplankton**

*Biosfera*

Planktonaren parte diren arrain-larben eta -arrautzen multzoa.

en *ichthyoplankton*  
es *ictioplancton*  
fr *ichthyoplancton*

☞ **plankton**

### **ikusizko eragin**

➔ **ikusizko inpaktu**

### **ikusizko inpaktu**

SIN: ikusizko eragin

*Efektuak, eraginak*

Paisaiari eragiten dion ingurumen-inpaktua. Eragina neurtzeko, honako faktore hauek hartzen dira kontuan: jarduerak edo instalazioak dituen ikusizko osagaien eta kokatuta dagoen lekuaren artean sortzen den kolore, forma, eskala eta abarren kontrastea; instalazio edo eraikuntzak bertakoak baino nabarmenagoak ote den; eta elementu natural edo artifizial bat ezkutatzen ote duen.

en *visual effect; visual impact*  
es *impacto visual*  
fr *impact visuel*

☞ **ingurumen-inpaktu**

### **immisio-muga**

SIN: airearen kalitate-arauak

*Ikerkuntza, zientziak*

Legeak airearen poluitzaile bakoitzerako onartzen duen gehieneko kontzentrazioa, gainditu behar ez dena.

en *Air Quality Standards; immission limit; immission standard*  
es *límite de inmisión; normas de calidad del aire*  
fr *normes de qualité de l'air; standard d'immission*

☞ **airearen kalitate**

### **in situ gasifikazio**

➔ **lurpeko gasifikazio**

### **inbertsio-geruza**

*Atmosfera*

Temperatura garaierarekin batera handitzen den atmosferako geruza horizontal edo ia horizontala. Temperatura-gradientearen dela eta, poluitzaileak ez dira gorantz barreiatzen eta geruzan metatu egiten dira.

en *inversion layer*  
es *capa de inversión*  
fr *couche d'inversion*

☞ **smog**

### **indize biotiko**

*Ikerkuntza, zientziak*

Ekosistema baten (bereziki ur-masa baten) kalitatearen egoeraren berri ematen duen zenbakia, ekosistema horretan bizi diren organismoen adierazle biologikoaren adierazgarritzat hartzen dena. Indize biotikoa kalkulatzeko, poluitzaileekiko sentikorrenak diren izakiak hartzen dira kontuan. Esate baterako, aldizka isurketaren bat gertatzen bada, izaki sentikorrenak desagertu egiten dira, eta desagertze hori uraren kalitatean aldaketaren bat izan delako seinaleztat har daiteke. Hainbat indize biotiko badaude ere, ohikoena ornogabeetan eta algetan oinarritutakoak dira.

en *biotic index*  
es *índice biótico*  
fr *indice biotique*

☞ **ekosistema**

### **industria**

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Lehengaiak landuz eta eraldatuz, gehienetan makinak erabiliz, ondasun materialak eta kontsumo-gaiak ekoiztea helburu duten ekonomia-jardueren multzoa.

en *industry*  
es *industria*  
fr *industrie*

### **industria-hondakin**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Industriako lan eta prozesuen emaitza den hondakina. Eskuarki, hiru taldetan sailkatzen dira: hiri-hondakinen parekotzat jo daitezkeenak, gel-doak eta arriskutsuak.

en *industrial waste*  
es *residuo industrial*  
fr *déchet industriel*

☞ **hiri-hondakin solido; hondakin arriskutsu; hondakin geldo**

### **industriako hondakin-urak**

SIN: industriako ur zikinak

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Industria- edo merkataritza-jarduera baten ondorioz sortzen eta isurtzen diren hondakin-urak, ez etxeko hondakin-ur ez euri-ur direnak.

en *industrial sewage; industrial waste waters; trade wastes*  
es *aguas residuales industriales*  
fr *eaux résiduaires industrielles; eaux usées industrielles*



☞ **hondakin-uren arazketa; ur industrial**

## industriako ur zikinak

☞ **industriako hondakin-urak**

## industria-ur

☞ **ur industrial**

## infekzioso

*Osasuna, nutrizioa*

Pertsonetan edo gainerako izaki bizidunetan gaixotasuna eragin dezaketan mikroorganismoak edo haien toxinak dituen substantzia. Europako Batasuneko 91/689 Zuzentarauaren arabera, substantziak eta hondakinak legez arriskutsutzat jotzeko ezaugarrietako bat da.

en *infectious*  
es *infeccioso, -a*  
fr *infectieux, -ieuse*

☞ **ekotoxiko; erregarri; kaltegarri; kantzerigeno; korrosibo; leherkor; mutageno; narritagarri; sukoi; teratogeno; toxiko**

## informazio geografikoko sistema

☞ **geografia-informazioko sistema**

## ingeniaritza genetiko

*Ikerkuntza, zientziak / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Gene bakar bat edo gene-talde bat kanporatuz, txertatuz edo eraldatuz, zelulen eta bizidunen osaera genetikoa aldatzen duten tekniken multzoa.

en *genetic engineering*  
es *ingeniería genética*  
fr *génie génétique*

☞ **bioteknologia**

## ingurugiro

☞ **ingurumen**

## Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak (IIII)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistemako irakasleei eta ikastetxei ingurumen-hezkuntza sustatzen laguntzeko ikastegiak. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sortu zituzten, eta bi sail horien arteko lankidetzaz lan egiten dute.

es *CEIDA; Centros de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental*

## ingurumen-

SIN: ingurune-

*Ingurunea*

Ingurumenari dagokiona edo ingurumenarena.

⚠ Hitz-elkarketara jo gabe, batzuetan, ohiko sintagmak erabiliz euskaratzen dira erdarretan *environmental/ambiental; medioambiental/environnemental* adjektiboak duten terminoak. Adibidez, *ingurumenaren babesa, ingurumenarekiko kontzientzia*, etab.

en *environmental*

es *ambiental; medioambiental*  
fr *environnemental, -ale*

## ingurumen

SIN: ingurugiro; ingurune

*Ingurunea*

Organismoen eta komunitateen bizitzan eta garapenean eragina duten kanpo-faktore (fisiko, ekologiko, estetiko, kultural, sozial, ekonomiko) guztien multzoa.

⚠ Funtsean, *ingurune* eta *ingurumen* sinonimo badira ere, ñabardura batzuk egin daitezke: adiera fisiko hertsian *ingurune* (edo haren sinonimo hutsa den *inguru*) terminoa erabili ohi da (*ingurune-zarata, ingurune bezea.*), baina ezaugarri edo ñabardura soziokulturalak, politikoak edota zuzenbidezkoak adierazteko *ingurumen* terminoa erabiliagoa da (*ingurumen-politika, ingurumen-zuzenbidea, ingurumen-zerga.*). Bestalde, *ingurune* singularrez nahiz pluraleraz erabiltzen da; *ingurumen*, berriz, singulareraz baino ez da erabiltzen.

en *environment*  
es *medio; medio ambiente*  
fr *environnement; milieu*

## Ingurumen eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioa

*Agiriak*

Nazio Batuen Erakundeak 1992an Rio de Janeiron egindako biltzarrean, Lurraren Gailurra deitutakoan, onartutako printzipio-deklarazio orokorra.

en *Rio Declaration on Environment and Development*  
es *Declaración de Río de Janeiro sobre el Medio Ambiente y el Desarrollo*  
fr *Déclaration de Rio sur l'Environnement et le Développement*

## Ingurumen Informazio eta Behaketako Europako Sarea

☞ **EIONET**

## ingurumena babeste

☞ **ingurumenaren babes**

## ingurumena kudeatzeko sistema

*Ingurumen-politika*

Erakunde baten ingurumen-politika zertzen duten baliabide, prozedura, praktika eta egituren multzoa. Enpresa, enpresa-lerro edo sektore batean ingurumen-kudeaketa egiteko modua da, antolaketa, ekoizpen-prozesua eta amaierako produktua kontuan hartzen dituen. Sistemak nazioarteko arauak betetzen baditu, esaten da kudeaketa-sistema estandarra dela.

en *environmental management system*  
es *sistema de gestión medioambiental*  
fr *système de management environnemental*

☞ **ingurumen-politika**

## ingurumen-adierazle

*Ikerkuntza, zientziak*

Parametroa edo zenbait parametroren konbinazioetik lortutako balioa (balio neurtua edo estatistikoa), ingurumenaren egoera eta horrek gizakien ongizatean eta ekosistemetan duen eragina deskribatzeko balio duena.

en *environmental indicator*

es *indicador ambiental*  
fr *indicateur d'environnement*

## ingurumenarekiko kontzientzia

↳ ingurumenarekiko sentsibilizazio

## ingurumenarekiko sentsibilizazio

SIN: ingurumenarekiko kontzientzia

*Informazioa, bezkuntza, kultura, ingurumen-sentsibilizazioa*

Ingurumenaren alorreko gertaera, ideia, arazo eta abarrez banakoak, taldeek, gizarteak edo erakundeek axola izatea, eta ingurumenarekiko ekin-tzen zintotasun edo gaiztotasunaz iritzia, edo iritzia izateko ahalmena, iza-tea.

en *environmental awareness; environmental consciousness*  
es *conciencia medioambiental*  
fr *conscience environnementale; sensibilité écologique*

👉 **Ingurumenaren Mundu Eguna; ingurumen-informazio**

## ingurumenaren andeatze

↳ ingurumenaren narriadura

## ingurumenaren babes

SIN: ingurumena babeste

*Ingurumen-politika*

Ingurumenak fenomeno naturalen zein gizakien jardueren ondorioz jasan ditzakeen aldaketa edo erasoetatik babesteko eta haien ondorioak aurrez ikusteko hartutako neurrien multzoa.

en *environment protection; environmental protection*  
es *protección ambiental*  
fr *protection de l'environnement*

👉 **ingurumen-politika**

## ingurumenaren degradazio

↳ ingurumenaren narriadura

## ingurumenaren gaineko eragin

↳ ingurumen-inpaktu

## ingurumenaren gaineko eragin arin

↳ ingurumen-inpaktu arin

## ingurumenaren gaineko eragin bateragarri

↳ ingurumen-inpaktu bateragarri

## ingurumenaren gaineko eragin kritikoa

↳ ingurumen-inpaktu kritikoa

## ingurumenaren gaineko eragin larri

↳ ingurumen-inpaktu larri

## ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa

↳ ingurumen-inpaktuaren azterketa

## ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura

*Efektuak, eraginak / Ingurumen-politika*

Euskal Autonomia Erkidegoan sustatzen diren planek eta programek

egin beharreko ebaluazioa, 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 dekretuak arautzen duena. Ebaluazioaren xedea da, batetik, zentzuzko hautabide guz-tiak aztertu eta erabakirik egokiena hartzea, eta, bestetik, plan edo progra-man azaltzen diren zehaztapen guztiak aldi berean aplikatzeak ingurume-nean izan dezakeen eragina balioztatzea eta zuzentzea.

es *evaluación conjunta de impacto ambiental*

## ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio

↳ ingurumen-inpaktuaren ebaluazio

## ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpen

↳ ingurumen-inpaktuaren adierazpen

## ingurumenaren kalitate

*Ingurumen-politika*

Toki eta une jakin batean ingurumenaren egoeraren adierazgarri den datu-multzoa.

en *environmental quality; quality of the environment*  
es *calidad ambiental*  
fr *qualité de l'environnement*

👉 **airearen kalitate; lurzorua kalitate; uraren kalitate**

## Ingurumenaren Mundu Eguna

*Informazioa, bezkuntza, kultura, ingurumen-sentsibilizazioa*

Nazio Batuen Giza Inguruneari buruzko Konferentziak Stockholm-en 1972an aldarrikatu zuen eguna, urtero ekainaren 5ean egiten dena. Ingurumenak duen garrantziaz eta hura zaintzeko beharraz ohartarazteko eguna da, eta horren inguruan askotariko ekintza sinbolikoak antolatuta ohi dituzte ingurumenaren defentsan diharduten taldeek eta erakundeek.

en *World Environment Day*  
es *Día Mundial del Medio Ambiente*  
fr *Journée mondiale de l'environnement*

👉 **ingurumenarekiko sentsibilizazio; ingurumen-informazio**

## ingurumenaren narriadura

SIN: ingurumenaren andeatze; ingurumenaren degradazio

*Efektuak, eraginak*

Poluzioaren edo beste edozein eragileren aldaketaren ondorioz, ingurumena hondatzea edo ingurumenak kalitatea galtzea dakarren proze-sua.

en *environmental degradation*  
es *degradación ambiental; degradación del medio ambiente; deterioro del medio*

fr *dégradation de l'environnement*

👉 **birgaitze; leheneratze**

## ingurumen-arriskuaren ebaluazio

*Arriskuak, segurtasuna / Ingurumen-politika*

Jarduera batek sor lezakeen poluzioaren arriskua neurtzeko egiten den azterketa kualitatibo edo kuantitatiboa.

en *environmental risk assessment*  
es *evaluación del riesgo ambiental*  
fr *évaluation des risques pour l'environnement*

## ingurumen-bioteknologia

Ingurumenaren kalitatea babestera eta leheneratzera bideratutako teknika biologiko modernoek multzoa. Adibidez, mikroorganismo bidezko degradazioa, biorremediatze-teknikak eta kontrol biologikoa ingurumen-bioteknologiaren parte dira.

en *environmental biotechnology*

es *tecnología ambiental*

fr *biotechnologie de l'environnement; biotechnologie environnementale*

## ingurumen-efektu

*Efektuak, eraginak*

Giza jarduera edo ekintza batek ingurumenean eragiten duen aldaketak.

en *environmental effect*

es *efecto ambiental*

fr *effet environnemental*

☞ **aldizkako efektu; behin-behineko efektu; efektu bakun; efektu eten; efektu iraunkor; efektu itzulezin; efektu itzulgarri; efektu jarraitu; efektu konponezin; efektu konpongarri; efektu minimo; efektu nabarmen; efektu negatibo; efektu positibo; efektu sinergiko; efektu zuzen; epe ertaineko efektu; epe luzeko efektu; epe motzeko efektu; hesi-efektu; metatze-efektu; noizean behingo efektu; zeharkako efektu**

## ingurumen-helburu

*Ikerkuntza, zientziak / Ingurumen-politika*

Erakunde batek bere jarduera edo politikan ingurumena zaindu, kontserbatu edo leheneratzeko ezartzen dituen helburuetako bakoitza.

en *environmental target*

es *objetivo ambiental*

fr *cible environnementale*

## ingurumen-hezkuntza

*Informazioa, bezkuntza, kultura, ingurumen-sentsibilizazioa*

Gizarte ingurumenari buruz gehiago jakin, haren garrantziaz ohartarazi eta haren arazoek konponbidea bilatzen saiaraztera bultzatzen eta bideratzen duen jarduera.

en *environmental education*

es *educación ambiental*

fr *éducation à l'environnement*

## ingurumen-ikuskaritza

SIN: ekoikuskaritza

*Ingurumen-politika*

Erakunde, enpresa, talde eta abarren jarduerak eta kudeaketak ingurumenari dagozkion xedapenak betetzen dituzten jakiteko egiten den azterketa sistematiko, objektibo eta independentea. Xedapen horiek benetan betetzen direla eta aurreikusitako helburuak betetzeko egokiak direla jakiteko ere balio behar du ikuskaritzak. Beraz, ingurumenarekin zerikusia duten arloak aztertu, ikertu edo kontrolatzen dituzten jarduerak ez dira benetako ingurumen-ikuskaritza izango ingurumen-kudeaketa ebaluatzen ez badute, nahiz eta askotan horrela izendaturik agertu. Europako Batasunean, EMAS da ekoikuskaritzak egiteko tresnarik garrantzitsuenak.

en *eco-audit; eco-auditing; environmental audit; environmental statement (eco-audit)*

es *auditoría medioambiental; ecoauditoría*

fr *audit environnemental; diagnostic environnemental; écoaudit*

☞ **EMAS; ingurumena kudeatzeko sistema; ingurumen-kudeaketa**

## ingurumen-inbentario

*Efektuak, eraginak*

Lurralde baten ingurumen-egoeraren, lurzorua erabilera-moten eta baliabide naturalen ustiatze-moten deskribapena, lurralde horretan jarduera edo lanen bat abiarazi aurretik egin ohi dena. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren ataletako bat da.

en *environmental inventory*

es *inventario ambiental*

fr *inventaire de l'environnement*

☞ **ingurumen-inpaktuaren azterketa**

## ingurumen-informazio

*Informazioa, bezkuntza, kultura, ingurumen-sentsibilizazioa*

Ur, aire, lurzoru, lurralde eta naturaren egoerari buruzko informazio oro, bai eta elementu horiek babesteko hartutako neurri edo gauzatzen ari diren ekintzei buruzkoa ere, Administrazioaren jarduerari eta ingurumena kudeatzeko plan edo programei buruzkoak barne.

en *environmental information*

es *información ambiental*

fr *information environnementale*

☞ **ingurumenarekiko sentsibilizazio; Ingurumenaren Mundu Eguna**

## ingurumen-ingeniarietza

*Ikerkuntza, zientziak*

Instalazioek eta beste jarduera batzuek isurtzen dituzten poluitzaileek ingurumenean sor ditzaketen kalteak aurreikusi, kontrolatu zein gutxitzeaz eta gizartearen eskakizunekin bat datozen industriaren birmoldaketa eta azpiegituren garapena ingurumenean ahalik eta kalte gutxien eraginda gauzatzeaz arduratzen den ingeniarietza.

en *environmental engineering*

es *ingeniería ambiental*

fr *ingénierie de l'environnement*

## ingurumen-inpaktu

SIN: ingurumenaren gaineko eragin

*Efektuak, eraginak*

Jarduera, proiektu edo obra batek ingurumenean eragiten dituen aldaketek multzoa (ingurumen kontzeptuak giza osasuna eta segurtasuna, landaredia, fauna, airea, ura, klima, paisaia, monumentu historikoak edo bestelako egitura fisikoak eta kultur ondarea edo aurreko faktore horien arteko elkarrekintzak barne hartzen ditu).

en *environmental impact; impact*

es *impacto ambiental; impacto medioambiental*

fr *impact; impact sur l'environnement; incidence sur l'environnement*

☞ **ikusizko inpaktu; ingurumen-inpaktu arin; ingurumen-inpaktu bateragarri; ingurumen-inpaktu kritiko; ingurumen-inpaktu larri; ingurumen-inpaktuaren adierazpen; ingurumen-inpaktuaren ebaluazio**

## ingurumen-inpaktu arin

SIN: ingurumenaren gaineko eragin arin

*Efektuak, eraginak*

Jatorrizko ingurumen-egoerara itzultzeko babes- edo zuzentze-neurri intentsiborik behar ez den baina bai denbora-tarte bat igaro behar den ingurumen-inpaktua.

en *moderate environmental impact*  
es *impacto ambiental moderado*  
fr *impact environnemental modéré*

☞ **ingurumen-inpaktu; ingurumen-inpaktu kritikiko; ingurumen-inpaktu larri**

## ingurumen-inpaktu bateragarri

SIN: ingurumenaren gaineko eragin bateragarri

*Efektuak, eraginak*

Jarduera burututakoan ingurumen-egoera berehala leheneratzea eragozten ez duen ingurumen-inpaktua, eta, ondorioz, babes- edo zuzentze-neurririk behar ez duena.

en *compatible environmental impact*  
es *impacto ambiental compatible*  
fr *impact environnemental compatible*

☞ **ingurumen-inpaktu**

## ingurumen-inpaktu kritikiko

SIN: ingurumenaren gaineko eragin kritikiko

*Efektuak, eraginak*

Atari onargarria gainditzen duen eta ingurumenaren kalitatean betiko kaltea eragiten duen ingurumen-inpaktua, babes- eta zuzentze-neurriak hartuta ere lehenera ezin ekar daitekeena.

en *critical environmental impact*  
es *impacto ambiental crítico*  
fr *impact environnemental critique*

☞ **ingurumen-inpaktu; ingurumen-inpaktu arin; ingurumen-inpaktu larri**

## ingurumen-inpaktu larri

SIN: ingurumenaren gaineko eragin larri

*Efektuak, eraginak*

Jatorrizko ingurumen-egoerara itzultzeko babes- eta zuzentze-neurriak hartzea ezinbestekoa den eta, hartuta ere, leheneratzeko denbora luzea behar den ingurumen-inpaktua.

en *severe environmental impact*  
es *impacto ambiental severo*  
fr *impact environnemental sévère*

☞ **ingurumen-inpaktu; ingurumen-inpaktu arin; ingurumen-inpaktu kritikiko**

## ingurumen-inpaktuaren adierazpen

SIN: ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpen

*Informazioa, bezkuntza, kultura, ingurumen-sentsibilizazioa*

Ingurumen-gaietan esku duen erakunde edo aginteak proiektu baten ingurumen-inpaktuari buruz ematen duen aldeko edo kontrako ebazpena. Kontrako adierazpenak proiektua ez gauzatzeko gomendio edo agindua dakar berekin. Aldekoa denean, proiektuak gauzatzekotan ingurumenari dagokionez bete behar dituen baldintzak zehaztu behar ditu. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren azken urratsa da, eta ingurumen-inpaktuaren azterketaren ondoren egiten da.

en *environmental impact statement*  
es *declaración de impacto ambiental*  
fr *déclaration d'impact sur l'environnement*

☞ **ingurumen-inpaktu; ingurumen-inpaktuaren ebaluazio**

## ingurumen-inpaktuaren azterketa

SIN: ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa

*Efektuak, eraginak / Ingurumen-politika*

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan, proiektuak ingurumenaren alderdi guztietan izango lukeen eraginaren zer-nolako guztiak (efektuen larritasuna, iraupena, hedadura, efektuen itzulgarritasuna, maiztasuna, etab.) identifikatu, deskribatu eta balioesten dituen agiri teknikoa, ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko oinarritzat hartzen dena. Azterketak puntu hauek bildu ohi ditu:

- Plan edo proiektuaren eta horietatik ondorioztatzen diren ekintzen deskribapena.
- Ordezko aukeren laburpena eta onartutako irtenbidearen justifikazioa.
- Ingurumen-inbentarioa eta ekologiako zein ingurumeneko elkarrekintza nagusien deskribapena.
- Inpaktuen identifikazioa eta balioespena, bai proposaturiko irtenbidean eta bai ordezkoi aukeretan.
- Zuzentzeko neurriak.
- Ingurumena zaintzeko programa.

en *environmental impact study*  
es *estudio de impacto ambiental*  
fr *étude d'impact sur l'environnement*

☞ **ingurumen-inpaktu; ingurumen-inpaktuaren ebaluazio**

## ingurumen-inpaktuaren ebaluazio (III)

SIN: ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio

*Ingurumen-politika*

Proiektu, jarduera edo obra bat egiteak ingurumenean duen eragina zenbaterainokoa den jakiteko eta zuzentzeko azterketa eta sistema teknikoan multzoa.

! Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozesu osoa (ingurumen-inpaktuaren azterketa, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena) deskribatzeko erabili ohi da.

en *environmental impact assessment (EIA)*  
es *evaluación de impacto ambiental (EIA)*  
fr *évaluation de l'impact sur l'environnement (EIE)*

☞ **EMAS; ingurumen-inpaktu; ingurumen-inpaktuaren adierazpen; ingurumen-inpaktuaren azterketa**

## ingurumen-jardunbiderik onen

*Ingurumen-politika*

Ingurumenaren ikuspuntutik, eta prebentzioarekin hasi eta tratamenduraino doan lehentasun-hierarkia kontuan izanik, enpresa edo erakunde batean prozesu bat edo prozesu baten urrats bat egiteko modurik egokien eta eraginkorrenzat jotzen den jardunbidea, erakundean edo erakundetik kanpo egiaztatua eta baliozkotua.

en *best environmental practice*  
es *mejor práctica ambiental*  
fr *meilleure pratique environnementale*

☞ **ingurumen-politika**

## ingurumen-kudeaketa

*Ingurumen-politika*

Ingurumenarekiko politika jakin bat bideratzeko helburuz, administrazio publikoek zein enpresek duten arau, neurri, jardura eta baliabideen multzoa. Adiera zabalagoan, natur ondarea atxikitzea eta gizakien bizi-kalitatea ahalik eta handiena izatea ahalbidetzen duen ingurumen-kapitalari eusteko xedapen eta ekimenen multzoa.

👉 **ingurumen-politika**

## ingurumen-politika

*Ingurumen-politika*

Pertsona eta erakundeen ingurumenarekiko jardunbidea taxutzen dituzten jarraibide, ildo eta arauen multzoa.

en *environmental policy*  
es *política ambiental; política medioambiental*  
fr *politique de l'environnement; politique environnementale*  
👉 **ingurumena kudeatzeko sistema**

## ingurumen-toxikologia

SIN: ekotoxikologia

*Ikerkuntza, zientziak*

Substantzia poluitzaile natural eta sintetikoek ekosistemetan eta ekosistemen osagai diren bizidunetan sortzen dituzten efektu toxikoak ikertzeaz arduratzen den ingurumen-zientzia. Ingurumen-toxikologia hainbat zientziaren ekarpenaz baliatzen da (ekologia, toxikologia, biologia, kimika, medikuntza, etab.) eta ekosistemak babestea eta zaintzea du azken helburua.

en *ecotoxicology; environmental toxicology*  
es *ecotoxicología; toxicología ambiental*  
fr *écotoxicologie; toxicologie environnementale*

## ingurumen-zerga

SIN: ekozergera

*Ekonomia, finantzak*

Erakunde eskudunak ingurumenerako kaltegarri edo arriskutsutzat jotzen dituen jardueri ezartzen dien zerga, zuzentze- edo babes-neurriak finantzatzeko, baliabide naturalen kontsumoa gutxitzeko, ahal den hondakin gutxien sortzeko, teknologia garbien erabilera bultzatzeko eta abarretarako.

en *eco-tax; environmental tax*  
es *ecoimpuesto; ecotasa; tributo ambiental*  
fr *éco-taxe*

## ingurumen-zientziak

*Ikerkuntza, zientziak*

Bizidunek elkarrekin, ingurune abiotikoarekin eta energiarekin dituzten elkarrekintzak kontuan harturik Lurraren eta Lurreko ekosistemen funtzionamendua eta arazoak aztertzen dituzten zientziak (Biologia, Geologia, Geografia, Fisika, Kimika, Demografia, Ekonomia, Etologia, Soziologia, Zuzenbidea eta Lurralde-antolamenduaren atalak dira). Ingurumen-arazoan azterketa diziplinartekoa egiten dute.

en *environmental sciences*  
es *ciencias ambientales*  
fr *sciences de l'environnement*

## ingurumen-zuzenbide

*Legeak, arauak, bitzarmenak*

Ordenamendu juridikoaren alorra, ingurumena babestera bideratua eta gorputz sistematikoa osatzen duten arauak, printzipioak eta neurri juridikoak hartzen dituena.

en *environmental law*  
es *derecho ambiental*  
fr *droit de l'environnement*

## ingurune-

➔ **ingurumen-**

## ingurune

➔ **ingurumen**

## ingurune heze

➔ **hezegune**

## ingurune natural

*Ingurunea*

Gizakiaren parte-hartzea edo eragina txikia denean, organismo, komunitate edo lurralde batean eragiten duten faktore biotiko eta abiotiko guztien multzoa.

en *natural environment*  
es *medio natural*  
fr *milieu naturel*

👉 **faktore abiotiko; faktore biotiko; faktore ekologiko**

## ingurune-faktore

SIN: faktore ekologiko

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Ingurunea aztertzean bereiz daitezkeen eta izaki bizidunei eragiten dieten gertakari edo ezaugarrietako bakoitza. Bi mota nagusi bereizten dira: faktore abiotikoak eta biotikoak.

en *ecological factor; environmental factor*  
es *factor ambiental; factor ecológico*  
fr *facteur du milieu; facteur écologique*  
👉 **faktore abiotiko; faktore biotiko**

## ingurune-zarata

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurune jakin batean dauden ohiko zaraten multzoa, ingurune horren ezaugarri direnak. Gertuko eta urrutiko iturri guztietatik ingurune horretara igortzen diren zarata guztien batura da.

en *ambient noise; airborne noise; environmental noise*  
es *ruido ambiental*  
fr *bruit ambient*  
👉 **zarata**

## injekzio-putzu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Fluido bat lurpean sakon uzteko edo presiopean sartzeko egiten den putzua. Putzuaren helburuak era askotakoak izan daitezke: hondakin-urak, ur gazia, gas naturala, erabilitako produktu kimikoak eta abar lurpean uztea; lur azpiko uren mantenu-egite-kontzentrazioa handitzea, substantzia kimikoen biodegradazio-abiadura azkartzea; inguruko fluidoak (petrolio, adibidez) petrolio-putzuetara bideratzea; eta abar. Injekzio-putzuen erabilera araututa dago, ingurumenean arazoak eragin ditzaketelako (edateko ura kutsatu, etab.).

en *injection well*  
es *pozo de inyección*  
fr *puits d'injection; puits de injection*  
☞ **putzu sakoneko injekzio**

## immisio

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Atmosferako toki batean poluitzaileak egotea. Poluitzaileak hainbat emisio-iturritatik etorriak izan daitezke.

en *immission*  
es *inmisión*  
fr *immission*  
☞ **immisio-maila**

## immisio-maila

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Toki bateko airean dagoen poluitzaile-kontzentrazioa (poluitzaileak hainbat emisio-iturritatik etorriak izan daitezke).

en *immission level*  
es *nivel de inmisión*  
fr *niveau d'immission*

## inpaktore

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Gas batean dauden zatiki esekiak erazteko gailua. Gasa likido baten edo azal baten aurka joarazten da, eta, talkaren eraginez, esekita dauden zatikiak irten egiten dira gasetik.

en *impinger*  
es *impactor*  
fr *impacteur*  
☞ **gas-garbiketa; urraskako inpaktore**

## interes bereziko espezie

*Ingurumen-politika*

Balio zientifiko, ekologiko edo kulturala duelako edo oso ezaugarri bereziak dituelako, babesa eta arreta berezia merezi duen landare- edo animalia-espeziea. Espainiako figura juridikoa da, eta martxoaren 27ko 4/1989 Legearen 29. artikuluan dago jasota.

en *species of special conservation interest*  
es *especie de interés especial*  
fr *espèce d'intérêt spécial*  
☞ **espezie babestu**

## intsektizida

*Produktuak, materialak*

Pertsona edo abereentzat edo labore edo elikagaietarako kaltegarri diren intsektuak hiltzeko produktua.

en *insecticide*  
es *insecticida*  
fr *insecticide*  
☞ **arseniko; DDT; lindano; pestizida**

## intsolazio

SIN: eguzkitu

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Lurrzalera azalera horizontalaren unitateko heltzen den zuzeneko eguzki-energiaren kantitatea.

en *insolation*  
es *insolación*  
fr *insolation*

## intsonorizazio

SIN: hosgabetze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Barnetik kanpoko hotsak ez entzuteko edo barnean sortutakoak kanpora ez hedatzeko, areto bat isolamendu akustikoz hornitzea.

en *soundproofing*  
es *insonorización*  
fr *insonorisation*  
☞ **poluzio akustiko**

## ioi

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Elektroi bat edo batzuk hartu edo galdu dituen atomoa edo molekula. Elektroiak irabaziz gero, ioiak karga negatiboa du (*anioi* deritzen orduan); galdu baditu, berriz, karga positiboa (*katioi* deritzen orduan).

en *ion*  
es *ión*  
fr *ion*

## ioiak trukatzeko material

*Produktuak, materialak*

Egitura-aldaketa garrantzitsurik gertatu gabe likido bateko ioiak hartu eta haien orde bere baitan finkaturik dituen beste batzuk aska ditzakeen materiala, modu itzulgarrian lan egin dezakeena.

en *ion-exchange material*  
es *material cambiador de iones*  
fr *matière échangeuse d'ions*  
☞ **birsortze; ioi-truke**

## ioi-trukagailu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uretatik zenbait ioi kentzeko erabiltzen den gailua, ioi-trukea egiten duen materiala duena.

en *ion exchanger*  
es *intercambiador de iones*  
fr *échangeur d'ions*  
☞ **ioi-truke**

## ioi-truke

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Ureatatik anioi eta katioi jakin batzuk kentzeko prozedura, direlako ioien truke beste batzuk askatzen dituen material batetik igaroaraziz egiten dena.

en *ion exchange*  
es *intercambio de iones; intercambio iónico*  
fr *échange d'ions*

☞ **ioiak trukatzeko material**

## ionosfera

*Atmosfera*

70-500 km bitarteko altitudetan dagoen atmosfera-geruza, Eguzkitik iristen den erradiazio ionizatzailearen eraginez ioiak eta elektroio aske ugari dituena.

en *ionosphere*

es *ionosfera*

fr *ionosphère*

☞ **atmosfera; estratosfera; exosfera; ozonosfera; troposfera**

## IPCC (Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldea)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Munduko Meteorologia Erakundearen (MME) eta Nazio Batuen Ingurumen Programaren (NBIP) artean 1988an sortutako erakundea, kliman adituak diren munduko ehunka zientzialari, munduko aditu nagusiak, biltzen dituena. Zientzialarien klima-aldaketari buruzko nazioarteko iritzi adostua biltzen duten bilduma-lanak eta txostenak prestatzen ditu, politikari eta gobernuei klima-aldaketaren arazoaren inguruko erabakiak hartzen laguntzeko.

en *IPCC (Intergovernmental Panel on Climate Change)*

es *IPCC; Panel Intergubernamental sobre Cambio Climático*

fr *IPCC (Groupe Intergouvernemental sur l'évolution du climat)*

☞ **klima-aldaketa**

## IPP

➔ **Produktuen Politika Integratu**

## IPPC

➔ **Produktuen Politika Integratu**

## ira

➔ **iratze**

## iragazki

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Likido edo gas batean esekita dauden zatiki solidoak bereizteko tresna, zatikiei iragaiten uzten ez dien eta bere baitan atxikitzen dituen gai porodun bat duena. Zatiki solidoak bereizteko bestelako prozedurak erabiltzen dituzten zenbait tresnari ere, batzuetan, iragazki deritze (adibidez, iragazki elektrostatikoa).

en *filter*

es *filtro*

fr *filtre*

☞ **Bacharach-en ke-eskala; hondakin-uren arazketa; iragazki elektrostatikoa; zentral termiko**

## iragazki biologiko

SIN: bakterio-ohantze; bioiragazki

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Material geldo eta porotsuzko zatikiak (eskuarki, harri edo plastikozko puskak) dauzkan ontzi batez osatutako iragazkia. Hondakin-uren bigarren tratamenduan erabiltzen dira. Ingurune aerobioa bermatzeko, airea ibilarazi behar da. Hondakin-ura bertatik igarotzean, mikroorganismo aerobioak haz-

ten dira zatikien azalean, lobi-geruza edo film bat eratzuz, eta uraren materia organikoaren biodegradazioa gertatzen da. Ura ontziaren azpitik drainatzen da. Bakterio-geruza loditu ahala, ingurune anaerobioa sortzen da zatikiaren azaletik gertu dagoen geruza-atalean, eta bakterioek zatiki iragazleari atxikitze gaitasuna galtzen dute. Ondorioz, geruza askatu egiten da, eta hondakin-urarekin batera iragazten da. Ondoren, dekantazioz bereizten da efluentetik.

en *biofilter; biologic filter; biological filter; percolating filter; sprinkling filter; trickling filter*

es *biofiltro; filtro biológico; filtro percolador; lecho bacteriano*

fr *biofiltre; filtre biologique; filtre percolateur; lit bactérien; lit percolateur*

☞ **iragazki; zooglea**

## iragazki elektrostatikoa

SIN: elektroiragazki

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Gas-isuri baten zatiki solido edo likidoak potentzial-diferentzia handiko eremu elektriko baten bidez kentzeko gailua. Harrikatza darabilten zentral termikoetan, iragazki elektrostatikoa harrikatzaren errekuntzaren emaitza diren errausak errekuntza-gasetatik bereizi eta aireratu gabe jasotzeko erabiltzen dira.

en *electro-filter; electrostatic filter; electrostatic precipitator*

es *electrofiltro; filtro electrostático; precipitador electrostático*

fr *électrofiltre; filtre électrostatique*

☞ **zentral termiko**

## iragazkortasun

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Solido batek (lurzorua, harriak, mintzak...) bere baitatik likidoari edo gasari iragaiten uzteko duen ahalmena. Gai solidoaren porositatearen eta poroen arteko komunikazioaren arabera da.

en *permeability*

es *permeabilidad*

fr *perméabilité*

## iragazpen

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Likido edo gas batean esekiduran dauden partikula solido edo likidoak bereizteko prozedura, delako likido edo gasa direlako partikulei bere baitatik iragaiten uzten ez dien material batetik igaroaraziz egiten dena.

en *filtration*

es *filtración*

fr *filtrage; filtration*

## iratze

SIN: garo; ira

*Biosfera*

Lorerik gabeko landare belarkaren izen arrunta. Zurtoina lurpean dago eta horizontala da; mutur batetik, sustraiak hazten dira, eta, bestetik, hosto handi berdeak. Hostoen azpialdean, ugaltzeko balio duten esporak sortzen dira. Bereziki toki heze eta epel edo beroetan hazten dira.

en *fern*

es *helecho*

fr *fougère*

## iraultza berde

1960ko hamarkadan herri garatuetatik garapen-bideko herrietara egin-dako nekazaritzako teknologia-transferentzia eskala handikoari eman ohi zaion izena. Helburu nagusia elikagai-ekoizpena handitzea izan zen, eta, horretarako, genetikoki hobetutako labore-barrietate eraginkorragoak, pestizidak, ongariak eta tresneria modernoa erabili zen. Arazo eta kontrako kritika asko izan ditu; horien artean, aipagarrienak: garapen-bideko herrietan sortutako menpekotasun ekonomiko eta teknologikoa, ingurumenaren gaineko eragin handia (bereziki pestizida, ongari eta ureztatzeko-sistemek eragindakoak), tokira moldatutako labore eta nekazaritza tradizionalaren suntsipena eta biztanleen elikagai-hornikuntza ere ez bermatzea.

en *green revolution*  
 es *revolución verde*  
 fr *révolution verte*

## iraungipen

↳ **suntsipen**

## iraunkor

↳ **jasangarri**

## iraunkortasun

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Substantzia batek ingurunean deskonposatu gabe dirauen denbora.

en *persistence*  
 es *persistencia*  
 fr *persistance; remanence*

## irradiazio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Erradiazioen, bereziki erradiazio ionizatzailearen, eraginpean gertatzea edo jartzea.

en *irradiation*  
 es *irradiación*  
 fr *irradiation*

## isilgailu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Zerbaitek sortutako hotsaren intentsitatea txikiagotzen duen tresna edo gailua.

en *silencer*  
 es *silenciador*  
 fr *silencieux*

↳ **poluzio akustiko**

## isolamendu

↳ **isolamendu termiko**

## isolamendu akustiko

↳ **soinu-isolamendu**

## isolamendu termiko

SIN: bero-isolamendu; isolamendu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Bero-iturria bero-transmisioa eragozten duten erresistentzia termiko handiko materialez inguratzea. Helburua ingurune edo barrunbe batetik

bero-energia ez kanporatzea edo bertara kanpoko bero-energia ez sartzea izan daiteke.

en *heat insulation; insulation; thermal insulation*  
 es *aislamiento; aislamiento térmico*  
 fr *isolation; isolation calorifuge; isolation thermique*

## isotopo

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Nukleoan protoi-kopuru bera baina neutroi-kopuru desberdina duen elementu baten motetako bakoitza. Elementu baten isotopo guztiek propietate kimiko berdinak dituzte, baina nukleoaren masaren arabera propietate fisikoak aldatu egiten dira apur bat. Nukleoaren egonkortasuna protoi eta neutroien arteko erlazioaren arabera alda daiteke; horren ondorioz, elementu baten isotopo batzuk erradioaktiboak eta fisioagarriak izan daitezke, eta beste batzuk, ostera, egonkorak.

en *isotope*  
 es *isótopo*  
 fr *isotope*  
 ↳ **erradioaktibitate**

## isotopo erradioaktibo

SIN: erradioisotopo; isotopo ezegonkor

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Nukleo ezegonkorra izaki, erradiazioa igorri berez desintegratzen den elementu baten isotopoa.

en *radioactive isotope; radioisotope; unstable isotope*  
 es *isótopo radiactivo; radioisótopo*  
 fr *isotope radioactif; radioisotope*

## isotopo ezegonkor

↳ **isotopo erradioaktibo**

## istinga

↳ **zingira**

## istingadi

↳ **zingiradi**

## istripu larri

*Arriskuak, segurtasuna*

Kontrolatu gabeko industria-jarduera baten ondorio den isurketa, su edo leherketa, pertsonentzat, dela instalazioan dela instalaziotik kanpo, edota ingurumenerako berehalako nahiz geroko arrisku larria dakarrena eta substantzia kaltegarri bat edo batzuk parte hartzen dutena. Europako Batasunean, istripu larrien prebentziorako neurriak Seveso Zuzentarauan eta haren ondorengo zuzentarauetan daude zehaztuta (azkena 1996ko abenduaren 9ko 96/82 Zuzentaraua da).

en *major accident*  
 es *accidente grave*  
 fr *accident majeur*  
 ↳ **Seveso zuzentaraua**

## istripu nuklear

*Arriskuak, segurtasuna*

Instalazio batean gertatutako matxura edo funtzionamendu desegokiaren ondorioz, substantzia erradioaktibo batek edo batzuek ihes egitea.

en *nuclear accident*



es *accidente nuclear*  
fr *accident nucléaire*  
☞ **erradioaktibitate; zentral nuklear**

## isurgune

➔ **hustuleku**

## isuri

1

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurunera isurtzen den gai likidoa edo solidoa, edo horien multzoa.

! Ingurunera botatzen dena solidoa denean, *isuri* hitza baino egokiagoa da *bon-dakin* edo *zabor* hitza erabiltzea.

en *dump; dumping*  
es *vertido*  
fr *décharge*

2 ➔ **emisio**

## isuririk ez

SIN: zero isuri

*Ingurumen-politika*

Industria batek instalazioetatik kanpo poluitzailerik ez isurtzea. Isuririk eza lortu beharreko azken helburua da. Poluzioa prebenitzeko estrategia adierazten du, eta ez poluzioa kudeatzekoa.

en *zero-discharge*  
es *vertido cero*  
fr *zéro decharge*

☞ **minimizazio; poluzioaren prebentzio**

## isurketa

1 SIN: isurtze

*Hidrosfera*

Euri-ura edo elur urtua lur gainetik ibiltzea, ur-ibilgura heldu edo lur azpira iragazi aurretik.

en *runoff; run-off*  
es *escorrentia*  
fr *ruisellement*

2 ➔ **isurpen**

## isurpen

1 ➔ **emisio**

2 SIN: botatze; isurketa; isurtze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin likido edo solidoak ingurunera botatzea edo biltzeko edota tratatzeko instalazio batera bideratzea.

! Hondakin solidoez, bereziki tamaina handikoez, mintzatzean, eskuarki *botatze* terminoa erabiltzen da.

en *discharge; dump; dumping*  
es *vertido*

fr *décharge; déversement; rejet*

☞ **isurpen kontrolatu; isurpen misto; kontrolik gabeko isurpen**

## isurpen kontrolatu

SIN: kontrolpeko isurpen

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ingurumen-politika*

Hondakinak toki batean ingurumenean ondorio kaltegarriak ez sortzeko moduan uzteko eta biltzeko prozedura, arau edo irizpide tekniko jakin batzuk betetzen dituena.

en *controlled disposal; controlled dumping*  
es *vertido controlado*  
fr *décharge contrôlée; mise en décharge contrôlée*

☞ **kontrolik gabeko isurpen**

## isurpen kontrolatugabe

SIN: kontrolik gabeko isurpen

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakinak ingurunera zuzenean botatzea, dagokion araudia bete gabe edota irizpide tekniko jakinik jarraitu gabe.

en *pirate waste dumping; uncontrolled dumping*  
es *vertido incontrolado*

fr *décharge brute; mise en décharge inconsidérée; mise en décharge non contrôlée*

☞ **isurpen kontrolatu**

## isurpen misto

SIN: askotariko hondakinak botatze; askotariko isurpen; deskarga misto

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakindegia kontrolatu batean jatorri eta ezaugarri desberdineko hondakinak batera uztea; adibidez, hiri- eta industria-hondakinak.

! Hondakin solidoak *bota* egiten dira; hondakin likidoak, berriz, *isuri* edo *bota*.

en *codisposal*  
es *codisposición; descarga mixta*  
fr *évacuation mixte*

## isurtze

1 ➔ **isurketa**

2 ➔ **emisio**

3 ➔ **isurpen**

## isurtze-faktore

➔ **emisio-faktore**

## isurtze-maila

➔ **emisio-maila**

## isurtze-muga

➔ **emisio-muga**

## isurtze-sari

Legez baimendutako isuriak egiteagatik ordaindu behar den zerga, helburutzat delako isuria doan arro hidrografikoaren ingurumena babesteko eta hobetzeko lanak finantzatzea duena. Isuritako poluzio-karga poluzio-unitateari esleitzen zaion zenbatekoaz biderkatuz kalkulatzen da isurtze-sariaren zenbatekoa.

en *effluent charge; pollution charge; sewerage tax*  
es *canon de saneamiento; canon de vertido*  
fr *redevance de déversement; redevance de pollution*

☞ **poluzio-karga**

## isurtze-ur

*Hidrosfera*

Ur-ibilgura heldu edo lur azpira iragazi aurretik, lur gainetik isurtzen den euri-ur edo elur urtua.

en *run-off; run-off water*  
es *agua de escorrentía; agua de tormenta*  
fr *eau de ruissellement; eau pluviale d'orage*

☞ **isurketa**

## itsas energia

*Energia*

Itsasoaren ezaugarri fisiko edo kimikoren batez baliatuz lortzen den energia. Balia daitezkeen gertakariak hauek dira: mareen eta olatuen ur-mugimendua, sakoneraren arabera gertatzen den temperatura-diferentzia, gatz-gradienteak eta itsaslasterrak. Orain arte, lehen hirurak ustiatu eta energia elektrikoa lortzeko saiok egin dira, eta marea-energia da erabiliena. Dena den, gertakari horien bidez lortzen den errentagarritasuna oso txikia da oraindik, eta, teknologiaren aurrerapenarekin batera, errentagarritasun ekonomiko handiagoko sistemak garatzea espero da.

en *ocean energy; sea energy*  
es *energía del mar*  
fr *énergie marine*

☞ **itsasoko bero-energiaren bihurketa; marea-energia; olatuen energia**

## itsas energia termiko

☞ **itsasoko bero-energia**

## itsas energia termikoaren bihurketa

☞ **itsasoko bero-energiaren bihurketa**

## itsas hondora botatze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin solidoak edo lohiak itsas hondora botatzea.

en *deep-sea disposal*  
es *vertido en fondo marino*  
fr *décharge en haute mer*

☞ **uraren poluzio**

## itsas intrusio

SIN: itsas uraren intrusio

*Hidrosfera*

Itsasoko ur gazia lur azpiko zein azaleko ur geza dagoen tokian sartzea.

en *salt water intrusion; sea water intrusion*  
es *intrusión de agua salada; intrusión marina; intrusión salina*  
fr *intrusion d'eau de mer*

## itsas uraren intrusio

☞ **itsas intrusio**

## itsas zabal

*Hidrosfera*

Itsasertzetik gertu ez dagoen eta itsaertzairen eragina nabari ez den itsas hedadura. Ekosistema gisa, itsasertzeko ekosistemetatik (estuaria, padura, arrezifea) bereizita da.

en *open sea*  
es *alta mar; mar abierta*  
fr *haute mer; plein mer*

☞ **ekosistema**

## itsasadar

SIN: itsasarte

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Itsasoko urak barneratzen diren kostaldeko haran estua. Glaziazioen ondoren itsas maila igotzearen ondorioz eratuak dira eta lehorrerantz barneratu ahala sakonera txikiagoa da, fiordetan ez bezala.

en *ria*  
es *ría*  
fr *ria*

☞ **ekosistema; estuario; kostalde**

## itsasaldi

☞ **marea**

## itsasarte

☞ **itsasadar**

## itsasbazter

☞ **kostalde**

## itsaso

1

*Hidrosfera*

Lurrazalaren parte bat estaltzen duen ur-masa handia, ozeano bat baino txikiagoa dena. Ozeano bati lotuta dago (Mediterraneo itsasoa) edo ozeano baten parte da (Kantauri itsasoa). Itsaso baten zati bat adierazteko ere erabiltzen da (Itsaso Adriatikoa eta Itsaso Jonikoa, adibidez, Mediterraneo itsasoa daude). Aintzira handiei ere, bai gaziei bai gezei, itsaso deritze: Kaspiar Itsasoa, Aral itsasoa.

en *sea*  
es *mar*  
fr *mer*

2 SIN: ozeano

*Hidrosfera*

Lurrazalaren hiru laurdenak baino gehiago estaltzen dituen ur gaziko masa. Jarraitua bada ere, Geografian, hitzarmenez, 5 zatitan banatu ohi da, eta zati horietako bakoitzari ere ozeano deritza: Ozeano Atlantikoa, Ozeano Barea edo Ozeano Pazifikoa, Indiako Ozeanoa, Ozeano Artikoa eta Ozeano Antartikoa.

! Kaleko hizkuntzan, *itsaso* eta *ozeano* sinonimoak dira, baina *itsaso* da adierarik zabalenerako hitza. Adiera hertsian, ordea, itsasoa ozeano-zatia da.

en *ocean; sea*  
es *mar; océano*  
fr *mer; océan*

## Itsasoa Esploratzeko Nazioarteko Batzordea (IENB)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Itsasoaren ikerketa sustatu, garatu eta koordinatzea, egindako ikerketen emaitzak argitaratu eta zabaltzea eta estatu kideei eta batzorde arau-maileei aholkularitza zientifikoa eskaintzea helburu duen nazioarteko erakunde. Kopenhagen sortu zen, 1902an, eta itsas eta arrantza-zientziez arduratzen den gobernuarteko erakunderik zaharrena da. Dena den, orain 1964ko hitzarmenean adostutako oinarrien arabera funtzionatzen du. IENB itsasoari eta itsasoko baliabide biziei buruzko informazioa eta iritziak trukatzeko eta estatuetako zientzialarien nazioarteko ikerketa sustatu eta koordinatzeko foro zientifikoa da. Ozeano Atlantikoa du lan-eremu, Ipar Atlantikoa batez ere.

en *ICES; International Council for the Exploration of the Sea*  
es *CIEM; Consejo Internacional para la Exploración del Mar*  
fr *CIEM; Conseil International pour l'Exploration de la Mer*

## itsasoko bero-energia

SIN: itsas energia termiko

### Energia

Itsasoko azaleko eta sakoneko uren artean dagoen tenperatura-diferentziaz, hau da, energia termikoen diferentziaz, baliatuz lor daitekeen energia.

en *ocean thermal energy; sea thermal power; thermal sea power*  
es *energía térmica de los mares; energía térmica marina*  
fr *énergie thermique des mers*

☞ **itsas energia; itsasoko bero-energiaren bihurketa**

## itsasoko bero-energiaren bihurketa (IBEB)

SIN: itsas energia termikoaren bihurketa

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Energia elektrikoa lortzeko teknologia, itsasoan sortzen diren tenperatura-gradienteak baliatzen dituena. Horretarako, itsasoaren azalez ur sako-netara 18 °C-tik gorako tenperatura-aldea behar da. Azaleko ur epela fluido bat lurruntzeko erabiltzen da; gero, fluido horrek turbina biraraziko du, eta fluidoa berriz ere kondentsatzeko erabiltzen da hondoko ur hotza.

en *ocean thermal energy conversion; OTEC*  
es *conversión de la energía térmica de los océanos (CETO)*  
fr *conversion de l'énergie thermique des océans (CETO)*

☞ **itsas energia; itsasoko bero-energia**

## itsasora botatze

SIN: itsasora isurtze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Itsasoko uretara lehorretik zein itsasontzi edo hegazkinetatik edozein substantzia edo gai botatzea.

en *disposal at sea; ocean disposal; ocean dumping; sea disposal*  
es *eliminación en el mar; evacuación en el mar; vertido al mar; vertido marino*  
fr *déversement en mer; évacuation en mer; rejet en mer*

## itsasora isurtze

☞ **itsasora botatze**

## iturbegi

SIN: iturburu; iturri; ur-begi

*Hidrosfera*

Lurpeko ura azaleratzen den tokia eta han sortzen den ur-korrontea. Azal freatikoa luraren azalera istren denean sortzen da.

en *source; spring*  
es *manantial; surgencia*  
fr *source*

## iturburu

☞ **iturbegi**

## iturri

☞ **iturbegi**

## iturri ez-puntual

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Poluzio lausoaren eragile den poluzio-iturria, kokapen jakin eta bakarra ez duena, barreiatua baizik. Isurtzen diren euri-urek, lixibiazioak eta abarrek bideratzen dituzte poluitzaileak ingurunera.

en *nonpoint source; non-point source*  
es *fuentes no puntuales*  
fr *source diffuse; source non ponctuelle*

☞ **iturri puntual**

## iturri finko

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Higitzen ez den poluzio-iturria (lantegiak, zentral termikoak, etab.).

en *fixed source; stationary source*  
es *fuentes fijas*  
fr *source fixe*

☞ **iturri higikor**

## iturri higikor

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Higitzen den edo higi daitekeen poluzio-iturria (adibidez, automobila, kamioiak, hegazkinak, etab.).

en *mobile source; moving source; transportation source*  
es *fuentes móviles*  
fr *source mobile*

☞ **iturri finko**

## iturri puntual

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hedadura mugatua eta, duen eragin-eremuaren aldean, txikia duen poluzio-iturria.

en *point source*  
es *fuentes puntuales*  
fr *source ponctuelle*

☞ **iturri ez-puntual**

## iturriaren printzipioa

Legeak, arauak, bitzarmenak

Ingurumenean kalteak eragin litzaketen hondakin, isuri eta emisioak kudeatzeko modurik onena haien sorrera galaraztea dela eta hondakin, isuri eta emisioen tratamendua produkzio-prozesuaren amaierarako utzi behar ez dela dioen printzipioa.

en *source principe*

es *principio de la fuente*

fr *principe de la correction par priorité à la source*

☞ **hodi-bukaerako tratamendu**

## itzultzeko ontzi

*Produktuak, materialak*

Erosleak diru-trukean itzul dezakeen ontzi-mota, ontziratzaileak berreskuratu eta berriz erabiltzekoa dena.

⚠ Adiera generikoan, eta edozein motatako bilgarria adierazi nahi denean (botilak, kaxak, ontziak, poltsak, etab.), *itzultzeko bilgarri* terminoa ere erabil daiteke. Eskuarki, ordea, itzul daitezkeen ontziak, eta, batez ere, botilak adierazi nahi izaten dira; kasu horretan, egokiagoa da *itzultzeko ontzi*, edo, gehiago zehaztu nahi bada, *itzultzeko botila* erabiltzea.

en *returnable package; returnable packaging*

es *envase retornable*

fr *emballage retournable*

☞ **ez itzultzeko ontzi**

## itxitako hondakindegia

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Jadanik ezin erabil daitekeen hondakindegia, dagokion kudeatze-erakunde eskudunak hala erabakia.

en *closed landfill*

es *vertedero clausurado*

fr *décharge fermée*

## itzulera-denbora

➔ **errepikatze-denbora**

## izadi

➔ **natura**

## izpi infragorriak

➔ **erradiazio infragorri**

## izpi ultramoreak

➔ **erradiazio ultramore**

## izurri

*Arriskuak, segurtasuna*

Landare edo animalia baten erasoak pertsonen osasunari, abereei edo laboreari eragindako neurritz kanpoko kaltea (oro har, galera ekonomiko edota ekologiko larriak ekarri ohi dituen).

en *pest; plague*

es *plaga*

fr *fléau*

## izurriteen kontrako borroka integratu

➔ **izurriteen kontrol integratua**

## izurriteen kontrol integratua

SIN: izurriteen kontrako borroka integratu

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Laboreen izurrite eta gaitzei kontra egiteko zenbait metodo batera erabiltzea, bereziki pestizidak al bait gutxien erabiltzearen. Adibidez, kontrol edo borroka biologikoa (izurriaren etsai den intsektu edo bakterio bat laborean sarraraztea), gaitzen kontrako gai naturalak, ingurumenari kalte egiten ez diotenak, erabiltzea eta laboreen kudeaketa arretatsua.

en *integrated pest control*

es *control integrado; lucha integrada*

fr *lutte intégrée*

☞ **nekazaritza ekologiko**

## jalkiera

➔ **jalkitze**

## jalkin

SIN: poluitzaile-jalkin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Lurrean denbora- eta azalera-unitateko metatzen diren poluitzaileen kantitatea.

en *contaminant fallout; deposition; fallout*

es *deposición; precipitación de contaminantes*

fr *dépôt; précipitation de polluants*

## jalkin azido

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Atmosferara isuritako sufre- eta nitrogeno-konposatuak airearen osagaiekin konbinatzean eratzten diren substantzia azidoen multzoa, lurrera bi eratara jalki daitekeena: lehorra eta hezea (ur-prezipitazioekin batera errotzen dena). Azken horri *huri azido* deritzen. Iturri nagusiak dira motor-ibilgailuen errektuntza-gasak (nitrogeno-oxidoak, sufre-oxidoak) eta sufreduki handia duten erregai fosilen errektuntzan sortutako gasak (sufre-oxidoak).

en *acid deposition*

es *deposición ácida; depósito ácido*

fr *dépôt acide*

☞ **huri azido**

## jalkin erradioaktibo

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Leherketa nuklearren edo errektore nuklearren istripuen ondorioz, atmosferatik lurrera jaisten diren partikulen multzoa.

en *nuclear fallout; radioactive fallout*

es *lluvia radiactiva; precipitación radiactiva*

fr *retombée radioactive*

☞ **hondakin erradioaktibo**

## jalkitze

1 SIN: poluitzaile-jalkitze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Airean dauden poluitzaileak lurrera jaitea.

en *contaminant fallout; deposition; fallout*

es *deposición; precipitación de contaminantes*

fr *dépôt; précipitation de polluants*

☞ **airearen poluzio; jalkitze heze; jalkitze lehor**

2 SIN: jalkiera; sedimentazio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Likido edo gas batean esekita dauden zatikiak grabitatearen eraginez hondoratzea. Edateko uraren eta hondakin-uren arazketan baliatzen den fenomeno da solido esekiak bereizteko (alor horretan, maiz, *dekantazio*-ren baliokidetzat erabiltzen da).

en *sedimentation; settling*

es *sedimentación*

fr *sédimentation*

☞ **dekantazio**

## jalkitze erradioaktibo

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Leherketa nuklearren edo errektore nuklearren istripuen ondorioz, atmosferatik lurrera partikula erradioaktiboak jaitea.

en *nuclear fallout; radioactive fallout*

es *lluvia radiactiva; precipitación radiactiva*

fr *retombée radioactive*

☞ **zentral nuklear**

## jalkitze heze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Airearen poluitzaileak prezipitazioekin batera jalkitzea.

en *wet deposition*

es *deposición húmeda*

fr *dépôt humide*

☞ **airearen poluzio**

## jalkitze lehor

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Airearen poluitzaileak grabitatearen, haizearen edo prezipitazioa ez den beste edozeren eraginez jalkitzea.

en *dry deposition; dry fallout*

es *deposición seca*

fr *dépôt sec*

☞ **airearen poluzio**

## jalkitze-tanga

☞ **dekantazio-tanga**

## jarduera arriskutsu

*Arriskuak, segurtasuna*

Pertsonentzat edo ondasunetarako leherketa-, errekuntza- edo erradiazio-arrisku larriak edo antzeko garrantziko bestelako arriskuak ekar ditzaketan produktuak fabrikatu, maneiatu, saldu edo biltegitzeko jarduera. Espainian, jarduera-mota hau 1961eko jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen erregelamenduan araututa dago.

en *dangerous activity*

es *actividad peligrosa*

fr *activité dangereuse*

☞ **jarduera gogaikarri; jarduera kaltegarri; jarduera osasungaitz**

## jarduera gogaikarri

*Arriskuak, segurtasuna*

Sorrarazten dituen zarata edo dardarak, edo kanporatzen dituen ke, gas, usain, hauts eseki edo gaiak direla eta, herritarrentzat eroso gertatzen ez den jarduera. Espainian, jarduera-mota hau 1961eko jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen erregelamenduan araututa dago.

en *annoying activity*

es *actividad molesta*

fr *activité gênante*

☞ **jarduera arriskutsu; jarduera kaltegarri; jarduera osasungaitz**

## jarduera kaltegarri

*Arriskuak, segurtasuna / Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantzaz*

Nekazaritzari, basogintzari, abeltzaintzari edo arrantzari kalte egin diezaioketen produktuak kanporatzen diren edo aska daitezkeen jarduera. Espainian, jarduera-mota hau 1961eko jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen erregelamenduan araututa dago.

en *noxious activity*

es *actividad nociva*

fr *activité nocive*

☞ **jarduera arriskutsu; jarduera gogaikarri; jarduera osasungaitz**

## jarduera osasungaitz

*Arriskuak, segurtasuna / Osasuna, nutrizioa*

Zuzenean zein zeharbidez giza osasunerako kaltegarri gerta daitezkeen produktuak kanporatzen diren edo aska daitezkeen jarduera. Espainian, jarduera-mota hau 1961eko jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuen erregelamenduan araututa dago.

en *unhealthy activity*

es *actividad insalubre*

fr *activité insalubre*

☞ **jarduera arriskutsu; jarduera gogaikarri; jarduera kaltegarri**

## jasangarri

SIN: iraunkor

*Baliabideak*

Gaurko eta etorkizuneko belaunaldiek behar dituzten baliabide naturalak agortzeko arriskuan jartzen ez duena (adibidez, basoaren ustiapen jasangarria, turismo jasangarria, etab.).

en *sustainable*

es *sostenible*

fr *durable*

☞ **garapen jasangarri**

## jasankortasun

☞ **tolerantzia**

## jasate-ahalmen

*Baliabideak / Ikerkuntza, zientziak*

Lurralde batek bere produktibitatea eta moldagarritasuna, hitz batez, bere ezaugarriak, aldatu eta galdu gabe jasan dezakeen gehienezko erabi-

lera-maila. Ekonomia ekologikoan erabiltzen den kontzeptua da.

en *carrying capacity*  
es *capacidad de carga*  
fr *capacité de charge*  
☞ **azterna ekologiko**

## kadmio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 48 duen elementu kimikoa (Cd). Metal zuri-urdinxka da, xaflakor eta harikorra. Industrian oso erabilia da (metalak herdoiltze eta korrosiotik babesteko, soldatzeko aleazioetan, errektore nuklearretan neutroiak xurgatzeko, pila alkalinoetan eta abarretan). Organismoan metatzen da, eta oso toxikoa da (hilgarria izan daiteke).

en *cadmium*  
es *cadmio*  
fr *cadmium*

## kainozulo

☞ **estolda-zulo**

## kalitate-berme

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Produktu edo instalazio batek bere helburua behar bezala betetzen duela ziurtatzeko ekintza eta planen multzoa, besteak beste, kalitate-kontrolaren eraginkortasuna egiaztatze eta, behar denean, hobekuntzak egiteko.

en *quality assurance*  
es *garantía de calidad*  
fr *assurance qualité*  
☞ **kalitate-kontrol**

## kalitate-faktore

*Ikerkuntza, zientziak*

Energiaren transferentzia linealeko funtzioa, erradioaktibitatearen kontrako babes-beharrak aurreikustean xurgaturiko dosiak duen garrantzia haztatzeko erabilia (Q). Dosi baliokidearen kalkulurako erabiltzen den faktoreetako bat da.

en *quality factor*  
es *factor de calidad*  
fr *facteur de qualité*  
☞ **dosi baliokide; xurgaturiko dosi**

## kalitate-kontrol

*Ikerkuntza, zientziak*

Produktzio-prozesuaren tarteko urratsetan eta amaieran lortu beharreko kalitate-maila ziurtatzeko produktuak gainditu behar dituen kontrol-proben multzoa.

en *quality control*  
es *control de calidad*  
fr *contrôle qualité*  
☞ **kalitate-berme**

## kaltegarri

*Arriskuak, segurtasuna / Osasuna, nutrizioa*

Arnastu, irentsi edo larruazaletik xurgatuz gero, organismoan asaldura

akutu edo kronikoak edo heriotza eragin ditzakeen substantzia edo prestakina. Europako Batasuneko 92/32 Zuzentarauaren arabera, substantziak eta hondakinak legez arriskutsuztat jotzeko ezaugarrietako bat da. Gai kaltegarrien etiketetan *Xn* ikurra erabiltzen da.

en *harmful; noxious*  
es *nocivo, -a*  
fr *nuisible*  
☞ **ekotoxiko; erregarri; infekzioso; kantzerigeno; korrosibo; leherkor; mutageno; narritagarri; sukoi; teratogeno; toxiko**

## kaltzio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 20 duen elementu kimikoa (Ca). Metal zuria eta biguna da.

en *calcium*  
es *calcio*  
fr *calcium*

## kanal

☞ **ubide**

## kanpo-efektu

*Ekonomia, finantzak*

Ondasun edo jarduera bati buruz, prezioan islatzen ez den efektu positiboa edo negatiboa.

en *external effect; externality*  
es *efecto externo; externalidad*  
fr *effet externe*

## kanpo-errekuntzako motor

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Motorraren higidura eragiten duen fluido eta errekuntzarako erabilitakoa gune berean ez dauden errekuntza-motor mota. Adibidez, gas-turbina, lurrin-makina eta Stirling motorra kanpo-errekuntzakoak dira.

en *external combustion engine*  
es *motor de combustión externa*  
fr *moteur à combustion externe*  
☞ **barne-errekuntzako motor**

## kantzerigeno

SIN: kartzinogeno; onkogeno

*Osasuna, nutrizioa*

Arnastu, irentsi edo larruazaletik xurgatuz gero, minbizia sor dezakeen edo sortzen lagundu dezakeen substantzia edo prestakina. Europako Batasunaren 92/32 Zuzentarauaren arabera, substantziak eta hondakinak legez arriskutsuztat jotzeko ezaugarrietako bat da.

en *cancerogenic; carcinogen; carcinogenic*  
es *cancerígeno, -a; carcinógeno, -a*  
fr *cancérogène; cancérogène; carcinogène*  
☞ **ekotoxiko; erregarri; infekzioso; kaltegarri; korrosibo; leherkor; mutageno; narritagarri; sukoi; teratogeno; toxiko**

## kapsularatze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin toxiko edo erradioaktiboak barrunbe hermetikokoan sartzea

edo material iragazteaz estaltzea, ingurunera barrea ez daitezen.

en *encapsulation*

es *encapsulación*

fr *encapsulage*

☞ **hondakin arriskutsu; hondakin erradioaktibo**

## karbono

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 6 duen elementu kimikoa (C). Solido ez-metalikoa da, eta, egoera puruan, kristal-egitura (diamantea eta grafitoa) edo egitura amorfoa (harrikatza) izan dezake. Naturan oso ugaria da, eta konposatu askoren osagaia da: nagusiak karbono dioxidoa, karbono monoxidoa, karbonatoak eta konposatu organikoak dira.

en *carbon*

es *carbón*

fr *carbone*

☞ **harrikatz; hidrokarburo; karbono dioxido; karbono monoxido; karbonoaren ziklo**

## karbono dioxido

SIN: karbono(IV) oxido

*Kimika, substantziak, prozesuak*

CO<sub>2</sub> formulako konposatua. Gas kolorge eta usaingabea da, airearen osagaietako bat (% 0,03 bolumenean). Landare eta animalien arnasketaren eta erregaian errektuntzaren emaitza da. Landareek fotosintesian erabiltzen dute, argi-energiaren bidez materia organikoa eta oxigenoa sortzeko. Atmosferan areagotzen ari den berotegi-efektuaren eragile nagusia da.

en *carbon dioxide; carbon(IV) oxide*

es *dióxido de carbono; óxido de carbono(IV)*

fr *dioxyde de carbone; oxide de carbone(IV)*

☞ **berotegi-efektu; berotegi-efektuko gas; errektuntza; fotosintesi; Kyotoko Protokoloa**

## karbono ez-organiko total

SIN: karbono ez-organikoaren guztizko

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Uretan esekita eta disolbatuta dauden gai ez-organikoen karbono-edukia.

en *total inorganic carbon*

es *carbón inorgánico total*

fr *carbone inorganique total*

☞ **karbono organiko disolbatu; karbono organiko total; karbono total**

## karbono ez-organikoaren guztizko

➔ **karbono ez-organiko total**

## karbono monoxido

SIN: karbono(II) oxido

*Kimika, substantziak, prozesuak*

CO formulako konposatua. Gas kolorge, usaingabe eta sukoia. Oso toxikoa da.

en *carbon monoxide; carbon(II) oxide*

es *monóxido de carbono; óxido de carbono(II)*

fr *monoxyde de carbone; oxyde de carbone(II)*

☞ **errektuntza**

## karbono organiko disolbatu (KOD)

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Neurri jakineko poroak (eskuarki, 0,1 eta 1 mikrometro bitarteko poroak) dituen iragazki batetik igaroarazi ondoren bereizi barik geratu diren uretako gai organikoen karbono-edukia.

en *dissolved organic carbon; DOC*

es *carbón orgánico disuelto; COD*

fr *carbone organique dissous; COD*

☞ **karbono ez-organiko total; karbono organiko total; karbono total**

## karbono organiko total

➔ **karbono organikoaren guztizko**

## karbono organikoaren guztizko (KOG)

SIN: karbono organiko total

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Uretan esekita edo disolbatuta dauden gai organikoen karbono-edukia zehazten duen parametroa. Lagina, errektuntzaz, oxidatu egiten da lehenik, eta oxidazioaren emaitza den karbono dioxidoa zenbatzen da gero.

en *total organic carbon (TOC)*

es *carbón orgánico total; COT*

fr *carbone organique total; COT*

☞ **karbono ez-organiko total; karbono organiko disolbatu; karbono total**

## karbono total

SIN: karbonoaren guztizko

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Uretako karbono organikoaren eta karbono ez-organikoaren guztizkoen batura.

en *total carbon*

es *carbón total*

fr *carbone total*

☞ **karbono ez-organiko total; karbono organiko disolbatu; karbono organiko total**

## karbonoaren guztizko

➔ **karbono total**

## karbonoaren ziklo

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Karbonoak naturan aske edo konbinaturik parte hartzen duen prozesuez osatutako zirkulazio-bide itxia.

en *carbon cycle; circulation of carbon*

es *ciclo del carbono*

fr *cycle du carbone*

## karbono(II) oxido

➔ **karbono monoxido**

## karbono(IV) oxido

➔ **karbono dioxido**

## karburol

SIN: gasohol

*Produktuak, materialak*

Berunik gabeko gasolinaz (% 90) eta etanolez (% 10) osatutako nahastea, zenbaitetan gasolina-motorretan ordezko erregaitzat erabilia. Erretzean, gasolinak baino karbono monoxido gutxiago aireatzen du.

en *gasohol*  
es *carburol; gasohol*  
fr *carburol; essence-alcool*

## karga kritiko

*Ikerkuntza, zientziak*

Inguruneak kalte nabarmenik izan gabe jasan dezakeen poluzio-kargarik handiena.

en *critical load*  
es *carga crítica*  
fr *charge critique; seuil critique*

## karga organiko

*Ikerkuntza, zientziak*

Hondakin-uren araztegiara heltzen den urak bolumen-unitateko duen materia organiko disolbatu edo esekiaren kantitatea. Eskuarki, errektoreko metro kubikoko oxigeno-eskari biokimiko edo oxigeno-eskari kimikoak kilogramotan duen balioaz adierazten da.

en *organic load*  
es *carga orgánica*  
fr *charge organique*

## kartoi

*Produktuak, materialak*

Metro karratuko 226 g baino gehiago pisatzen duen paper lodia, ohiko papera baino zurrunagoa; delako materialaz eginiko orria. Etxeetan erabiltzen den kartoi hiri-hondakin arrunta da, eta gaikako bilketan bereiz jasozen da.

en *cardboard; millboard; pasteboard*  
es *cartón*  
fr *carton*

## kartzinogenizitate

*Osasuna, nutrizioa*

Substantzia batek minbizia eragiteko duen gaitasuna.

en *carcinogenicity*  
es *carcinogenicidad*  
fr *cancérogénicité*

## kartzinogeno

➔ **kantzerigeno**

## kate trofiko

➔ **elikatze-sare**

## ke

1

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Errekuntza-gasetan dagoen tamaina txikiko partikula solidoen esekidura. Errekuntza-erreakzioaren emaitza gas-nahaste bat da, eta, nahaste

horretan esekita, tamaina txikiko partikula solidoak izaten dira.

en *smoke*  
es *humo*  
fr *fumée*

☞ **errekuntza-gas; kedar; Ringelmann-en eskala**

2

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Lurrunketa edota erreakzio kimikoz sortutako zatiki solidoen esekidura, eskuarki metalurgiako prozesuen ondoriozkoa.

en *fume; fumes*  
es *humos*  
fr *fumée*

## kedar

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Erregaien errekuntza burutugabearen hondakin diren zatiki txikiez osatutako gai beltza, errekuntza-gasen irteera-hodietan (tximinietan, adibidez) metatzen dena edo gas horiekin batera barreiatzen dena.

en *soot*  
es *hollín*  
fr *suie*  
☞ **errekuntza-gas; ke**

## keroseno

*Produktuak, materialak*

Petrolioaren distilazio zatikatuan, 150-230 °C bitartean gutxi gorabehera lortzen den hidrokarburo-nahaste likido eta horixka, gasolina eta gasolioaren arteko frakzioa dena. Lehen, olio-lanparak pizteko erabiltzen zen; gaur egun, ordea, etxebizitzetako berogailuetan, intsektizidetan eta hegazkinetako turborreaktoreetan erabiltzen da gehienbat. Kerosenoaren berotze-ahalmena 47 MJ/kg ingurukoa da.

en *kerosene; kerosine*  
es *queroseno*  
fr *kérosène*  
☞ **petrolio**

## kieselguhr

➔ **diatomita**

## Kjeldahl nitrogeno

*Ikerkuntza, zientziak*

Lagin baten nitrogeno organiko eta amonio-nitrogenoaren edukia, ezarritako baldintza jakinetan azido sulfurikoaren bidezko mineralizazioaz neurtua (ez du laginaren nitrito- eta nitrato-edukia neurtzen).

en *Kjeldahl nitrogen*  
es *nitrógeno Kjeldahl*  
fr *azote Kjeldahl*

## klima

*Atmosfera*

Toki bateko atmosferaren egoerak eta gertakari meteorologikoek denbora-bitarte luzean agertzen duten batez besteko ezaugarri-multzoa (tenperatura, presioa, hezetasuna, haizeak, prezipitazioak).

en *climate*



es *clima*  
fr *climat*  
☞ **mikroklima**

## klima-aldaketa

*Atmosfera*

Leku jakin batean klimaren ezaugarriak pixkanaka aldatzea. Adiera hertsia goan, giza jarduerak zuzenean edo zeharka eragindako Lurreko atmosferaren konposizio-aldaketaren ondorioz gertatzen den klima-aldaketa, klimaren berezko aldaketaren erritmo eta norabidea azkar aldarazten duena.

en *climatic change*  
es *cambio climático*  
fr *changement climatique; changement du climat; variation du climat*  
☞ **berotegi-efektua; berotegi-efektuko gas; IPCC; Kyotoko Protokoloa**

## Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldea

☞ **IPCC**

## klimax

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Segida ekologiko bat burutzean azken pauso gisa agertzen den landare-komunitatea, gehienetan egonkor eta heldua, ingurunearekin oreka dinamikoan dagoena eta biomasa maximoa duena.

en *climax*  
es *clímax*  
fr *climax*

## kloragailu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Edateko urari edo hondakin-urei kloroa nahasteko gailua.

en *chlorinator*  
es *clorador*  
fr *chlorateur*  
☞ **klorazio**

## kloramina

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Amoniakoaren hidrogeno-atomoak kloro-atomoz ordezkatzuz sortzen diren hiru deribatuetako bakoitza. Monokloramina (NH<sub>2</sub>Cl), dikloramina (NHCl<sub>2</sub>) eta nitrogeno trikloruroa (NHCl<sub>3</sub>) dira. Ura kloroz edo hipokloritoz tratatzen denean eratzten dira, uraren, amoniakoaren eta azido hipoklorosoaren arteko erreakzioaren bidez.

en *chloramine*  
es *cloramina*  
fr *chloramine*  
☞ **klorazio**

## klorazio

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua / Kimika, substantziak, prozesuak*

Uraren tratamendu kimikoa, kloro gaseosoa zuzenean edo hipoklorito ioiak ematen dituzten substantziak disolbatuz egiten dena eta usaina kentzeko, bakterioak hiltzeko eta, oro har, desinfektatzeko erabiltzen dena.

en *chlorination; water chlorination*  
es *cloración*  
fr *chloration*  
☞ **aurreklorazio; fluorazio; hauste-punturainoko klorazio; hondar-kloro; kloro**

## kloro

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 17 duen elementu kimikoa, halogenoen taldekoa (Cl). Gas berde-horixka da, arnastuz gero narritagarri eta toxikoa. Oso errektiboa da. Besteak beste, ura desinfektatzeko erabiltzen da. Ez da metatzen elikatze-sarean.

en *chlorine*  
es *cloro*  
fr *chlore*  
☞ **klorazio**

## kloro aske

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Uretan kloro-molekula, kloro-ioi, azido hipokloroso edo hipoklorito ioi formetan disolbatuak dagoen hondar-kloroaren partea.

en *free chlorine*  
es *cloro libre*  
fr *chlore libre*  
☞ **klorazio; kloro konbinatu**

## kloro konbinatu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Uretan kloramina eta nitrogeno trikloruro formetan disolbatuak dagoen hondar-kloroaren partea.

en *combined chlorine*  
es *cloro combinado*  
fr *chlore combiné*  
☞ **klorazio; kloro aske**

## kloro-eskari

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Ur-lagin bati gehitutako kloro-kantitatearen eta denbora-bitarte jakin bat igarotakoan dagoen hondar-kloroaren kendura. Desinfektatzeko eta materia organikoak deuseztatzeko behar den kloro-kantitatearen adierazgarri da.

en *chlorine demand; chlorine requirement*  
es *demanda de cloro*  
fr *demande en chlore*  
☞ **klorazio**

## klorofenol

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Fenolaren eratzunaren hidrogeno-atomo bat edo batzuk kloroz ordezkaturik dituen konposatua. Toxikoak dira. Klorofenolak eta horien deribatuek hainbat organismoen kontra erabiltzen dira (pestizidak, bakterizidak, fungizidak eta abar ekoizteko). Uretan fenolak badira, ura kloroz tratatzen denean klorofenolak eratzten dira, eta oso zapora txarra ematen diote urari. Klorofenolen sintesian (bereziki, herbiziden konposatuak egiteko erabiltzen den 2,4,5-triklorofenola) dioxinak era daitezke (Seveso,

1976).

en *chlorophenol*  
es *clorofenol*  
fr *chlorophénol*

☞ **Seveso zuzentaraua**

## klorofluorokarburu

SIN: CFC

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Kloro-, fluor- eta karbono-atomoz osaturiko konposatuen izen generikoa.

en *chlorofluorocarbon compound (CFC); chlorofluorocarbon (CFC)*  
es *compuesto clorofluorocarbonado (CFC); clorofluorocarbono (CFC)*  
fr *composé chlorofluorocarboné (CFC); chlorofluorocarbone (CFC)*

☞ **berotegi-efektua; Montrealgo Protokoloa; ozono-geruzaren urritze**

## klororik gabeko paper

*Produktuak, materialak*

Klororik ez duten edo oinarritzko klororik (kloro gasa) ez duten produktuak erabiliz zuritutako paper-orearekin fabrikatzen den papera, *baterik gabeko klororik gabeko paper* eta *kloro elementalik gabeko paper* deritzena, hurrenez hurren.

en *chlorine-free paper*  
es *papel exento de cloro*  
fr *papier sans chlore*

☞ **paper birziklatu; paper ekologiko**

## klorosi

*Osasuna, nutrizioa*

Landare-hostoek kolore horixka hartzea, gaitzak, mantenugai baten faltak edo aireko poluitzaileek eraginda.

en *chlorosis*  
es *clorosis*  
fr *chlorose*

## koagulatzaile

☞ **gatzatzaile**

## koagulazio

☞ **gatzapen**

## kobalto

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 27 duen elementu kimikoa (Co). Metal zuri-grisaxka eta gogorra da. Beste metal batzuekin batera dago zenbait mineraletan. Bizidun askorentzat, gizakia barne, ezinbestekoa da, B<sub>12</sub> bitaminaren osagaia baita. Superaleazioetan erabiltzen da. Kobalto-gatzekin pigmentuak (urdinak, bereziki) egiten dira. Kobalto-konposatu asko toxikoak dira, arnastuta zein irentsita. Kobalto 60 isotopo erradioaktiboak 3-5 urte bitarteko erdibizitza du eta kobaltoa darabilten errektore nuklearretan eta lehergailu atomikoen ez-tandaren ondorioz eratzen da. Erradioterapian ere erabiltzen da (kobalto-bonba).

en *cobalt*  
es *cobalto*  
fr *cobalt*

## kobre

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 29 duen elementu kimikoa (Cu). Metal gorrixka da, harikor eta xaflakorra, bero eta elektrizitatearen eroale ona. Batez ere hari elektrikoak, ur- eta gas-hodiak eta aleazioak (letoi eta brontzea) egiteko erabiltzen da. Kobre-gatz erabilieta sulfatoa da (bereziki bordeles salda fungizidan). Poluzio-iturri nagusiak aireztatzen diren emisioak dira (zatikiak jalkitzean sartzen da kobrea uraren zikloan). Metalik toxikoenetakoa da. Oso arriskutsua da uretako bizidunentzat, bereziki ur gezakoentzat.

en *copper*  
es *cobre*  
fr *cuiivre*

☞ **bordeles salda**

## KOD

☞ **karbono organiko disolbatu**

## KOG

☞ **karbono organikoaren guztizko**

## kogenerazio

☞ **baterako sorkuntza**

## koipea kentzeko tanga

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Ur gaineko koipe, olio eta bestelako gaiak flotazioz kentzen diren tanga. Hondakin-uren aurretratamenduan erabiltzen da.

en *grease separator; skimming tank*  
es *desengrasador; tanque de desengrase*  
fr *dégraisseur; séparateur de graisse*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## koipe-kentze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren arazketako aurretratamenduan, ur gainean diren koipe eta olioak, baita bestelako gaiak ere, kentzeko eragiketa.

en *degreasing; skimming*  
es *desengrase*  
fr *dégraissage*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## koke

*Produktuak, materialak*

Harrikatza distilatuz lortzen den erregai solidoa, haren gai lurrunkor gehienak galdu dituen. Erretzean, kedar gutxi sortzen du, eta erregai ez oso poluitzailetzat jo daiteke. Labegaraietan, metalurgiako beste zenbait prozesutan eta etxeko erregaitzat ere erabiltzen da.

en *coke*  
es *coque*  
fr *coke*

☞ **harrikatza**

## KOL

☞ **konposatu organiko lurrunkor**

## koilektore

## 1

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Estoldetak datozen hondakin-urak eta euri-urak jasotzen dituen eta hutsutzeko tokira edo araztegiara eramaten dituen hodi edo estolda handia.

en *collecting drain; collector sewer; drainage ditch; main drain*  
es *colector*  
fr *collecteur*

## 2 ➔ eguzki-kolektore

### koliforme

*Biosfera / Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Jatorria gizakien eta animalien hesteetan duen bakterioa, kolibaziloaren forma eta haren zenbait ezaugarri dituena. Gorotzekin batera kanporatzen dira, eta uretako poluzio fekalaren adierazle gisa erabiltzen dira.

en *coliform*  
es *coliforme*  
fr *coliforme*

### komunitate biotiko

➔ **biozenosi**

### konbekzio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Fluido batean, bi punturen arteko tenperatura desberdina denean sortzen den higidura antolatua, beroaren eta materiaren transmisioa eragiten duena eta fluidoaren masa osoan tenperatura berdintzera bultzatzen duena. Atmosferaren kasuan, airearen goranzko eta beheanzko higidura da, airearen barneko dentsitate-diferentziek eragina (konbekzio askea) edo aireak azal zimurtu batekin edo malda batekin topo egiten duenean sortua (konbekzio bortxatua).

en *convection*  
es *convección*  
fr *convection*  
☞ **adbekzio**

### konbergentzia

*Atmosfera*

Bi aire-korronte horizontal elkartu eta goranzko edo beheanzko aire-korrontea osatzea.

en *convergence*  
es *convergencia*  
fr *convergence*  
☞ **dibergentzia; subsidentzia**

### konposatu alifatiko

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Karbono-kate irekia duen hidrokarburo baten deribatu den konposatu organikoa. Esate baterako, klorofluorokarburoa, ozono-geruzaren urritzearen eragileetako bat.

en *aliphatic compound*  
es *compuesto alifático*  
fr *composé aliphatique*  
☞ **hidrokarburo alifatiko; konposatu alizikliko; konposatu aromatikoa**

### konposatu alizikliko

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Konposatu organikoa, eraztun aromatikoa ez den karbono-zikloa duen hidrokarburo baten deribatu. Esate baterako, disolbatzaile gisa erabiltzen den ziklohexanoa.

en *alicyclic compound*  
es *compuesto alicíclico*  
fr *composé alicyclique*  
☞ **hidrokarburo alizikliko; konposatu alifatiko; konposatu aromatikoa**

### konposatu aromatikoa

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Konposatu organikoa, bentzenoarena bezalako karbono-eraztun bat edo batzuk dituen hidrokarburo baten deribatu. Esate baterako, dioxinak.

en *aromatic compound*  
es *compuesto aromático*  
fr *composé aromatique*  
☞ **hidrokarburo aromatikoa; hidrokarburo aromatikoa polizikliko; konposatu alifatiko; konposatu alizikliko**

### konposatu ez-organikoa

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Karbonorik ez duen konposatua. Hala ere, kontuan izan behar da karbonoa duten konposatu batzuk ez-organikotzat jotzen direla, hala nola karbono monoxidoa, karbono dioxidoa, karbonatoak, zianuroak, zianatoak, etab.

en *inorganic compound*  
es *compuesto inorgánico*  
fr *composé inorganique*  
☞ **karbono ez-organikoa total; konposatu organikoa**

### konposatu organikoa

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Karbonoa duen konposatua. Hidrogenoa (gehienetan), oxigenoa, nitrogenoa eta beste elementu batzuk ere izaten dituzte. Dena den, kontuan izan behar da karbonoa duten konposatu batzuk ez-organikotzat jotzen direla, hala nola karbono monoxidoa, karbono dioxidoa, karbonatoak, zianuroa, zianatoak, etab.

en *organic compound*  
es *compuesto orgánico*  
fr *composé organique*  
☞ **konposatu ez-organikoa**

### konposatu organikoa lurrunkor (KOL)

*Kimika, substantziak, prozesuak*

293,15 °C-an 10 Pa baino lurrun-presio handiagoa duen eta atmosferako erreakzio fotokimikoetan parte hartzen duen konposatu organikoa; beraz, giro-tenperaturan erraz lurruntzen diren konposatuak dira.

en *volatile organic compound (VOC)*  
es *compuesto orgánico volátil; COV*  
fr *composé organique volatil*  
☞ **konposatu organikoa**

## konposatu organokloratu

SIN: organokloratu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Kloroa duen konposatu organikoa. Gehienetan, hidrokarbu kloratuak dira (bi terminoek sinonimotzat erabiltzen dira askotan).

en *organochlorine; organochlorine compounds*

es *compuesto organoclorado; organoclorado*

fr *composé organochloré; organochloré*

☞ **hidrokarbu kloratu**

## konpost

*Produktuak, materialak*

Hondakin organikoen deskonposizio aerobio kontrolatuaren emaitza den produktua, humusaren antzeko ezaugarriak dituena eta lurra ongarrizteko erabili ohi dena.

en *compost*

es *compost*

fr *compost*

## konposta egiteko hondakin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Konposta egiteko erabil daitekeen hondakina, nagusiki gai organiko biodegradagarri osatua.

en *compostable waste*

es *residuo compostable*

fr *déchet compostable*

## konposta egiteko instalazio

SIN: konpost-fabrika

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Hondakin organikoetatik konposta ekoizten den instalazio-multzoa.

en *compost plant; composting plant*

es *planta de compostaje*

fr *usine de compostage*

☞ **konpostaje**

## konpostaje

SIN: konpost-egite

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Hondakin organikoak ingurune aerobioan eta modu kontrolatuan konpost bihurtzeko prozesua.

en *composting*

es *compostaje*

fr *compostage*

☞ **konpost; konpostaje behartu; metakako konpostaje**

## konpostaje azkartu

☞ **konpostaje behartu**

## konpostaje behartu

SIN: hartidura azkartuko konpostaje; konpostaje azkartu

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Konposta egiteko prozesua azkartzearen, hondakinak ingurune itxian ezartzen diren teknika, non oxigeno-kontzentrazioa, hezetasuna eta tenperatura etengabe kontrolpean egoten diren eta konstante samar mantentzen diren.

en *closed composting; enclosed composting*

es *compostaje acelerado; compostaje de fermentación acelerada; compostaje forzado*

fr *compostage par fermentation accélérée*

☞ **konpostaje**

## konpost-egite

☞ **konpostaje**

## konpost-fabrika

☞ **konposta egiteko instalazio**

## kontaminazio

SIN: kutsadura

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Organismo, substantzia, elikagai, leku eta abarretan mikroorganismo patogeno, substantzia toxiko edo gai erradioaktibo bat edo batzuk egotea.

en *contamination*

es *contaminación*

fr *contamination*

## kontaminazio erradioaktibo

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurunean, organismoan edo gai batean ohiz kanpoko substantzia erradioaktiboak egotea edo ohi baino kantitate handiagoan egotea.

en *radioactive contamination*

es *contaminación radiactiva*

fr *contamination radioactive*

☞ **erradiazio; hondakin erradioaktibo; zentral nuklear**

## kontrol

SIN: zaintza; zaintze

*Ikerkuntza, zientziak*

Sistema edo prozesu bat behatu, neurtu edota ebaluatzea, behar denean zuzentze-neurriak hartzeko; adibidez, poluitzaile baten kontzentrazioa muga batetik behera egon dadin egiten da.

en *monitoring; surveillance*

es *control; vigilancia*

fr *contrôle; surveillance*

## kontrol biologiko

**1**

*Ikerkuntza, zientziak*

Izurriak prebenitzeko, murrizteko edo ezabatzeko erabiltzen diren baliabide biologikoen (organismoak) multzoa. Adibidez, organismo patogenoen edota bizkarroien aurka borrokatze, haien harrapari naturalak erabil daitezke edo beste bide batzuk jorratu, hala nola antzutea.

en *biocontrol; biological control; natural control*

es *control biológico*

fr *contrôle biologique*

**2** SIN: biozaintza

## Ingurumen-politika

Ingurumenean eragindako kalteak detektatu eta zenbatesteko, organismo biziak darabiltzan teknika. Esate baterako, itsaso, ibai edo bestelako ur-sistemata isurtzen diren hondakin-uren kalitatea zehazteko erabiltzen da.

en *biomonitoring*  
es *control biológico*  
fr *biosurveillance; contrôle biologique*  
☞ **adierazle ekologiko**

## kontrol gabea isurpen

☞ **isurpen kontrolatugabe**

## kontrolpeko isurpen

☞ **isurpen kontrolatu**

## kontrol-putzu

**1**  
*Ikerkuntza, zientziak*

Lurpeko uren maila neurtzeko eta analisirako laginak hartzeko erabiltzen den putzua.

en *monitoring well*  
es *pozo de control; pozo de registro*  
fr *puits de contrôle*

**2**  
*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakindegia batean egindako putzu-modukoa, lixibiazio-uren maila neurtzeko eta konposizioa jakiteko erabilia.

en *monitoring well*  
es *pozo de control; pozo de registro*  
fr *puits de contrôle*

## kontserbazio

### Ingurumen-politika

Naturako baliabideak, ekosistemak eta organismoak zaintzea, babestea, suspertzea eta ugartzea helburu duen ingurune-kudeaketa.

en *conservation*  
es *conservación*  
fr *conservation*  
☞ **ingurumen-kudeaketa**

## kontserbazio bereziko eremu

### Ingurumen-politika

Europako Batasunaren Habitat Naturalen eta Basafauna eta Basafloraren Kontserbazioari buruzko 92/43 Zuzentarauaren arabera, estatu kideek arau baten bidez natur gune babestu izendatutako *Batasunaren intereseko lekua*, Europako Batasunaren mailan habitat natural garrantzizkotzat jotzen dena. Han, habitat naturalak edota eremua izendatzeko orduan kontuan hartu diren espezieen populazioak kontserbazio-egoera egokian mantendu edo kontserbazio-egoera egokira iristeko behar diren kontserbazio-neurriak aplikatzen dira.

en *special area of conservation*  
es *zona especial de conservación*  
fr *zone spéciale de conservation*  
☞ **Batasunaren intereseko leku; natur gune babestu; Natura 2000**

## kontsumo

### Ekonomia, finantzak

Ondasunak edo zerbitzuak beharrak eta nahiak asetzeko edo produkzio-prozesurako erabiltzea, eta, ondorioz, ondasun edo zerbitzuok suntsitu (elikagaiak, janari-edariak, hartzean adibidez), pixkanaka narriatu edo higatu (adibidez, etxebizitza, bertan bizitzearen ondorioz) edo eraldatzea (bestelako ondasun bilakatzeko edo energia lortzeko, adibidez).

en *consumption*  
es *consumo*  
fr *consommation*

## kontzentrazio

### Kimika, substantziak, prozesuak

Nahaste batean (airean, itsasoko uretan eta abarretan), osagai batek nahaste osoarekiko duen kantitate edo proportzioa. Hainbat modutan adieraz daiteke: parte-kopurua milioiko (ppm), parte-kopurua bilioiko (ppb), masa-portzentajea, molartasuna, molaltasuna, etab.

en *concentration*  
es *concentración*  
fr *concentration*  
☞ **ppb; ppm**

## korologia

### Ikerkuntza, zientziak

Taxonen banaketa geografikoa aztertzen duen biogeografiaren atala.

en *chorology*  
es *corología*  
fr *chorologie*  
☞ **biogeografia**

## korridore ekologiko

SIN: igarobide ekologiko

### Biosfera

Bi espazio natural edo gehiago lotzen dituen bide naturala, animalia eta landareei beren kasa sakabanatzeko aukera ematen diena.

en *ecological corridor*  
es *corredor biológico; pasillo ecológico*  
fr *couloir écologique*

## korrontez kontrako ikuzketa

### Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua

Ur-lasterraren noranzkoa aldatzea iragazkian harrapatutako zatiki solidoak erazteko. Batzuetan, aire konprimituzko garbiketarekin batera erabiltzen da.

en *backwashing*  
es *lavado a contra-corriente*  
fr *lavage à contre-courant*  
☞ **hondakin-uren arazketa**

## korrosio

### Arriskuak, segurtasuna

Ehun biziek (eta, batez ere, gizakiaren organismoko ehunekin) eta beste material batzuekin (egurra, metala) erreakzionatu eta horiek desegin ditzakeen substantzia edo prestakina. Europako Batasunaren 92/32 Zuzentarauaren arabera, substantziak eta hondakinak legez arriskutsuztat jotzeko ezaugarrietako bat da. Substantzia eta prestakin korrosiboen artean, besteak beste, honako hauek daude: hodiak libratzeko produktuak, soda kaustikoa, desugertzailak, azido sulfurikoa (baterietakoa, adibidez), komunerako eta labeetarako garbigarriak, plater-ikuzgailuetan erabiltzeko produktuak, etab. Bestalde, egoera naturalean eta lehor daudenean korrosiboak ez diren hainbat substantzia korrosibo bihurtzen dira urarekin edo azal edo mukietako hezetasunarekin kontaktuan. Gai korrosiboen etiketatuan *C* ikurra erabiltzen da.

en *corrosive*  
es *corrosivo, -a*  
fr *corrosif, -ive*

☞ **ekotoxiko; erregarri; infektzioso; kaltegarri; kantzerigeno; leherkor; mutageno; narritagarri; sukoi; teratogeno; toxiko**

## korrosio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Giroko agente fisiko-kimikoez edo erreaktiboek materialen azalari eragindako aldaketa kimikoa, materia deskonposatzea edo desegitea eragiten duena.

en *corrosion*  
es *corrosión*  
fr *corrosion*

☞ **korrosibo**

## kostalde

SIN: itsasbazter

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Itsasoaren ondoko lur-zerrenda. Paisaia ezegonkorreko ingurua da, sedimentuen metaketa edo itsas higaduraren ondorioz kostaldea aurreratu edo atzeratu egin baitaiteke. Klima, geologia, olatuekiko orientazio eta giza-kiaren jardueraren menpe dago.

en *coast; littoral*  
es *costa; litoral*  
fr *coastal; cote; littoral*

## kromo

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 24 duen elementu kimikoa (Cr). Metal zuri-grisa da, gogorra eta herdoilgaitza. Metal astuna da.

en *chromium*  
es *cromo*  
fr *chrôme*

☞ **metal astun**

## kutsadura

1 ➔ **poluzio**

2 ➔ **kontaminazio**

## kutsadura atmosferiko

➔ **airearen poluzio**

## kutsadura biologiko

➔ **poluzio biologiko**

## kutsadura kimiko

➔ **poluzio kimiko**

## kutsadura lauso

➔ **poluzio lauso**

## kutsadura murrizte

➔ **poluzioa murrizte**

## kutsadura puntual

➔ **poluzio puntual**

## kutsadura termiko

➔ **bero-poluzio**

## kutsadura-iturri

➔ **poluzio-iturri**

## kutsadura-karga

➔ **poluzio-karga**

## kutsaduraren kontrol

➔ **poluzioaren kontrol**

## kutsaduraren prebentzio

➔ **poluzioaren prebentzio**

## kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratua

➔ **poluzioaren prebentzio**

## kutsatzaile

➔ **poluitzaile**

## "kutsatzen duenak ordaindu egiten du" printzipio

*Legeak, arauak, hitzarmenak*

Poluzio-arazoak konpontzeko neurriak, arazo horiek sortu edo eragin dituen pertsonak edo erakundeak berak ordaindu behar dituela dioen printzipioa.

en *polluter-pays principle; principle "who pollutes pays"*  
es *principio contaminador-pagador; principio "quien contamina, paga"*  
fr *principe du polluer-payeur*

## Kyotoko Protokoloa

*Legeak, arauak, hitzarmenak*

Herrialde industrializatuek aieratzen dituzten berotegi-efektuko gasak nola murriztu arautzen duen nazioarteko hitzarmena, Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Esparru Hitzarmenak Kyoto hirian, Japonian, 1997ko abenduan egindako biltzarraren emaitza. Hitzarmen loteslea da, estatu sinatzaileek bete beharrekoa.

en *Kyoto Protocol*  
es *Protocolo de Kioto*  
fr *Protocole de Kyoto*

## La Niña

*Atmosfera*

Ozeano Bareko erdialdeko eta ekialdeko gainazaleko uraren hozte

ziklikoa. El Niño fenomenoaren kontrakoa da.

en *La Niña*

es *La Niña*

fr *La Niña*

☞ **El Niño Hegoaldeko Oszilazioa**

## labe birakari

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Luzetarako ardatz baten inguruan biratzen den zilindro-formako labea, hondakin solidoak errausteko erabiltzen dena. Hondakinak higitzen direnez, airearekin hobeto nahasi eta errazago errausten dira.

en *rotary furnace; rotary kiln*

es *horno rotatorio*

fr *four rotatif; four tournant*

☞ **errausketa**

## laborantzako hondakin

☞ **nekazaritzako hondakin**

## laborantza-kutsadura

☞ **nekazaritza-poluzio**

## laborantza-poluzio

☞ **nekazaritza-poluzio**

## labore bakar

☞ **monolabore**

## labore-txandaketa

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Alor batean espezie edo barietate desberdineko laboreak txandaka ereitean edo landatzean oinarritzen den nekazaritza-teknika.

en *crop rotation*

es *rotación de cultivos*

fr *rotation culturale; rotation des cultures; succession culturale*

☞ **monolabore; nekazaritza ekologiko**

## lagin

*Ikerkuntza, zientziak*

Gai (ur, aire, lurzoru, hondakin..) batetik hartzen den zati adierazgarria, osotasunari dagozkion datuak lortzeko analizatzen dena.

en *sample*

es *muestra*

fr *échantillon*

☞ **laginketa**

## lagin konposatu

*Ikerkuntza, zientziak*

Bi lagin edo gehiago proportzio egokitan modu jarraitu zein aldizka-koan nahasiz osatutako lagina, neurtu nahi den aldagaiaren batez besteko balioa kalkulatzeko erabiltzen dena. Lagin-proportzioak denbora edo emariaren arabera izaten dira.

en *composite sample*

es *muestra compuesta*

fr *échantillon composite*

## lagin puntual

☞ **beingo lagin**

## laginaren egonkortze

*Ikerkuntza, zientziak*

Lagina hartzen eta analizatzen den arteko denboran aldaketarik (bereziki, neurtu nahi den aldagaian) ez izatea helburu duen prozesua, prozedura fisiko edota kimikoz baliatzen dena.

en *sample stabilization*

es *estabilización de la muestra*

fr *stabilisation de l'échantillon*

## lagin-hargailu

*Ikerkuntza, zientziak / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Gai baten laginak aldizka edo etengabe hartzeko erabiltzen den aparatua.

en *sampler*

es *muestreador*

fr *échantillonneur*

## laginketa

SIN: lagintze

*Ikerkuntza, zientziak*

Gai baten laginak lortzeko eragiketa-multzoa.

en *sampling*

es *muestreo*

fr *échantillonnage; échantillonnage*

☞ **aldizkako laginketa; beingo lagin; laginketa automatiko; laginketa isozinetiko; laginketa jarraitu; laginketa proportzional**

## laginketa automatiko

SIN: lagintze automatiko

*Ikerkuntza, zientziak*

Laginak programa baten arabera eta automatikoki hartzen diren laginketa-mota, aldizkakoa zein jarraitua.

en *automatic sampling*

es *muestreo automático*

fr *échantillonnage automatique*

☞ **laginketa**

## laginketa isozinetiko

SIN: lagintze isozinetiko

*Ikerkuntza, zientziak*

Laginak hartzen diren norabidea eta abiadura tokiko gas-emariaren berdina den laginketa-mota. Aireko zatiki esekien laginak hartzeko erabili ohi da.

en *isokinetic sampling*

es *muestreo isocinético*

fr *échantillonnage isocinétique*

☞ **laginketa**

## laginketa jarraitu

SIN: lagintze jarraitu

*Ikerkuntza, zientziak*

Gai baten laginak etengabe hartzen diren laginketa-mota.

en *continuous sampling*

es *muestreo continuo*

fr *échantillonnage continu; échantillonnage en continu*

☞ **aldizkako laginketa; laginketa**

## laginketa proportzional

SIN: lagintze proportzional

*Ikerkuntza, zientziak*

Laginak hartzeko maiztasuna (aldizkako laginketa bada) edo laginaren emaria (laginketa jarraitua bada) ur, gas edo hondakinen emariarekiko proportzionala den laginketa-teknika.

en *proportional sampling*

es *muestreo proporcional*

fr *échantillonnage proportionnel*

☞ **aldizkako laginketa; laginketa; laginketa jarraitu**

## lagintze

☞ **laginketa**

## lagintze automatiko

☞ **laginketa automatiko**

## lagintze isozinetiko

☞ **laginketa isozinetiko**

## lagintze jarraitu

☞ **laginketa jarraitu**

## lagintze proportzional

☞ **laginketa proportzional**

## laku

☞ **aintzira**

## landa-garapen

*Ingurumen-politika*

Landa-eremu bateko azpiegitura, zerbitzu eta industriaguneen hobekuntza planifikatua, eremu horren hazkunde sozioekonomikoa sustatzeko egiten dena.

en *land development*

es *desarrollo rural*

fr *développement du territoire*

## landaredi

☞ **landaretza**

## landare-estaldura

☞ **landare-estalki**

## landare-estalki

SIN: landare-estaldura

*Biosfera*

Lur-eremu jakin bat estaltzen duen landare-multzoa.

en *vegetative cover*

es *cubierta vegetal*

fr *couverture végétale*

## landare-hondakin

SIN: hondakin berde

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Landarez edo landare-hondarrez osatutako hondakin organiko mota.

en *green waste; plant waste; vegetable waste; vegetal waste; vegetational waste*

es *residuo vegetal; residuo verde*

fr *déchet vert*

## landaretza

SIN: landaredi

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Eskualde edo habitat batean hazten diren landare guztien multzoa

! *Landaredi* terminoa landareen populazioari dagokio, eta *flora* populazio hori osatzen duen espezie-multzoari.

en *vegetation*

es *vegetación*

fr *végétation*

☞ **flora**

## landareztatze

*Ingurumen-politika*

Jarduera baten ondorioz (ingeniaritza zibileko lanak adibidez) soildu den lursail bat berriz landarez estaltzeko, zuhaitzak, zuhaixkak edota bes-telako landareak erein eta landatzea. Obra publikoetan hondatutako lursailak edo inpaktua jasan duen ekosistema bat berreskuratzeko bideetako bat da, eta, baso-berritzea bezala, paisaia leheneratzeko moduetako bat da.

en *revegetation*

es *revegetación*

fr *reverdissement; végétalisation*

## landa-turismo

☞ **agroturismo**

## Langelier-en indize

*Ikerkuntza, zientziak*

Ur-lagin baten asetasun-pH-a (pHs) eta neurtzen den pH-aren arteko kendura (pHs-a da ura kaltzio karbonato solidorekin orekan balego neur-tuko litzatekeen pH-a). Kaltzio karbonatoak ur-sistema batean duen disol-bagarritasun-maila ezagutu eta korrosioa eta inkrustazioak kontrolatzeko erabiltzen da. Langelier-en indizea positiboa bada, kaltzio karbonatoa haus-peatu egin daiteke eta inkrustazioak sor daitezke.

en *Langelier index*

es *índice de Langelier*

fr *indice de Langelier*

☞ **agresibitate; ur agresibo**

## larrupeko haragi

SIN: larrupeko okel

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*



Animalia larrutu eta gero larruari itsatsita gelditzen den haragia kentzean sortzen den hondakina. Larrua ontzeko industriako hondakina da, eta pentsua ekoizteko erabiltzen da.

en *fleshings*  
es *carnaza*  
fr *carnasses*

## larrupeko okel

↳ **larrupeko haragi**

## lehen dekantazio

SIN: lehen jalkitze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Tratamendu biologikoaren edo iragazketaren aurretik egiten den dekantazioa.

en *primary settling*  
es *decantación primaria*  
fr *décantation primaire; sédimentation primaire*

↳ **hondakin-uren arazketa**

## lehen jalkitze

↳ **lehen dekantazio**

## lehen mailako bilgarri

SIN: salmenta-bilgarri

*Produktuak, materialak*

Saltokian produktuaren azken erosle edo erabiltzaileari eskaintzen zaion salmenta-unitatea daukan bilgarri-mota. Esaterako, latak, botilak, platerak, kartoizko bilgarriak, bidoiak, etab.

en *primary packaging; sales packaging*  
es *envase de venta; envase primario*  
fr *emballage de vente; emballage primaire*

↳ **bigarren mailako bilgarri; bilgarri; hirugarren mailako bilgarri**

## lehen mailako kutsatzaile

↳ **lehen mailako poluitzaile**

## lehen mailako poluitzaile

SIN: lehen mailako kutsatzaile

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurunera egotzi ondoren konposizioa aldatu ez duen poluitzailea. Airearen poluzioaren arloan erabiltzen da, bereziki.

en *primary pollutant*  
es *contaminante primario*  
fr *polluant primaire*

↳ **bigarren mailako poluitzaile**

## lehen tratamendu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren arazketaren lehen urratsa, gai esekien parterik handiena kentzea -ia beti prozedura fisiko bidez- helburu duena. Urrats honetan, hondakin-uren 5 eguneko oxigeno-eskari biokimikoa % 20 gutxitzen da, eta solido esekien kantitatea % 50. Erabiltzen diren tratamendu nagusiak dekantazioa, iragazpena eta koipe-kentzea dira.

en *primary treatment*  
es *tratamiento primario*

fr *traitement primaire*

↳ **bigarren tratamendu; dekantazio; hirugarren tratamendu; hondakin-uren arazketa; iragazpen; koipe-kentze**

## leheneratze

*Ingurumen-politika*

Gizakiaren jarduerak eraldatutako tokiak aurretik zituen ezaugarriak eta itxura edo horien parekoak berriz izan ditzen egiten diren lanen multzoa.

en *restoration; restore*  
es *restauración*  
fr *restauration*

↳ **birgaitze**

## lehengai

*Produktuak, materialak*

Produkzio-prozesu baten abiapuntua den gai landugabea, naturan den eran erabiltzen dena eta transformaziorik izan ez duena.

! Birziklatutako hondakinak ere produkzio-prozesuen lehengaitzat erabil daitezke, baina horiei *bigarren mailako lehengai* deritze.

en *raw material*  
es *materia prima*  
fr *matière première*

↳ **bigarren mailako lehengai**

## lehentasunezko espezie

*Ingurumen-politika*

Europako Batasunaren 92/43 Zuzentarauan *Batasunaren intereseko espezie*-tzat hartutakoen artean *arriskuan dagoen espezie* azpisailean dagoen espezieetako bakoitza. Espezie horien banaketa naturaleko eremuan Europako Batasunaren lurraldeak garrantzi handia duenez, haien kontserbazioan arduraz berezia du Europako Batasunak.

en *priority species*  
es *especie prioritaria*  
fr *espèce prioritaire*

↳ **Batasunaren intereseko espezie; espezie babestu**

## lehentasunezko habitat natural mota

*Ingurumen-politika*

Europako Batasunaren Habitat Naturalen eta Basafauna eta Basafloraren Kontserbazioari buruzko 92/43 Zuzentarauaren arabera ([europa.eu.int/smartapi/cgi/sga\\_doc?smartapi!celexapi!prod!CELEXnumdoc&lg=EN&numdoc=31992L0043&model=guichett](http://europa.eu.int/smartapi/cgi/sga_doc?smartapi!celexapi!prod!CELEXnumdoc&lg=EN&numdoc=31992L0043&model=guichett)), galtzeko arriskuan dagoen Batasunaren intereseko habitat natural mota, eta Batasunarentzat hura kontserbatzea erantzukizun berezia dena.

en *priority natural habitat type*  
es *tipo de hábitat natural prioritario*  
fr *type d'habitat naturel prioritaire*

## lehergai

*Produktuak, materialak*

Egoera jakin batean jartzen denean edo era jakin batean eragiten zaionean, oso denbora laburrean gas-kantitate handia sortzen duen erreakzio exotermikoa izateko gai den substantzia edo substantzia-nahastea.

en *explosive*  
es *explosivo*  
fr *explosif*

## leherkor

*Arriskuak, segurtasuna*

Atmosferako oxigenorik egon ez arren erreakzio exotermiko bat eragin dezakeen (eta, horren ondorioz, gasak emititzen dituen) substantzia edo prestakin solido, likido, oretsu edo likatsua, kondizio jakin batzuetan detonatu edo deflagratu egiten duena eta, toki itxi batean badago eta beroa aplikatuz gero, lehertu egiten dena. Europako Batasuneko 92/32 Zuzentarauaren arabera, substantziak eta hondakinak legez arriskutsuztat jotzeko ezaugarrietako bat da. Leherkorak dira, besteak beste, zenbait gas (hidrogenoa, azetilenoa, propanoa, butanoa, petrolio-gas likidotua) eta era guztietako aerosolak, baita hutsik dauden ontziak ere (orrazkera finkatzeko erabiltzen diren lakak, margoak, bernizak, etab.). Gai leherkorren etiketetan *E* ikurra erabiltzen da.

en *explosive*  
es *explosivo, -a*  
fr *explosif, -ive*

☞ **ekotoxiko; erregarri; infektzioso; kaltegarri; kantzerigeno; korrosibo; mutageno; narritagarri; sukoi; teratogeno; toxiko**

## lehorte

*Atmosfera*

Denbora luzean dirauen ohiz kanpoko prezipitazio-gabezia edo eskasia, ingurumenean ur-defizita eta, hortaz, bizidunen ur-beharrak asetzeko ezintasuna edo arazoak dakartzana.

en *drought*  
es *sequía*  
fr *secheresse*

☞ **natur hondamendi**

## lekune natural

*Ingurumen-politika*

Nolabaiteko ekologia- edo paisaia-balioa izaki, kontserbatzeko edo goera hobetzeko babesa ematen zaion natur gunea. Giza jarduerak onartuta daude bertan, baina egoki antolatuta behar dira gunearen balioak ez andeatzeko. Nafarroako Foru Erkidegoaren 6/1987 Legean agertzen den natur gune babestuen motetako bat da.

es *enclave natural*

☞ **natur gune babestu**

## lignito

*Produktuak, materialak*

Harrikatzen bituminosoaren eta zohikatzen arteko karbono-edukia (% 70 inguru) duen harrikatzen mota, ur eta gai lurrunkor asko dituen (% 40). Karbono-edukiaren arabera, arretik beltzera bitarteko kolorea izan dezake, eta arol edo trinkoak izan daitezke. 10-21 MJ/kg bitarteko berotze-ahalmena du.

en *brown coal; lignite*  
es *lignito*  
fr *lignite*

☞ **harrikatzen**

## liken

*Biosfera*

Onddo baten eta alga baten elkarrekin sinbiotikoaren ondorioz sortutako bizidun konposatua, bi osagaien (onddoaren eta algaren) ezaugarrietatik desberdinak diren ezaugarri fisiologiko eta morfologikoak dituen.

en *lichen*  
es *líquen*  
fr *lichen*

## likido

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Ohiko tenperatura eta presiopean bolumen jakina duen substantzia, forma jakinik ez duena eta edukitzen duen ontziarena hartzen duena. Materiaren egoeretako bat da.

en *liquid*  
es *líquido*  
fr *liquide*  
☞ **gas; solido**

## limnologia

*Ikerkuntza, zientziak*

Ur bildu gezetako (aintzirak, urmaelak, putzuak..) alderdi fisiko, kimiko, hidrológico eta biologikoak aztertzen dituen hidrológiaren adarra.

en *limnology*  
es *limnología*  
fr *limnologie*

## lindano

*Kimika, substantziak, prozesuak*

HCH (1,2,3,4,5,6-hexakloroziklohexano) izeneko molekula organokloratuaren gamma isomeroari % 99 baino gehiagoko purutasuna duenean ematen zaion izena. Hauts zuria da, oso toxikoa, eta intsektizida gisa erabili da.

en *lindane*  
es *lindane*  
fr *lindane*

## lintzura

*Antroposfera (paisaia, geografía)*

Zohikatzen sortzen eta metatzen den tokia, kareharrizko mendietan agertu ohi dena. Maila freatikoa lur azalek gertu dagoen eremu urez ase edo zingiratsua izaten dira, goroldioz estaliak eta tenperatura hotzekoak. Euri-uraz gain, lur azpiko edo isurketako urak jasotzen dituzte, eta, beraz, zohikaztegiak baino aberatsagoak dira; hau da, mantengai mineralen kontzentrazio handiagoa eta landare-konposizio desberdin gehiago izaten dute.

en *fen*  
es *turbera baja*  
fr *tourbière basse*  
☞ **ekosistema; hezegune; zohikaztegi**

## litosfera

*Litosfera*

Lurrazalak eta mantuaren atal zurrinak osatzen duten Lurraren geruza solidoa. Astenosferaren gainean dago. Batez beste 60 km-ko lodiera du, baina ez dago uniformeki banatuta: ozeanoen azpian oso mehea da, 10 km-

ko lodiera baino ez, eta kontinenteen azpian 80 km-rainokoa izan daiteke.

en *lithosphere*  
es *litosfera*  
fr *lithosphère*

## lixibiatu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Lixibiazio-prozesuaren ondorioz isurtzen den likidoa, zeharkatu dituen materialen araberako konposizioa duena. Hondakin, ongarri edo pestiziden lixibiatuek azaleko edo lurpeko uren poluitzaile izan daitezke.

en *leachate*  
es *lixiviado*  
fr *eaux de lessivage; lixiviat*

👉 **lixibiazio**

## lixibiatuak biltzeko sistema

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakinak tratatzeko instalazioetan sortzen diren lixibiatuak ponpatuz edo grabitatearen bidez drainatuz biltzen eta garraiatzen dituen sistema.

en *leachate collection system*  
es *sistema de recogida de lixiviados*  
fr *système de collecte des lixiviats*

👉 **lixibiatuen tratamendu**

## lixibiatuen tratamendu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakindegietan, lixibiatuek dakarten poluzio-arriskua gutxitzeko egiten diren prozesuen multzoa.

en *leachate treatment*  
es *tratamiento de lixiviados*  
fr *traitement des eaux de lessivage*

## lixibiazio

### 1

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Lurzoruan beheerantz iragazten den urak substantzia disolbagarriak berekin eramatea, eta, ondorioz, lurzoruaren goialdeko geruzak degradatzea.

en *leaching; lixiviation*  
es *lixiviación*  
fr *lessivage; lixiviation*

### 2

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Kimika, substantziak, prozesuak*

Hondakin-multzo batean dauden osagai likidoak edo erori den euri-ura beheerantz iragaztea eta berekin substantzia disolbagarriak eramatea. Garrantzi handiko gertakaria da hondakindegietan, hondakinetan dauden substantzia arriskutsuak lurzorura iragan daitezkeelako.

en *leaching; lixiviation*  
es *lixiviación*  
fr *lessivage; lixiviation*

### 3

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Kimika, substantziak, prozesuak*

Nahaste solido batean zehar igarotzen den disolbatzaile batek subs-

tantzia disolbagarriak erazte. Hondakin-uren arazketako lohietan dauden zenbait konposatu (amnio-konposatuak bereziki) erazteko erabili ohi da.

en *leaching; lixiviation*  
es *lixiviación*  
fr *lessivage; lixiviation*

## lohi

### 1

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakinen zenbait tratamenduren emaitza den lohi-antzeko gai lodi eta urduna.

en *sludge*  
es *fango; lodo*  
fr *boue*

👉 **hondakin-uren arazketa**

### 2 SIN: basa; lokatz

*Litosfera*

Urez eta lurrez osatutako nahaste lodia.

en *mud*  
es *barro; cieno; fango; lodo*  
fr *boue; vase*

👉 **arazketako lohi; hondakin-uren arazketa; lohi aktibatu; lohi digeritu; lohi gordinak; lohi primarioak; lohi sekundarioak; lohien tratamendu**

## lohi aktibatu

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin-urak bakterio aerobio ugari dituen lohiarekin nahasi eta irabiatuz aireztatzean sortzen den lohi-antzeko gai malutatu eta biologiko-ki aktiboa. Uretako materia organikoaren degradazioa azkartzen du.

en *activated sludge; active sludge*  
es *lodo activado; lodo activo*  
fr *boue activée*

👉 **lohi aktibatuen bidezko tratamendu; lohi digeritu**

## lohi aktibatuen bidezko tratamendu

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren tratamendu biologikoan, hondakin-uren eta lohi aktibatuen nahastea irabiatzeko eta aireztatzeko prozesua. Ondoren, lohi aktibatua jalki eta bereizi egiten da hondakin-ur araztutik, behar izanez gero prozesuan berriz ere erabili ahal izateko.

en *activated sludge treatment*  
es *tratamiento de lodos activados*  
fr *traitement par boues activées*

👉 **hondakin-uren arazketa; nahaste-likido**

## lohi digeritu

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin-uren arazketako lohien tratamenduan, digestioaren emaitza den lohi egonkorta eta geldoa, substantzia lurrunkor, ustelkor edo kaltegarririk gabeta.

en *digested sludge*

es *lodo digerido*  
fr *boue digérée*  
👉 **lohi aktibatu**

## lohi gordinak

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Dekantazio-tangatik, lehenengo zein bigarrenetik, bereizi berri diren lohi tratatugabeak.

en *raw sludge; undigested sludge*  
es *lodos frescos; lodos no estabilizados*  
fr *boues brutes; boues fraîches*

👉 **lohi primarioak; lohi sekundarioak**

## lohi primarioak

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Lehen dekantazio-tangatik bereizitako lohi gordinak.

en *primary sludge*  
es *lodos primarios*  
fr *boues primaires*

👉 **lohi gordinak; lohi sekundarioak**

## lohi sekundarioak

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Bigarren dekantazio-tangatik bereizitako lohi gordinak.

en *secondary sludge*  
es *lodos secundarios*  
fr *boues secondaires*

👉 **lohi gordinak; lohi primarioak**

## lohiak loditzeko tanga

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Lohiak flotazioz edo grabitatez loditzeko erabiltzen den tanga.

en *sludge thickener*  
es *espesador de lodos*  
fr *épaisseur des boues*

👉 **hondakin-uren arazketa; lohien tratamendu**

## lohiak tratatzeko instalazio

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Hondakin-uren arazketan erabiltzen diren lohien tratamendua egiteko instalazio-multzoa.

en *sludge treatment plant*  
es *planta de tratamiento de fangos*  
fr *centre de traitement de boues*

👉 **lohien tratamendu**

## lohi-digestore

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren arazketan sortzen diren lohien digestio anaerobioa egiteko erabiltzen den tanga itxia. Lohiak (deshidratatu beharrekoak), metanoa eta karbono dioxidoa dira emaitzak.

en *sludge digester; sludge digestion chamber; sludge digestion compartment; sludge digestion tank*

es *digestor de lodos*  
fr *chambre de digestion des boues; digesteur des boues*

👉 **lohien tratamendu**

## lohien birziklatze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Jalkitze-tangan dekantazioz bereizitako lohiak aurreko arazte-urrats batera (aireztatze-tangara) itzularaztea. Lohi aktibatuek mikroorganismo ugari dituzte, eta gai organikoaren degradazioa azkartzen dute.

en *sludge return*  
es *recirculación de fangos*  
fr *récirculation des boues*

👉 **lohien tratamendu**

## lohien deshidratazio

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Lohien ur-edukia lohiak idortegietan zabalduz, zentrifugatuz edo iragaziz (xingola- edo prentsa-iragazkia erabiliz) gutxitzea.

en *sludge dehydration; sludge dewatering*  
es *deshidratación de lodos*  
fr *déshydratation des boues*

👉 **lohien tratamendu**

## lohien digestio

SIN: egonkortze; lohien egonkortze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin-uren arazketan sortzen den materia organikoa (lohietan metatzen dena) bakterio eta beste mikroorganismo batzuen bidez degradatu eta egonkortzea.

en *sludge digestion; sludge stabilization; stabilization*  
es *digestión de fangos; digestión de lodos; estabilización; estabilización de fangos*  
fr *digestion des boues; stabilisation*

👉 **lohien tratamendu**

## lohien egonkortze

➔ **lohien digestio**

## lohien idortegi

➔ **lohi-idortegi**

## lohien loditze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Lohien ur-edukia flotazioz edo grabitatez gutxitzea.

en *sludge concentration; sludge thickening; thickening of sludge*  
es *espesamiento de lodos*  
fr *épaississement des boues*

👉 **lohien tratamendu**

## lohien tratamendu

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren arazketan sortzen diren lohien bolumena gutxitzeko, duten poluzio-arriskua deuseztatu edo txikiagotzeko eta baliarazi edo ingurumenean isuri ahal izateko egiten diren prozesuen multzoa. Prozesuok lohien loditzea, digestioa eta deshidratazioa dira. Ondoren, batzuk nekazaritzan (ongarritzat) edo industrian (erregaitzat) edo konposta egiteko erabil daitezke; bestela, bota edo erraustu egiten dira. Lohien digestioaren azpi-produktua metanoa da.

en *sludge treatment*  
es *tratamiento de lodos*  
fr *traitement des boues*

☞ **hondakin-uren arazketa; lohi-digestore; lohi-errauskailu; lohi-idortegi; lohi-opil; lohiak loditzeko tanga; lohiak tratatzeko instalazio**

## lohi-errauskailu

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uretako lohien tratamenduan, lohi deshidratatuak errausteko erabiltzen den labea.

en *sludge incinerator*  
es *incinerador de fangos*  
fr *incinérateur à boues*

☞ **errauskailu; errausketa; lohien tratamendu**

## lohi-idortegi

SIN: lohien idortegi

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-uren arazketako lohien tratamenduan, lohi digerituak deshidratatzeko erabiltzen den sakonera txikiko urmael-moduko instalazioa, hondoan harea edo beste material porotsu bat izaten duena. Lohiak harearen gainean zabaldu eta, drainatze eta lurrunketa bidez, deshidratatu egiten dira.

en *sludge drying bed*  
es *era de secado de lodos; lecho de secado de lodos*  
fr *lit de séchage des boues*

☞ **lohien tratamendu**

## lohi-opil

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Behar adina deshidratatu diren lohiak prentsatzuz prestatzen den produktua.

en *sludge cake*  
es *torta de fangos*  
fr *gâteau de boues*

☞ **lohien tratamendu**

## lokatz

➔ **lohi**

## luizi

SIN: lur-jausi

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Grabitatearen eraginez lurra edota harriak maldan behera higitzea. Eskuarki, lurra asko hartu duenean gertatzen da, lurzorua zizaila-pla-

noan zeharreko marruskadura txikiagotu egiten delako, baina materialak zerbaiten eraginez haustean edo trinkotasuna galtzean ere gerta daiteke. Eragileak naturalak izan daitezke (euriteak, elurra urtzea, lurrikarak..) edo gizakiaren jarduera (landaredia kentzea, lur-mugimenduen ondoriozko erliebe-aldaketak..).

en *fall down; landslide; landslip; slide; sliding*  
es *corrimiento; corrimiento de tierra; derrumbe; desprendimiento de tierra*  
fr *déplacement; éboulement; éboulement de terrain*

## lur gaineko meatzaritza

➔ **atari zabaleko meatzaritza**

## lur gaineko ur

➔ **azaleko ur**

## lur-estalki

SIN: mulch

*Produktuak, materialak*

Hezetasuna atxikitzeko, belar gaiztoak ez hazteko, izotz, euri edo txingoraren kontra babesteko eta abarretarako, landareak hazten diren lurraren gainean, bereziki mintegietan, zabaltzen den materiala, hala nola orbela, lastoa, zerrautsa, papera, etab.

en *mulch*  
es *cubierta humidificadora; mulch; pajote*  
fr *mulch; paillis*

## lur-jausi

➔ **luizi**

## lur-mugimendu

➔ **lur-mugitze**

## lur-mugitze

SIN: lur-mugimendu

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Herri-lanetan egiten diren lur-erazketak, lurra berdintzeak, indusketak eta betelanak.

en *earthwork*  
es *movimiento de tierras*  
fr *terrasement*

## lurpeko gasifikazio

SIN: in situ gasifikazio

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Harrikatza hobian bertan gasifikatzea. Harrikatza erauztea ekonomikoki errentagarri ez diren hobiak (sakonera handiegian daudelako edo harrikatza gutxi dutelako) ustiatzeko bidea da. Putzu batetik oxigenoa eta ur-lurruna presio handian injektatzen da harrikatza erretzeko eta handik gertu egindako beste putzu batetik gasak erauzten dira. Bero-ahalmen txikiko gasa lortzen da; ondoren, metano edukia handitzeko, tratatu egiten da, gas naturalaren antzeko ezaugarriak izan ditzan.

en *in situ gasification; underground coal gasification; underground gasification*  
es *gasificación in situ; gasificación subterránea*  
fr *gazéification souterraine*  
☞ **harrikatza gasifikazio**

## lurpeko meatzaritza

Lurrean zulaturak putzuen eta lurpeko bestelako baliabideen meatzaritza.

en *deep mining; underground mining*

es *minería subterránea*

fr *exploitation minière souterraine*

☞ **atari zabaleko meatzaritza; meatzaritza**

## lurpeko ur

### Hidrosfera

Lurpera harri iragazkorretan barrena sartzen den ura, harrien arrakala eta poroak betetzen dituen eta geruza iragaztezina jotzean metatzen dena edo horren gainetik dabilena. Eskuarki, akuiferoak osatzen ditu eta iturri eta putzuak sortzen.

en *ground water; subterranean water; underground water*

es *agua subterránea*

fr *eau souterraine*

☞ **akuifero; hidrosfera; maila piezometriko; perkolazio**

## lurpeko uren kutsadura

➔ **lurpeko uren poluzio**

## lurpeko uren poluzio

SIN: lurpeko uren kutsadura

### Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura

Lurzoruan barrena sartutako gai poluitzaileek lurpeko uretan eragindako poluzioa. Substantzia poluitzaile horien artean daude, besteak beste, konposatu ez-organikoak (kloruroak, nitratoak, metal astunak...), konposatu organiko sintetikoak (pestizidak, ongarriak, etab.) eta organismo patogeneoak (bakterioak, birusak, protozooak, etab.).

en *groundwater pollution*

es *contaminación de aguas subterráneas*

fr *pollution des eaux souterraines*

☞ **lixibiazio; lurpeko ur**

## lurralde-antolamendu

### Ingurumen-politika

Lurralde jakin baten garapen demografiko, ekonomiko eta hirigintza-koa lurraldearen egituraren ezaugarriekin, han bizi diren biztanleen ongizatearekin eta ingurumen- eta kultur ondarearen kontserbazioarekin uztartzeaz arduratzen den jakintza-alorra eta horretarako zehazten den plangintza.

en *land use planning; physical management; town and country planning*

es *ordenación del territorio*

fr *aménagement du territoire*

## Lurraren Adiskideak

### Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza

Natura eta ingurumena babesteko gobernu kanpoko erakundeak.

en *Friends of the Earth*

es *Amigos de la Tierra*

fr *Les amis de la Terre*

## Lurraren berotze

➔ **berotze global**

## Lurraren Eguna

### Informazioa, bezkuntza, kultura, ingurumen-sentsibilizazioa

Lurraren edertasuna ospatzeko eta Lurraren kalitatea kontserbatu eta hobetzeko dugun erantzukizuna gogora ekartzeko eguna, urtero udaberriko ekinozioaren egunean, martxoaren 20an edo 21ean, egiten dena. Egun hori sinbolismoagatik hautatu zen: ekinozioan egunak eta gauak berdin irauten dute, eta horrek, nolabait, naturaren harmonia eta oreka gogorarazten dizkigu. Gainera, udaberriaren hasiera da (Ipar hemisferioan), biziaren ziklo berriaren hasiera. John McConnell estatubatuarrek 1969an Lurraren Eguna ospatzea proposatu zuen, eta San Francisco hirian lehen aldiz ospatu zen 1970ean. Hurrengo urtean, 1971n, Nazio Batuen Erakundeak ofizialki aldarrikatu zuen.

🚩 **Lurraren Eguna** apirilaren 22an ere ospatzen da. Gaylord Nelson Estatu Batuetako senatoreak bultzatuta, 1970ean ospatu zen lehen aldiz, ingurumenaren aldeko sentsibilizazio-egun gisa ([earthday.envirolink.org/history.html](http://earthday.envirolink.org/history.html)); geroztik, egun horretan eta egun horren ingurukoetan hainbat ekitaldi antolatu ohi dira mundu osoan.

en *Earth Day*

es *Día de la Tierra*

fr *Journée de la Terre*

## Lurraren Gailurra

➔ **Nazio Batuen Ingurumen eta Garapenari buruzko Konferentzia**

## lurrazal

### Litosfera

Lurraren kanpoko geruza, mantuaren gainekoa. Lodiera aldakorrekoa da, kontinenteetan (35-40 km) ozeanoen azpian (5-10 km) baino lodiagoa baita. Bi geruzaz osatuta dago, eta haien gainean sedimentazio-gainaldea dago: siala (granitikoa) eta sima (basaltikoa). Siala lurrazal kontinentalean dago bakarrik.

en *crust; crust of the earth; earth's crust*

es *corteza; corteza terrestre*

fr *croûte; croûte terrestre; écorce terrestre*

## lurrikara

SIN: seismo

### Litosfera

Lurrazalaren higadura edo astinaldi bortitza, barneko puntu batean (*hipozentroan*) gertatutako perturbazio baten ondoriozko uhinen hedapenek eragindakoa. Hipozentroari lurraren azalean dagokion puntua *epizentroa* da. Lurrikaren indarra zenbait eskalaren arabera neurtu ohi da (Mercalliren edo Richterren eskalak, adib.).

en *earthquake; seism*

es *movimiento sísmico; seismo; sismo; terremoto*

fr *séisme; tremblement de terre*

☞ **natur hondamendi**

## lurrun-eduki

➔ **hezetasun espezifikoa**

## lurrun-kontzentrazio

➔ **hezetasun absolutu**

## lurrunkor

Kimika, substantziak, prozesuak

Giro-tenperaturan erraz lurruntzen den substantzia, irakin-puntu baxua, sublimazio-tenperatura baxua edo lurren-presio handia duelako. Substantzia lurrunkorrak, oro har, disolbatzaileak edo diluitzaile organikoak izaten dira, eta hiru talde nagusitan banatzen dira: toluenoa, azetona, nafta, hexanoa, ziklohexanoa, azetato alifatikoak eta bentzenoa; aerosoletako substantzia propulsaileak (difluorodiklorometanoa); eta anestesia gisa erabiltzen diren substantziak (etera, kloroformoa, oxido nitrosoa eta antze-ko gasak).

en *volatil; volatile*  
es *volátil*  
fr *volatil, -ile; volatile*

## lurzoru

*Litosfera*

Lurraren gainazala osatzen duen geruza, tokitik tokira oso sakonera eta konposizio desberdina izan dezakeena eta gai mineral, gai organikoz, ur-disoluzioz, gazez (nagusiki, airea) eta izaki bizidunaz osatua. Lurzorua landareen euskarria da.

en *soil*  
es *suelo*  
fr *sol*

☞ **lurzoru poluitu; poluzio**

## lurzoru kutsatuen berreskurapen

☞ **lurzoru poluituen berreskurapen**

## lurzoru poluitu

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Litosfera*

Izan duen erabileratik edo bertara substantziak bota direlako, berez behar lukeen baino poluitzaile-kontzentrazio handiagoa duen lurzorua, eta, ondorioz, ezin erabil daitekeena edo pertsonentzat eta ekosistemarentzat arriskugarria dena.

en *contaminated soil; polluted soil*  
es *suelo contaminado*  
fr *sol pollué*

☞ **lindano; lurzoru poluituen berreskurapen; lurzoruaren deskontaminazio**

## lurzoru poluituen berreskurapen

SIN: lurzoru kutsatuen berreskurapen

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ingurumen-politika*

Lurzoru poluitua eginkizun jakin baterako berriz erabili ahal izateko prestatzea. Horretarako biderik erabilienak poluzioa ezabatzea (poluitzaileak kenduz, deuseztatuz edo maila onargarri bateraino gutxituz) eta segurtasun-neurriak dira (arriskua desagerraraziz edo maila jakin bateraino murriztuz; adibidez, segurtasun-biltegiak erabiliz lurzoruaren dauden hondakin arriskutsu eta toxikoak metatzeko).

en *reclamation of contaminated soil; soil reclamation*  
es *recuperación de suelos contaminados*  
fr *réhabilitation des sols*

☞ **lurzoru poluitu**

## lurzorua babeste

☞ **lurzoruaren babes**

## lurzorua hobetze

☞ **lurzoruaren hobekuntza**

## lurzoruaren babes

SIN: lurzorua babeste; lurzoruaren kontserbazio

*Ingurumen-politika*

Lurzorua berezko ezaugarriak gal ez ditzen neurriak hartzea, hau da, higadura, gehiegizko ustiatzea edo poluzioa eragozteak.

en *soil conservation; soil protection*  
es *conservación del suelo; protección del suelo*  
fr *conservation du sol*

## lurzoruaren degradazio

☞ **lurzoruaren narriadura**

## lurzoruaren deskontaminazio

*Ingurumen-politika*

Lurzoruan dauden substantzia poluitzaileak osorik edo partez kentzea edo deuseztatzea. Oro har, teknika hauek erabiltzen dira: erauzketa, tratamendu kimikoak, tratamendu elektrokimikoak, tratamendu termikoak eta tratamendu mikrobiologikoak.

en *soil decontamination*  
es *descontaminación del suelo*  
fr *décontamination du sol*

☞ **lurzoru poluitu**

## lurzoruaren hezetasun

*Litosfera*

Azal freatikoa gainetik dagoen lurzoru-zatiaren ur-edukia, dela ur likidua dela ur-lurrina.

en *soil moisture*  
es *humedad del suelo*  
fr *humidité du sol*

## lurzoruaren hobekuntza

SIN: lurzorua hobetze

*Ingurumen-politika*

Ezaugarri fisiko, kimiko eta biologikoak hobetzeko neurriak ezarriz, lurzoruaren emankortasuna eta baliagarritasuna handitzea.

en *soil amendment; soil improvement*  
es *mejora del suelo*  
fr *amélioration du sol; amendement du sol*

## lurzoruaren kalitate

*Ingurumen-politika*

Lurzoruaren ezaugarrien ebaluazioa. Funtsean, dagokion erabilera eta funtziorako egokia den eta degradazio- zein poluzio-eragileei aurre egiteko duen gaitasuna aztertzen da. Lurzoruaren kalitatea jardura ekonomiko berrien kokalekua aukeratzeko hartu behar da kontuan.

en *soil quality*  
es *calidad del suelo*  
fr *qualité du sol*  
☞ **airearen kalitate; uraren kalitate**

## lurzoruaren kalitate-estandarrak

*Ingurumen-politika*

Lurzoruaren substantzia poluitzaileentzat (kadmioa, zianuroa, beruna, artsenikoa, merkurioa, PCBak, etab.) onartzen diren gehienezko kontzentrazio-mailak. Kalitate-estandarrak gainditzea poluzioaren adierazgarria da, eta zuzentze-neurriak hartzera behartzen du.

en *quality standards of soil*  
es *estándares de calidad del suelo*  
fr *normes de qualité du sol*

☞ **lurzoru poluitu**

## **lurzoruaren kontserbazio**

☞ **lurzoruaren babes**

## **lurzoruaren kutsadura**

☞ **lurzoruaren poluzio**

## **lurzoruaren narriadura**

SIN: lurzoruaren degradazio

*Efektuak, eraginak*

Lurzoruak higaduraren edo bertan egiten diren jardueren ondorioz berezko ezaugarri fisiko, kimiko edo biologikoak galtzea, eta, ondorioz, haren egitura hondatzea edo emankortasuna galtzea eta pobretzea.

en *soil degradation; soil deterioration*  
es *degradación del suelo*  
fr *degradation du sol*

## **lurzoruaren poluzio**

SIN: lurzoruaren kutsadura

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Lurzoruan zenbait gai edo mikroorganismo egoteak sortzen duen poluzioa.

en *land pollution; soil pollution*  
es *contaminación del suelo*  
fr *pollution du sol*

☞ **industria; lurzoru poluitu; poluzio**

## **lurzoruaren profil**

☞ **lurzoru-profil**

## **lurzoruaren zientzia**

☞ **edafologia**

## **lurzoru-profil**

SIN: lurzoruaren profil

*Litosfera*

Lurzoruaren ebakidura bertikalak agerian uzten duen horizonte edo geruzen antolaera.

en *soil profile*  
es *perfil del suelo; perfil edáfico*  
fr *profil du sol; profil pédologique*

☞ **lurzoru**

## **MAB programa**

☞ **Gizakia eta Biosfera Programa**

## **mahats-lapa**

☞ **mahats-pats**

## **mahats-pats**

SIN: mahats-lapa; mahats-zapakin

*Produktuak, materialak*

Mahatsa tolarean zapaldu ondoren gelditzen den hondarra. Edari bizia egiteko distilatu ohi da. Ongarritarako eta abereak bazkatzeko ere erabil daiteke.

en *marc of grapes; pomace*  
es *bagazo de la uva; brisa; orujo de la uva*  
fr *marc de raisin*

## **mahats-zapakin**

☞ **mahats-pats**

## **maila freatiko**

SIN: azal freatiko

*Hidrosfera*

Lurpeko urez ase den harrizko geruzaren goiko muga aldakorra. Muga hori luraren azala denean, ur-begiak sortzen dira.

en *ground water level; phreatic surface; water table*  
es *nivel freático; superficie freática*  
fr *niveau phréatique; surface phréatique*

## **maila piezometriko**

*Hidrosfera*

Lurpeko urak putzu edo iturri batean duen maila.

en *ground water level; piezometric level; piezometric surface; well watertable*  
es *nivel piezométrico*  
fr *niveau piézométrique*

## **maila trofiko**

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Elikatze-sarean organismoek janaria lortzeko duten moduaren arabera bereiz daitezkeen mailetako bakoitza: ekoizleak (autotrofoak), kontsumitzaileak (heterotrofoak) eta azpimailak.

en *trophic level*  
es *nivel trófico*  
fr *niveau trophique*

☞ **elikatze-sare**

## **maluta**

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Likido batean esekiak dauden partikulak, eskuarki likidoari gehitzen zaion substantzia baten eraginez, elkarri atxikitzean eratzen duten tamaina handiagoko multzoa, errazago jalkitzen dena.

en *floc*  
es *flóculo*  
fr *floc; flocon*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## **malutapen**

*Kimika, substantziak, prozesuak*



Eransten den substantzia baten eraginez likido bateko partikula esekiak elkarri atxikiz malutak osatzea. Malutak, gero, jalkiz edo iragaziz bereiz daitezke likidotik. Hondakin-uren arazketan erabiltzen da.

en *flocculation*  
es *floculación*  
fr *floculation*

👉 **hondakin-uren arazketa**

## malutatzaile

*Kimika, substantziak, prozesuak / Produktuak, materialak*

Partikula esekiak dituen likido bati erantsita, partikulok elkarrengana bilarazten dituen substantzia. Ondorioz, errazago jalkitzen diren malutak erazten dira. Gehienetan, polimero organikoa izaten da.

en *flocculant; flocculating agent; flocculation agent*  
es *agente de floculación; floculante*  
fr *agent de floculation*

👉 **hondakin-uren arazketa**

## manganeso

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 25 duen elementu kimikoa (Mn). Metal astun eta gogorra da, kolorez gris argia. Naturan oxido-forman dago, nagusiki.

en *manganese*  
es *manganeso*  
fr *manganèse*

## mantenugai

SIN: nutriente

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Elikagaietan dauden eta bizidunen metabolismoan parte hartzen duten konposatu organiko eta ez-organikoetako bakoitza. Honela sailkatu ohi dira: gluzidoak, lipidoak, proteinak, bitaminak, gatz mineralak eta metabolizatzen diren bestelako konposatu organikoak.

🚫 Landareek inguruntetik hartzen dituzten gaiei dagokienez (nitratoak, adibidez), *landare-elikagai* edo *elikagai* terminoak *mantenugai* terminoaren sinonimoak dira.

en *nutrient*  
es *nutriente*  
fr *nutriment*

👉 **oligoelementu**

## mantenugai-kentze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Uraren eta hondakin-uren arazketan, mantenugaiak, bereziki nitrogeno- eta fosforo-konposatuak, kentzeko eragiketa-multzoa. Hondakin-uren arazketan, hirugarren tratamenduan egiten den prozesua da.

en *nutrient removal*  
es *eliminación de nutrientes*  
fr *élimination des nutriments*

👉 **hondakin-uren arazketa; uraren arazketa**

## marea

SIN: itsasaldi

## Hidrosfera

Itsasoa aldizka igo eta jaitea, Eguzkiaren, Ilargiaren eta Lurraren baterako grabitate-eraginaren ondorioz.

en *tide*  
es *marea*  
fr *marée*

## marea beltz

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Petrolio-itsasontzietatik edo petrolio ateratzeko instalazioetatik istripuz edo berariaz isuritako petrolio-kantitate handia itsas gainean zabaltzean eta, bereziki, kostaldera heldzean sortzen duen poluzio larria, ekosistema askoren hondamendia ekar dezakeena.

en *black tide*  
es *marea negra*  
fr *marée noire*

👉 **petrolio-geruza**

## marea gorri

*Efektuak, eraginak / Hidrosfera*

Fitoplanktonaren -bereziki, dinoflagelatu- bat-bateko eta gehiegizko ugalketa, itsasoko uraren azalaren kolore-aldaketa eragiten duena.

en *red tide*  
es *marea roja*  
fr *marée rouge*

👉 **eutrofizazio**

## marea-energia

*Energia*

Mareek eragindako ur-higiduraz baliatuz lortutako energia.

en *ocean tidal power; tidal energy; tidal power; tidal-range energy*  
es *energía de las mareas; energía maremotriz; energía mareomotriz*  
fr *énergie des marées; énergie marémotrice*

👉 **itsas energia**

## marea-energiako zentral

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Energia elektrikoa lortzeko, mareak eragindako ur-higidura darabilen zentral hidroelektrikoa. Itsasgora denean, ura urtegi-moduko batean atxikitzen da, eta, itsasbehera denean, askatu. Urak turbinei eragiten die (bai ura erortzean, bai itsasgora delarik igotzean) eta turbinek sorgailu elektrikoa birarazten dute.

en *tidal power station*  
es *central maremotriz; central mareomotriz*  
fr *centrale marémotrice; usine marémotrice*

👉 **marea-energia**

## marearteko zona

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Itsasgora eta itsasbehera bizien artean dagoen itsasbazerreko zerrenda. Ekosistema berezia izaten dute, kondizio fisikoak oso aldakorak direlako.

en *intertidal zone*  
es *zona entre mareas; zona intermareal; zona intertidal*

fr *zone intercotidale; zone intertidale*

## margo

↳ **pintura**

## masa-balantze

↳ **materia-balantze**

## materia organiko

SIN: gai organikoak

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Izaki bizidunen egitura eta ehunetatik datozen edo haien metabolis-  
moaren emaitza diren substantzia organikoen multzoa. Inguruneko mikro-  
organismoek deskonposa ditzakete, baina ahalmen poluitzailea dutenean  
(kontzentrazioaren arabera) tratamendu biologiko berezia behar dute. Gai  
organikoen aparteko bilketa beharrezkoa da, konpost egiteko erabili nahi  
badira.

en *organic material; organic matter*

es *materia orgánica*

fr *matière organique*

↳ **hondakin-uren arazketa; konpost**

## materia-balantze

SIN: masa-balantze

*Ikerkuntza, zientziak*

Sistema batera (hala nola ibai batera, aintzira batera edo hondakin-  
uren araztegi batera) sartzen eta handik irteten den substantzia baten kanti-  
tateen arteko erlazioa. Delako substantziak sisteman jasaten duen prozesua  
(sorrera edo deskonposizioa) adierazten du.

en *mass balance; material balance; materials balance*

es *balance de materia*

fr *bilan massique; bilan matière*

## material birziklatu

↳ **gai birziklatu**

### mea

#### 1

*Produktuak, materialak*

Metal bat lortzeko baliagarri den minerala.

en *ore; ore mineral*

es *mena*

fr *minerai*

#### 2

*Produktuak, materialak*

Mineral erabilgarria ustiatzeko behar den adinako kantitatean duen  
zain-atala.

en *ore*

es *mena*

fr *minerai*

↳ **arroka antzu; ganga**

## meategi

SIN: meatoki; meatze

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Mineral erabilgarriak ateratzen diren toki eta instalazioa, lur gainekoa  
(atari zabalekoa) zein induskatua (lurpekoa).

en *mine*

es *mina*

fr *mine*

↳ **atari zabaleko meatzaritza; lurpeko meatzaritza**

## meategiko hondakin

SIN: meatzaritzako hondakin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Meatzaritzan mea erauzteko lanetan sortzen den hondakina, arroka  
antzuz eta baztertzan den gangaz osatua.

en *mining waste; tailings*

es *estériles; residuo minero*

fr *déchet minier; stériles*

↳ **meatzaritza**

## meategiko hondakindegia

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Meategiko lanen hondakinak, bereziki mea erauzteko lanetan sortu-  
takoak, pilatzen diren tokia. Arroka antzuz eta meatik bereizitako gangaz  
osatuak dira, nagusiki.

en *mine dump; mine tip*

es *escombrera; escombrera de mina; terrero*

fr *terril*

↳ **meategiko hondakinaren presa; meatzaritza**

## meategiko hondakinaren presa

SIN: meatzaritzako hondakinaren presa

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Meatzaritza-lanetan sortzen diren hondakinak pilatzen diren presa-  
antzeko egitura.

en *tailings dam*

es *presa de estériles*

fr *barrage de stériles miniers; digue à stériles*

↳ **meatzaritza**

## meatoki

SIN: meategi; meatze

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Mineral erabilgarriak ateratzen diren toki eta instalazioa, lur gainekoa  
(atari zabalekoa) zein induskatua (lurpekoa).

en *mine*

es *mina*

fr *mine*

↳ **atari zabaleko meatzaritza; lurpeko meatzaritza**

## meatzaritza

*Baliabideak*

Lurretik mea erauzteko jarduera. Erauzteko lan hutsez gain, esplora-  
zio- eta bereizte-lanak ere meatzaritzaren alorrekoak dira. Oro har, bi mota-  
takoak izan daitezke: lurpekoa eta atari zabalekoa.

en *mining*  
es *minería*  
fr *minière; profession minière*

☞ **atari zabaleko meatzaritza; harrobi; lurpeko meatzaritza**

## meatzaritzako hondakin

☞ **meategiko hondakin**

## meatzaritzako hondakinen presa

☞ **meategiko hondakinen presa**

## meatze

☞ **meategi**

## merkaptano

SIN: tiol

*Kimika, substantziak, prozesuak*

-SH talde funtzionala duten konposatu organikoetako bakoitza. Usain txar bortitza dute bereizgarri. Kontsumo-gasei eranstean zaizkie, usainaren bidez ihesei antzemateko.

en *mercaptan*  
es *mercaptano*  
fr *mercaptan*

## merkurio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 80 duen elementu kimikoa (Hg). Metal zuria da, distiratsua eta giro-tenperaturan likidoa eta lurrunkorra. Naturan sulfuro-eran (zinabrioa) dago nagusiki. Industria elektrikoan erabiltzen da gehien eta, ondoren, kloroa eta soda kaustikoa lortzeko prozesu elektrolitikoetan. Merkurioa eta haren konposatuak oso toxikoak dira oro har, baina merkurio-lurruna eta konposatu organikoak (metil merkurioa bereziki) dira arriskutsuenak. Besteak beste, nerbio-sistema zentralean eta giltzurrunean asaldura larriak eragiten dituzte, hilgarri izateraino, eta enbrioian malformazioak sorraz ditzakete.

en *mercury*  
es *mercurio*  
fr *mercure*

☞ **itsaso; botoi-pila**

## metagailu

SIN: elementu sekundario; pila sekundario

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Energia elektrikoa energia kimiko bihurtzeko, eta alderantziz, gai den pila elektrokimikoa. Erreakzioak ia guztiz itzulgarriak dira. Erreakzioa bukatzean, deskargatu egiten da, eta kontrako noranzkoa duen korrontea iragararaziz karga daiteke berriro.

en *accumulator; secondary battery; secondary cell; storage battery; storage cell*  
es *acumulador; elemento secundario; pila secundaria*  
fr *accumulateur; élément secondaire*

☞ **pila elektrokimiko; pila primario**

## metakako konpostaje

SIN: pilokako konpostaje

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Konposta egiteko hondakinak metatan antolatzen diren atari zabaleko teknika. Prozesu aerobioa bermatzeko, ezinbestekoa da nahastea aireztatzea (iraulketa, aireztapen behartua edo horien bien konbinazioa). Hezetasuna ere kontrolpean eduki behar da.

en *heap composting; pile composting; windrow composting*  
es *compostaje en pilas*  
fr *compostage en andain; compostage en tas*

☞ **konpostaje**

## metal astun

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Pisu atomiko eta dentsitate handiko (> 5 g/cm<sup>3</sup>) metala. Adibidez, merkurioa, beruna, kromoa, kadmioa, zinka, nikela, kobrea, etab.

en *heavy metal*  
es *metal pesado*  
fr *métal lourd*

☞ **mikropoluitzaile**

## metalimnion

☞ **termoklina**

## metanal

☞ **formaldehido**

## metano

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Hidrokarburo ase (CH<sub>4</sub>). Gas kolge eta usaingabea da, sukoia eta airea baino arinagoa. Airearekin, nahaste leherkorak eratzen ditu. Materia organikoaren deskonposizio anaerobioaren emaitza da. Gas naturalaren osagai nagusia da, eta naturan urmael eta ikatz-meatzetan ere sortzen da. Hondakindegietan (biogasaren osagaia da) eta hondakin-uren arazketako lohien digestioan ere eratzen da, eta, batez ere, erregaitzat eta konposatu kimikoen sintesian lehengai gisa erabiltzen da. Metanoaren berotze-ahalmena 55,55 MJ/kg-koa da.

en *methane*  
es *metano*  
fr *méthane*

☞ **biogas; gas natural; harrikatzaren gasifikazio**

## metatze-efektu

*Efektuak, eraginak*

Eragilearen jarduera denboran luzatzean gero eta larriagoa den ingurumen-efektua, eragilea gehituz doala, hura ezabatzeko edo aurre egiteko mekanismo eraginkorrik ez delako.

en *cumulative effect*  
es *efecto acumulativo*  
fr *effet cumulatif*

☞ **ingurumen-efektu**

## meteorizazio

*Litosfera*

Lurrazalaren gaineko edo lurrazaletik hurbil dauden harriak agente fisiko-kimikoen eraginez haustea edo deskonposatzea. Denudazioaren lehenengo fasea da.

en *weathering*  
es *meteorización*  
fr *altération météorique; météorisation*

☞ **denudazio**

## mikroklima

*Atmosfera*

Eskualde edo habitat txiki bateko klima, inguruko eskualdeetako klimatik bereizten duten zenbait parametro ezaugarri dituena, dela natura-faktoreen eraginez dela horien eta gizakiaren esku-hartzearen konbinazioaren ondorioz sortuak.

en *microclimate*  
es *microclima*  
fr *microclimat*

## mikromantenugai

☞ **oligoelementu**

## mikroorganismo

*Biosfera*

Mikroskopioz soilik ikus daitezkeen izaki biziduna (birusak, bakterioak, protozoak, etab.).

en *microorganism*  
es *microorganismo*  
fr *microorganisme*

## mikropoluitzaile

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Oso kontzentrazio txikian ere eragin poluitzailea duen substantzia. Ez dira degradaerazak izaten, eta elikatze-sarean metatzeko joera dute. Mikropoluitzaileak dira, esate baterako, uretan izaten diren metal astun, alkalino eta lurralkalinoak, pestizidetan erabiltzen diren eta zenbait prozesuren bidez (lixibiazioa, etab.) uretara hel daitezkeen hainbat substantzia (pentaklorofenola...) eta abar.

en *micropollutant*  
es *microcontaminante*  
fr *micropolluant*

## mikrouhinak

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Izpi infragorrien eta irrati-uhinen arteko uhin-luzera duen erradiazio elektromagnetikoa (10<sup>-3</sup> - 10 m).

en *microwaves*  
es *microondas*  
fr *micro-ondes*

☞ **erradiazio**

## mila milioiko (ppb)

SIN: mila milioiko parte

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Oso kontzentrazio txikiak adierazteko erabiltzen den unitatea (ppb). Ingurune baten mila milioi bat unitatetan dauden substantzia jakin baten unitateen kopurua da. Uretako kontzentrazioa denean, masa-unitateak erabili ohi dira. Aireko kontzentrazioa denean, ostera, bolumen-unitateak erabiltzen dira. Batez ere, poluitzaileen oso kontzentrazio txikiak adierazteko erabili ohi da; kontzentrazio handixeagoak ppm-tan (milioikotan) ematen dira, eta handiagoak, ehunekotan.

🗨 *Billion* hitza zalantzarria da. Estatu Batuetan eta Kanadan *billion* hitza erabiltzen da 10<sup>9</sup> adierazteko. Europako eta munduko estatu gehienetan, ordea, hitz horrek (hizkuntza bakoitzean duen forman: *bilioi*, *billón*, *billon*, *bilione*...) 10<sup>12</sup> adierazten du. Ingelesa erabiltzen den gainerako estatuetan, berriz, *billion* hitza erabili izan da 10<sup>12</sup> adierazteko, baina, gaur egun, gero eta gehiago, 10<sup>9</sup> adieraz ere erabiltzen da. Kontzentrazioaren unitateei dagokienez, nazioarteko erabilerarik hedatuena da Estatu Batuetako unitatearen ikurra erabiltzea (ppb), baina tokian tokiko erabileraren arabera izena ematea unitateari, hau da, *billion* hitza ez itzultzea 10<sup>9</sup> adierazteko, eta, horren ordean, dagokion izena ematea (*mila milioi*, *mil millones*, *milliard*...).

🗨 Euskarazko *mila milioiko* eta *mila milioiko parte* terminoak, gehienetan, zenbatzailearekin erabiltzen dira: 'edateko uretan, ez da onartzen mila milioiko 10 parte artseniko baino gehiago'; 'edateko uretan, ez da onartzen artsenikoaren kontzentrazioa mila milioiko 10 baino handiagoa izatea' (hau ere horien baliokidea da, noski: 'edateko uretan onartzen den artseniko-kontzentrazio handiena 10 ppb da'). Unitatea bera izendatu behar denean, *ppb* edo *mila milioiko parte-kopuru* erabil daiteke.

en *parts per billion*; *ppb*  
es *partes por mil millones*; *ppb*  
fr *parties par milliard*; *ppb*

☞ **ppm**

## mila milioiko parte

☞ **mila milioiko**

## milioiko (ppm)

SIN: milioiko parte

*Ikerkuntza, zientziak*

Kontzentrazio txikiak adierazteko erabiltzen den unitatea (ppm). Ingurune baten milioi bat unitatetan dauden substantzia jakin baten unitateen kopurua da. Uretako kontzentrazioa denean, masa-unitateak erabiltzen dira, eta, airekoa denean, bolumen-unitateak. Batez ere, poluitzaileen kontzentrazio txikiak adierazteko erabili ohi da (kontzentrazio handiagoak ehunekotan ematen dira)

🗨 Euskarazko *milioiko* eta *milioiko parte* terminoak, gehienetan, zenbatzailearekin erabiltzen dira: 'karbono monoxidoaren aireko kontzentrazioa milioiko 10 da', 'airean, milioiko 10 parte karbono monoxido daude' (hau ere horien baliokidea da, noski: 'karbono monoxidoaren aireko kontzentrazioa 10 ppm da'). Unitatea bera izendatu behar denean, *ppm* edo *milioiko parte-kopuru* erabil daiteke.

en *parts per million*; *ppm*  
es *partes por millón*; *ppm*  
fr *parties par million*; *ppm*

☞ **ppb**

## milioiko parte

☞ **milioiko**

## min-atari

*Arriskuak, segurtasuna / Ikerkuntza, zientziak*

Halako maiztasuneko soinurako, belarrian mina sentitzen den soinu-presiorik txikiena (130 dB ingurukoa izaten da).

en *pain threshold*; *threshold of pain*  
es *umbral de dolor*  
fr *seuil de douleur*; *seuil douloureux*

## mindak

*Produktuak, materialak*

Abereen gernuaz, gorotzaz, azpian eta janariaren hondakinez eta urez osatutako nahaste likidoa.

en *dung water; liquid manure; slurry*

es *estiércol líquido; purín*

fr *lisier; purin*

☞ **eutrofitazio; minda-hobi**

## **minda-hobi**

SIN: minda-putzu

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Abeltegian mindak biltzen diren lurpeko zuloa.

en *liquid manure pit; slurry pit*

es *depósito de purín; fosa de purín; fosa de purines; pozo de purín*

fr *citerne à purin; fosse à purin*

## **minda-putzu**

☞ **minda-hobi**

## **mineralizazio**

*Biosfera*

Gai organikoak gai mineral edo ez-organiko (ur, gatz mineral, karbono dioxido, amoniako, etab.) bihurtzeko prozesu biologikoa.

en *mineralization*

es *mineralización*

fr *minéralisation*

## **minimizazio**

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ingurumen-politika*

Produkzio-prozesu baten ondorioz sortzen diren hondakinen kantitatea edota arriskua ahalik eta txikien izan daitezen hartu beharreko neurrien multzoa. Hondakin gutxiago sortzea eta sortzen direnak produkzio-gunean birziklatzea izaten dira neurri nagusiak, eta, batzuetan, hondakinak kanpoan birziklatzea ere minimizazio-neurriztat jotzen da. Hondakinak birziklatzeak ez du barneko hondakin-kopurua murrizten, baina poluzio globalaren minimizazioari laguntzen dio.

en *minimization*

es *minimización*

fr *minimisation*

☞ **isuririk ez; poluzioaren prebentzio**

## **minizentral hidroelektriko**

SIN: zentral hidroelektriko txiki

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

10.000 kW baino kapazitate txikiagoa duen zentral hidroelektrikoa.

en *small hydraulic plant; small hydropower plant; small hydropower station*

es *minicentral; minicentral hidroeléctrica*

fr *mini-centrale hydraulique; petite centrale hydroélectrique*

☞ **zentral hidroelektriko**

## **MME**

☞ **Munduko Meteorologia Erakundea**

## **MOE**

☞ **Munduko Osasun Erakundea**

## **moldaera**

*Biosfera*

Organismo bat ingurunaren ezaugarrietara egokitzea, horri esker bertan bizitzea eta ugaltzea lortzea. Prozesu horretan, aldaketa morfologiko, fisiologiko eta etologikoak gertatzen dira, eta hautespen naturalaren bidez finkatzen dira, hau da, ingurunean bizirik irauteko eraginkorragoa den ezaugarria hartu duen banakoak egiten du aurrera. Moldaerazko aldaketak heredagarriak dira.

! Adiera zabalean, banako baten bizitzan zehar gertatutako aldaketak, ingurune batean bizi izatearen edo halako bizimodua izatearen ondorio direnak ere, moldaeraztat har litezke, baina, hemen, espezie-mailako moldaera heredagarriak definitu dira.

en *adaptation*

es *adaptación*

fr *adaptation*

## **monohondakindegia**

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Hondakin-mota bakarra hartzen duen hondakindegia edo hondakindegia-atala. Hondakinak mota berekoak izateak esan nahi du jatorria, konposizioa eta lixibiatu-ezaugarriak bertsuak dituztela.

en *mono-landfill*

es *monovertedero*

fr *monodécharge*

☞ **hondakindegia**

## **monolabore**

SIN: labore bakar

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Landare-espezie bakarra lantzen den nekazaritza-praktika. Ingurumenerako kaltegarria da, biodibertsitatea urritu, lurzorua ahitu eta izurriteak hedatzen laguntzen baitu.

en *monoculture*

es *monocultivo*

fr *monoculture*

☞ **labore-txandaketa; nekazaritza; nekazaritza ekologiko**

## **Montrealgo Protokoloa**

*Legeak, arauak, bitzarmenak*

Atmosferako ozono-geruza babesteko asmoz, klorofluorokarbuoren ekoizpena eta kontsumoa pixkanaka murriztu eta 2000. urterako erabat desagerrarazteko nazioarteko protokoloa, Montrealen sinatua 1987ko irailaren 16an.

en *Montreal Protocol*

es *Protocolo de Montreal*

fr *Protocole de Montréal*

## **motor-erregai**

SIN: erregai

*Produktuak, materialak*

Errekuntza-motorretan bero-energia lortzeko erabiltzen den hidrokarbuo-nahastea, aireko oxigenoarekin nahasita ura eta karbono dioxidoa emanez erretzen dena.

en *motor fuel*

es *carburante*

fr *carburant*

☞ **fuel-olio; gasolina; gasolio; keroseno**

## motxila ekologiko

➔ **bizkar-zorro ekologiko**

## mugaz gaineko kutsadura

➔ **mugaz gaineko poluzio**

## mugaz gaineko poluzio

SIN: mugaz gaineko kutsadura

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Estatu edo ingurumen-politikan esku duen herrialde batean sortzen den eta beste estatu edo herrialde bati nahiz inoren eskupeko ez den inguru bati (nazioarteko urak, estratosfera) erasaten dion poluzioa, halako moldean non poluitzaile-iturburu bakoitzaren ekarpena eta beraz horrek dakarren erantzukizuna zehaztea zaila edo ezinezkoa baita.

en *cross-border environmental pollution; cross-border pollution; transboundary pollution; trans-frontier pollution*

es *contaminación transfronteriza*

fr *pollution transfrontière*

## mugimendu ekologista

SIN: ekologismo

*Gizartea*

Naturaren defentsa eta, horren barnean, giza espeziearena, aldezen duen mugimendu soziopolitikoak, gizartearen eta naturaren arteko harremanen aldaketa eskatzen duena. Definizio zabal horren barnean azpigoera eta ideologia asko daude, 1970eko hamarkadan agertu ziren gizarte-mugimendu berri gehienak barne.

en *ecology movement*

es *ecologismo; movimiento ecologista*

fr *écologisme*

☞ **berdeak; ingurumenarekiko sentsibilizazio**

## mulch

➔ **lur-estalki**

## multzo-bilgarri

➔ **bigarren mailako bilgarri**

## mundrun

SIN: alkaterna; naslika

*Produktuak, materialak*

Harrikatza, zura, zohikatza, petrolio edo eskisto bituminosoak distilatu ateratzen den gai ilun eta likatsua. Mundrunetatik, gehienetan distilazio zatikatuaren bidez, konposatu organiko ugari lortzen dira, industria kimikoan hainbat produktu fabrikatzeko erabiltzen direnak (koloratzaileak, plastikoak, botikak, perfumek,...). Mundruna distilatzearan sortzen den hondakin solidoa bika da. Mundrunaren osagaien artean, hainbat hidrokarburo aromatiko eta hidrokarburo aromatiko polizikliko daude, guztiak ere oso toxikoak eta, adituen ustez, minbizi-eragileak ere izan daitezkeenak.

en *tar*

es *alquitrán*

fr *goudron*

## Munduko Meteorologia Erakundea (MME)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Nazio Batuen Erakundearen menpeko erakunde espezializatua, 1951n sortua. Mundu-mailako behaketa meteorologikoak egiteko sistema ezarri, behaketak estandarizatu eta informazio-trukea erraztu eta gutxien garatutako herrialdeei meteorologia-zerbitzuak antolatzen laguntzea ditu helburu nagusiak. Egoitza nagusia Genevan dago.

en *World Meteorological Organization (WMO)*

es *Organización Meteorológica Mundial (OMM)*

fr *Organisation Météorologique Mondiale (OMM)*

## Munduko Osasun Erakundea (MOE)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

1946an sortutako nazioarteko erakundea; 1948az geroztik Nazio Batuen Erakundearen menpeko erakunde espezializatua da. Munduko herrialde guztietan osasun-maila hobetzea du helburu. Ingurumenaren arazoak osasunarekin zuzeneko lotura dutenez, MOEek poluzioari loturiko osasun-arazoak aztertzen ditu eta ingurumenaz arduratzen diren gainerako erakundeekin, nazioartekoekin zein estatu-mailakoekin, lan egiten du. Aholku-emaile funtzioa du, ez besterik. Genevan du egoitza nagusia.

en *World Health Organization (WHO)*

es *Organización Mundial de la Salud (OMS)*

fr *Organisation Mondiale de la Santé (OMS)*

☞ **osasun**

## murrizketa

*Ingurumen-politika*

Jarduera batean (produkzioan, kontsumoan) sortzen den hondakin-kantitatea gutxitzeko helburua duten neurrien multzoa.

en *reduction*

es *reducción*

fr *réduction*

☞ **berrereabilitze; birziklatze**

## mutageno

1

*Arriskuak, segurtasuna / Produktuak, materialak*

Arnastu, irentsi edo larruazaletik xurgatuz gero, material genetikoan aldaketa heredagarriak eragin ditzakeen substantzia edo prestakina. Europako Batasunaren 92/32 Zuzentarauaren arabera, substantziak eta hondakinak legez arriskutsutzat jotzeko ezaugarrietako bat da.

en *mutagenic*

es *mutagénico, -a; mutágeno*

fr *mutagène*

☞ **ekotoxiko; erregarri; infekzioso; kaltegarri; kantzerigeno; korrosibo; leherkor; narritagarri; sukoi; teratogeno; toxiko**

2

*Osasuna, nutrizioa*

Organismo baten mutazioa eragin dezakeen agente fisiko edo kimikoa.

en *mutagen*

es *mutagénico; mutágeno*

fr *mutagène*

## mutazio

*Biosfera*

Zelularen material genetikoaren bat-bateko aldaketa iraunkorra, herentziaz transmititzen diren karaktereak aldarazten dituena.

en *mutation*  
es *mutación*  
fr *mutation*

## nahaste-erlazio

*Atmosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Aire-masa heze batean den ur-lurrunaren masaren eta aire lehorren masaren arteko zatidura (g/kg-tan adierazia).

en *mixing ratio*  
es *razón de mezcla; relación de mezcla*  
fr *rapport de mélange*

## nahaste-likido

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin-uren lohi aktibatuen bidezko tratamenduan, aireztatze-tangan dagoen likidoa, dekantatutako hondakin-uren eta birziklatzen diren lohien nahastea dena.

en *mixed liquor*  
es *licor mixto; líquido mixto*  
fr *liqueur mixte; liquide mixte*

☞ **lohi aktibatuen bidezko tratamendu**

## nahaste-likidoko solido esekiak

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Nahaste-likidoan esekiak dauden partikula solidoen, hau da, lohi aktibatuen, kontzentrazioa. Lohi aktibatuen kontzentrazioa lohia iragazi eta 100 °C-tan lehortu ondoren bolumen-unitateko gelditzen den masa lehorren bidez adierazten da (mg/l edo g/l-tan).

en *mixed liquor suspended solids*  
es *materias en suspensión de líquido mixto; sólidos en suspensión en el licor mixto*  
fr *matières en suspension de liquide mixte; matières solides en suspension dans la liqueur mixte*

☞ **lohi aktibatuen bidezko tratamendu; nahaste-likido**

## narriadura

↳ **degradazio**

## narritagarri

*Arriskuak, segurtasuna / Produktuak, materialak*

Larruazala edo muki-mintza une batez, jarraituki edo aldizka ukitzean hantura eragiten duen substantzia edo prestakin ez-korrosiboa. Europako Batasunaren 92/32 Zuzentarauaren arabera, substantziak eta hondakinak legez arriskutsuztat jotzeko ezaugarrietako bat da. Gai narritagarren etiketan Xi ikurra erabiltzen da. Besteak beste, lixiba, amoniakoa, trementina-esentzia (edo agoarras) eta abar narritagarriak dira.

en *irritant*  
es *irritante*  
fr *irritant, -ante*

☞ **ekotoxiko; erregarri; infektzioso; kaltegarri; kantzerigeno; korrosibo; leherkor; mutageno; sukoi; teratogeno; toxiko**

## naslika

↳ **mundrun**

## natur baliabideak

↳ **baliabide naturalak**

## natur baliabideen balioztapen

↳ **baliabide naturalen balioztapen**

## natur erreserba

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Ekosistema, komunitate edo osagai biologiko bitxi, ahul, garrantzitsu edo bakanak izateagatik bereziki babestu beharra aitortzen zaion natur gunea.

en *nature reserve*  
es *reserva natural*  
fr *réserve naturelle*

☞ **natur gune babestu**

## natur gune

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Giza jarduerak nagusiki eraldatu ez dituen ekosistemak dauden lurraldea, landare- edo animalia-espezie interesgarriak bizi direna edota balio estetikoak duten paisaiak dituena.

en *natural area; natural space*  
es *espacio natural*  
fr *région naturelle*

☞ **natur gune babestu**

## natur gune babestu

SIN: eremu babestu

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Duen interesagatik eta kontserbazioa ziurtatzeko, legezko babes berezia duen natur gunea. Naturaren kontserbazioa izan dezakete helburu bakarra, edo, gehienetan gertatzen den bezala, naturaren kontserbazioa eta baliabideen ustiapena batera kudeatzen dira. Eremu hauetan giza jarduerak eta natur baliabideen erabilera antolatuta egiten dira, naturak ahal den eraginik txikiena jaso dezan.

en *protected area; protected natural area; protected space; protection zone*  
es *área protegida; espacio natural protegido; espacio protegido*  
fr *espace protégé*

☞ **biosferaren erreserba; kontserbazio bereziko eremu; Natura 2000; nazioarteko garrantziko hezegune**

## natur gune sentikor

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Giza jardueraren ondorioz, desoreka larria, edo itzulezina, izateko arriskua duen natur gunea.

en *capable natural area; sensitive natural area*  
es *zona natural sensible*  
fr *espace naturel sensible*

☞ **natur gune babestu**

## natur hondamendi

*Arriskuak, segurtasuna*

Suntsidura handia dakarren ohiz kanpoko gertakari naturala (lurrikarra, sumendi-erupzioa, uholdea, sutea, meteorito-erortzea, etab.).

en *natural disaster*  
es *catástrofe natural; desastre natural*  
fr *catastrophe naturelle*  
☞ **suntsipen**

## natur monumentu

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Bakantasan, arrarotasun edo edertasun nabariko elementuz osatua izaki, babes berezia merezi duela aitortu zaion natur gunea. Espainiako figura juridikoa da, eta martxoaren 27ko 4/1989 Legearen 29. artikuluan dago jasota.

en *national monument; natural monument*  
es *monumento natural*  
fr *monument naturel*  
☞ **natur gune babestu**

## natur ondare

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Gizarteak aurreko belaunaldietatik jasotzen dituen naturako ondasun guztien multzoa. UNESCOk, 1972 azaroaren 16an, Munduko Kultur eta Natur Ondarea Babesteko Konbentzioan, honakoak hartu zituen natur ondaretzat: zientzia, estetika edo kontserbazioaren ikuspegitik balio unibertsal apartekotzat jotzen diren formazio geologiko edo biologikoak, habitatak eta natur guneak. Egun, 149 natur ondare daude izendatuta. Horien artean daude, esaterako, Altamirako koba (Kantabria) eta Doñanako parke nazionala (Sevilla eta Huelva).

en *environmental heritage; natural heritage; natural resource endowment*  
es *patrimonio natural*  
fr *patrimoine naturel*

## natur parke

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Giza jarduerak nabarmenki eraldatu ez duen eta paisaien edertasunagatik, ekosistemen adierazgarritasunagatik edo flora, fauna eta formazio geomorfologikoen berezitasunagatik legez eratzten den natur gune babestua (EAEko Natura Babesteko 16/1994 Legean eta Nafarroako Lurraldea erabili eta babesteko 6/1987 Legean ezartzen den lege-izendapena da, eta Espainiako martxoaren 27ko 4/1989 Legean ezartzen den *parke* izendapenaren baliokidea da).

en *natural park; nature park*  
es *parque natural*  
fr *parc naturel*  
☞ **natur gune babestu; parke nazional**

## natura

SIN: izadi

*Biosfera*

Unibertsoa osatzen duten, munduan diren izaki eta gertakari guztien multzoa. Ingurumenaren eta ekologiaren alorrean, natura gizakiak eraldatu ez duen munduaren -eta, bereziki, Lur planetaren- atalzat hartu ohi da, gizakiak esku hartu gabe berezko bilakabidea duena.

en *nature*  
es *naturaleza*  
fr *nature*  
☞ **biosfera**

## Natura 2000

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Europako Batasunarentzat interesa duten espezie eta habitat guztien babesa lortzeko eraturako babesguneen sarea, Habitat Naturalen eta Basafauna eta Basafloraren Kontserbazioari buruzko 92/43 Zuzentarauak sortua. Gainera, Hegaztiei buruzko 79/409 Zuzentarauari jarraituz sortu diren hegaztientzako *babes bereziko eremuak* ere Natura 2000 sarean sartu dira.

en *Natura 2000*  
es *Natura 2000*  
fr *Natura 2000*

☞ **babes bereziko eremu; Batasunaren intereseko espezie; Batasunaren intereseko habitat natural mota; Batasunaren intereseko leku; kontserbazio bereziko eremu**

## Natura eta Baliabide Naturalak Kontserbatzeko Nazioarteko Batasuna (NKNB)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Nazio Batuen Erakundeak sustaturik, 1948an sorturiko nazioarteko erakundea, gobernuz kanpoko eta barneko erakundeak elkartzen dituena.

en *International Union for Conservation of Nature and Natural Resources; IUCN*  
es *Unión Internacional para la conservación de la naturaleza y de los recursos (UICN)*  
fr *Union Internationale pour la conservation de la nature et de ses ressources (UICN)*

## naturalizazio

➔ **bertakotze**

## Naturarentzako Mundu Fondoa

➔ **WWF**

## Nazio Batuen Giza Inguruneari buruzko Konferentzia

➔ **Stockholm-eko Konferentzia**

## Nazio Batuen Ingurumen eta Garapenari buruzko Konferentzia

SIN: Lurraren Gailurra; Rio de Janeiroko Konferentzia

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Nazio Batuen Erakundeak antolatuturik, 1992ko ekainean Rio de Janeiro ingurumenari eta garapenari lotutako arazoei buruz eztabaidatzeko egindako nazioarteko biltzarra.

en *Earth Summit; Rio de Janeiro Conference; United Nations Conference on Environment and Development*  
es *Conferencia de Naciones Unidas sobre Medio Ambiente y Desarrollo; Conferencia de Río de Janeiro; Cumbre de la Tierra*  
fr *Conférence de Rio de Janeiro; Conférence des Nations Unies sur l'Environnement et le Développement; Sommet de la Terre*

☞ **Agenda 21; Ingurumen eta Garapenari buruzko Rioko Deklarazioa**

## Nazio Batuen Ingurumen Programa (NBIP)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Stockholm-eko Konferentziaren ondorioz (1972), Konferentziak emandako aholkuak gauzatzeko, Nazio Batuen Erakundearen Biltzar Nagusiak sortutako erakundea. Gaur egun NBIP da Nazio Batuen Erakundeak ingurumen-arazoetarako duen erakunde nagusia. Nairobin du



egoitza. Ingurumenaren eta baliabide naturalen egoera mundu osoan aztertu, txosten teknikoak argitaratu eta Nazio Batuen ingurumen-programak kudeatzen ditu.

en *United Nations Environment Program (UNEP)*  
es *Programa de Naciones Unidas para el Medio Ambiente (PNUMA)*  
fr *Programme des Nations Unies pour l'Environnement (PNUMA)*

☞ **Stockholm-eko Konferentzia**

## nazioarteko garrantziko hezegune

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Ramsar-eko Hitzarmenaren zerrendan sartuta dagoen hezegune babestua, alde ekologiko, botaniko, zoologiko, limnologiko edo hidrologikotik garrantzi handikotzat eta, batez ere, hegazti urtarrentzat behar-beharrezkotzat jotzen dena. *Ramsar eremu* ere esaten zaio. Euskal Herrian, zortzi dira: Araban, Biasteriko aintzirak, Ulibarri-Ganboako urtegiko bazter batzuk, Salburua eta, azkenik, Gesaltzako gatzagak eta Kaizedoko aintzira; Nafarroan, Pitillasko urmaela eta Las Cañasko urtegia; Bizkaian, Urdaibai; eta Gipuzkoan, Txingudi.

en *wetland of international importance*  
es *humedal de importancia internacional*  
fr *zone humide d'importance internationale*

☞ **hezegune; natur gune babestu; Ramsar-eko Hitzarmena**

## NBIP

➔ **Nazio Batuen Ingurumen Programa**

## negu nuklear

*Atmosfera / Efektuak, eraginak*

Gerra nuklearraren ondorioz sor litekeen klima-egoera, aire-ratutako hauts eta hondakinek eguzki-argia lurraren azalera iristea eragozteak eragindakoa. Lurraren gainazala hoztu egingo litzateke, eta kliman eta, beraz, biosferako prozesuetan oro har, era guztietako ondorioak sortuko lirateke.

en *nuclear winter*  
es *invierno nuclear*  
fr *biver nucléaire*

## nekazaritza

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Lurra landuz gizakiarentzat baliozkoak diren produktuak, bereziki elikagaiak, lortzea helburu duen jarduera ekonomikoa. Adiera zabalean, sektore ekonomiko gisa hartzen denean, abeltzaintza ere nekazaritzaren zatitza hartzen da.

en *agriculture; farming*  
es *agricultura*  
fr *agriculture*

☞ **nekazaritza ekologiko**

## nekazaritza biologiko

➔ **nekazaritza ekologiko**

## nekazaritza ekologiko

SIN: nekazaritza biologiko

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Sintesis lortutako produktu kimikorik erabiltzen ez duen nekazaritza-ekoizpen-sistema. Adiera zabalagoan, elikagaiak eta beste baliabide batzuk ekoizteko ehiko sistemaren ordezkari aukera da. Nekazaritza ekologikoak, ohiko nekazaritzak bezala, merkatuan balioa duten produktuak ekoiz-

ten ditu, baina horretarako erabiltzen dituen teknika eta bitartekoek sistemaren iraupena bermatzen dute, hau da, arlo horretan jasangarritasunaren filosofiarekin bat egiten du. Nekazaritza ekologikoa terminoaren baitan abeltzaintza ekologikoa ere ulertu ohi da.

en *organic farming*  
es *agricultura biológica; agricultura ecológica*  
fr *agriculture biologique*

☞ **abeltzaizta ekologiko; nekazaritza; nekazaritza intentsibo**

## nekazaritza estentsibo

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Lur-eremu zabaletan eta azalera-unitateko lan gutxi eginez eta beraz etekin gutxi lortuz burututako produkzio-sistema.

en *extensive agriculture; extensive cultivation; extensive farming*  
es *agricultura extensiva*  
fr *agriculture extensive; culture extensive*

☞ **nekazaritza; nekazaritza intentsibo**

## nekazaritza intentsibo

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Inbertsio handiak eginez eta makinak, ongarri kimikoak eta pestizidak erabiliz, gainazal-unitateko etekin handiak lortzera bideratuta dagoen produkzio-sistema. Nekazaritza-sistema tradizionalen aldean (nekazaritza estentsiboa), nekazaritza-mota honek, oro har, andeatu egiten du ingurumena.

en *intensive farming*  
es *agricultura intensiva*  
fr *agriculture intensive*

☞ **nekazaritza**

## nekazaritzako hondakin

SIN: laborantzako hondakin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-lanen ondorioz sortzen den hondakina. Hauek dira nekazaritzako hondakin nagusiak: pestiziden hondakinak; hegaztien eta abereen hazkuntzan sortutako hondakinak (simaurra, etab.); labore, barazki eta fruten azal, oskol, zurtoin eta bestelako hondakinak eta abar. Plastikokoak, hondakin metalikoak eta antzeko hondakinak, gehienetan, ez dira nekazaritzako hondakintzat hartzen. Nekazaritzako hondakinak bioerregaia ekoizteko erabil daitezke.

en *agricultural waste*  
es *residuo agrícola*  
fr *déchet agricole*

☞ **abeltzaizta; basogintza; nekazaritza**

## nekazaritza-kutsadura

➔ **nekazaritza-poluzio**

## nekazaritza-poluzio

SIN: laborantza-kutsadura; laborantza-poluzio; nekazaritza-kutsadura

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Nekazaritzan sortzen diren hondakin solido eta likidoen multzoa. Hondakin horien iturriak askotarikoak izan daitezke, hala nola pestiziden isurketa eta lixibiazioa, lurra lantzean sortzen den higadura eta hautsa, behar ez den tokian utzitako simaur eta animalia hilen gorpuak, ongarriak, laboreen hondakinak, etab.

en *agricultural pollution*  
es *contaminación agrícola*  
fr *pollution agricole*  
☞ **nekazaritza; pestizida**

## nematizida

*Produktuak, materialak*

Nematodoen kontrako pestizida.

en *nematicide*  
es *nematicida*  
fr *nématicide*  
☞ **pestizida**

## neutralizazio

SIN: pH-aren doitze

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Hondakin likidoari azidoa edo basea gehituz, pH-a balio neutro onargarrietara ekartzea.

en *neutralization; pH control*  
es *ajuste de pH; neutralización*  
fr *neutralisation*  
☞ **hondakin-uren arazketa**

## nikel

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 28 duen elementu kimikoa (Ni). Burdinaren kide den metal zuri-grisaxka da, gogorra, harikor, xaflakor eta herdoiltzen zaila. Lurrazalean konbinaturik dago beti. Estaldura eta aleazioetarako erabiltzen da, nagusiki. Bizidun askoren mikromantenugaia da, baina gehiegizko kantitatean toxikoa da. Nikel-konposatuak, oro har, toxikotzat hartzekoak dira, batez ere nikel tetrakarboniloa [Ni(CO)<sub>4</sub>], lurrunkorra baita.

en *nickel*  
es *níquel*  
fr *nickel*

## NIMBY (ez gure etxe ondoan)

SIN: EGEO

*Gizartea*

Ingurumenerako kaltegarria izan daitekeen zerbaiten inguruan (ia beti hondakinen tratamendu eta ezabapenaren inguruan, baita zentral elektriko-en inguruan ere) herritarrek duten alde biko jarrera adierazteko terminoa. Batetik, hondakinak tratatzeko instalazioak eta zentral elektrikoak eraikitzearen aurkako iritzia ez dago oso errotuta edo lausoa da -edo aldeko iritzia dago populazioan-, baina, bestetik, herritarrek ez dute onartzen instalazioak berak bizi diren herrian edo inguruan eraikitzerik.

en *NIMBY; not in my back yard*  
es *NIMBY; no en mi patio trasero; no en mi portal*  
fr *NIMBY; pas dans mon jardin; PDMJ*

## nitrato

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Azido nitrikoaren gatza edo esterra.

en *nitrate*  
es *nitrate*  
fr *nitrate*

☞ **eutrofizazio; nekazaritza; nitrogenoaren ziklo; nitrifikazio; nitrogenoaren finkapen; nitrito; ongarri**

## nitrifikazio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Bakterio batzuek lurzoruko amoniakoa edo amonio ioia nitrato ioi bihurtzen duten prozesua. Bi alditan gertatzen da: nitrosazioa (amoniakoa edo amonioa nitrito bihurtzea) eta nitratazioa (nitritoak nitrato bihurtzea). Lehena *Nitrosoma* bakterioek egiten dute eta bigarrena *Nitrobacter* bakterioek.

en *nitrification*  
es *nitrificación*  
fr *nitrification*

☞ **desnitrifikazio; nitrogenoaren ziklo**

## nitrito

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Azido nitrosoaren gatza edo esterra. Nitrogenoaren zikloko konposatuak dira.

en *nitrite*  
es *nitrito*  
fr *azoite; nitrite*

☞ **nitrogenoaren finkapen; nitrogenoaren ziklo; nitrifikazio**

## nitrogeno

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 7 duen elementu kimikoa (N). Bi atomoko gas kologe, usaingabe eta nahiko geldoa da (N<sub>2</sub>). Airearen osagai nagusia da (% 78 bolumenean). Bizirako funtsezko elementua da, azido nukleikoek eta proteinek osagai delako. Nitrogenoaren konposatu ez-organiko batzuk oso garrantzitsuak dira (amoniakoa, oxidoak, nitratoak, nitritoak). Nitrogenoa aireak parte hartzen duen errekontza-erreakzioen emaitza da.

en *nitrogen*  
es *nitrógeno*  
fr *azote*

☞ **nitrogenoaren ziklo; nitrogeno-oxidoak**

## nitrogeno dioxido

*Kimika, substantziak, prozesuak*

NO<sub>2</sub> formulako konposatua. Gas arre-gorria da, likido denean horixka. Oso toxikoa da. Arnasbideak eta birrikak narritatzen ditu, eta heriotza ere eragin dezake. Izpi ultramoreen eraginez, NO eta O emanez disoziatzen da (fotodisoziazioa). Atmosferako NO<sub>2</sub> gehiena antropogenoa da, eta tenperatura eta presio handiko errekontza-erreakzioetan eratzen da bereziki. Airearen poluitzaile garrantzitsua da.

en *nitrogen dioxide*  
es *dióxido de nitrógeno*  
fr *dioxyde d'azote*

☞ **auri azido; nitrogeno-oxidoak; ozono-geruzaren urritze; smog fotokimiko**

## nitrogenoaren finkapen

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbait bakterioek atmosferako nitrogeno askea asimilatzen duten eta, finean, nitrogeno-konposatu (amoniako, nitrito eta, bereziki, nitrato) bihur-

tzen duten prozesua. Lekadunen sustrai-noduluetako *Rhizobium* bakterio sinbiotikoak, *Azotobacter* eta *Clostridium* bakterio askeak eta alga urdin batzuk (*Anabaena* kasu) dira mikroorganismo nitrogeno-finkatzaileak. Nitrogenoa finkatzeko bestelako prozesuak ere badira, batzuk naturalak (atmosfera deskarga elektrikoaren eta izpi ultramoreen bidezkoak) eta besteak artifizialak (industriaren zehar konposatu sintetizatzeke erabiltzen diren metodoak; edo nitrogeno-oxidoak sortzen diren ibilgailuen motorreko erre-kuntza-prozesuak).

en *nitrogen fixation*  
es *fijación de nitrógeno*  
fr *fixation de l'azote*

☞ **nitrogenoaren ziklo**

## nitrogenoaren ziklo

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Nitrogenoak naturan aske edo konbinaturik parte hartzen duen prozesuez osatutako zirkulazio-bide itxia. Airearen, lurzorua eta organismo bizidunen artean gertatzen da, eta prozesu nagusiak finkapena (zenbait mikroorganismo atmosferako nitrogeno askea nitrogeno-konposatu -ber-ziki, nitrato- bihurtzea), bizidunek asimilatzea, amonifikazioa (hondakin organikoak lurra amoniako bihurtzea), nitrifikazioa (lurreko amoniakoa nitrato eta nitrato bihurtzea) eta desnitrifikazioa (lurreko eta uretako nitrato-ak nitrogeno aske bihurtzea) dira.

en *nitrogen cycle*  
es *ciclo del nitrógeno*  
fr *cycle de l'azote*

## nitrogeno-oxidoak

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Nitrogenoz eta oxigenoz osatutako konposatuak (NO<sub>x</sub>).

en *nitrogen oxides; nitrous oxides*  
es *óxidos de nitrógeno*  
fr *oxydes d'azote; oxydes nitreux*

☞ **auri azido; ozono-geruzaren urritze; smog fotokimiko**

## NKNB

➔ **Natura eta Baliabide Naturalak Kontserbatzeko Nazioarteko Batasuna**

## noizean behingo efektu

*Efektuak, eraginak*

Aurrez jakiterik ez den unean agertzen den ingurumen-efektua. Efektu horrek eragiten dituen aldaketak gertatzeko probabilitate gisa ebaluatu behar dira, batez ere jarraituak eta aldizkakoak ez baina bai larritasun handikoak diren egoeretan. Espainiako 1302/1986 Errege Dekretuan jasotzen denaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan kontuan hartu beharreko efektuetako bat da.

es *efecto de aparición irregular*  
☞ **ingurumen-efektu**

## nutriente

➔ **mantenugai**

## obra-hondakin

➔ **hondakinak**

## OD

➔ **oxigeno disolbatu**

## OEB

➔ **oxigeno-eskari biokimiko**

## OEB5

➔ **bost eguneko oxigeno-eskari biokimiko**

## OEK

➔ **oxigeno-eskari kimiko**

## OGE

➔ **organismo genetikoki eraldatu**

## ohantze anitzeko iragazpen

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Ura iragazteko sistema, tamainaren arabera geruzatan antolatuta dauden zatikiez osatutako iragazkia erabiltzen duena. Zatikien tamaina goiko geruzetatik behekoetara txikiagotuz doa.

en *mixed media filtration*  
es *filtración sobre lechos mixtos*  
fr *filtration sur lit mélangé*

## ohantze fluidizatu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Goranzko likido- edo gas-korronte batek (eskuarki, aireak) esekiduran egonazten dituen zatiki solido txiki osatutako sistema, likido-antze-ko jariatze-higidura agertzen duena. Batez ere, prozesu hauetan erabiltzen da: petrolioaren cracking katalitikoan, harrikatz-teknologia garbi batzuetan, harrikatzaren gasifikazioan eta hondakin-uren arazketan (sortutako lohien erre-kuntza errazteko).

en *fluidized bed*  
es *lecho fluidizado; lecho fluido*  
fr *lit fluidisé*

## oihan

➔ **baso**

## oihan epel

➔ **baso epel**

## oihan mediterraneo

➔ **baso mediterraneo**

## oihan tropikal idor

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Urtaro lehorra duten eskualde tropikal hezeetan garatzen den oihana. Urtaro lehorrean, zuhaitz gehienek hostoa galtzen dute. Batez ere, Asian (Sri Lanka hasi eta, India zeharkatuta, Txinaraino), Afrikako ekialdean eta mendebaldean, Australiako iparraldean eta Brasilgo ekialdean daude horrelako oihanak.

en *monsoon forest; tropical dry forest; tropical seasonal forest*  
es *bosque monzónico*  
fr *forêt de mousson*  
☞ **baso**

## oihaneztatze

➔ **baso-sartze**

## oihantze

## ↳ baso-sartze

### oinezkoen alderdi

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Oinezkoak soilik ibil daitezkeen hiri- edo herri-alderdi mugatua, ibilgailuak ibiltzea debekatuta edo zerbitzu-mota batzuetarako (garraio publikoa, larrialdiak, zamalanak, etab.) soilik baimenduta dagoena.

en *pedestrian zone*

es *zona peatonal*

fr *zone piétonne; zone piétonnière*

### olatuen energia

SIN: uhinen energia

*Energia*

Haizeak uraren azalean eragiten dituen olatuen mugimenduaz baliatuz lortzen den energia.

en *wave energy; wave power*

es *energía de las olas; energía del oleaje*

fr *énergie de la houle; énergie des vagues; énergie houlomotrice*

↳ **itsas energia**

### olatu-horma

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Kaia, badia edo itsasertza olatuen oldarretik babesteko eraikuntza.

en *breakwater*

es *rompeolas*

fr *brise-lames*

### oliba-lapa

#### ↳ oliba-pats

### oliba-pats

SIN: oliba-lapa; oliba-zapakin

*Produktuak, materialak*

Olibak olioa ateratzeko zapaldukoan gelditzen den hondarra. Olibatik ahalik eta olio gehien atera eta gero geratzen den azken hondakina da. Oliba erauzteko, disolbatzaileak erabiltzen dira (hexanoa, etab.), eta, prozesu horren ondorioz, oliba-patsek kutsadura-arazoak eragin ditzakete. Biomasa da, eta erregai gisa erabil daiteke.

en *marc of olives*

es *bagazo de la aceituna; borujo; orujo de la aceituna*

fr *marc d'olives; tourteau d'olives*

↳ **oliba-urin**

### oliba-urin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Oliba-olioa egitean sortzen den hondakin likidoa. Poluitzaile bortitza da (azidoa da, eta oxigeno-eskari kimiko handia du).

en *olive oil mill effluent*

es *alpechín; jámila*

fr *liquide résiduel du broyage des olives*

↳ **oliba-pats**

### oliba-zapakin

## ↳ oliba-pats

### oligoelementu

SIN: aztarna-elementu; mikromantenugai

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Organismoak oso kantitate txikian ezinbestekoa duen elementu kimikoa. Funtzio zehatza dute (nagusiki, metabolismoko erreakzio entzimaketan) eta gutxiegi izateak arazo eta gaitzak sorrazten ditu. Gehiegi izatea ere kaltegarria izan daiteke askotan (metalen kasuan, bereziki, kontzentrazio batetik gora toxikoak baitira).

en *microelement; micronutrient; trace element*

es *micronutriente; oligoelemento*

fr *élément trace; micro-élément; micro-nutrimnt; oligoélément*

↳ **mantenugai**

### olio

*Produktuak, materialak*

Zenbait landare, animalia eta mineraletatik, edo sintetetikoki, lortzen den substantzia koipetsu, likatsu eta suharbera, giro-tenperaturan likidoa, uretan disolbabezina eta disolbatzaile organikoetan disolbagarria.

en *oil*

es *aceite*

fr *huile*

### olio erabili

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Erabili ondoren jatorrizko eginkizunerako balio ez duen eta oinarri mineral edo sintetikoa duen olioak; hala nola olio industrialak, errektuntza-motorren olioak, automobilgintzan erabiltzen diren olio lubrifikatzaileak, sistema hidraulikoetako olioak, etab.

en *used oil; waste oil*

es *aceite usado*

fr *huile usagée; huile usée*

### oliobide

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Petrolio edo haren deribatuak hobitik ontziratzeguneetara edo findegietara, edo horietatik banaketa- eta kontsumo-guneetara garraiatzeko diametro handiko hodia. Hodien barnealdeko korrosioa eragozteko, fluidoari korrosioaren aurkako substantzia kimikoak gehitzen zaizkio (polimeroak). Kanpoaldeko korrosioa eragozteko, berriz, oliobideek geruza babeslea izaten dute (harrikatx-mundruna, petrolio, zinta plastikoak, etab.). Petrolio gordina daramaten hodiak ez dira lehertzen, baina, apurtuz gero, petrolio isuri eta inguruko uretan eta lurretan poluzio-arazo larriak eragin ditzakete. Oso deribatu lurrunkorak daramatzatenak, aldiz, leheru egin daitezke, eta segurtasun-neurri zorrotzak hartu behar dira leherketak eragozteko.

en *oil pipeline; pipeline*

es *oleoducto*

fr *oléoduc*

↳ **petrolio**

### onddo

SIN: onddoak

*Biosfera*

Organismo zelulabakar edo zeluaniztun heterotrofoa, klorofilarik gabea eta parasittoa, sinbiotikoa edo saprofitoa izan daitekeena. Materia organikoa xurgatuz eta deskonposatuz elikatzen dira. Espora bidezko ugalketa asexuala dute. Onddo mikroskopikoak eta makroskopikoak daude. Goi-mailako onddo (onddo makroskopiko) askok perretxiko izena ematen zaion ageriko fruitu-gorputza dute. Espezie batzuk jangarriak dira.

en *Fungi; fungus*  
es *bongo; bongos*  
fr *champignon; champignons; fungus*

## onddoak

→ **onddo**

## ongailu

→ **ongarri**

## ongarri

SIN: ongailu

*Produktuak, materialak*

Landareen mantenugai diren substantziak modu ez-organiko edo organikoa dituen produktuak, lurzoruari emankortasuna handitzeko gehitzen zaiona. Dena den, ongarriek alde txarra ere badute. Izan ere, gehiegizko mantenugai-kontzentrazioak eutrofizazioa eragiten du, eta horrek lurzorua eta uraren poluzioa dakar berekin.

en *fertilizer*  
es *abono; fertilizante*  
fr *engrais*

☞ **eutrofizazio; nekazaritza; nitrato; ongarri berde; ongarri kimiko; ongarri organiko**

## ongarri berde

*Produktuak, materialak*

Landare bat lurperaraziz lortzen den ongarri organikoa, lurpean deskonposa dadin eta lurzoruari nitrogenoa eta bestelako mantenugaiak eman diezazkion. Gehienetan, bazka-lekaduna izaten da (zalkea, alpapa, astorkia, hirusta, etab.).

en *green manure*  
es *abono ecológico; abono verde*  
fr *engrais vert*

☞ **ongarri**

## ongarri kimiko

SIN: ongarri mineral

*Produktuak, materialak*

Konposatu ez-organikoz osatutako ongarri natural edo artifiziala, nagusiki nitrogeno-konposatuak (nitratoak, amonio-gatzak), fosforo-konposatuak (fosfatoak) eta potasio-gatzak (potasio kloruroa eta potasio sulfatoa) dituena. Ongarri kimikoak erruz erabiltzen dira nekazaritzan, eta lurzoruan eta uretan poluzioa eragiten dute. Horrez gain, ongarri kimikoen fabrikazioan sulfuro- eta nitrogeno-oxido kantitate handiak aireatzen dira. Ongarri mineral natural nagusiak Txileko nitratoa eta potasio kloruroa dira.

en *artificial fertilizer; chemical fertilizer*  
es *abono mineral; abono químico; fertilizante mineral; fertilizante químico*  
fr *engrais chimique; engrais minéral*

☞ **eutrofizazio; nekazaritza; ongarri**

## ongarri mineral

→ **ongarri kimiko**

## ongarri organiko

*Produktuak, materialak*

Substantzia organikoz osatutako ongarri natural edo artifiziala, hala nola simaurra, minda, konposta, hondakin-uren arazketako lohiak, guanoa, uzta-hondarrak, industria-hondakin organikokoak (hiltegiako hondakinak) eta urea.

en *organic manure*  
es *abono orgánico*  
fr *engrais organique*  
☞ **ongarri**

## onkogeno

→ **kantzerigeno**

## ordezko energia

*Energia*

Ingurumenaren gaineko eragina ahalik eta txikiena izateko edota ahi-tzen diren bestelako energia-iturriak (harrikatza, petrolioa, gas naturala) ordezkatzeko helburuz erabilitako energia-iturria (haize-energia, eguzki-energia, marea-energia, biomasa-energia).

en *alternative energy*  
es *energía alternativa*  
fr *énergie de remplacement; énergie de substitution*  
☞ **energia berriztagarri; energia bigun**

## ordezko energia-iturri

*Energia*

Ingurumenaren gaineko eragina ahalik eta txikiena izateko edota ahi-tzen diren bestelako energia-iturriak (harrikatza, petrolioa, gas naturala) ordezkatzeko helburuz erabilitako energia-iturria (haize-energia, eguzki-energia, marea-energia, biomasa-energia).

en *alternative energy source*  
es *fuerza alternativa de energía*  
fr *source alternative d'énergie; source d'énergie de remplacement; source énergétique alternative*  
☞ **energia berriztagarri; energia bigun**

## ordezko erregai

*Produktuak, materialak*

Petroliotik lortzen ez den edo konposizioan petroliotik lortzen ez den osagai bat nagusi duen erregaia, ingurumenean ohiko erregaiek baino eragin txikiagoa duena. Gaur egun erabiltzen diren ordezko erregai nagusiak honako hauek dira: alkoholak (metanola, etanola eta etanol desnaturalizatuak), gas naturala (konprimatua edo likidotua), petrolio-gas likidotuak, hidrogenoa, harrikatzetik lortutako erregai likidoak eta jatorri biologikoko erregaiak.

en *alternative fuel*  
es *combustible alternativo*  
fr *carburants de remplacement*  
☞ **erregai garbi**

## oreka biologiko

→ **oreka ekologiko**

## oreka ekologiko

SIN: oreka biologiko

### Biosfera

Esualde edo ingurune jakin batean, landare- eta animalia-espezieen arteko eta espezie horien eta ingurune fisikoaren arteko oreka-egoera (denboraldi adierazgarri batean).

en *balance of nature; biological balance; natural balance*  
es *equilibrio biológico; equilibrio ecológico*  
fr *équilibre biologique; équilibre écologique; équilibre naturel*

## organismo

### Biosfera

Izaki biziduna (animalia edo landarea), zelulabakarra edo zelulaniztuna. Gehienetan, bizi-zikloa osatzeko gai izaten dira; hau da, jai, hazi eta ugaltu egiten dira.

en *organism*  
es *organismo*  
fr *organisme*

## organismo genetikoki eraldatu (OGE)

*Ikerkuntza, zientziak / Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Berariaz edo istripuz genotipoan espezie bereko edo beste espezie bateko materia genetikoa gehitu zaion mikroorganismo, landare edo animalia.

en *genetically modified organism; GMO*  
es *OGM; organismo genéticamente modificado*  
fr *OGM; organisme génétiquement modifié*

☞ **bioteknologia; ingeniartza genetikoki; organismo transgeniko**

## organismo transgeniko

### Biosfera

Beste espezie baten generen bat edo DNAREN sekuentziaren bat duen organismoa (animalia, landarea edo mikroorganismoa). Ondare genetikoa aldatzeko, DNA birkonbinatuaren teknika erabiltzen da.

en *transgenic organism*  
es *organismo transgénico*  
fr *organisme transgénique*

☞ **bioteknologia; ingeniartza genetikoki; organismo genetikoki eraldatu**

## organokloratu

1

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Kloroa duen konposatu organikoa (adibidez, pestizida organokloratua).

en *organochlorine*  
es *organoclorado, -a*  
fr *organochloré, -ée*

## 2 ➔ konposatu organokloratu

## osagai aktibo

*Kimika, substantziak, prozesuak / Osasuna, nutrizioa*

Produktu jakin batekin lortu nahi den emaitzaren eta produktu horren

ezaugarri nagusien erantzulea den osagaia. Pestizidetan, esaterako, izurri-sortzaileak hil edo kontrolatzen dituen substantzia da osagai aktiboa. Medikuntzan, ostera, gaixotasun baten diagnosian, sendabidean, arintzean, tratamenduan edo prebentzian eragin zuzena duen osagaia da.

en *active ingredient*  
es *elemento activo*  
fr *ingrédient actif; principe actif*

## osasun

*Osasuna, nutrizioa*

Munduko Osasun Erakundearen arabera, ongizate fisiko, mental eta sozial osoko egoera. Adiera hertsiagoan, gaixotasunik gabeko egoera.

en *health*  
es *salud*  
fr *santé*

## osasun publiko

*Osasuna, nutrizioa*

Ekintza kolektiboaren bidez gizabanakoaren gaixotasunak prebentzeko, osasuna mantentzeko edota berreskuratzen laguntzeko eta bizitza luzatzeko, gizartearen ahalegina antolatu eta zuzentzeko zientzia eta tekniken multzoa.

en *public health*  
es *salud pública*  
fr *santé publique*

## osmosi

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Disolbatzaile bereko baina kontzentrazio desberdineko bi disoluzio bereizten dituen mintz erdiragazkorrean zehar disolbatzailea kontzentrazio txikiko disoluziotik handikora iragaitea, bi kontzentrazioak berdintzera jotzeko. Bi disoluzioen artean sortzen den presio-diferentziari presio osmotiko deritzo.

en *osmosis*  
es *ósmosis*  
fr *osmose*

## ospitaleko hondakin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ospitale, klinika edo osasun-zentroetan sortutako hondakin sanitarioa.

en *clinical waste; hospital waste*  
es *residuo hospitalario*  
fr *déchet hospitalier*

☞ **hondakin sanitario**

## oxidatzaile

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Beste substantzia baten oxidazioa eragin dezakeen substantzia; elektroioak hartzeko joera duen substantzia.

en *oxidant; oxidizer; oxidizing agent; oxydizing agent*  
es *agente oxidante; oxidante*  
fr *oxydant, -ante; oxydante*

☞ **erreduktore; oxidazio-erredukzio**

## oxidatzaile fotokimiko

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Airean, eguzki-izpiek eraginda, lehen mailako poluitzaile batzuen eta aireko osagaien artean gertatzen diren erreakzio fotokimikoen emaitza den bigarren mailako poluitzailea. Smog fotokimikoaren erantzuleak dira.

en *photochemical oxidant; photochemical oxidizing agent; photo-oxidant*  
es *agente fotoquímico oxidante; oxidante fotoquímico*  
fr *oxydant photochimique*

## oxidazio

1

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Hondakin-uren arazketan, agente oxidatzaileen eraginez poluitzaileak (eskuarki oxigenoarekin konbinatuz) deskonposatzen diren prozesua.

en *oxidation*  
es *oxidación*  
fr *oxydation*

☞ **hondakin-uren arazketa**

2

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Substantzia bat oxigenoarekin konbinatzea edo bere oxigeno-atomoen kopurua handiagotzea; adiera zabalagoan, atomo edo ioi batek elektroiak galtzen dituen erreakzioa. Erredukzioaren alderantzizko erreakzioa da, eta beti harekin batera gertatzen da.

en *oxidation*  
es *oxidación*  
fr *oxidation; oxydation*

☞ **erredukzio; oxidazio-erredukzio**

## oxidazio-erredukzio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Parte hartzen duten substantzien arteko elektro-trukean oinarritzen den erreakzio kimikoa.

en *oxidation-reduction; oxidoreduction*  
es *oxidación-reducción; oxidorreducción*  
fr *oxydation-réduction; oxydoréduction*

☞ **erredukzio; oxidazio**

## oxidazio-urrael

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakin-urak ingurunera isuri aurretik, materia organikoaren oxidazio biologikoa gertatzen den urraela. Oxidazio biologikoa airetik, berez edo artifizialki, oxigenoa xurgatuz gertatzen da. Eskuarki, azalera handikoak izaten dira, aireztapen artifizialik gabeak, eta urari edukitze-denbora handia ematen zaio. Aireko oxigenoa azaleko uretan disolbatzen da.

en *oxidation pond*  
es *estanque de oxidación*  
fr *étang d'oxydation*

☞ **urrael aireztatu**

## oxido nitriko

*Kimika, substantziak, prozesuak*

NO formulako konposatua. Gas kologea, usaingabea eta oso toxikoa

da. Sudurzulo eta begiak narritatzen ditu. Tenperatura eta presio handiko errekontza-erreakzioetan eraten da, eta, aire ratzen denean, nitrogeno dióxido bihurtzen da. Atmosferako poluitzaile garrantzitsua da. Estratosferako oxido nitrikoa ozono-geruzaren urritzearen eragileetako bat da.

en *nitric oxide; nitrogen monoxide*  
es *monóxido de nitrógeno; óxido nítrico*  
fr *monoxyde d'azote; oxyde nitrique*

☞ **curi azido; nitrogeno-oxidoak; ozono-geruzaren urritze; smog fotokimiko**

## oxido nitroso

*Kimika, substantziak, prozesuak*

N<sub>2</sub>O formulako konposatua. Gas kologea, usain eta zapore gozokoa. *Gas barre-eragile* izena eman zitzaion. Iraupen laburreko anestesikotzat eta elikagaien aerosoletan propulstazaitzat erabiltzen da. Berotegi-efektuko gasa da. Estratosferan, oxido nitrikoa ematen du. Atmosferako oxido nitroso gehiena jatorri naturalekoa da (lurreko mikroorganismoek ekoizten dute amonifikazioan).

en *dinitrogen monoxide; nitrous oxide*  
es *monóxido de dinitrógeno; óxido nitroso; protóxido de nitrógeno*  
fr *oxyde nitreux; protoxyde d'azote*

☞ **berotegi-efektu; nitrogeno-oxidoak**

## oxigeno

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 8 duen elementu kimikoa (O). Formarik ohikoena bi atomoko molekula da (O<sub>2</sub>) eta orduan gas kologea, usaingabe eta zapo- regabea da. Lurreko elementurik ugariena da (% 49,2 pisuan) eta O<sub>2</sub> forman airearen osagai nagusietakoa (% 28 bolumenean). Oxigenoa duen konposaturik ugariena ura da. Bizirako ezinbestekoa da, arnasketarako behar delako eta funtsezko konposatu askoren osagaia delako (biomolekulak, ura, karbono dioxidoa, etab.). Atmosferako oxigeno-iturri nagusia fotosintesia da. Ozono (O<sub>3</sub>) forman ere badago.

en *oxygen*  
es *oxígeno*  
fr *oxygène*

☞ **errekontza; fotosintesi; oxigenoaren ziklo; ozono**

## oxigeno disolbatu (OD)

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Uretan disolbaturik dagoen oxigeno askearen kontzentrazioa. Uretako bizia mugatzen duen parametro garrantzitsua da. Hondakin-uren arazketako bigarren eta hirugarren tratamenduak oxigeno disolbatu nahikoa bermatzera zuzenduta daude.

en *dissolved oxygen; DO*  
es *oxígeno disuelto (OD)*  
fr *oxygène dissous (OD)*

☞ **bost eguneko oxigeno-eskari biokimiko; hondakin-uren arazketa; oxigeno-eskari biokimiko; oxigeno-eskari kimiko**

## oxigenoaren ziklo

*Ikerkuntza, zientziak*

Oxigenoak naturan aske edo konbinaturik parte hartzen duen prozesu eta erreakzioez osatutako zirkulazio-bide itxia.

en *oxygen cycle*  
es *ciclo del oxígeno*  
fr *cycle de l'oxygène*

## oxigeno-eskari biokimiko (OEB)

SIN: oxigeno-eskari biologiko

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Uretako materia organikoaren oxidazio biologikorako mikroorganismoei behar duten oxigeno disolbatuaren kantitatea. Uraren kalitatea adierazteko parametroa da, eta, eskuarki, bost egunen buruan kontsumitutakoa erabiltzen da (OEB<sub>5</sub>), 20 °C-tan neurtua eta mg/l-tan adierazia.

en *Biochemical Oxygen Demand; Biological Oxygen Demand; BOD*  
es *demanda bioquímica de oxígeno (DBO); demanda biológica de oxígeno (DBO)*  
fr *demande biochimique en oxygène (DBO); demande biologique en oxygène (DBO)*

☞ **bost eguneko oxigeno-eskari biokimiko; oxigeno disolbatu; oxigeno-eskari kimiko**

## oxigeno-eskari biologiko

☛ **oxigeno-eskari biokimiko**

## oxigeno-eskari kimiko

SIN: OEK

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Uretako substantzia organiko eta ez-organikoak oxidatzeko behar den oxigeno disolbatuaren kantitatea.

en *chemical oxygen demand; COD*  
es *demanda química de oxígeno; DQO*  
fr *DCO; demande chimique en oxygène*

☞ **oxigeno disolbatu; oxigeno-eskari biokimiko**

## ozeano

☛ **itsaso**

## ozonizazio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Ur naturalari edo hondakin-urari ozonoa gehitzea, desinfektatzeko, gai organikoak oxidatzeko edo usain eta zapora txarra kentzeko. Hondakin-uren arazketan, hirugarren tratamenduko eragiketa da.

en *ozonation; ozonization*  
es *ozonización*  
fr *ozonation; ozonisation*

☞ **hondakin-uren arazketa**

## ozono

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Hiru oxigeno-atomoz osatutako molekula, oxigenoaren forma alotropikoa dena (O<sub>3</sub>).

en *ozone*  
es *ozono*  
fr *ozone*

☞ **oxigeno; ozono-geruza; ozono-geruzaren urritze**

## ozonoa suntsitzeko ahalmen

*lkerkuntza, zientziak*

Substantzia batek ozonoa deskonposatzeko -eta, beraz, ozono-geruza urritzeko- duen ahalmena adierazten duen indizea, masa bereko CFC-11

kantitateak duen suntsitze-ahalmena erreferentziazat harturik kalkulatua (CFC-11-ari 1 balioa esleitzen zaio).

en *ozone depletion potential (ODP)*  
es *potencial de destrucción de ozono*  
fr *potentiel de destruction d'ozone*

☞ **ozono-geruzaren urritze**

## ozono-geruza

SIN: ozonosfera

*Atmosfera*

Atmosferan 10-50 km bitarteko altitudeetan dagoen ozono-kontzentrazio handiko geruza. Kontzentrazio handiena 25 km-ko altitudetan dago. Ozonoak Eguzkitik datorren 290 nm baino luzeagoen ultravioleta erradiazioa xurgatzen du, eta, horregatik, geruza hau garrantzi handikoa da Lurrean bizia izan dadin.

en *ozone layer; ozonosphere*  
es *capa de ozono; ozonosfera*  
fr *couche d'ozone; ozonosphère*

☞ **atmosfera; estratosfera; exosfera; ionosfera; ozono; ozono-geruzaren urritze; troposfera**

## ozono-geruzaren urritze

*Efektuak, eraginak*

Estratosferako ozono-atomok kloro-, bromo-, edo oxido nitrikoarekin erreakzionatu eta deskonposatzearen ondorioz, ozono-geruza meheago izatea edota duen ozono-kontzentrazioa txikiagoa izatea.

en *ozone depletion; ozone layer depletion; ozone layer loss; ozone reduction*

es *disminución de la capa de ozono*  
fr *appauvrissement de la couche d'ozone*

☞ **haloi; klorofluorokarburu; Montrealgo Protokoloa; oxido nitriko**

## ozono-geruzaren zulo

SIN: ozono-zulo

*Efektuak, eraginak*

Ozono-geruzaren urritze terminoaren ordez erabili ohi den termino desegokia.

en *ozone hole*  
es *agujero de la capa de ozono; agujero de ozono*  
fr *trou d'ozone*

☞ **ozono-geruzaren urritze**

## ozonosfera

☛ **ozono-geruza**

## ozono-suntsitzaile

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Estratosferako ozonoa deskonposatzea -eta beraz ozono-geruza urritze- eragiten duen substantzia. Nagusiak CFCak, HCFCak, haloiak, metil bromuroa, metil kloruroa eta karbono tetrakloruroa dira.

en *ozone depleting substance*  
es *destructor de ozono*  
fr *destructeur d'ozone*

☞ **ozono-geruzaren urritze**

## ozono-zulo



➔ **ozono-geruzaren zulo**

## padura

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Estuario epel eta hotzetan, landare-elkarte bereziak hazten diren mare-artereko eremu lau eta zingiratsua. Ur gazi eta gezaren nahastearen ondorioz, gazitasun-ezaugarri bereziak ditu, eta bertako landare eta animaliak gazitasun-aldaketa handiak jasateko moldatuta daude.

en *salt marsh; tidal flat; tideland*

es *marisma*

fr *marais d'eau salée; marais maritime; marais salé*

☞ **ekosistema; hezegune; kostalde**

## paisaia

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Toki batetik ikusten den lurralde, itsasalde edota zerualdea, ikuskizun gisa hartuta. Adiera hertsiagoan, inguru bateko forma eta ezaugarri geologiko, biologiko eta antropikoen multzoa eta ezaugarri-multzo horren arabera Lurraren gainazalean bereizten diren formetako bakoitza.

en *landscape*

es *paisaje*

fr *paysage*

## paisaia babestu

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Dituen balio estetiko edo kulturalengatik babes berezia merezi duela aitortzen zaion natur gunea.

en *protected landscape*

es *paisaje protegido*

fr *paysage protégé*

☞ **natur gune babestu; NKNB**

## paisaia gizatartu

SIN: paisaia kultural

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Gizakiak eraldatutako paisaia.

en *cultural landscape; human landscape*

es *paisaje cultural; paisaje humanizado*

fr *paysage de la civilisation; paysage humanisé*

☞ **paisaia natural**

## paisaia kultural

➔ **paisaia gizatartu**

## paisaia natural

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Gizakiaren eraginik ez duen paisaia. Funtsean, giza eragina izanda ere egitura eta ezaugarriak mantendu dituen zenbait paisaia ere naturalizat hartzen da. Gainera, giza jarduerak jatorrizko paisaia eraldatu arren, interes naturaleko elementuak sorrarazi baditu, paisaia hori naturalizat hartzen da (adibidez, Aralarreko parkeko paisaian giza jardueraren eragina nabarmena eta erabakigarria izan da, baina paisaia naturala da).

en *natural landscape*

es *paisaje natural*

fr *paysage naturel*

☞ **paisaia gizatartu**

## paisaiaren babes

SIN: paisaiaren zaintza

*Ingurumen-politika*

Natura-, zientzia-, historia-, arte-, kultura- edo estetika-arrazoiengatik, inguru bateko paisaia eratzten duten osagaiak babesteko neurriak hartzea.

en *landscape conservation; landscape preservation; landscape protection*

es *protección del paisaje*

fr *préservation du paysage; sauvegarde du paysage*

☞ **paisaia; Paisaiaren Konbentzio Europarra**

## paisaiaren ekologia

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Biosfera*

Komunitateen eta ekosistemen banaketa-ereduen, eredu horiei eragiten dieten prozesu ekologikoen eta banaketa-ereduetan eta prozesu ekologikoetan gertatzen diren aldaketan azterketa.

en *landscape ecology*

es *ecología del paisaje*

fr *écologie du paysage*

☞ **paisaia; Paisaiaren Konbentzio Europarra**

## Paisaiaren Konbentzio Europarra

*Legeak, arauak, bitzarmenak*

Paisaien antolamendua, kudeaketa eta babesa sustatzea helburu duen konbentzioa, Europako Kontseiluko estatu kideek 2000ko urriaren 20an sinatua. Konbentzioan esaten denaren arabera, paisaia bizi-kalitatearen, kultur ondarearen eta natur ondarearen osagai garrantzitsua da, tokiak toki-kokuren sorkuntzarako oinarria eta jarduera ekonomikoari lagundu eta lanpostuak sortzeko baliabidea. Bestalde, azpimarratzen du paisaia asko oso azkar aldatzen ari direla eta, haien hondatzea galarazteko, ezinbestekoa dela lehenbailehen neurriak hartzea.

en *European Landscape Convention*

es *Convención Europea del Paisaje*

fr *Convention européenne du paysage*

☞ **paisaia**

## paisaiaren kudeaketa

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Biosfera*

Paisaia babesteko edo gizakiaren jardueren edo gertaera naturalen eraginez paisaian gertatzen diren aldaketak kontrolatzeko neurri, jarduera eta baliabideen multzoa.

en *landscape management*

es *gestión de paisaje*

fr *aménagement des paysages*

☞ **paisaia; Paisaiaren Konbentzio Europarra**

## paisaiaren leheneratze

*Ingurumen-politika*

Giza ekintza batek, bereziki herri-lanek edo erauzte-lanek (harrobiak, meategiak, etab.) aldarazitako paisaiari jatorrizko itxura eta ezaugarriak, edo horien antzekoak, itzularazteko lanen multzoa.

en *landscape restoration*

es *restauración paisajística*  
fr *remise en état du paysage*

👉 **paisaia; Paisaiaren Konbentzio Europarra**

## paisaiaren zaintza

➔ **paisaiaren babes**

## PAN

➔ **peroxiazetil nitrato**

## panel fotovoltaiko

SIN: eguzki-panel

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Zenbait modulu fotovoltaiko (elkarri konektatutako hainbat zelula fotovoltaiko) elektrikoki konektatuz eta muntatuz osatutako multzoa.

en *photovoltaic panel; solar cell panel; solar panel*  
es *panel fotovoltaico; panel solar*  
fr *panneau solaire*

👉 **zelula fotovoltaiko**

## pantaila akustiko

SIN: zarataren kontrako hesi

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Hots-iturriaren eta hotsetik babestu nahi den tokiaren artean jartzen den objektua.

en *noise screen; noise shelter*  
es *pantalla acústica*  
fr *écran acoustique; écran antibruit; écran protecteur*

👉 **zarata**

## paper

*Produktuak, materialak*

Nagusiki zuretik lortzen den landare-zuntzeko oreka hedatuz eta lehertuz lortzen den gaia, gehienbat elkarri atxikitako zelulosa-zuntzez osatua.

en *paper*  
es *papel*  
fr *papier*

👉 **paper birziklatu**

## paper birziklatu

*Produktuak, materialak*

Berreskuratu den paper erabiliaz egiten den papera.

en *recycled paper*  
es *papel reciclado*  
fr *papier recyclé*

👉 **birziklatze; kloro; klororik gabeko paper; paper ekologiko; paper erabili**

## paper ekologiko

*Produktuak, materialak*

Ingurumenaren gaineko eragina txikitzeko neurriak hartuta fabrikatutako papera. Ekologikotzat jotzeko, paperaren bizi-zikloan oinarritutako irizpideak hartzen dira kontuan. Irizpide horiek, besteak beste, parametro

hauetan oinarrituta daude: baliabide naturalen eta energiaren erabilera eta kontsumoa; atmosferara, uretara eta lurrera egindako isurpenak; hondakinen ezabaketa; eta lehengaien erauzketan eta paperaren produktzioan, banaketan eta erabileran sortzen diren zaratak eta usainak

🚫 *Paper ekologiko* izendapenak ez du esan nahi papera birziklatua edo klororik edo oinarritzko klororik gabekoa denik.

en *ecological paper*  
es *papel ecológico*  
fr *papier écologique*

👉 **klororik gabeko paper; paper birziklatu**

## paper erabili

SIN: paper zahar

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Erabilitako paperez osatutako hondakina, berreskuratuz gero birziklatzeko erabil daitekeena.

en *waste paper*  
es *papel usado*  
fr *vieux papier*

👉 **paper birziklatu**

## paper zahar

➔ **paper erabili**

## paper-hondakin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Paper erreusez osatutako papergintzako hondakina.

en *paper waste*  
es *residuo de papel*  
fr *déchet de papier*

## parke

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Gizakiak gutxi ustiatu edota eraldatu duen natur gunea, paisaiaren ederragatik, ekosistemak oso adierazgarriak izateagatik edo flora, fauna edo formazio geologiko berezi-bereziak izateagatik, lehentasunezko kontserbazioa merezi duten balio ekonomikoak, estetikoak, hezkuntzakoak eta zientziakoak dituen.

en *park*  
es *parque*  
fr *parc*

👉 **natur gune babestu**

## parke coliko

➔ **haize-parke**

## parke nazional

*Antroposfera (paisaia, geografia) / Ingurumen-politika*

Estatuak kudeatzen duen natur gune babestua, giza jarduerak eraldatu ez duena edo oso gutxi eraldatu duena, eta interes handiko flora, fauna, paisaia eta formazio geologikoak bere horretan kontserbatzeko helburuaz eratua.

en *national park*  
es  
fr *parc national*

☞ natur gune babestu; NKNB

## partikula

☞ zatiki

## partikula esekiak

☞ zatiki esekiak

## partikula esekien guztizko

☞ zatiki esekien guztizko

## partikula esekien total

☞ zatiki esekien guztizko

## partikula jalkikorrak

☞ zatiki jalkikorrak

## patogeno

*Osasuna, nutrizioa*

Gaixotasuna sortzen duena edo sor dezakeena. Normalean, organismoak izendatzeko erabiltzen da, hala nola gaixotasunak sor ditzaketen birusak, bakterioak, protozooak, etab.

en *pathogen; pathogenic*

es *patógeno, -a*

fr *pathogène*

## PCB

☞ poliklorobifenilo

## PCT

☞ poliklorotrifenilo

## pedologia

☞ edafologia

## pelagiko

*Biosfera / Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Itsasoan, sakonera ertaineko urei dagokiena, ur horietan aktiboki (nektona) edo pasiboki (planktona) igerian bizi dena. Adibidez, antxoak, txitarroa eta hegazuak arrain pelagikoak dira.

⚠ Ur horietan arrantza egiteko erabiltzen diren arrantza-aparailuak eta arrantza-mota izendatzeko ere erabiltzen da.

en *pelagic*

es *pelágico*

fr *pélagique*

☞ demertsal

## perfluorokarbono (PFC)

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Fluor- eta karbono-atomoz osatutako konposatuen izen generikoa. Berotegi-efektu handiko produktuak dira.

en *perfluorinated hydrocarbon; perfluorocarbon; PFC*

es *perfluorocarbono; PFC*

fr *hydrocarbure perfluoré; perfluorocarbonate; PFC*

☞ berotegi-efektu

## perkloroetileno

☞ tetrakloroetileno

## perkolazio

1

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Likidoak material porotsu bat (iragazki bat) poliki zeharkatzea. Likidoak arazteko erabiltzen da.

en *percolation*

es *percolación*

fr *percolation*

2

*Hidrosfera*

Ura lur azpira iragaztea, lurpeko uretara iritsi arte. Lurzoruaren eta arroren iragazkortasunaren arabera da.

en *percolation*

es *percolación*

fr *percolation*

## permakultura

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Giza habitat ekologikoak eta elikagaiak ekoizteko sistema ekologikoak diseinatzeko jarduera.

en *permaculture*

es *permacultura*

fr *permaculture*

## peroxiazetil nitrato (PAN)

*Kimika, substantziak, prozesuak*

$\text{CH}_3\text{CO}\Sigma\text{O}_2\text{NO}_2$  formulako konposatua. Smog fotokimikoaren osagaia da, eguzki-erradiazioaren eraginez aireko hidrokarburoek eta nitrogeno-oxidoek erreakzionatzen dutenean eratzen dena. Landareentzat toxikoa da, eta pertsonentzat narritagarria.

en *peroxyacetyl nitrate (PAN)*

es *nitrato de peroxiacetilo; NPA*

fr *nitrate de peroxyacetyl; NPA*

☞ smog fotokimiko

## pestizida

*Produktuak, materialak*

Landare nahiz animalia izurri-sortzaileak kontrolatzeko edo suntsitzeko erabiltzen den substantzia edo hainbat substantziaren nahastea.

en *pest control product; pesticide*

es *pesticida; plaguicida*

fr *pesticide*

## petrolio

*Produktuak, materialak*

Hidrokarburo-nahaste likatsu eta sukoia, kolore ilun eta usain bortitzekoa, lurpean metatutako organismoen transformazio geldoaren emaitza dena. Hidrokarburo aseaz edo parafinikoz, hidrokarburo ziklikoz edo nafte-nikoz eta, batzuetan, hidrokarburo aromatikoz osatua dago. 48 MJ/kg inguruko berotze-ahalmena du.

en *oil; petroleum*

es *petróleo*

fr *pétrole*

☞ **oliobide; petrolio-findegi**

## petrolio-findegi

SIN: findegi

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Petrolio gordinaren osagaiak distilazio bidez bereizi eta produktu amaituak (PGL, gasolina, kerosenoa, gasolioa, fuel-olioa, parafinak, betuna, asfaltoa..) lortzeko prozesuak egiten diren instalazioa.

en *oil refinery; petroleum refinery; refinery*

es *refinería; refinera de petróleo*

fr *raffinerie; raffinerie de pétrole*

☞ **distilazio; petrolio**

## petrolio-gas likidotu (PGL)

*Produktuak, materialak*

Petroliotik lortutako hidrokarburu arinen nahastea, nagusiki propanoz eta butanoz osatua. Giro-temperaturan eta -presioan gasa da, eta presiopean edota temperatura baxuan likidoturik dago. Erregaitzat erabiltzen ez den batez ere gas naturalaren hornikuntza-sarea heltzen ez den tokietan. Bestalde, ibilgailuetan erabiltzeko ordezko erregaitzat ere jotzen da. 23,5 MJ/m<sup>3</sup> inguruko berotze-ahalmena du.

en *liquefied petroleum gas; liquid petroleum gas; LPG*

es *gas licuado del petróleo; GLP*

fr *gaz de pétrole liquéfié; GPL*

☞ **petrolio**

## petrolio-geruza

*Arriskuak, segurtasuna*

Itsas gainean zabaltzen den petrolio-masa, petrolio-itsasontzietatik edo petrolioaren erauzte-instalazioetatik ezbehar baten ondorioz edo berariaz isuria, eta haizeak, itsaslasterrek edo mareak mugiarazten dutena.

en *oil slick*

es *mancha de petróleo*

fr *nappe de pétrole*

☞ **marea beltz; petrolio**

## petrolio-isuri

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Petrolio-itsasontzietatik edo petrolioaren erauzte-instalazioetatik istripuz edo berariaz botatuko petrolio. Petrolio-isuria handia bada, marea beltza eratzeko arriskua dago. Bestalde, hodi eta tangetako isuriak ur-masetatik urrun ere gerta daitezke, eta, horrelakoetan, isuritako petrolioak lurra edota lurpeko urak kutsa ditzake.

en *oil spill*

es *derrame de petróleo*

fr *déversement d'hydrocarbure*

☞ **marea beltz**

## PFC

☞ **perfluorokarbono**

## PGL

☞ **petrolio-gas likidotu**

## pH

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Protoien kontzentrazioaren logaritmoaren bidez lortzen den eskala logaritmikoa, disoluzio baten azidotasuna edo basikotasuna neurtzeko erabiltzen dena. pH-aren balioak 0 eta 14 artekoak izan daitezke. pH = 7 bada, disoluzioa neutroa da; 7 baino txikiagoa bada, azidoa; eta 7 baino handiagoa bada, basikoa. Eskala logaritmikoa denez, pH = 3 den disoluzioa pH = 4 den disoluzioa baino hamar aldiz azidoagoa da, eta pH = 5 den disoluzioa baino 100 aldiz azidoagoa.

en *pH*

es *pH*

fr *pH*

## pH-aren doitze

☞ **neutralizazio**

## piezometro

SIN: behatzeko putzu

*Ikerkuntza, zientziak*

Maila piezometrikoa neurtzeko eta horren bidez lurpeko uren mailaren aldaketak jakiteko, lurpean egiten den diametro txikioko zuloa.

en *observation well; piezometer*

es *piezómetro; pozo de observación*

fr *piezomètre; puits d'observation*

## pila

1 ☞ **pila primario**

2 ☞ **pila elektrokimiko**

## pila elektrokimiko

SIN: pila; pila galvaniko; pila voltaiko

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Erreakzio kimiko batean askatzen den energia elektrizitate bihurtzen duen gailua, elektrolito batez eta bi elektrodoz osatua. Ditzuten metal astun eta merkurioagatik, pila erabiliak metal-hondakin bereziak dira, aparte bildu beharrekoak.

en *battery; cell; electrochemical cell; galvanic cell; voltaic cell*

es *pila; pila electroquímica; pila galvánica; pila voltaica*

fr *pile; pile électrochimique; pile galvanique; pile voltaïque*

☞ **botoi-pila; merkurio; metagailu; pila primario**

## pila galvaniko

☞ **pila elektrokimiko**

## pila primario

SIN: pila

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Deskargatutakoan berriz ezin karga daitekeen pila elektrokimikoa.

en *primary battery; primary cell*

es *elemento primario; pila*

fr *élément primaire; pile*

☞ **metagailu; pila elektrokimiko**

## pila sekundario

→ **metagailu**

## pila voltaiko

→ **pila elektrokimiko**

## pilokako konpostaje

→ **metakako konpostaje**

## pintura

SIN: margo

*Produktuak, materialak*

Kolorea emateko erabiltzen den produktu likidoa, pigmentua eta bes-telako osagaiak (disolbatzaileak, diluitzaileak, plastifikatzaileak, lehortzaileak, etab.) dituen, azal batean zabaldu eta ondoren lehortu egiten dena.

en *paint*

es *pintura*

fr *peinture*

☞ **disolbatzaile**

## pirolisi

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Gai bat oxigenorik gabeko giroan berotuz deskonposatzea. Hondakin organikoak beroaren bidez deskonposatzeko erabiltzen den tratamendu termikoa da. Bestalde, erregai fosilen transformazio-prozesu batzuen funtsa ere bada, esate baterako, biomasaren pirolisia (hainbat produktu eta erregai lortzeko), harrikatzaileen distilazio lehorra eta petrolioaren cracking termikoa (azken biok, eskuarki pirolisi terminoaz izendatzen ez badira ere, pirolisi-prozesu burutugabeak dira funtsean).

en *pyrolysis*

es *pirólisis*

fr *pyrolyse*

☞ **biomasa; biomasa-energia**

## piszizida

*Produktuak, materialak*

Arrainen kontrako pestizida.

en *piscicide*

es *piscicida*

fr *piscicide*

☞ **pestizida**

## plankton

*Biosfera*

Uretan esekita dauden bizidun txikien multzoa, landare, animalia, arrain-larba eta -arautza, bakterio eta birusez osatua. Planktona osatzen duten organismoak marearekin eta ur-lasterrekin batera higitzen dira. Uretako hainbat espezieren elikagai dira. Planktoneko fitoplanktonaren bat-bateko eta gehiegizko ugalketak marea gorri deritzon fenomeno eragiten du, itsas animalientzat eta gizakiarentzat oso arriskutsua izan daitekeena.

en *plankton*

es *plancton*

fr *plancton*

☞ **bakterioplankton; bioplankton; fitoplankton; iktioplankton; marea gorri; zooplankton**

## plastiko

*Produktuak, materialak*

Osagai nagusizat polimero bat duen material sintetiko moldagarria.

en *plastic*

es *plástico*

fr *plastique*

## plutonio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 94 duen elementu erradioaktibo artifiziala (Pu). Uranio-238a neutroiz bonbardatuz eratzen da. Isotopo asko ditu (garrantzitsuenak 239 du masa atomikoa). Fisionagarria da eta oso erradioaktiboa eta toxikoa. Arma nuklearrak egiteko eta errektore nuklearretan erregaitzat erabiltzen da. Plutonioaren hondakinek arazo eta arrisku handiak sortzen dituzte.

en *plutonium*

es *plutonio*

fr *plutonium*

☞ **hondakin erradioaktibo**

## polder

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Itsasoaren edo ibaien urei eusteko dizek inguratutako padura edo zingira, lehortu eta gatzgabetu ondoren nekazaritzarako erabil daitekeena. Polderren teknika Herbehereetan sortu zen, eta hangoak dira ezagunenak; batez ere, eskualderik epelenetako kostaldean daude. Euskal Herrian, Urdaibaikoak dira, beharbada, ezagunenak, Murueta aldean daudenak.

en *polder*

es *pólder*

fr *polder*

## poli(binil kloruro)

→ **PVC**

## polielektrolito

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Osagai ionikoak dituen polimero natural edo sintetikoa. Flokulaziorako eta lohiak loditzeko erabiltzen dira.

en *polyelectrolyte*

es *polielectrólito*

fr *polyélectrolyte*

## poliklorobifenilo (PCB)

SIN: bifenilo polikloratu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Bi fenilo-eraztun eta haien hidrogenoak ordezkatur bi eta hamar bitarteko kloro-atomo dituen konposatu organokloratua (200 produktu kimikoren baino gehiagoren nahasteak dira PCBak). Likido oliotsuak edo solidoak izan daitezke. Egonkorak dira, eta isolatzaile onak (transformadoreetan erabiltzen zen olio mineral bat egiteko baliatu izan dira). Eta pinturretan, inprimategiko tintetan, lubrifikatzaileetan eta pestizidetan ere erabili dira.

Oso iraunkorrak dira naturan eta metatu egiten dira elikatze-katean. Toxikoak dira, bizidun askorentzat hilgarri (arrain eta ornogabeentzat, adibidez) eta pertsonen hainbat asalduraren sortzaile (dermatitisa, gibel-ara-

zoak, etab.). Eta uste da kartzinogenoak ere badirela. Horregatik, hondakin arriskutsuak dira. Ez dira nahasten urarekin, disolbaezinak eta ura baino astunagoak baitira, eta lurzoruan atxikitze joera dute. Europako Batasunaren 96/59 Zuzentarauaren arabera, 2010. urtearen amaierarako erabat debekatu eta ezabatu behar dira.

en *polychlorinated biphenyl (PCB); polychlorobiphenyl (PCB)*  
es *bifenilo policlorado; PCB; policlorobifenilo; policloruro de bifenilo*  
fr *biphényle polychloré; PCB; polychlorobiphényle*

☞ **poliklorotrifenilo**

## poliklorotrifenilo (PCT)

SIN: trifenilo polikloratu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Hiru fenilo-eratzun eta haien hidrogenoak ordezkatuz bi eta hamalau bitarteko kloro-atomo dituen konposatu organokloratua. Isolatuakile elektriko gisa erabiltzen dira, eta, horrez gain, pinturretan, tintetan, pestizidetan eta abarretan ere erabiltzen dira. Oso iraunkorrak dira naturan, eta metatu egiten dira elikatze-sarean. Toxikoak dira, eta kantzerigenoak direla uste da. Horregatik, hondakin arriskutsuak dira, eta, Europako Batasunaren 96/59 Zuzentarauaren arabera, 2010. urtearen amaierarako erabat debekatu eta ezabatu behar dira. PCBen antzeko propietateak dituzte, eta erabili ere haien antzeko produktuetan erabiltzen dira.

en *polychloroterphenyl (PCT); polychlorinated triphenyl (PCT); polychlorinated terphenyl (PCT)*  
es *trifenilo policlorado (PCT); policloroterfenil (PCT)*  
fr *terphényle polychloré (PCT); triphényle polychloré (PCT); polychloro-triphényle (PCT)*

☞ **poliklorobifenilo**

## polimero

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Unitate baten (monomeroaren) errepikapenez osatutako makromolekula natural edo sintetikoa. Polimeroz osatutako materialek ez dute pisu molekular zehatzik, luzera desberdineko hainbat katez osaturik daudelako. Polimeroak material plastikoaren oinarria dira.

en *polymer; polymere*  
es *polímero*  
fr *polymère*

☞ **plastiko**

## poluitzaile

SIN: kutsatzaile

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurune, organismo edo gai batean natura-orekari dagokiona baino kontzentrazio handiagoan dagoen substantzia edo kantitate handiagoan dagoen energia-mota, eta, ondorioz, sistemaren aldaketa eragin dezakeena.

en *pollutant*  
es *contaminante*  
fr *polluant*

☞ **erdibizitza; poluzio**

## poluitzaile-jalkin

➔ **jalkin**

## poluitzaile-jalkitze

➔ **jalkitze**

## poluzio

SIN: kutsadura

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Giza jardueraren ondorioz, dela zuzenean dela zeharka, atmosferan, uretan edo lurzoruan materia (substantziak) edo energia (dardarak, beroa, zarata) sartzea, gizakien osasunerako edo ingurumenaren kaliterako kaltegarria izan daitekeena, ondasun materialak hondatzen dituen edo inguruneaz gozatzea galarazten duena edo ingurunearen bestelako erabilera zilegietarako oztopo dena.

en *pollution*  
es *contaminación; polución*  
fr *pollution*

☞ **airearen poluzio; bero-kutsadura; lurzoruaen poluzio; poluzio akustiko; uraren poluzio**

## poluzio akustiko

SIN: hots-kutsadura

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurune maila akustikoari eragiten dion poluzioa, zarata sortzea alegia, giza jarduerak sorrarazia edo naturan sortua.

en *noise pollution*  
es *contaminación acústica; polución sonora*  
fr *nuisance acoustique*

## poluzio atmosferiko

➔ **airearen poluzio**

## poluzio biologiko

SIN: kutsadura biologiko

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurune batean espezie autoktono edo arrotzak gehiegi ugaltzeak edo mikroorganismo patogenoak ugaltzeak sortzen duen poluzio-mota.

en *biological pollution*  
es *contaminación biológica*  
fr *pollution biologique*

☞ **poluzio**

## poluzio kimiko

SIN: kutsadura kimiko

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurunean substantzia kimikoak isuri edo askatzeak sortzen duen poluzio-mota.

en *chemical pollution*  
es *contaminación química*  
fr *pollution chimique*

☞ **poluzio**

## poluzio lauso

SIN: kutsadura lauso

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Poluitzaileak puntu jakin bakar batean ez baizik eta hainbat puntu zehaztugabetan botatzeak edo aieratzeak eragiten duen poluzio-mota, nekez kontrola daitekeena. Poluzio lausoa ez denari *poluzio puntual* deritzen.

en *area pollution; diffuse pollution; nonpoint pollution*  
es *contaminación difusa*

fr *pollution diffuse*

☞ **poluzio; poluzio puntual**

## poluzio puntual

SIN: kutsadura puntual

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Poluitzaileak puntu jakin bakar batean botatzeak edo aireeratzeak eragiten duen poluzio-mota, erraz kontrola daitekeena. Poluzio puntualaren iturri nagusiak dira, adibidez, hondakin-uren araztegiatiko hondakinak, fabriketako tximiniak, etab. Mota horretako poluitzaileak, oro har, identifikatu, neurtu eta kontrolatu egin daitezke. Poluzio puntuala ez denari *poluzio lauso* deritzen.

en *point source pollution*

es *contaminación puntual*

fr *pollution ponctuelle*

☞ **poluzio; poluzio lauso**

## poluzio termiko

➔ **bero-poluzio**

## poluzioa murrizte

SIN: kutsadura murrizte

*Ingurumen-politika*

Poluzio-maila edo -intensitatea murriztea edo poluzioa erabat ezabatzea.

en *pollution abatement*

es *reducción*

☞ **poluzio**

## poluzioaren kontrol

SIN: kutsaduraren kontrol

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ikerkuntza, zientziak*

Ingurunera botatzen diren poluitzaileen kantitatea muga jakin batzuetatik behera egon dadin bermatzeko egiten den lana, hainbat prozedura tekniko eta lege-arauz egin daitekeena.

en *control of pollution; pollution control*

es *control de la contaminación*

fr *lutte antipollution; lutte contre la pollution*

## poluzioaren prebentzio

SIN: kutsaduraren prebentzio

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ingurumen-politika*

Poluzio-iturri diren prozesuek sortzen dituzten hondakin eta emisioak gutxitzeko, edo direlako prozesuon ordean poluzio gutxiago sortzen duten beste batzuk bultzatzeko, enpresak edo administrazioak hartzen dituen neurrien multzoa.

en *environmental prevention; pollution prevention*

es *prevención ambiental; prevención de la contaminación*

fr *prévention des pollutions*

☞ **isuririk ez; minimizazio**

## poluzio-iturri

SIN: emisio-iturri; kutsadura-iturri

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurunera poluitzaileak egozten dituen tresna edo prozesua.

! *Emisio-iturri* terminoa, gehienetan, poluitzaileak aireatzen dituen iturria adierazteko erabiltzen da.

en *emission source; pollution source; source of emission*

es *fuelle de contaminación; fuente de emisión*

fr *source d'émission; source de pollution*

☞ **iturri ez-puntual; iturri finko; iturri higikor; iturri puntual**

## poluzio-karga

SIN: kutsadura-karga

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Denbora-unitateko uretara isurtzen den edo araztegi batean sartzen den poluitzaile-kantitatea.

en *pollution burden; pollution load; pollutional load*

es *carga contaminante*

fr *charge polluante*

☞ **karga kritiko**

## ponpatze-estazio

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Ura norabait igotzeko edo bidaltzeko instalazioa, ponpatzeko behar diren tresnez hornitua.

en *pumping station*

es *estación de bombeo*

fr *station de pompage*

## populazio

1

*Biosfera*

Toki jakin batean bizi diren espezie bereko banakoen multzoa.

en *population*

es *población*

fr *population*

2 SIN: biztanleria

*Gizartea*

Herri, eskualde edo eremu jakin batean bizi diren gizakien multzoa.

en *population*

es *población*

fr *population*

## potasio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 19 duen elementu kimikoa (K). Metal alkalinoa da, arina; lurrazaleko zazpigarren elementurik ugariena da. Bizidunentzat oso beharrezkoa da (zelula barneko katioi ez-organikorik garrantzitsuena da). Potasio-soberakina gerru eta izerdiarekin batera iraitzen da. Landareen oinarritzko mantenua da.

en *potassium*

es *potasio*

fr *potassium*

## ppb

➔ mila milioiko

## ppm

➔ milioiko

## prebentzio

*Ingurumen-politika*

Ingurumenerako arriskutsu edo kaltegarri izan daitezkeen gertakariak aurrez ikusteko, saihesteko edota indargabetzeko neurrien multzoa.

en *prevention*  
es *prevención*  
fr *prevention*

## prentsa-iragazki

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Lohiak deshidratatzeko iragazte-sistema, presio bidez lan egiten duena. Ehun iragazlez bereizitako xaflen artera isurtzen da lohia, eta, ondoren, sistema osoa prentsa sakatzen da. Solidoa ehun iragazleak hartzen du, eta likidoa drainatze-sistemaz kanporatzen da.

en *filter press*  
es *filtro prensa*  
fr *filtre presse*

☞ **lohien tratamendu; xingola-iragazki**

## presa

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Ibai baten ibilguan egiten den horma-moduko eraikuntza, urari bidea eragozten diona eta biltzen duen ur-maila kontrolatzeko sistemaz hornitua dena. Presen helburua askotarikoa izan daiteke: edateko, industriarako edo ureztapenerako ura biltzea; energia elektrikoa ekoiztea; ur-goraldiak kontrolatzea; ur-bazterrak babestea; nabigazioa erraztea; ibaiaren emaria erregulatzeko; etab. Presak eraikitzeke, gehien erabiltzen diren materialak hormigoia, harria eta lurra dira, eta, horiekin batera, harri-horma, zura eta altzairua ere erabiltzen dira.

en *dam*  
es *presa*  
fr *barrage*

☞ **urtegi; zentral hidroelektriko**

## presio akustiko

SIN: soinu-presio

*Ikerkuntza, zientziak*

Soinu-uhin bat hedatzen den ingurune oreka-egoeraren asaldura neurtzeko magnitudea. Soinu-uhinak puntu batean presio atmosferikoarekiko eragiten duen presio-aldaketa da. Dezibelelan (dB) neurtu ohi da.

en *acoustic pressure; effective sound pressure; sound pressure*  
es *presión acústica; presión sonora*  
fr *pression acoustique*

☞ **dezibel; zarata; zarata-maila baliokide**

## presio akustiko jarraitu baliokidearen maila

➔ zarata-maila baliokide

## presio akustikoaren maila

SIN: soinu-maila

*Ikerkuntza, zientziak*

Presio akustikoaren balioaren eta erreferentziat hartzen den presioaren balioaren arteko erlazioaren maila adierazten duen zenbakia. Dezibelelan adierazia, presio akustikoaren eta erreferentzia-presioaren arteko zatiduraren logaritmo hamartarra bider hogeia (erreferentzia-presio akustikotzat 20 mikropascal hartu ohi da).

en *sound level; Sound pressure level*  
es *nivel de presión acústica; nivel sonoro*  
fr *niveau de pression acoustique; niveau sonore*

☞ **presio akustiko**

## prezipitazio

*Atmosfera*

Hodeietatik lurrera ur-zatiki likido (euria) zein solidoak (elurra, txin-gorra) jaustea.

en *precipitation*  
es *precipitación*  
fr *précipitation*

☞ **uraren ziklo**

## produktu ekologiko

SIN: produktu garbi

*Produktuak, materialak*

Bizi-ziklo osoan ingurumenean ahalik eta kalterik txikiena eragiteko diseinatu den produktua. Produktu batek eragin ditzakeen kalteak balioes-terko, kontuan hartu behar dira, besteak beste, lehengaien hautaketa, transformazio-teknologia, banaketa, kontsumoa eta hondakinen ezabaketa.

en *clean product; eco-product; environmentally friendly product; environmentally sound product*  
es *producto ecológico; producto limpio*  
fr *écoproduit; produit écologique; produit propre; produit vert*

## produktu garbi

➔ produktu ekologiko

## produktuaren bizi-ziklo

*Produktuak, materialak*

Ingurumenaren kudeaketaren ikuspegitik, produktua egiteko behar diren lehengaien ustiapenetik hasi eta produktua bera deuseztatu, ezabatu edo birziklatu arteko urratsen segida edo katea.

en *product life cycle*  
es *ciclo de vida del producto*  
fr *cycle de vie du produit*

☞ **ekobalantze; produktuaren bizi-zikloaren azterketa**

## produktuaren bizi-zikloaren azterketa (BZA)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Produktuaren bizi-zikloko atalei dagozkien ingurumenaren gaineko balizko eraginak identifikatu, kuantifikatu eta karakterizatzeko metodologia. Gaur egun, ISO erakundeak ISO 14040 arauaren bidez zehaztu du.

BZAri '*sebaskatik hilobira*' *analisi*a ere esaten zaio. BZAren elementu nagusiak hauek dira:

1- eraginak identifikatzea eta kuantifikatzea, hau da, produktua egiteko erabilitako energia eta lehengaiak, eta sortutako hondakinak eta emisioak.

2- eragin horien ingurumen-inpaktuen ebaluazioa egitea.



3- ingurumen-inpaktu horiek murrizteko zer aukera dagoen aztertzea.

en *product life cycle assessment (LCA)*

es *análisis del ciclo de vida del producto (ACV)*

fr *analyse du cycle de vie (ACV)*

☞ **ekobalantze; produktuaren bizi-ziklo; "sehaskatik hilobira" printzipio**

## Produktuen Politika Integratu (IPP)

### Ingurumen-politika

Produktuek beren bizi-zikloan zehar sortzen dituzten ingurumen-inpaktuak murrizteari begirako ikuspegia. Murrizketa lehengaien ateratzea-ekin hasi eta hondakinen kudeaketa arte hartzen da kontuan, ekoizpena, banaketa eta erabilera barne. Ideia nagusia da funtsezkoa dela ingurumen-inpaktuak produktuaren bizi-zikloaren fase bakoitzean integratzea eta estrategia horrek ondorioak izan beharra hor parte hartzen duten guztien erabakietan. Europako Batasunaren Batzordeak 2001.ean aurkeztutako Liburu Berdean aurkeztu zen IPPa estrategia gisa.

en *Integrated Product Policy; IPP*

es *Política de Productos Integrada; PPI*

fr *politique intégrée de produits (PIP)*

☞ **ekoizpen garbi**

## produkzio garbi

➔ **ekoizpen garbi**

## propulsaizaile

### Produktuak, materialak

Ontzi batean presiopean likidotuta dagoen gasa, ontzi berean dagoen gai likido edo solidoa irteera-zuloa zabaltzean atomizaturik edo apar edo hauts moduan kanporatzeko erabiltzen dena. Aerosolen osagaia da. Propulsaizailerik erabilienak CFC direlakoak izan dira.

en *aerosol propellant; propellant; propellent*

es *gas propulsor; propelente; propulsor*

fr *gaz propulseur; propulseur*

☞ **CFC**

## protozoo

### Biosfera

Zelula bakar batez edo elkarren berdinak diren zelula-multzo batez osatutako izakia, sarritan urtarra. Nukleobakarrak edo nukleoaniztunak dira.

en *protozoa; protozoan*

es *protozoario; protozoo*

fr *protozoaire*

## puntu berde

### Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza

Bilgarri eta ontzien hondakinak gaika bildu eta birziklatzeko sistema-ner adierazgarria. Puntu berde bat inprimatuta duen bilgarriak adierazten du birziklatze-sistema integratu batean sartzekoa dela eta bilgarri hori duen produktuaren fabrikatzaileak gaikako bilketa eta birziklapenaren sistema finantzatzeko diru-kopuru bat aurreratu duela. Sistema hau Alemanian ezarri zen 1980ko hamarkadaren amaieran, eta Europako beste herrialde batzuetara hedatu da. Hego Euskal Herrian, Ecoembalajes erakunde arduratzen da bilgarriak jasotzeaz; beirazko ontziez, berriz, Ecovidrio erakunde arduratzen da. Ipar Euskal Herrian, ostera, material-mota guztiak Eco-Emballages erakundeak kudeatzen ditu.

en *green dot*

es *punto verde*

fr *point vert*

☞ **birziklatze; ekoetiketa**

## putzu beltz

➔ **hobi septiko**

## putzu sakoneko injekzio

➔ **putzu sakonetan injektatze**

## putzu sakonetan injektatze

SIN: putzu sakoneko injekzio

### Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura

Hondakin arriskutsuak sakon lurperatzea. Hondakinak sakonera handiko arroka iragazkorren poroetan sakabanatzen dira.

en *deep-well injection*

es *inyección en pozos profundos*

fr *injection en puits profonds*

☞ **injekzio-putzu**

## putzu septiko

➔ **hobi septiko**

## PVC

SIN: poli(binil kloruro)

### Kimika, substantziak, prozesuak

Binil kloruroaren polimerizazioaren emaitza den gaia. Hainbat produktu egiteko erabiltzen da, hala nola jostailuak, bilgarriak, eraikuntzako osagaiak, etab.

en *polyvinyl chloride; polyvinylchloride; PVC*

es *poli(cloruro de vinilo); PVC*

fr *chlorure de polyvinyl; PVC*

## rad

### Ikerkuntza, zientziak

Xurgatutako erradiazio ionizatzailearen dosia neurtzen duen unitatea (rd). Gray-aren ehunena da.

en *rad*

es *rad*

fr *rad*

☞ **gray; xurgaturiko dosi**

## Ramsar-eko Hitzarmena

### Agiriak

1971ko otsailaren 2an, Ramsar-en, nazioarteko garrantzia duten hezeguneei buruz sinatutako nazioarteko hitzarmena.

en *Ramsar Convention*

es *Convenio de Ramsar*

fr *Convention de Ramsar*

☞ **hezegune; nazioarteko garrantziko hezegune**

## rem

### Ikerkuntza, zientziak

(ingelesezko *Roentgen Equivalent Man*-en sigla) Dosi baliokidearen

unitatea. Sievert-en ehunena da.

en *rem*  
es *rem*  
fr *rem*

👉 **dosi baliokide; roentgen; sievert**

## Ringelmann-en eskala

*Ikerkuntza, zientziak*

Kearen opakotasuna mailakatzeko erabiltzen den 0tik 5era bitarteko eskala. 0 balioa ke zuriari dagokio eta 5a ke beltzari.

en *Ringelmann chart; Ringelmann scale*  
es *escala de Ringelmann*  
fr *carte étalon de Ringelmann*

## Rio de Janeiroko Konferentzia

➔ **Nazio Batuen Ingurumen eta Garapenari buruzko Konferentzia**

## roentgen

SIN: röntgen

*Ikerkuntza, zientziak*

X edo gamma izpiekiko esposizioaren unitatea (R). Kilogramoko 2,58 x 10<sup>-4</sup> coulomb-en baliokidea da.

en *roentgen; röntgen*  
es *roentgen; röntgen*  
fr *roentgen; röntgen*

👉 **esposizio**

## Roentgen izpiak

➔ **X izpiak**

## röntgen

➔ **roentgen**

## sabana

*Biosfera*

Landare belarkaraz eta zuhaitz bakanez osatutako landaredia ezaugarri duen bioma-mota, urtaro lehor eta hezeen txandaketa gertatzen den klima beroko tokietan garatzen dena.

en *savanna; savannah*  
es *sabana*  
fr *savane*

👉 **ekosistema**

## sagar-lapa

➔ **sagar-pats**

## sagar-pats

SIN: sagar-lapa

*Produktuak, materialak*

Sagarra dolarean zapaldutakoan gelditzen den hondakin solidoa. Abereak bazkatzeko, ongarritarako eta pektinak lortzeko erabiltzen da.

en *pomace*  
es *orujo de la manzana*  
fr *marc de pommes*

## sakabanatze

➔ **dispertsio**

## salmenta-bilgarri

➔ **lehen mailako bilgarri**

## saneamendu

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak) / Osasuna, nutrizioa*

Herri bateko higiena eta osasungarritasuna ziurtatzearen, hondakin likido eta solidoak kudeatzeko erabiltzen diren teknika eta neurrien multzoa. Bere baitan, besteak beste, hauek hartzen ditu: ur-hornidura, euri-urak hustutzea, hondakin-urak biltzea, tratatzea edota baliaraztea (estolde-ria, drainatzeak, isurpena, araztegiak), hondakin solido eta zaborrak biltzea, metatzea eta tratatzea.

en *sanitation; sewerage*  
es *saneamiento*  
fr *assainissement*

## saneamendu-sare

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Euri- eta hondakin-urak jaso, bideratu, hustu eta tratatzeko egiten diren azpiegitura-lan eta instalazioen multzoa.

en *sewer system; sewerage system*  
es *red de saneamiento*  
fr *réseau d'assainissement*

## sare trofiko

➔ **elikatze-sare**

## saroi

➔ **baso**

## sats

➔ **simaur**

## sedimentazio

➔ **jalkitze**

## segurtasun-biltegi

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Arriskua desagerrarazteko edo gutxitzeko, gaur egun tratamendurik ez duten hondakin arriskutsuak gordetzeko bereziki prestatutako instalazioa. Hondakinetan dauden substantzia arriskutsuak ingurumenari eta pertsonen osasunari kalte egin ez diezaieten, segurtasun-neurri bereziak hartuta isolatzen dira.

en *secure chemical landfill*  
es *celda de seguridad; depósito de seguridad*  
fr *centre d'enfouissement technique*

👉 **hondakin arriskutsu**

## "sehaskatik hilobira" printzipio

*Legeak, arauak, hitzarmenak*

Produktu baten bizitza-zikloaren faseetako bakoitzean (lehengaien erauzketatik hondakinen kudeaketaraino, produkzio, banaketa eta erabileratik pasatuta) ingurumen-efektuak integratu beharra defendatzen duen printzipioa.

en *cradle-to-grave system; from cradle to grave*  
es *principio "de la cuna a la tumba"*

fr *approche global*

## seismo

↳ **lurrikara**

## selenio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 34 duen elementu kimikoa (Se). Beira, pintura eta kautxoaren industrian eta elektronikan erabiltzen da, batez ere. Bizidunen mikromantenugaia da, baina kontzentrazio handiagoan toxikoa (arnasbideen narritadurak, gibel- eta giltzurrun-arazoak eragin ditzakeelako), kartzinogenoa eta teratogenikoa izan daiteke.

en *selenium*  
es *selenio*  
fr *sélénium*

## semidesintegrazio-periodo

↳ **erdibizitza**

## Seveso zuzentaraua

*Legeak, arauak, bitzarmenak*

Europako Ekonomia Erkidegoaren ekainaren 24ko 82/501 Zuzentarauari eman ohi zaion izena.

en *Seveso directive*  
es *directiva Seveso*  
fr *directive Seveso*

☞ **dioxina; istripu larri**

## sievert

*Ikerkuntza, zientziak*

Xurgatutako erradiazio ionizatzailearen dosi baliokidea neurtzen duen Nazioarteko Unitate Sistemako unitatea (Sv).

en *sievert*  
es *sievert*  
fr *sievert*

☞ **dosi baliokide; gray; roentgen; xurgaturiko dosi**

## silbikultura

↳ **basogintza**

## simaur

SIN: gorotz; sats

*Produktuak, materialak*

Abereen gernuaz, gorotzaz eta azpien eta janariaren hondakinez osatutako nahaste solidoa. Ongarritarako erabiltzen da.

en *manure*  
es *abono; estiércol*  
fr *fumier*

## sinbiosi

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Espezie berekoak ez diren bizidun biren arteko harreman iraunkorra eta estua, bientzat mesedegarria.

! Adiera hertsian, sinbiosiak ez du nahitaz bientzat mesedegarri zertan izan; horretarako terminorik zehatzena *mutualismo* da, baina gehienetan ez da bereizketarik egiten.

en *symbiosis*  
es *simbiosis*  
fr *symbiose*

## sinekologia

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Landare- edota animalia-komunitateek beren ingurunearekin dituzten harremanak aztertzen dituen ekologiaren adarra.

en *synecology*  
es *sinecología*  
fr *synécologie*

☞ **autoekologia; ekologia**

## sinergia

SIN: sinergismo

*Ikerkuntza, zientziak*

Elkarri eragiten dioten bi agente edo gehiagok batera jardutea, eta, ondorioz, eragindako efektua haietako bakoitzak bakarka jardunda sortuko lituzketen efektuen batura baino handiagoa izatea.

en *synergism; synergy*  
es *sinergia; sinergismo*  
fr *synergie*

## sinergismo

↳ **sinergia**

## sistema-teoria

*Ikerkuntza, zientziak*

Sistema bere osagaien ezaugarrien batura hutsa ez dela, sistemak berezko ezaugarriak eta aparteko izaera dituela dioen teoria, errealitatea aztertzeko osotasuna eta ez elementuen batura kontuan hartzen duena.

en *systems theory*  
es *teoría de sistemas*  
fr *théorie des systèmes*

## smog

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Substantzia poluitzaileak dituen laino-modukoa, osasunerako zein ingurumenerako kaltegarria, poluitzaile-kantitate handiak aineratzen direnean eta baldintza meteorologiko eta geografiko jakin batzuk betetzen direnean osatzen dena.

en *smog*  
es *niebla contaminante; smog*  
fr *smog*

☞ **airearen poluzio; nitrogeno-oxidoak; sufre-oxidoak**

## smog azido

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Erregaien errekuntzaren emaitza diren sufre dioxidoa (SO<sub>2</sub>) eta errautsak aireko ur-lurrunarekin konbinatzean sortzen den smog-mota; azido sulfurikoa (H<sub>2</sub>SO<sub>4</sub>) duenez, oso azido eta korrosiboa da.

en *acid smog*

es *niebla contaminante ácida; smog ácido*  
fr *smog acide*  
☞ **smog; sulfre dioxido**

## smog fotokimiko

SIN: smog fotokimiko oxidatzaile; smog oxidatzaile

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Atmosferan diren nitrogeno-oxidoek, konposatu organiko lurrunkorrek eta bestek eguzki-izpien eraginez airearen osagaiekin erreakzionatzen dutenean sortzen den laino poluitzailea, konposatu oxidatzaile asko dituen.

en *oxydant smog; photochemical oxydant smog; photochemical smog*  
es *niebla contaminante fotoquímica; smog fotoquímico; smog fotoquímico oxidante; smog oxidante*  
fr *smog oxydant; smog photochimique; smog photochimique oxydant*  
☞ **smog**

## smog fotokimiko oxidatzaile

☞ **smog fotokimiko**

## smog oxidatzaile

☞ **smog fotokimiko**

## sodio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 11 duen elementu kimikoa (Na). Metal alkalinoa, zuria eta biguna da. Oso errektiboa da, eta urarekin oso bortizki erreakzionatzen du. Naturan sodio kloruro (gatz arrunta) moduan dago nagusiki, eta silikato askoren osagaia ere bada. Prozesu industrial askotan erabiltzen da, hala nola argi horia ematen duten sodio-lurrunezko deskarga-lanparak egiteko. Bizirako funtsezko elementua da (adibidez, zelulaz kanpoko likidoko katioi ez-organiko nagusia da). Gernu eta, batez ere, izerdiarekin batera iraitzen du organismoak. Lurzoruan sodio gehiegi izateak (gazitasunak) landare-hazkuntza egokia eragozten du.

en *sodium*  
es *sodio*  
fr *sodium*

## soinu-absortzio

☞ **soinu-xurgapen**

## soinu-isolamendu

SIN: isolamendu akustiko

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Areto baten barruan kanpoko hotsak ez entzutea edota aretoan sortutakoak kanpora ez hedatzea (edo intentsitate-maila jakin batetik beherakoa izatea) helburua duen instalazioa. Soinua xurgatzen duten materialak erabiltzen dira horretarako.

en *acoustic insulation; sound insulation; sound reduction; transmission loss*  
es *aislamiento acústico*  
fr *isolement acoustique*  
☞ **pantaila akustiko; poluzio akustiko**

## soinu-maila

☞ **presio akustikoaren maila**

## soinu-moteltze

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Soinu-uhinaren anplitudea ingurune bat zeharkatzean txikiagotzea. Xurgapenaz eta barreiaduraz gerta daiteke.

en *sound attenuation*  
es *atenuación acústica; atenuación del sonido*  
fr *atténuation acoustique; atténuation sonore*  
☞ **poluzio akustiko; soinu-xurgapen; zarata**

## soinu-presio

☞ **presio akustiko**

## soinu-xurgapen

SIN: soinu-absortzio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak / Ikerkuntza, zientziak*

Soinu-uhina ingurune batetik igarotzean edo gainazal baten kontra jotzean gertatzen den energia-galera neurtzen duen magnitueda.

en *acoustic absorption; sound absorption*  
es *absorción acústica; absorción del sonido*  
fr *absorption du son*  
☞ **soinu-moteltze**

## solido

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Ohiko tenperatura eta presiopean bolumen eta forma jakina gordezten duen gorputza. Materiaren egoeretakoa bat da.

en *solid*  
es *sólido*  
fr *solide*  
☞ **gas; likido**

## solido disolbatuak

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Ur-lagin bat iragazi eta lurrundu ondoren, bolumen-unitateko gelditzen den hondar solidoaren masa. Litroko miligramotan (mg/l) adierazi ohi da. Solido disolbatuen kontzentrazioaren arabera, ura desegokia izan daiteke edateko, ureztatzeko, industrian erabiltzeko eta abarretarako.

en *dissolved solids*  
es *sólidos disueltos*  
fr *matières dissoutes*  
☞ **solido esekiak; solido jalkikorrek; solidoen guztizko**

## solido esekiak

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Uretan esekita dauden partikulen kantitatea, likidotik iragaziz edo zentrifugatuz bereiz daitekeena.

en *suspended matter; suspended sediments; suspended solids*  
es *materias en suspensión; sólidos en suspensión*  
fr *matières en suspension*  
☞ **hondakin-uren arazketa; solido disolbatuak; solido jalkikorrek; solidoen guztizko**

## solido jalkikorrek

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Hondakin-uren arazketan, denbora-bitarte jakin batean jalkitzen diren solido esekien kantitatea.

en *settleable solids*  
es *sólidos sedimentables*  
fr *matières décantables*

☞ **hondakin-uren arazketa; solido esekiak**

## solidoen guztizko

➔ **solidoen total**

## solidoen total

SIN: solidoen guztizko

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Solido esekien eta solido disolbatuen batura.

en *total solids*  
es *sólidos totales*  
fr *matières solides totales*

☞ **solido disolbatuak; solido esekiak; solido jalkikorak**

## solutu

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Disolbatzaile batean disolbatutik dagoen substantzia.

en *solute*  
es *soluto*  
fr *soluté*

## sorburuan birziklatze

➔ **sorburuko birziklatze**

## sorburuan murrizte

➔ **sorburuko murrizketa**

## sorburuko bereizketa

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ingurumen-politika*

Hondakinak sortzen diren une eta toki berean motaren arabera aparteko ontzi edo biltegietan jasotzea, geroko baliaraztea erraztearren.

en *separation at source; source segregation; source separation*  
es *separación en origen; separación in situ*  
fr *séparation à la source; tri à la source*

## sorburuko birziklatze

SIN: sorburuan birziklatze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ingurumen-politika*

Emisio edo hondakina sortu den leku berean birziklatzea.

en *source recycling*  
es *reciclaje en origen; reciclaje interno*  
fr *recyclage à la source*

## sorburuko murrizketa

SIN: sorburuan murrizte

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Ingurumen-politika*

Produkzio-prozesuan sortutako hondakinak, produktua kontsumitu ondoren sortuko direnak barne, gutxitzea edo horien arriskugarritasuna txi-

kiagotzea; horretarako, lehengai eta teknologia garbiak erabili behar dira edota produktuen konposizioa aldatu behar da.

en *reduction at source; source reduction*  
es *reducción en origen*  
fr *réduction à la source*

## spray

➔ **aerosol**

## Stockholm-eko Konferentzia

SIN: Nazio Batuen Giza Inguruneari buruzko Konferentzia

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

1972an, Stockholm-en, Nazio Batuen Erakundeak antolaturik, munduko ingurumen-arazoei buruz eztabaidatzeko egin zen nazioarteko biltzarra.

en *Stockholm Conference; United Nations Conference on the Human Environment*  
es *Conferencia de Estocolmo; Conferencia de las Naciones Unidas sobre el Medio Humano*  
fr *Conférence de Stockholm; Conférence des Nations Unies sur l'Environnement de l'Homme*

☞ **Nazio Batuen Ingurumen Programa**

## stripping

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Uretatik edo lurzorutik poluitzaile lurrunkorak airea injektatuz (aire-stripping-a) edo ur-lurruna injektatuz (lurrun-stripping-a) erauzteko teknika.

en *stripping*  
es *stripping*  
fr *stripping*

## SU

➔ **sute**

## subsidentzia

*Atmosfera*

Aire-masa bat eremu zabal batera geldiro jaistea; ondoren, behe-geruzetan aire-korronteen dibergentzia gertatu ohi da. Tenperaturaren inbertsioaren eragileetako bat da, eta ondorioa aireko poluitzaileak behealdean metatzea da.

en *subsidence*  
es *subsidencia*  
fr *subsidence*

☞ **dibergentzia; konbergentzia; tenperaturaren inbertsio**

## substantzia arriskutsu

SIN: gai arriskutsu

*Arriskuak, segurtasuna*

Pertsonen osasunari edo ingurumenari kalte egin diezaiokeen substantzia, hala nola substantzia toxikoak, korrosiboak, sukoiak eta leherkorak.

en *dangerous substance; hazardous substance*  
es *sustancia peligrosa*  
fr *matière dangereuse; substance dangereuse*

☞ **korrosibo; leherkor; sukoi; toxiko**

## substantzia iraunkor

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Ingurunean deskonposatu gabe dirauen substantzia kimikoki egonkorra. Substantzia poluitzaile iraunkorrak ez dira biodegradagarriak, eta tratamenduetan arazoak sortzen dituzte.

en *conservative substance; persistent substance; recalcitrant substance; refractory substance*

es *substancia persistente*

fr *substance persistante; substance récalcitrante; substance réfractaire*

☞ **biodegradarri**

## substantzia toxiko

➔ **gai toxiko**

## sufre

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 16 duen elementu kimikoa (S). Solido horia da, usain eta zaporerik gabea. Fungizidatza erabiltzen da eta larruaren, begien edo arnas bideen narritagarria da. Erregai fosilen osagaia da, eta, horiek erretzean, atmosferara iragaiten diren oxidoak ematen ditu. Sufre-emisioak murrizteko, zenbait prozesu garatu dira. Petrolioaren fintzean, adibidez, desulfurazio-prozedurak erabiltzen dira; harrikatze-teknologia garbietan, ostera, sufrea, oxido gisa aineratu beharrean, hondakin solido gisa bereizten da.

en *sulfur; sulphur*

es *azufre*

fr *soufre*

☞ **desulfurazio; desulfurazio-indize; sufre-oxidoak**

## sufre dioxido

*Kimika, substantziak, prozesuak*

SO<sub>2</sub> formulako konposatua. Gas kolore eta oso narritagarria da, eta aireko poluitzaile garrantzitsua da. Landareei erasaten die, klorofilaren sintesia inhibituz eta hostoak horituz. Animaliei ernasteko arazoak sorrarazten dizkie. Airean oxidatu egiten da, eta sufre trioxidoa (SO<sub>3</sub>) ematen du, gero, sufre trioxidoak, ur-lurrunarekin konbinatuz, azido sulfurikoa eratzen du. Sufre dioxidoaren iturri nagusia sufrea duten erregaien errekuntza-gasa da; emisioak murrizteko, zenbait errekuntza-teknologia garatu dira, hala nola erregaiaren desulfurazioa eta sufrea hondakin solido gisa bereiztea.

en *sulfur dioxide; sulphur dioxide*

es *dióxido de azufre*

☞ **desulfurazio; euri azido; sufre-oxidoak**

## sufre trioxido

*Kimika, substantziak, prozesuak*

SO<sub>3</sub> formulako konposatua. Gas zuri korrosiboa da eta sufrea duten erregai fosilen errekuntzaren ondorioz aineratzen da. Gainera, atmosferan sufre dioxidoa oxidatzean sortzen da, eta, ur-lurrunarekin konbinatuz, azido sulfurikoa, euri azidoaren osagai nagusietako bat, eratzen du.

en *sulfur trioxide; sulphur trioxide*

es *trioxido de azufre*

fr *trioxyde de soufre*

☞ **euri azido; sufre-oxidoak**

## sufre-oxidoak

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Sufrez eta oxigenoz osatutako konposatuak (SO<sub>x</sub>). Nagusiak sufre dioxidoa (SO<sub>2</sub>) eta sufre trioxidoa (SO<sub>3</sub>) dira. Atmosferara isurtzen diren sufre-oxido gehienek jatorria erregai fosilen errekuntza eta materia organikoaren deskonposizioan erabiltzen den hidrogeno sulfuroaren (H<sub>2</sub>S) oxidazioa dira. Sumendiek ere jaurtzen dituzte. Sufre-oxidoen poluzio-ondorio nagusiak euri azidoa eta smog azidoa dira.

en *sulfur oxides; sulphur oxides*

es *óxidos de azufre*

fr *oxydes de soufre*

☞ **euri azido; smog azido**

## sukoi

*Arriskuak, segurtasuna*

Suak erraz hartzen duena. Europako Batasunaren 92/32 Zuzentarauaren arabera, substantziak eta hondakinak legez arriskutsutzat jotzeko ezaugarrietako bat da. Suhartze-tenperaturaren arabera sailkatzen dira (hiru bereizi ohi dira: oso sukoiak, aski sukoiak eta sukoiak). Gai sukoi eta aski sukoiak etiketatzen *F* ikurra erabiltzen da; gai oso sukoiak, berriz, *F+*. Sukoiak dira, besteak beste, petrolioak, gasolina, metanola, aze-tona, disolbatzaileak, margo metalikoak eta aerosol-margoak.

en *flammable; inflammable*

es *inflamable*

fr *inflammable*

☞ **ekotoxiko; erregarri; infekzioso; kaltegarri; kantzerigeno; korrosibo; leherkor; mutageno; narritagarri; teratogeno; toxiko**

## sumendi

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Lurraren barnealdeko magmarekin lotuta dagoen eta laba, gasak, ur-lurrina eta gai piroklastikoak (errautsak, lapilli-a, etab.) kanporatzen diren lurrazalaren irekigunea.

en *volcano*

es *volcán*

fr *volcan*

☞ **erupzio; natur hondamendi**

## suntsipen

SIN: estintzio; iraungipen

*Biosfera*

Espezia galtzea, desagertzea.

en *extinction*

es *extinción*

fr *extinction*

☞ **natur hondamendi**

## superpopulazio

1 ➔ **gainpopulazio**

2 ➔ **gainpopulazio**

## surfaktante

➔ **agente tentsioaktibo**

## sute

SIN: su

## Arriskuak, segurtasuna

Denboran eta espazioan kontrolik gabe hedatzen den sua.

en *fire*  
es *incendio*  
fr *incendie*

👉 **baso-sute; natur hondamendi**

## TAC (TAC)

SIN: urteko harrapaketa-kopuru; urteko harrapaketa-tasa

*Ingurumen-politika / Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Urte batean stocketik (hau da, espezie bateko ale-multzotik) har daitekeen arrain-kantitatea. Arrantzaleek egindako harrapaketa guztiak barne hartzen ditu, bai harrapaketa komertziala bai bestelako harrapaketa. Europako Batasunean, abenduan zehazten da hurrengo urteko harrapaketa. Jasangarritasunaren ikuspuntutik, garrantzi handiko kontzeptua da.

en *TAC; total allowable catch*  
es *TAC; total admisible de capturas; totales autorizados de capturas*  
fr *TAC; total admissible des captures*

## taiga

*Biosfera*

Ipar hemisferioko eremu subartikoetako bioma-mota, nagusiki konifero-basoz osatua. Tundraren hegoaldean eta klima epeletako estepen iparraldean kokatuta dago. Munduko baso-eremurik zabalena taigan daude. Izan ere, ozeanoek bakarrik eteten dute, eta, batez beste, 1.500 km zabalera duen zerrenda bat (esfera-zona bat) hartzen du. *Taiga*, jatorriz, errusierazko hitza da.

en *taiga*  
es *taiga; taigá*  
fr *taïga*

👉 **bioma; ekosistema; tundra**

## talio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 81 duen elementu kimikoa (Tl). Metala da, eta naturan konbinaturik dago beti. Elektronika-industrian erabiltzen da, batez ere. Talio sulfatoa errodentizida gisa erabili izan da. Konposatuak oso toxikoak (nerbio-sistemari erasaten diote) eta teratogenikoak dira. Talioa erraz metatzen da organismoetan.

en *thallium*  
es *talio*  
fr *thallium*

## taimana handiko hiri-hondakin

➔ **hiri-hondakin handi**

## taimana handiko hondakin

➔ **hiri-hondakin handi**

## tanta hotz

*Atmosfera*

Atmosferaren goialdean eratzen den aire beroagoaz inguratutako aire hotzeko masa handia, goragoko aire hotzeko korrontetik (jet korrontetik) bereizi dena. Gehienetan ez zaio azaleko mapetan antzematen. Ezegonkortasun handia sortzen du: tenperatura bat-batean jaitsarazten du,

eta haize eta prezipitazio bortitzak eragiten ditu.

en *cold air pool*  
es *gota de aire frío; gota fría*  
fr *goutte d'air froid; goutte froide*

## taxon

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Animalia eta landareak sailkatzen diren unitate edo mailetako bakoitza. Bizidunen oinarritzko taxona espeziea da. Haren azpiko maila taxonomiko nagusiak barietatea eta forma dira, eta gainekoak generoa, familia, ordena, filuma (animalientzat) edo dibisioa (landareentzat) eta erreinua.

en *taxon*  
es *taxón*  
fr *taxon*

👉 **taxonomia**

## taxonomia

*Ikerkuntza, zientziak*

Bizidunak taxonetan sailkatzeaz arduratzen den biologiararen adarra.

en *taxonomy*  
es *taxonomía*  
fr *taxonomie*

👉 **taxon**

## teknologia erabilgarri onen (TEO)

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua / Ingurumen-politika*

Jarduera batean erabil daitekeen eta merkatuan dagoen kostu onargarriko teknologia, tratamendu tekniko edo baliabiderik onena, emisio-mailarik txikiena duena eta ingurumena gutxien narriatzen duena. Emisio-mugak zehazteko, teknologia erabilgarri onenarekin lortzen diren emisio estandarrik hartzen dira kontuan.

en *best available technology (BAT)*  
es *mejor tecnología disponible; MTD*  
fr *meilleure technologie disponible; MTD*

👉 **airearen poluzio**

## teknologia garbi

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Produkzio industrialean poluitzailerik ez isurtzeko, edo ahal den gutxien isurtzeko, erabiltzen diren bitartekoen eta prozeduren multzoa.

en *clean technology*  
es *tecnología limpia*  
fr *technologie propre*

## teledetekzio

*Ikerkuntza, zientziak*

Lurraren gainazala eta baliabide naturalak aztertzeko teknika, aztergai den laginarekin kontaktu fisikorik ez duten tresnen bidez egiten dena. Azterketa hegazkin edo sateliteetatik egiten da, eta, besteak beste, izpi infragorriak, maiztasun-banda anitzeko irudiak eta radarrak erabiltzen dira. Teledetekzioak hainbat aplikazio ditu: lehenik, meteorologiari buruzko informazioa lortzea; bigarrenik, atmosferako poluitzaileen egoerari dagozkion datuak jasotzea; hirugarrenik, itsas azaleko tenperaturari buruzko informazioa lortzea, horren bidez itsasoko egituren berri jakin daitekeelako (fronte termikoak, aroken azalerrak, zurrunbiloak), eta datu horiek, era

berean, arrain-sarden kontzentrazioekin erlazionatuta daudelako. Horiez gain, beste aplikazio batzuk ere izan ditzake: akuakulturarako egokiak diren eremuen detekzioa; lehorte eta uholdeen detekzioa; etsaiaren eta armen kokalekuaren detekzioa; etab.

en *remote sensing*  
es *teledetección*  
fr *détection a distance; télédétection*

## telurio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 52 duen elementu kimikoa (Te). Grisa da, distira metalikoa du eta uretan ez da disolbatzen.

en *tellurium*  
es *telurio*  
fr *tellure*

## tenperaturaren inbertsio

*Atmosfera*

Troposferako aire-geruza batek gainekoak baino tenperatura hotzagoa edo azpikoak baino beroagoa izatea, ohi den ez bezala. Tenperaturaren inbertsioak goranzko aire-korronteak eragozten ditu, eta, ondorioz, poluitzaileak, barreiatu gabe, behealdean metatzen dira.

en *temperature inversion; thermal inversion*  
es *inversión de temperatura; inversión térmica*  
fr *inversion de temperature; inversion thermique*

☞ **subsidentzia**

## TEO

☛ **teknologia erabilgarri onen**

## teratogeno

*Osasuna, nutrizioa*

Arnastu, irentsi edo larruazaletik xurgatuz gero, enbrioian malformazio ez-heredagarriak sorraraz ditzakeen substantzia edo prestakina. Europako Batasunaren 92/32 Zuzentarauaren arabera, substantziak eta hondakinak legez arriskutsutzat jotzeko ezaugarrietako bat da.

en *teratogenic; teratogenetic*  
es *teratogénico, -a; teratogéno, -a*  
fr *tératogène*

☞ **ekotoxiko; erregarri; infekzioso; kaltegarri; kantzerigeno; korrosibo; leherkor; mutageno; narritagarri; sukoi; toxiko**

## termoklina

SIN: metalimnion

*Hidrosfera*

Tenperatura desberdineko geruzak dauden ur-masa batean, tenperatura-gradienterik handieneko aldea edo geruza, hau da, bi geruzak bereizten diren trantsizio-zona.

en *metalimnion; thermocline*  
es *metalimnion; termoclina*  
fr *métalimnion; thermocline*

☞ **epilimnion; hipolimnion**

## Tetra Brik

*Produktuak, materialak*

Barnealdea polietileno estalia duen kartoizko ontzi txikia, eskuarki prismatikoa eta oinarri angeluzuzenekoa, edariak (esnea, ardoa...) merkatu-ratzeko erabiltzen dena. Askotan, aluminiozko orri mehe bat ere izaten du.

en *Tetra Brik*  
es *Tetra Brik*  
fr *Tetra Brik*

## tetrakloroetileno

SIN: perkloroetileno

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Etilenoaren deribatu kloratua (Cl<sub>2</sub>C = CCl<sub>2</sub>), bereziki ehungintzan, lehorreko garbiketara disolbatzaile gisa eta metalezko piezen eta larruen koipe-kentzaile gisa erabilia. Kalterik handiena gibelean eragiten du, eta frogatuta dago kantzerigenoa dela. Europako Batasunean, 1990eko 415 Zuzentarauak perkloroetilenoa sartu zuen mugatu beharreko substantzia arriskutsuen hondakinen zerrendan.

en *perchloroethylene; tetrachloroethylene*  
es *percloroetileno; tetracloroetileno*  
fr *perchloroéthylène; tétrachloroéthylène*

☞ **hidrokarburo kloratu**

## tiol

☛ **merkaptano**

## Tokiko Agenda 21

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Udal-agintariek sustatutako eta garatutako ingurumeneko ekintza-plana, ingurumen, gizarte eta ekonomiari dagozkien alorretan garapen jasagarria lortu eta, horrekin batera, udalerriko biztanleen bizi-kalitatea hobetzea helburu duena. Tokiko Agenda 21en kontzeptua Rio de Janeiron sortu zen, 1992an, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian. Orduko hartan, Agenda 21 dokumentua onartu zen, garapen jasagarria lortzeko jarraitu beharreko bidea azaldu eta lehentasuna duten ekintzen programa biltzen duena; 28. atalean esaten denaren arabera, herri-agintarien parte-hartzea ezinbestekoa da dokumentuan jasotako helburuak lortzeko.

en *Local Agenda 21*  
es *Agenda 21 Local; Agenda Local 21*  
fr *Local Agenda 21*

☞ **Agenda 21; Udalsarea 21; Udaltalde 21**

## tolerantzia

1

*Osasuna, nutrizioa*

Elikagaietan legez onargarri den substantzia pozoitsu edo kaltegarri baten hondarra (adibidez, pestizida-hondarra).

en *tolerance*  
es *tolerancia*  
fr *tolérance*

2 SIN: jasankortasun

*Biosfera*

Organismo batek ingurumen-egoera jakin batean bizirik irauteko duen gaitasuna.

en *tolerance*  
es *tolerancia*  
fr *tolérance*



## toxiko

*Arriskuak, segurtasuna*

Arnastu, irentsi edo larruzaletik xurgatuz gero (kantitate txikia bada ere), organismoan asaldura arinak, larriak, akutuak edo kronikoak, eta are heriotza ere eragin ditzakeen substantzia edo prestakina (gai toxikoa, hondakin toxikoa, etab.). Europako Batasunaren 92/32 Zuzentarauaren arabera, substantziak eta hondakinak legez arriskutsutzat jotzeko ezaugarrietako bat da. Eragiten dituzten efektuen larritasunaren arabera, hondakin toxikoak -kantitate txikian arriskutsuak direnak- eta oso toxikoak -kantitate oso txikian ere arriskutsuak direnak- bereizi ohi dira. Toxikoak edo oso toxikoak dira, besteak beste, metanola, erretzeko alkohola, iragazgaizteko spray-ak, desinfektatzaileak, pestizidak, bentzenoa, asbestoa, pinturetan erabiltzen diren disolbatzaileak, garbigarriak, etab. Gai toxikoen etiketatik *T* ikurra erabiltzen da; oso toxikoen etiketatik, *T+*.

en *toxic*  
es *tóxico, -a*  
fr *toxique*

☞ **destoxikazio; ekotoxiko; erregarri; infekzioso; kaltegarri; kancerigeno; korrosibo; leherkor; mutageno; narritagarri; sukoi; teratogeno**

## toxikologia

*Ikerkuntza, zientziak*

Substantzia toxikoak, organismoan duten eragina, eta haien kontra egiteko moduak aztertzen dituen medikuntzaren adarra.

en *toxicology*  
es *toxicología*  
fr *toxicologie*

## toxikotasun

*Osasuna, nutrizioa*

Substantzia batek, organismoan arnas bideetatik, digestio-bidetik edo larruzaletik sartzen denean, kalte egiteko duen ahalmena.

en *toxicity*  
es *toxicidad*  
fr *toxicité*

☞ **toxiko**

## toxina

*Osasuna, nutrizioa*

Zenbait landare, animalia eta bakterio patogenok sortutako proteina toxiko eta antigenikoa.

en *toxin*  
es *toxina*  
fr *toxine*

☞ **toxiko**

## transferentzia-gune

*Antroposfera(ingurune biritarra, giza kokale)*

Azken helburura eraman aurretik, hondakinak aldi baterako biltegitzen diren instalazioa.

en *transfer station; transference plant*  
es *estación de transferencia; planta de transferencia*  
fr *poste de transit; station de transfert*

☞ **hondakin-bilketa**

## transpirazio

*Biosfera*

Ur-lurruna landareen hosto edo bestelako ataletatik atmosferara iragaita; horrela aireatzen den ur-kantitatea.

en *transpiration*  
es *transpiración*  
fr *transpiration*

☞ **uraren ziklo**

## tratamendu biologiko

➔ **arazketa biologiko**

## tratamendu fisiko-kimiko

➔ **arazketa fisiko-kimiko**

## tratamendu kimiko

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakinak gas ez-toxiko bihurtzeko edo hondakinen propietate kimikoak aldatzeko erabiltzen den tratamendua, gai edo prozesu kimiko bidez egiten dena. Esate baterako, hondakinek uretan duten disolbagarritasuna txikitzea, azidotasuna edo basikotasuna neutralizatzea, korrosioaren inhibizioa, parafina kentzea, uraren arazketa, fintze-prozesuak, etab.

en *chemical treatment*  
es *tratamiento químico*  
fr *traitement chimique*

## tratamendu termiko

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Hondakinak tenperatura altuen eraginpean jartzen diren tratamendua (errausketa, pirolisia, etab.).

en *thermal treatment*  
es *tratamiento térmico*  
fr *traitement thermique*

☞ **hondakinen tratamendu**

## Tratamendu Instalazio Baimendu (TIB)

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Erabilgarritasun-aldiaren amaieran dauden ibilgailuak tratatzeko baimena duen instalazioa. Azkeneko jabeak baimendutako instalazio batera eraman behar du ibilgailua, han gai poluitzaileak bereizi eta behar bezala trata ditzaten.

en *ATF; Authorised Treatment Facility*  
es *CAT; Centro Autorizado de Tratamiento*  
fr *Installation de Traitement Autorisée; IIA*

## tratamendu-instalazio

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Ingurunera isuri edo bota aurretik, hondakinen ahalmen poluitzaile txikiagotzeko edo deuseztatzeko prozesuak egiten diren instalazio-multztoa.

! Hondakin-uren tratamendu-instalazioei *araztegi* deritze.

en *treatment plant*  
es *planta de tratamiento*  
fr *station de traitement*

☞ **hondakin-uren araztegi; hondakinak tratatzeko instalazio; tratamendu kimiko; tratamendu termiko; ur-araztegi**

## trenbide

SIN: burdinbide

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak) / Zirkulazioa, garraioa*

Errail gainean (eskuarki, bi errail gainean) dabilzan ibilgailuz -trenez- osatutako garraio-bidea.

en *railway*  
es *ferrocarril*  
fr *cbemin de fer*

## trifenilo polikloratu

☞ **poliklorotrifenilo**

## trikloroetileno

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Konposatu organiko halogenatua (CHCl = CCl<sub>2</sub>), uretan disolbaezina eta sukoia.

en *trichloroethylene*  
es *tricloroetileno*  
fr *trichloréthylène*

## trinkotze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin solidoen bolumena konpresioz txikiagotzeko prozesua.

en *compacting; compaction*  
es *compactación*  
fr *compactage*

## tripoli

☞ **diatomita**

## trommel

☞ **bahe birakari**

## troposfera

*Atmosfera*

Atmosferaren behe-geruza, poloetan luraren azalez 9 km ingurura eta ekuatorean 17 km ingurura heltzen dena. Gorantz joan ahala, tenperatura jaitsi egiten da modu erregularrean.

en *troposphere*  
es *troposfera*  
fr *troposphère*

☞ **atmosfera; estratosfera; exosfera; geruzapen; ionosfera; ozonosfera**

## tsunami

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Itsas azpiko lurrikara edo sumendi-erupzio batek sortutako olatu erraldoia. Batez ere Ozeano Barean gertatzen da.

en *tsunami*  
es *tsunami*  
fr *tsunami*

## tundra

*Biosfera*

Eskualde artikoetako eremu zabaletako bioma-mota, goroldio, liken eta sastrakaz osatua, eta azaletik gertu lurzoru-geruza izoztua (*permafrost*) duena.

en *tundra*  
es *tundra*  
fr *toundra; tundra*

☞ **bioma; ekosistema; taiga**

## turbulentzia

SIN: zurrumbilo

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Fluido baten partikulen higidura nahasi eta desordenatua. Uretako edo atmosferako turbulenziek poluitzaileak arinago eta gehiago barreiatzea dakarte.

en *turbulence*  
es *turbulencia*  
fr *turbulence*

## turismo

*Aisialdia, turismoa*

Paraje berriak ezagutu, abenturak bizi, atsedean hartu edota lagun-ahaideak bisitatzeko helburuz egiten den denboraldi baterako bidaiari eta bidaiatzaileen inguruko jardueren multzoa.

en *tourism*  
es *turismo*  
fr *tourisme*

☞ **baserri-turismo; ekoturismo; landa-turismo**

## turismo berde

☞ **ekoturismo**

## turismo ekologiko

☞ **ekoturismo**

## txatar

SIN: burdin hondakin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Burdinazko eta, oro har, metalez osatutako hondakina, automobilak, makinak, etxetresna elektrikoak, metalezko eraikuntzak eta abar botatakoan sortzen dena. Burdinazko gaiak galdategian urtuz birzikla daitezke burdinurtua lortzeko.

en *scrap; scrap iron; scrap metal*  
es *chatarra*  
fr *ferraille*

☞ **desegite**

## tximinia

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Prozesu edo erreakzio batean (adibidez, errekuntzan) sortutako gas edota partikulak aineratzeko hodi-formako egitura zutikakoa. Aineratzen den poluitzaile-kantitatea gutxitzeko, tximinian iragazkiak edo bereizgailuak ezar daitezke.

en *chimney; stack*  
es *chimenea*  
fr *cheminée*  
☞ **gandor**

## txoko ekologiko

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Organismo batek ekosistema batean betetzen duen funtzioa. Ez dago- kio organismoak betetzen duen espazio fisikoari, baizik eta betetzen duen eginkizunari. Funtzio hori organismoak bizi, hazi eta ugaltzeko behar dituen baldintzen (tenperatura, hezetasuna, gazitasuna..) eta baliabideen (ura, eli- kagaiak, babeslekua..) arabera eta elikatze-sarean duen posizioaren arabera zehazten da. Elkarrekiko eskusibitatearen printzipioa dela eta, ezinezkoa da bi espezie ingurune bereko txoko bera betetzea.

en *ecological niche*  
es *niche ecológico*  
fr *niche écologique*

## TIB

☞ **Tratamendu Instalazio Baimendu**

## ubide

SIN: kanal

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Ura leku batetik bestera eramateko bide artifiziala, ibaiak, aintzirak edota itsasoak lotzeko eraikia, batzuetan nabigagarria. Ubide gehienek emari txikia dute, eta haietan komunitate biologikoa ibaietakoa baino txiro- agoa da.

en *canal*  
es *canal*  
fr *canal*  
☞ **ibai**

## Udalsarea 21

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

EAEko hainbat udalerritako Tokiko Agenda 21 dinamizatzea helburu duen sarea. Erakunde hauek osatuta dago: Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila (IHOBEn bidez); Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiak; eta EUDEL (Euskal Udalen Elkarte).

es *Udalsarea 21*  
☞ **Tokiko Agenda 21; Udaltalde 21**

## Udaltalde 21

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

EAEko hainbat udalerrik osatutako lan-taldea, udalerririk horietan Tokiko Agenda 21 ezartzea helburu duena. Lantaldeek agendaren ezartze-proze- suari buruzko informazioa trukatzeko dute; ezartzea amaitzean, Udalsarea 21 taldean sartzen dira.

es *Udaltalde 21*  
☞ **Tokiko Agenda 21; Udalsarea 21**

## uharri

☞ **arrezife**

## uhertasun

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Ura edo likido garden bat, bere baitan disolbatu gabeko gaiak ditue- lako, berez den bezain gardena ez izatea.

en *turbidity*  
es *turbidez*  
fr *turbidite*

☞ **uhertasun nefelometrikoaren unitate**

## uhertasun nefelometrikoaren unitate

*Ikerkuntza, zientziak*

Uraren uhertasuna adierazteko erabiltzen den unitatea. Uhertasunaren kalkulua partikula esekiek barreiatzen duten argi-kantitate- an oinarritzen da.

en *nephelometric turbidity unit; NTU*  
es *unidad nefelométrica de turbiedad*  
fr *unité néphélogométrique de turbidité*

☞ **uhertasun**

## uhinen energia

☞ **olatuen energia**

## uholde

*Hidrosfera*

Ibai, aintzira edo urtegi bateko urak gainezka egin eta eskuarki urpe- ratuta ez dagoen ingurua estaltzea edo hortik indar eta abiadura handiz isurtzea. Fenomeno naturalak dira; hala ere, gero eta gehiago dira gizakia- ren ekintzen ondorioz gertatzen diren uholdeak. Izan ere, askotan, etxe, pabilioi eta bestelako eraikinak ibaien uholde-lautadetan, ubide lehorretan eta deiekzio-konoetan eraikitzen dira, ibaien ubideak porlanez inguratzen dira eta abar, eta, aldaketa horien guztien ondorioz, ohiz kanpoko euriteek uholdeak eragiten dituzte.

en *flood; flooding; fresbet; inundation*  
es *inundación*  
fr *crue; inondation*

☞ **natur hondamendi**

## uholde-lautada

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Ibaien alboetan dagoen eremu laua, uholdeek urperatzen dutena. Lautadaren sortzaileak uholdeetan jalkitako sedimentuak izaten dira. Uholde-lautada oso leku garrantzitsua da, emankortasun handikoa delako, basabiziarentzat habitat garrantzitsuak eskaintzen dituelako, eta, ur-goral- dietan ura hartzen duenez, ibaian behera gerta litezkeen kalteak murrizten dituelako. Lautadaren lur-erabileraren kudeaketari dagokionez, hainbat urtetako (100, 500, 1.000) errepikatze-denbora duten uholdeek estaltzen duten zabalera hartzen da kontuan.

en *flood plain*  
es *llanura de inundación*  
fr *plaine d'inondation*

## ultrairagazketa

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Uretatik makromolekula handiak edo oso tamaina txikiko solido esekiak bereizteko erabiltzen den iragazte-teknika, mikroporo-mintz erdiragazkorrez eta presio-gradienteaz baliatzen dena.

en *ultrafiltration*  
es *ultrafiltración*  
fr *ultrafiltration*

## ultrasoinu

*Ikerkuntza, zientziak*

Giza entzumenaren sentikortasun-muga (20 MHz) baino maiztasun handiagoko soinua. Efektu mekaniko eta termikoak ditu, eta, besteak beste, metalezko tresnak garbitzeko eta terapeutikan erabiltzen dira.

en *ultrasound*  
es *ultrasonido*  
fr *ultrason*

## UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Nazio Batuen Erakundearen menpeko erakunde espezializatua, 1946an sortua. Parisen du egoitza nagusia. Mundu osoan bakea eta ongizatea zabaltzea eta hezkuntza, zientzia eta kultura bultzatuz herrien arteko harremanak sendotzea ditu helburu. UNESCOren MAB programak biosfererreserbak izendatzen ditu mundu osoan.

en *UNESCO; United Nations Educational Scientific and Cultural Organization*  
es *UNESCO (Organización de las Naciones Unidas para la educación, la ciencia y la cultura)*  
fr *UNESCO (Organisation des Nations Unies pour l'Éducation, la Science et la Culture)*

## ur

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Bi hidrogeno-atomoz eta oxigeno-atomo batez osatutako substantzia, bizirako ezinbestekoa (H<sub>2</sub>O). 0-100 °C bitartean likido kolore, usaingabe eta zaporegabea da. 0 °C-tik behera solidoa da (izotza) eta 100 °C-tik gora, berriz, gasa (ur-lurrina).

en *water*  
es *agua*  
fr *eau*

☞ **hidrosfera; ur-baliabideak; uraren kudeaketa; uraren poluzio; zentral hidroelektriko**

## ur agresibo

*Ikerkuntza, zientziak*

Langelier-en indize negatiboa duen ura.

en *aggressive water*  
es *agua agresiva*  
fr *eau aggressive*

☞ **Langelier-en indize**

## ur beltz

➔ **ur beltzak**

## ur beltzak

SIN: ur beltz; ur sanitarioak

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Komunetako iraiizkinak (gorotza eta gernua) dituzten etxeko hondakin-urak, sukalde eta bainugelako garbitze-urekin (ur grisekin) nahasita ez daudenak.

en *blackwater; faecal waters; lavatory waters*  
es *aguas fecales; aguas negras; aguas sanitarias*  
fr *eaux fécales; eaux noires; eaux usées sanitaires; eaux-vannes*  
☞ **ur grisak**

## ur bigun

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Kaltzio- eta magnesio-gatz gutxi dituen ur geza, xaboiekin aparra sortzen duena.

en *soft water*  
es *agua blanda*  
fr *eau douce; eau mou*

☞ **biguntze; gogortasun; ur gogor**

## ur gazikara

*Hidrosfera*

Ur gazi eta gezaren nahastea den ura. Ibaien estuarioetan, paduretan eta zenbait aintzira eta barne-itsasotan sortzen da.

en *brackish water*  
es *agua salobre*  
fr *eau saumâtre*

## ur geldi

SIN: ur hil

*Hidrosfera*

Higitzen edo ia higitzen ez den azaleko ur-masa, denboraren poderioz kalitatearen kalteko diren aldaketak izan ditzakeena.

en *stagnant water*  
es *agua estancada*  
fr *eau stagnante*

## ur geza

*Hidrosfera*

Disolbatutako gatz-edukia 1.000 ppm (1 g/l) baino txikiagokoa duen ura.

en *fresh water; freshwater*  
es *agua dulce*  
fr *eau douce*

## ur gogor

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Kaltzio- eta magnesio-gatz asko dituen ur geza. Ur gogorretan xaboiak apar gutxi sortzen du.

en *hard water*  
es *agua dura*  
fr *eau dur; eau dure*  
☞ **biguntze; gogortasun; ur bigun**

## ur gordin

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Araztu gabeko ura; araztegi batera sartzen den ur araztugabea.

en *raw water*  
es *agua bruta*  
fr *eau brute*

## ur grisak

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Etxe, saltoki, taberna, zerbitzu eta abarretako harraska, dutxa, bainuontzi eta arropa- eta ontzi-garbigailuetatik isurtzen diren hondakin-urak, komunitako ur beltzekin nahasita ez daudenak.

en *gray water; grey water*  
es *aguas grises*  
fr *eaux grises; eaux ménagères; eaux usées ménagères*  
☞ **ur beltzak**

## ur hil

☞ **ur geldi**

## ur industrial

SIN: industria-ur

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Industrian erabiltzen den edo erabil daitekeen ura, edateko edo elikagaiak prestatzeko egokia ez dena.

en *industrial water*  
es *agua industrial*  
fr *eau industrielle*  
☞ **edateko ur; industriako hondakin-urak**

## ur kontinentalak

*Hidrosfera*

Kontinenteetako azaleko ur geldiak, ur-lasterrak eta lurpeko urak. Lurrean dagoen ur guztiaren % 0,6421 dira, eta honela daude banatuta: % 0,62 lurpeko ura da, % 0,009 ur gezako aintziretan dago, % 0,008 ur gaziko aintziretan eta barne-itsasoetan, % 0,0001 ibaietan eta % 0,005 lurzoruan. Oso garrantzitsuak dira, gizakiak erabiltzen duen ur gehienak ur kontinentaletan baitu jatorria (edateko ura, ureztatzeko ura, etab.).

en *continental waters; inland waters*  
es *aguas continentales*  
fr *eaux continentales; eaux intérieures*  
☞ **hidrosfera; uraren ziklo**

## ur mineral

*Produktuak, materialak*

Edateko ohiko urak baino substantzia mineral gehiago dituen ura.

en *mineral water*  
es *agua mineral*  
fr *eau minérale*  
☞ **edateko ur**

## ur sanitarioak

☞ **ur beltzak**

## ur superkritiko

*Produktuak, materialak*

Presio handian (> 218 atm/cm<sup>3</sup>) eta temperatura altuan (> 370 °C) dagoen ura, hondakinen tratamenduan kate luzeko substantzia organikoak oxidatu eta txikiagotan hausteko erabiltzen dena.

en *supercritical water*  
es *agua supercrítica*  
fr *eau supercritique*  
☞ **hondakin-uren arazketa**

## ur zikinak

☞ **hondakin-urak**

## ur zikinen arazketa

☞ **hondakin-uren arazketa**

## ur zikinen araztegi

☞ **hondakin-uren araztegi**

## uranio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 92 duen elementu kimikoa (U). Metal zuri-grisa da, gogorra, distiratsua eta erradioaktiboa. Naturan dauden isotopo nagusiak uranio-238 (% 99,2) eta uranio-235 (% 0,7) dira (uranio-234 ere badago). Erdibizitza luzea dute biek (4,5 x 10<sup>9</sup> eta 7,1 x 10<sup>8</sup> urte, hurrenez hurren). U-238a plutonio (Pu-239) bihurtzeko erabiltzen da, eta, horregatik, erreaktore nuklearretan eta bonba atomikoetan erabiltzen da. Horretarako, uranio naturalean den U-235aren edukia handitu egin behar da, *aberaste* izeneko prozesuaren bidez.

en *uranium*  
es *uranio*  
fr *uranium*  
☞ **erreaktore nuklear; erregai nuklear**

## ur-araztegi

SIN: araztegi; edateko uren araztegi

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Ur naturala edateko ur bihurtzeko instalazio-multzoa.

en *filtration plant; water treatment plant; waterworks*  
es *estación de tratamiento de agua potable; estación de tratamiento de aguas; potabilizadora*  
fr *station de traitement des eaux*  
☞ **uraren arazketa**

## uraren arazketa

SIN: edateko uraren arazketa

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura / Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Ur naturala edateko ur bihurtzeko prozesuen multzoa.

en *purification; water treatment*  
es *potabilización; tratamiento del agua*  
fr *traitement de l'eau*  
☞ **hondakin-uren arazketa**

## uraren kalitate

*Ingurumen-politika*

Uraren propietate fisiko, kimiko, biologiko eta organoleptikoen mul-

tzoa, urak erabilera jakin baterako (edateko, ureztatzeko, habitat urtarrerako eta abarrerako) duen egokitasunaren berri ematen duena. Propietateen artean, besteak beste, hauek daude: pH-a, uhertasuna, eroankortasuna eta hainbat substantziaren eta mikroorganismoren kontzentrazioa.

en *water quality*  
es *calidad del agua*  
fr *qualité de l'eau*

☞ **airearen kalitate; lurzoruaen kalitate; uraren kalitate-arauak; uraren kalitate-irizpideak; Uraren Karta**

## uraren kalitate-arauak

*Legeak, arauak, bitzarmenak*

Legeak uraren kalitate-irizpideetan zehazten diren parametroetarako ezartzen dituen erabileraren araberrako gehienezko balioak, gainditu behar ez direnak.

en *water quality standards*  
es *normas de calidad del agua*  
fr *limites de qualité des eaux; normes de qualité de l'eau*

☞ **uraren kalitate; uraren kalitate-irizpideak**

## uraren kalitate-irizpideak

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Urak erabilera jakin baterako egokia izateko izan behar duen kalitatearen maila. Kalitate-irizpideak ura edateko, igeri egiteko, nekazaritzarako, arrantzarako, prozesu industrialetarako eta beste jarduera batzuetarako kaltegarri egiten duten poluitzaile-maila espezifikoean oinarrituta daude. Espainian, adibidez, otsailaren 7ko 140/2003 Errege-dekretuak zehazten ditu giza kontsumorako uraren kalitate-irizpideak eta parametroen mugabaliok.

en *water quality criteria*  
es *criterios de calidad del agua*  
fr *critères de qualité de l'eau*

☞ **uraren kalitate; uraren kalitate-arauak**

## Uraren Karta

*Legeak, arauak, bitzarmenak*

Europako Kontseiluak ur-baliabideak zaindu eta kontserbatzearen alde 1968ko maiatzaren 6an Estrasburgon egin zuen printzipio-deklarazioa.

en *Water Charter*  
es *Carta del Agua*  
fr *Charte de l'eau*

☞ **uraren kudeaketa; ur-baliabideak**

## uraren kudeaketa

*Ingurumen-politika*

Ur-baliabideak babestu, kontrolatu eta ustiatzeko neurri, prozedura, plan, bitarteko eta gainerako jardueren multzoa.

en *water management*  
es *gestión del agua*  
fr *gestion de l'eau*

☞ **Uraren Karta; ur-baliabideak**

## uraren kutsadura

➔ **uraren poluzio**

## uraren poluzio

SIN: uraren kutsadura

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Uretan substantziak edo energia-formak sartzeak sortzen duen poluzio-mota, zuzenean zein zeharka, erabilerari begira, uraren kalitatea hondatzen edo uraren funtzio ekologikoa andeatzen duena.

en *water pollution*  
es *contaminación del agua; polución del agua*  
fr *pollution de l'eau*

☞ **eutrofizazio; hondakin-uren arazketa; ibai; industria; itsaso; poluzio**

## uraren ziklo

SIN: ziklo hidrologiko

*Hidrosfera*

Urak naturan likido-, solido- edo gas-egoeran egiten duen zirkulazio-bide itxia, hau da, lurruntzea (lurretik, itsasotik, aintziretatik edo ibaietatik), transpirazioz lurruntzea (bizidunetatik), kondentsatzea (hodeiak eratu), prezipitatzea (euri, elur, txingor eta abar gisa), itsasoan, lur gainean -ibai, aintzira, elurtegi eta glaziarretan- edo lurpean metatu edo ibiltzea.

en *hydrologic cycle; hydrological cycle; water cycle*  
es *ciclo del agua; ciclo hidrológico*  
fr *cycle de l'eau; cycle hydrologique*

☞ **energia hidroelektriko; zentral hidroelektriko**

## ur-baliabideak

*Baliabideak*

Toki batean dagoen ur-kopuru erabilgarria.

en *water resources*  
es *recursos hídricos*  
fr *ressources en eau*

☞ **Uraren Karta**

## urbanizatz

➔ **urbanizazio**

## urbanizazio

**1**  
*Gizartea*

Hirien hedadura eta biztanleria haztea eta hiriko bizimoduaren ezaugarriak bestelako biztanle-guneetara zabaltzea.

en *urbanization*  
es *urbanización*  
fr *urbanisation*

**2**  
*Antroposfera (ingurune birtarra, giza kokalekuak)*

Eskuarki hiri edo herriaren erdialdetik kanpo dagoen etxebizitza-multzoa, antzeko ezaugarriak dituzten eraikinez osatua, kaleak, azpiegiturak, estolderia eta abar egiteko plan baten arabera antolatua eta bere zerbitzuak izan ohi dituen.

en *urbanization*  
es *urbanización*  
fr *urbanisation*

**3** SIN: urbanizatz

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Lursail bat etxebizitzaren kokaleku izan dadin prestatzea, kaleak, ur-hornidura, estolderia, argiteria eta antzeko azpiegiturak eginez eta beharrezko instalazio eta zerbitzuez hornituz.

en *urbanization*  
es *urbanización*  
fr *urbanisation*

## ur-begi

↳ **iturbegi**

## ur-efluente

SIN: efluente

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Ingurunera zuzenean edo araztegiaren guztiz zein partzialki tratatu ondoren isurtzen den hondakin-ura, jatorriz etxeko, hiriko, nekazaritzako edo industriakoak izan daitezkeena.

en *effluent; water effluent*  
es *efluente; efluente acuoso*  
fr *effluent*

## urez hornitzeko sare

↳

## ureztapen

↳ **ureztatze**

## ureztatze

SIN: garaztatze; ureztapen

*Nekazaritza, basogintza, abelazkuntza, arrantza*

Ubide, erretzen, ihintzate-sistema eta abarren bidez lurra edota landareak urez hornitzea.

en *irrigation*  
es *riego*  
fr *irrigation*  
↳ **nekazaritza**

## ur-hornidura

*Merkataritza, zerbitzuak*

Ura etxe, saltoki, industria eta abarretara behar den kalitatearekin (eskuarki, edateko ura) eta jarraituki helaraztea. Horretarako, eraikuntzak, araztegiak, ubideak, instalazioak eta askotariko tresnak behar dira.

en *water supply*  
es *abastecimiento de agua; suministro de agua*  
fr *alimentation en eau; approvisionnement en eau*  
↳ **Uraren Karta; uraren kudeaketa; ur-baliabideak**

## ur-hornikuntzako sare

↳

## urmael

1

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Hondakin-urez edo lohiez betetzen den sakonune natural edo artifiziala, arazketa prozesu naturalez gerta dadin.

en *lagoon; surface impoundment*  
es *laguna*  
fr *lagune*

↳ **arazketa biologiko; urmael aerobio; urmael aireztatu; urmael anaerobio; urmaeleratze**

2

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Aintzira baino sakonera txikiagoko ur geldiei eman ohi zaien izena. Lehorreko sakonune endorreikoetan eratu ohi dira. Sakonera txikia dutenez, hondoan landareak sustraitu egin daitezke.

en *lagoon; pond*  
es *laguna*  
fr *étang; lagune*

↳ **aintzira; ekosistema**

## urmael aerobio

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Bakterio aerobioek hondakin-uren materia organikoa deskonposatzen duten urmaela.

en *aerobic pond*  
es *estanque aerobio; laguna aerobia*  
fr *bassin aérobie*

↳ **urmael; urmael aireztatu; urmael anaerobio**

## urmael aireztatu

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakin-uretako materia organikoaren deskonposizio naturala azkartzeko, aireztatze-sistemaz hornituta dagoen urmael aerobioa.

en *aerated lagoon*  
es *laguna aerada*  
fr *lagune aérée*

↳ **urmael; urmael aerobio; urmael anaerobio**

## urmael anaerobio

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Bakterio anaerobioek lohien edo hondakin-uren materia organikoa oxigenorik gabe deskonposatzen duten urmaela.

en *anaerobic pond*  
es *estanque anaeróbico; estanque anaerobio*  
fr *bassin anaérobie; étang anaérobie*

↳ **urmael; urmael aerobio; urmael aireztatu**

## urmaeleratze

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Bakterioek materia organikoaren deskonposizioa burutu arte ura urmaeletan uztea. Hondakin-uren tratamendu biologikorako tekniketako bat da.

en *lagooning; surface impoundment*  
es *lagunaje*  
fr *lagunage*

↳ **arazketa biologiko; urmael**

## urpeko hustubide

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Hondakin-urak edo araztegitik irteten diren urak itsasora husten dituen urpean eraikitako isurbidea.

en *ocean outfall; offshore sewage outfall; sea outfall*  
es *emisario submarino*  
fr *émissaire marin*

## urraskako inpaktore

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Gas-korronte batean esekita dauden zatiki solidoak talka bidez erazi eta tamainaren arabera bereizten dituen gailu mekanikoa.

en *cascade impactor; multi-staged impactor*  
es *impactador en cascada; impactor en cascada*  
fr *impacteur en cascade*

☞ **gas-garbiketa; inpaktore**

## urtegi

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Eskuarki artifizialki (presa edo dike bidez) eutsitako ur-biltegi handia, helburua energia elektrikoa lortzea, labore-lurrak ureztatzea, biztanleak edo industriak urez hornitzea edo ibaien emaria erregulatzea duena. Adiera zabalean, lur gainekoa (presaduna) edo lurpekoa (akuiferoa) izan daiteke.

en *basin; reservoir*  
es *embalse; pantano*  
fr *barrage; lac de barrage; réservoir*

☞ **zentral hidroelektriko**

## urteko harrapaketa-kopuru

➔ TAC

## urteko harrapaketa-tasa

➔ TAC

## usaimen-atari

*Ikerkuntza, zientziak*

Hautemana izateko usain batek izan behar duen intentsitaterik txikiena. Usaina neurtzeko sistema absoluturik ezean, atariaren zehaztapena hainbat usain-hartzailearen sententzioetan oinarritzen da. Uraren kasuan, lagina ur usaingabez diluitzen da, harik eta usaina hautematen ez den arte.

en *odor threshold; odour threshold*  
es *umbral de olor*  
fr *seuil olfactif*

## usain-kentze

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Emisioen usain txarrak kentzeko eragiketa, usainak sortzen dituzten konposatuak eraldatuz, kenduz edo maila onargarri bateraino gutxituz. Iragazketa, xurgapena, adsortzioa, errekontza eta diluzioa erabiltzen dira, nagusiki.

en *deodorization; odour removal*  
es *desodoración; desodorización*  
fr *désodorisation*

## usteltze

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Mikroorganismoek eragindako gai organikoen deskonposizio anaerobioa, erabat oxidatuta ez dauden substantzia kirasdunak ematen dituen.

en *putrefaction*  
es *putrefacción*  
fr *putréfaction*

## Washingtoneko Hitzarmena

➔ **Basafauna eta Basafloraren Galzoriko Espezieen Nazioarteko Merkataritzari buruzko Hitzarmena**

## WWF (Naturarentzako Mundu Fondo)

*Administrazioa, kudeaketa, irizpideak, politika, erakundeak, plangintza*

Natura babesteko gobernu kanpoko erakundea, nazioartekoa, 1961ean sortua. Ekosistemak zaintzeko eta galzorian dauden espezieen, batez ere faunakoen, iraupena ziurtatzera bideraturiko kontserbazio-proiektuak finantzatzeko dirua biltzen du mundu osoan. Erakundearen ikuspuntutik, gai hauek dute lehentasuna: basoak, ibaiak, itsasoak eta kostaldeak, galzoriko espezieak, substantzia kimiko eta toxikoen mehatxua eta klima-aldaketa. Egun, 90 herrialde baino gehiagotan ari da lanean, eta 5 bat milioi pertsonak babesten dute mundu osoan.

en *WWF (World Wildlife Found)*  
es *WWF (Fondo Mundial para la Naturaleza)*  
fr *WWF (Fond mondial pour la nature)*

## X izpiak

SIN: Roentgen izpiak

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

$10^{-11}$  eta  $10^{-8}$  m bitarteko uhin-luzera duen erradiazio elektromagnetikoa, argiaren espektroan izpi ultramoreen eta gamma izpien artekoa dena. W.K. Roentgen-ek aurkitu zituen 1895ean. Atomoak energia handiko partikulaz (elektroiz eskuarki) bonbardatzean igortzen dira. Material askotan barrena iragaiten dira, eta, hori dela eta, barne-egiturak aztertzeko erabiltzen dira (medikuntzan, metalurgian, kristalografian eta abarretan). Erradiazio ionizatzailea da, eta, beraz, segurtasun-neurri bereziak behar dira X izpiak erabiltzen diren guztietan.

en *Roentgen rays; X-rays*  
es *rayos Roentgen; rayos X*  
fr *rayons Roentgen; rayons X*

☞ **erradiazio ionizatzaile**

## xenobiotiko

*Biosfera*

Organismo batek arrotz duen substantzia bati dagokiona.

en *xenobiotic*  
es *xenobiótico, -a*  
fr *xénobiotique*

## xingola-iragazki

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Elkarren gainean dauden eta kontrako noranzkoan biratzen diren zilindroi atxikirik dauden bi xingola iragazlez osatutako iragazte-sistema, lohiak deshidratatzeko erabilia.

en *belt filter*  
es *filtro de banda; filtro de bandas*  
fr *filtre à bande; filtre à bandes presseuses*  
☞ **lohiaren tratamendu; prentsa-iragazki**



## xurgapen

1 SIN: absortzio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Gorputz edo ingurune bat zeharkatzen duen erradiazio elektromagnetikoaren energia (argia, adibidez) beste energia-mota bat bihurtzea, hala nola termikoa, kimikoa, etab.

en *absorption*

es *absorción*

fr *absorption*

☞ **erradiazio ionizatzaile**

2 SIN: absortzio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zelula batean mintzean zehar ura edo disolbaturiko substantziak sartzea.

en *absorption*

es *absorción*

fr *absorption*

3 SIN: absortzio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Solido batek bere baitan fluidoa (likidoa zein gasa) hartzea, edo likido batek bere baitan gasa hartzea.

en *absorption*

es *absorción*

fr *absorption*

☞ **adsortzio**

## xurgaturiko dosi

SIN: dosi

*Ikerkuntza, zientziak*

Erradiazio ionizatzaileak irradiatu denaren masa-unitateari transmititutako energia. Unitateak *gray* (SI) eta *rad* dira.

en *absorbed dose; dose*

es *dosis; dosis absorbida*

fr *dose; dose absorbée*

☞ **dosi baliokide; erradiazio ionizatzaile**

## xurgatze-hesi

*Osasuna, nutrizioa*

Substantzia bat edo gehiago pasatzen uzten duen gorputzaren azala; esate baterako, larruazala, biriketako mintza, hesteetako mintza, etab. Substantziaren eta azalaren araberakoa da xurgatze-abiadura.

en *absorption barrier*

es *barrera de absorción*

fr *barrière d'absorption*

## zabor

1

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Erabili ondoren botatzen den gauza; eskuarki, etxeetako hondakin solidoak adierazteko erabiltzen da.

en *garbage; rubbish; trash*

es *basura*

fr *ordure*

2 ➔ **hondakinak**

## zabortegi

➔ **hondakindegia**

## zabortegi klandestino

➔ **hondakindegia kontrolatugabe**

## zabortegi kontrolatugabe

➔ **hondakindegia kontrolatugabe**

## zabortegiko gas

SIN: hondakindegiko gas

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Hondakindegian metatutako hondakinetan gertatzen diren prozesu edo erreakzioen ondorioz eratzen den biogasa. Osagai nagusia metanoa da (% 50-60), eta gainerako osagaiak karbono-dioxidoa (% 40-50), hidrogeno sulfuroa, hidrogenoa, oxigenoa, nitrogenoa eta beste zenbaiten aztarnak dira. Beharrezkoa da hondakindegietan sortzen diren gasak ondo kontrolatzea, leherketak eragin ditzaketelako eta osagai batzuk berotegi-efektuko gasak direlako. Hondakindegiko gasak bero-energia edo energia elektrikoa ekoizteko erabil daitezke.

en *landfill gas*

es *gas de vertedero*

fr *gaz de décharge*

☞ **biogas**

## zaintza

➔ **kontrol**

## zaintze

➔ **kontrol**

## zanga pedologiko

➔ **hobi pedologiko**

## zarata

*Ikerkuntza, zientziak*

Gizakiari gogaikarri zaion hots-multzoa, nekatu, asaldatu eta, batzuetan, min ematen duena. Atsegina ez den hots asaldatzailea da, pertsonetan ondorio fisiologiko eta psikologiko kaltegarriak eragin ditzakeena.

en *noise*

es *ruido*

fr *bruit*

☞ **bulkada-zarata; hondo-zarata; ingurune-zarata; pantaila akustiko; zarata aldakor; zarata egonkor; zarata zuri; zarata-maila baliokide**

## zarata aldakor

*Ikerkuntza, zientziak*

Denboran zehar presio akustikoaren maila-aldaketa nabarmenak

dituen zarata. Adibidez, hozkailuetako konpresoreek ateratzen dutena edo kalean ibilgailuen zirkulazioak sortzen duena.

en *fluctuating noise; variable noise*  
es *ruido fluctuante; ruido variable*  
fr *bruit fluctuant*

👉 **presio akustiko; zarata; zarata egonkor**

## zarata egonkor

SIN: zarata jarraitu

*Ikerkuntza, zientziak*

Denboran zehar presio akustikoaren maila-aldaketa nabarmenik ez duen zarata.

en *continuous noise; steady noise*  
es *ruido continuo; ruido estable*  
fr *bruit continu; bruit stable*

👉 **presio akustiko; zarata; zarata aldakor**

## zarata jarraitu

➔ **zarata egonkor**

## zarata zuri

*Ikerkuntza, zientziak*

Maiztasun-banda guztietan energia-kantitate bera duen zarata.

en *white noise*  
es *ruido blanco*  
fr *bruit blanc*

👉 **zarata**

## zarata-maila baliokide

SIN: presio akustiko jarraitu baliokidearen maila

*Ikerkuntza, zientziak*

Denbora-tarte berean, presio akustiko aldakor baten mailaren energia berdina duen soinu jarraitu egonkor baten presio akustikoaren maila.

en *equivalent noise level*  
es *nivel de presión acústica continua equivalente; nivel de ruido equivalente*  
fr *niveau de pression acoustique continu équivalent*

👉 **presio akustiko**

## zarataren apaltze-koefiziente

*Ikerkuntza, zientziak*

Material batek hotsa xurgatzeko duen ahalmenaren neurria. Aztergai den materialak 250, 500, 1.000 eta 2.000 Hz-etan dituen xurgatze-ahalmenen batez bestekoa eginda kalkulatzen da.

en *noise reduction coefficient; NRC*  
es *coeficiente de reducción de ruido*  
fr *coefficient de réduction du bruit; facteur d'absorption*

👉 **soinu-xurgapen**

## zarataren kontrako hesi

➔ **pantaila akustiko**

## zatikatze

➔ **desegite**

## zatiki

SIN: partikula

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Tamaina txikiko materia-zati solido edo likidoa, gas edo likido batean (eskuarki, airean edo uretan) esekia dena. Zatiki-iturri garrantzitsuenak ibilgailuen motorrak, harrikatza darabilten zentral termikoak, egurra darabilten berogailuak eta industriak dira.

en *particle; particulate; particulate matter; particulate matter*  
es *partícula*  
fr *particule*

👉 **airearen poluzio; zatiki esekiak; zatiki jalkikorrek**

## zatiki esekiak

SIN: partikula esekiak

*Atmosfera*

Airean esekiduran dauden zatiki solido edo likidoak (ur-lurrina izan ezik), jalkitze-abiadura txikia dutenak eta atmosferan nahikoa denbora luzean irauten dutenak. 0,01 eta 100 mm bitarteko diametroa izaten dute.

en *airborne particulated matter; airborne particulates; suspended matter; suspended particulate matter*

es *partículas en suspensión*

fr *matière en suspension*

👉 **zatiki esekien guztizko**

## zatiki esekien guztizko

SIN: partikula esekien guztizko; partikula esekien total; zatiki esekien total

*Atmosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Airean esekita dauden eta tamaina desberdineko (0,01-100 mm) zatiki guztien kantitatea, mg/m<sup>3</sup> unitatetan neurtu ohi dena. Airearen kalitatea neurtzeko erabiltzen den parametroetako bat da. Izan ere, zatikiak kaltegarriak izan daitezke osasunerako. Eragiten duten kaltea tamainaren, kontzentrazioaren eta konposizioaren arabera da. Txikiak dira kaltegarriak, biriketara errazago eta sakonago hel daitezkeelako. Zatikiak naturalak (polena, hautsa, etab.) edo gizakiak sortutakoak (erregaien errektuzan eta abarretan) izan daitezke.

en *total suspended particles; total suspended particulate matter; TSP*

es *partículas totales en suspensión*

fr *particules totales en suspension*

👉 **zatiki esekiak**

## zatiki esekien total

➔ **zatiki esekien guztizko**

## zatiki jalkikorrek

SIN: partikula jalkikorrek

*Atmosfera*

30 mikrometro baino handiagoko diametroa duten zatikiak, jalkitze-abiadura aski handia dutenak eta atmosferan gutxi irauten dutenak.

en *deposited matter*

es *materia sedimentable; partículas sedimentables*

fr *poussières sedimentables*

## zeharkako efektu

SIN: bigarren mailako efektu

*Efektuak, eraginak*

Ingurumen-atalen arteko harreman edo menpekotasunari eragiten dion ingurumen-efektua.

en *collateral effect; indirect effect*  
es *efecto indirecto; efecto secundario*  
fr *effet indirect*  
☞ **efektu zuzen; ingurumen-efektu**

## zelula fotovoltaiko

SIN: eguzki-zelula

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Argi-erradiazioa zuzenean elektrizitate bihurtzen duen gailua. Hainbat zelula fotovoltaiko elkarki konektatuta, modulu fotovoltaiko izenekoak osatzen dira.

en *photovoltaic cell; PV cell; solar cell; solar photovoltaic cell*  
es *célula fotovoltaica; célula solar; fopopila*  
fr *cellule photovoltaïque; cellule solaire; photopile*  
☞ **panel fotovoltaiko**

## zentral elektriko

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Energia-mota bat energia elektriko bihurtzeko instalazio-multzoa. Funtsa likido edo gas batek eragindako turbinak sorgailu elektrikoak biraraztea izaten da. Eskuarki, erabiltzen den energia primario motaren arabera sailkatzen dira: hidroelektrikoak, termikoak, nuklearrak, marea-energiako zentralak, helietermikoak, eolikoak, geotermikoak, etab.

en *electric power plant; power plant; power station*  
es *central eléctrica*  
fr *centrale électrique*  
☞ **eguzki-zentral termoelektriko; haize-parke; marea-energiako zentral; zentral geotermiko; zentral hidroelektriko; zentral nuklear; zentral termiko**

## zentral geotermiko

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Energia elektriko lortzeko lurpeko energia termikoaz eta hobi geotermikoez baliatzen den zentral elektriko. Lurpeko ur-hobi beroek iturri bero, geyser eta fumaroletatik egotzen duten ur-lurruna baliatzen da turbina eta sorgailuak higiarazteko. Ura lurpera injektatuz gero, lurpeko arroka beroak erabil litezke energia geotermikoa lortzeko, baina horretarako oso sakon zulatu behar da, 4.000-6.000 m bitartean, eta hori, gaur egun, ez da ekonomikoki errentagarria.

en *geothermal power plant; geothermal power station*  
es *central geotérmica*  
fr *centrale géothermique*  
☞ **energia geotermiko**

## zentral helietermiko

☞ **eguzki-zentral termoelektriko**

## zentral hidroelektriko

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Erortzen den uraren energia zinetikoa energia elektriko bihurtzen duen zentrala.

en *hydroelectric plant; hydroelectric power plant; hydro-electric power station; hydroelectric power station; water power station*  
es *central hidráulica; central hidroeléctrica*

fr *centrale hydroélectrique*  
☞ **energia hidrauliko**

## zentral hidroelektriko txiki

☞ **minizentral hidroelektriko**

## zentral nuklear

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Energia elektriko lortzeko atomo-nukleoen fisioan askatzen den bero-energia darabilen zentral elektriko.

en *nuclear power plant; nuclear power station*  
es *central nuclear*  
fr *centrale nucléaire*  
☞ **energia nuklear; erradiazio ionizatzaile; erreaktore nuklear; fisio nuklear; hondakin erradioaktibo**

## zentral termiko

SIN: zentral termoelektriko

*Antroposfera (ingurune hiritarra, giza kokalekuak)*

Energia elektriko lortzeko erregai fosilen errektuntzak sortutako bero-energia darabilen zentrala. Turbinak birarazteko, bero horren bidez lurrundutako ura erabiltzen da, eta turbinek, era berean, sorgailu elektrikoak birarazten dute. Erregairik erabilienak harrikatza, olio astunak eta gasa dira. Ingurumen-arazo nagusiak sufre- eta nitrogeno-oxidoak aireeratzea da.

en *heat-electric station; steam power plant; thermal power plant; thermal power station; thermoelectric station*  
es *central térmica; central termoeléctrica*  
fr *centrale thermique; centrale thermoélectrique*  
☞ **baterako sorkuntza; ziklo konbinatuko zentral elektriko**

## zentral termoelektriko

☞ **zentral termiko**

## zentrifugazio

*Alderdi fisikoak, zarata, dardarak, erradiazioak*

Hondakin-uren tratamenduan, uretako hondakin solidoak indar zentrifugoaren bidez dentsitatearen arabera bereizteko eragiketa.

en *centrifugation*  
es *centrifugación*  
fr *centrifugation*  
☞ **hondakin-uren arazketa**

## zepa

*Hondakinak, kutsatzaileak, kutsadura*

Galdaketan, metalak arazteko urtean, harrikatza erretzean eta hiri-hondakin solidoak errausteko labeetan eratzen den hondakin solidoa. Konposizioa jatorriaren arabera da (galdaketakoak kargen eta eranskinen parte ez-metalikoen oxidoez osatuak daude). Zoladurak eta zementuak egiteko erabil daitezke, eta, fosforo-eduki nahikoa badute (Thomas zepa), ongarritarako ere erabil daitezke.

en *slag*  
es *escoria*  
fr *scorie*

## zero isuri

☞ **isuririk ez**

## zesio

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 55 duen elementu kimikoa (Cs). Metal alkalino biguna da, zuri-horixka eta oso erreaktiboa. Zelula fotoelektrikoetan erabiltzen da.

en *caesium; cesium*

es *cesio*

fr *césium*

☞ **potasio**

## zigilatze

*Arriskuak, segurtasuna*

Hondakindegia inguruetik guztiz isolatzeko eragiketa, hondakinak kanpora isur edo iragaz ez daitezen eta barrura euri-ura edo bestelako likidoak sar ez daitezen egiten dena. Ondoren, hondakindegia dagoen paisaia leheneratzeko lanak egiten dira.

en *capping; sealing*

es *sellado*

fr *encapsulation; gainage*

## ziklo biogeokimiko

*Biosfera / Ikerkuntza, zientziak*

Bizirako beharrezko diren elementu kimikoek geosfera eta biosferan barrena parte hartzen duten prozesu fisiko, kimiko eta biologikoez osatutako zikloa.

en *biogeochemical cycle*

es *ciclo biogeoquímico*

fr *cycle biogéochimique*

☞ **karbonoaren ziklo; nitrogenoaren ziklo; oxigenoaren ziklo**

## ziklo hidrológico

☞ **uraren ziklo**

## ziklo konbinatuko zentral elektriko

*Antroposfera (ingurune biritarra, giza kokalekuak)*

Energia elektrikoa lortzeko gas-turbina batez eta haren ihes-gasen beroa berreskuratuz sortutako ur-lurrinak ibilarazitako lurrin-turbina batez baliatzen den zentral elektriko.

en *combined cycle electric generating plant; combined cycle plant; combined cycle power plant*

es *central eléctrica de ciclo combinado; planta de ciclo combinado*

fr *centrale électrique à cycle combiné*

☞ **zentral elektriko; zentral termiko**

## zikloi

1 ☞ **depresio**

2 SIN: bereizgailu zentrifugo

*Industria, lanbideak, teknologia, ekipamendua*

Indar zentrifugoaz baliatuz fluido batek bere baitan daramatzan zatiki solidoak bereizten dituen gailu mekanikoa.

en *centrifugal collector; centrifugal separator; cyclone; cyclone collector;*

*cyclonic collector*

es *ciclón; colector centrifugo; separador ciclónico*

fr *collecteur centrifuge; cyclone*

☞ **hidrozikloi**

## zikloi tropikal

*Atmosfera*

Tropikoen inguruetan, itsasoaren gaineko atmosferan, sortu ohi den depresio handia, oso haize bortitzak, euria eta trumoi-erasoa ekartzen dituena. Tokian tokiko izena eman ohi zaie: tifo, urakan, etab.

en *tropical cyclone*

es *ciclón tropical*

fr *cyclone tropical*

☞ **depresio**

## zingira

SIN: istinga

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Ur geldizko eremu ez oso sakona, lohitsuia eta landare ugari izaten duena.

en *fen; marsh; swamp*

es *ciénaga; pantano; trampa; tremedal*

fr *marais; marécage*

☞ **ekosistema; hezegune**

## zingiradi

SIN: istingadi

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Zingirak dauden tokia, sakonera txikiko ur geldi lohitsuak zabaltzen diren eremua.

en *marshland; swampland; swampy area*

es *pantanal; zona pantanosa*

fr *région marécageuse; terrain marécageux*

☞ **hezegune**

## zink

*Kimika, substantziak, prozesuak*

Zenbaki atomikoa 30 duen elementu kimikoa (Zn). Metal zuri-urdinxka da. Galvanizatze eta aleazio batzuetan erabiltzen da (letoi, alpaka...). Mikromantenua da, entzima askoren osagaia delako. Metalen artean arrisku gutxien dutenetakoa den arren, industriako emisioetan dagoen zinka inhalatzeak biriketako gaitzak eragiten ditu, eta haren konposatu batzuk kartzinogeno izan daitezke. Zinka ez da metatzen elikatze-sarean.

en *zinc*

es *zinc*

fr *zinc*

## zohikatz

*Produktuak, materialak*

Landareen deskonposizio partzialaren emaitza den gai ilun eta harroa, ur ugaria eta oxigenazio urria duten belardi, zingira eta antzekoetan sortzen dena. Harrikatzen berriena da (zenbaitzuek ez dute harrikatzen artean sailkatzen), eta, beraz, karbono-edukirik txikienekoa. Bero-ahalmen txikiko erregaia da (lehortuta, 17 MJ/kg-ko berotze-ahalmena izan dezake, gehienaz ere). Zohikatzaren diagenesiaz, lignitoa eratzen da.

en *peat*  
es *turba*  
fr *tourbe*  
👉 **harrikatx**

## zohikaztegi

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Zohikatza sortzen eta metatzen den tokia, mendi silizeoetan agertu ohi dena. Maila freatikoa luraren azaletik gertu dagoen eremu urez ase edo zingiratsua izaten dira, goroldioz estaliak eta tenperatura hotzekoak. Eskuarki euri-ura bakarrik jasotzen dutenez, nahiko pobreak izaten dira; hau da, kare-harrizko mendietan agertu ohi diren eta lur azpiko edo isurketako urak ere jasotzen dituzten lintzurekin alderatuz gero, mantengai mineralen kontzentrazio txikiagoa eta landare-konposizio desberdin gutxiago izaten dute. Euskal Herrian zohikaztegi gutxi dago, tenperatura altuegia delako

en *bog; peat bog*  
es *turbera*  
fr *tourbière*  
👉 **ekosistema; hezegune; lintzura**

## zona eufotiko

*Hidrosfera*

Ur-masa batean, goiko geruza argitua, fotosintesia gertatu ahal izateko adina argi iristen dena.

en *euphotic zone*  
es *zona eufótica*  
fr *zone euphotique*  
👉 **zona litoral**

## zona litoral

*Antroposfera (paisaia, geografia)*

Ur-masa batean, argia hondoraino iristen den sakonera txikiko aldea, eskuarki substratuari itsatsitako algek kolonizatuta dagoena.

en *littoral zone*  
es *zona litoral*  
fr *zone littorale*  
👉 **zona eufotiko**

## zooglea

*Biosfera*

Iragazki biologikoaren zatiki iragazleen azalean eratzen den muzilago-geruza, elkarri atxikitako mikroorganismo osatua.

en *zooglea; zoogloal film*  
es *zooglea*  
fr *film de zooglée; zooglée*  
👉 **iragazki biologiko**

## zooplankton

*Biosfera*

Planktonaren parte diren animalien multzoa.

en *zooplankton*  
es *zooplancton*

fr *zooplancton*  
👉 **plankton**

## zorupe

*Litosfera*

Benetako lurzoru edo *solum*-aren eta arroka amaren arteko geruza. Meteorizatzen hasitako arroka amaren materialek osatzen dute. Eskuarki, lurzoruaren ataltzat hartzen da.

en *subsoil*  
es *subsuelo*  
fr *sous-sol*  
👉 **lurzoru**

## zuhaitz aparteko

*Ingurumen-politika*

Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen arabera, tamaina, adina, historia edo bestelako ezaugarri nabarmenengatik babes berezia merezi duela aitortzen zaion zuhaitza.

es *árbol singular*  
👉 **natur gune babestu**

## zuhurtasun-printzipio

*Arriskuak, segurtasuna / Ingurumen-politika*

Ingurumenean kalte larri edo itzulezinak eragiteko arriskua dagoenean, erabateko ziurtasun zientifikorik ezak kostu ekonomikoa duten neurriak ez hartzeko arrazoia izan behar ez duela dioen printzipioa. Beste modu batera esanda, ingurumenari buruzko erabakiak hartu behar direnean, osasunean kalteak eragin ditzaketen arrisku-egoerak saihestea beharrezkoak ez diren gastu ekonomikoak saihestea baino garrantzitsuagoa dela dioen printzipioa.

en *precautionary principle*  
es *principio de cautela; principio de precaución*  
fr *principe de précaution*

## zurrumbilo

➔ **turbulenzia**